

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

5040

139/2016 DEKRETUA, irailaren 27koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duena.

Biosfera Erreserbak Unescok bere Man & Biosphere programaren barnean sortutako figurak dira, eta hiru helburu dituzte: natura kontserbatzea, garapen jasangarria eta laguntza logistikoa, ezagutza zientifikora eta jasangarritasunerako hezkuntzara zuzendua. Esperientzio-eremu eta esperientzia-laborategi gisa konfiguratzeko dira, haietan bizi diren pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko kontserbazioaren eta garapen jasangarriaren arteko oreka lortzeko helburuarekin.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen bitartez arautzen da. Hala, legearen 1. artikuluko Urdaibaiko Biosfera Erreserbarako araubide juridiko berezia ezartzea du helburu, hark dituen ekosistemen osotasuna babesteko eta horiek lehengoratzeko xedearekin; eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plan (EKZP) bat idaztea aurreikusten du 15. artikuluan. Aurreikuspen horri jarraikiz, abuztuaren 2ko 242/1993 Dekretua onartu zen, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana ezarri zuena; hari aldaketa batzuk gehitu zaizkio otsailaren 11ko 27/2003 Dekretuaren eta uztailaren 22ko 181/2003 Dekretuaren bitartez.

5/1989 Legearen 15. artikuluan eta Plan Gidariaren 9. artikuluan, hura berrikustea aurreikusten zen indarrean jarri eta hamar urtera. Agindu hori betetzeko, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuaren 2009ko abenduaren 11ko osoko bilkuraren akordioa lortu ostean, Plan Gidaria aldatzeko prozesua abiarazi zen Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 2010eko urtarrilaren 28ko Agindu bidez. Prozesu horretan, hautemandako premiei aurre egiteko aldaketa bat nahikoa ez zela eta aurrekoa ordeztuko zuen Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plan berri bat idatzi behar zela egiaztatu zen.

Plan honek 5/1989 Legearen 15. artikuluan aipatutako zehaztapenei erantzuten die. Bere konfigurazioan, Biosfera Erreserbek espazioaren antolaketa izan behar dute, eta, bertan, honako hauek jaso behar dira: Guneko zonak, Gunea Babesteko zonak, eta Trantsizioko zonak, Unescoren Estatutu Esparruan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legean aurreikusiarekin bat etorritik. Alderdi hori behar bezala islatzen da Plan honetan.

Plan hau bost tituluz osaturiko testu artikulatu batean egituratzen da, eta horiek, dokumentazio grafikoarekin batera, planaren arau-multzoa osatzen dute.

I. tituluak hiru kapitulu hauek ditu: lehenengoak ohar orokorrak jasotzen ditu, hala nola tresnaren aplikazio-eremua eta xedea, egitura, eskumen-araubidea, helburuak lortzeko aurrekusi diren partaidetza publikorako bitartekoak eta organoak, eta horretarako aurrekusi diren bitarteko finantzarioak; bigarrenak, Plana berrikusteko eta aldatzeko aukerak identifikatzen ditu, baita horiek izapidetzeko prozedura ere; eta, amaitzeko, hirugarrenak, Biosfera Erreserben hiru helburu nagusiekin (kontserbazioa, garapen jasangarria eta laguntza logistikoa) lotutako egiturazko ikuspegi batetik, Planaren helburu nagusiak zerrendatzen ditu; azken horiek bertan jasotako arauak eta zehaztapenak zehazteko kontuan hartu dira, eta behar bezala bete beharko dira haren garapean, V. tituluaren aurrekusten diren tresnen bidez.

II. tituluak Biosfera Erreserbako lurraldean bereizten diren hiru kategorian nagusien (Gunea, Gunearen Babesa edo Amortiguazioa eta Trantsizioa) ezaugarriak definitzen eta deskribatzen ditu. Era berean, kategorian horietako bakoitzaren barnean bereizten diren eremuak eta zonak identifikatzen ditu. Plan honek, haren interpretazioa bateratzeko eta ahalbidetzeko asmoz, berriz izendatzen eta jasotzen ditu lehengo kalifikazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) eta horien garapenean zehar onartu diren lurralde-plan sektorialetan erabiltzen den terminologiara egokitzeko helburuarekin.

Era berean, II. tituluak zenbait berrikuntza jasotzen ditu aurreko EKZParekin alderatuta. Kasu batzuetan, arloko araudian alde zurretik zehaztutako babes-elementuak Gune Planean txertatzeak eragin ditu berrikuntza horiek, eta beste batzuetan, berriz, lurraldean ordura arte bere izaerari egokitutako tratamendurik ez duten eremuak identifikatzeak. Hala, eremu berri bat sortu da Gune kategorian, eta, hari esker, babes bereziko erregimen horretan sartu ahal izango dira Biosfera Erreserbako ibai-ibilguak. Era berean, Gunearen Babes edo Amortiguazio kategoriak itsasadarreko eta kostaldeko zonetatik bereizten ditu ibai-ibilguak babesteko zonak. Bigarren multzoan, Gunea Babesteko kategorian berriak sortzen dira, hala nola Baso Autoktonoen Eremua, erabilgarritasun publikoko mendiak edo ibai-sarearen arro isurleak Babesteko Zonak.

III. tituluaren xedea da orain arte definizio zehatzik izan ez duten alderdi batzuetan sakontzea eta horiei ekitea, hala, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erregulazioa eta kudeaketa modu eraginkorrean eta positiboan egin ahal izateko. Hala, ahalik eta zehaztasun handienarekin identifikatzen eta sailkatzen ditu lurzoruen erabilerak eta eraikuntza-ekintzak, baita eraikuntzako esku-hartzeen tipifikazioa ere. Gainera, eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak egiteko beharrezko ohar estetikoak jasotzen ditu, eta partzelazioaren balizkoak zehazten eta erregulatzen ditu bere aplikazio-eremuan, bereizte balizkoak zehaztearekin batera. Planak lurzoru urbanizaezineko bizi-tegi-eraikinak zatitzeko esku-hartzeen eta ordezkapenerako esku-hartzeen tipifikazioa jasotzen duela azpimarratu behar da, eta hori guztia Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean urte hauetan guztietan zehar egindako eraikuntzako esku-hartzeei dagokienez egindako azterlanean, jarraipenean eta ikerkuntzan oinarrituta.

IV. titulua Planaren exekuzio zuzenari buruzkoa da, eta bertan zehaztutako erabilerak xehatuta ezartzera bideratuta dago.

Azkenik, V. tituluak Planaren garapenerako aurreikusten diren tresnak identifikatzen eta erregulatzen ditu, tresna horiek ingurumen, lurralde eta hirigintzaren arloko legediaren zeharkako integrazioaren emaitza baitira. Era berean, txostenen gai diren espedienteak izapidetzeko prozedura jasotzen du, hura birformulatu egin baita sinplifikazio administratiboa lortu eta administrazioen arteko erantzunkidetasuna bilatzeko helburuarekin.

Bestalde, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan Natura 2000 Sareko 4 leku daudela azpimarratu behar da: Urdaibaiko Ibai Sarea (ES2130006), Urdaibaiko kostalde- eta padura-zonak (ES2130007), Urdaibaiko Artadi Kantauriarrak (ES2130008) Kontserbazio Bereziko Eremuak, eta Urdaibaiko Itsasadarraren (ES0000144) Hegaztientzako Babes Bereziko Zona. Horrenbestez, Plan honetako IV. tituluak ekainaren 4ko 358/2013 Dekretuan zehaztutako arauak txertatzeari ekin dio. Haren bidez, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen dira Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden Batasunaren Garrantzizko 4 Leku, eta KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak onartzen dira. Ez da gauza bera gertatzen aipatutako Dekretuak jasotzen dituen beste kontserbazio-neurriekin, horiek indarrean jarraitzen baitute.

Horrenbestez, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 15. artikuluekin bat etorriz, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuak

proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2016ko irailaren 27an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzea, Dekretu honi erantsita dagoena.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) – Urdaibaiko Ibai Sarea (ES2130006), Urdaibaiko kostalde- eta padura-zonak (ES2130007), Urdaibaiko Artadi Kantauriarrak (ES2130008)– eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) – Urdaibaiko Itsasadarra (ES0000144)– Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan daude eta ekainaren 4ko 358/2013 Dekretuaren bitartez arautzen dira. Haren bidez, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dira Urdaibai eta Gaztelugatxe Donieneko eremuan dauden Batasunaren garrantzizko 4 leku, eta KBE horien eta Urdaibaiko Itsasadarreko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren kontserbazio-neurriak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

EKZP prestatzeko erabili diren eta kudeaketarako orientazio-irizpide gisa hartu diren Urdaibaiko Biosfera Erreserbako habitat, flora eta faunako espezie eta ondare geologikoko elementu garrantzitsuak identifikatzen dituzten datuen zerrendak etengabe eguneratuta mantenduko dira ingurumen arloko eskumena duen Sailaren web-orriaren bitartez.

Era berean, web-orri horretan eguneratuta mantenduko dira ondare arkeologikoaren elementuak eta ondare historiko-artistikoko elementuak jasotzen dituzten zerrendak, eta, halaber, horiek kudeaketarako orientazio-irizpide gisa erabiliko dira.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Foruko udal-mugarteko Peña Forua harrobia berreskuratzeko proiektuaren lurralde-eremuan, natura-ingurunea berreskuratzeko eta lehengoratzeko ekintzak salbuespeneko izaeraz baimenduta egongo dira denboraldi jakin baterako, betiere Urdaibaiko Biosfera Erreserba babesteari eta antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 14. artikuluan aurreikusitakoari eta organo eskudunek onartutako berreskuratze-proiektu teknikoei jarraikiz.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Plan Orokorren formulazio-, berrikuspen- edo aldaketa-prozesuetan txertatuta dauden eta Plan hau indarrean jarri den garaian onartu ez diren Urdaibaiko Erreserbaren eremuan kokatutako udalerrien hirigintza-dokumentuak bertan jasotako xehetasunetara egokitu beharko dira.

Edonola ere, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana indarrean den udalerriko hirigintza-planigintza orokorraren gaintik egongo da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira honako xedapen hauek:

a) 242/1993 Dekretua, abuztuaren 3koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana onesten duena.

2016ko azaroaren 28a, astelehena

b) 313/1992 Dekretua, azaroaren 24koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserba babesteari eta antolatzeari buruzko Legea garatzen duena, Patronatuaren txostenak bidaltzeari buruzkoa.

c) 27/2003 dekretua, otsailaren 11koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana aldatzen duena.

d) 2004ko azaroaren 18ko Agindua, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuarena, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Artadi Kantauriarren Lurralde Ekintzarako Plana behin betiko onartzeko duena.

e) Dekretu honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo baxuagoko arauak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Xedapen honen bitartez, ekainaren 4ko 358/2013 Dekretuaren 1.3 artikulua aldatzen da. Haren bidez, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen dira Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden Batasunaren garrantzizko 4 leku, eta KBE horien eta Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak onartzen dira.

358/2013 Dekretuaren 1.3 artikulua honela geratuko da idatzita:

«3.– Dekretu honetan eranskin gisa txertatu diren Urdaibaiko Itsasadarreko Kontserbazio Bereziko Eremuen (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren (HBBE) (ES0000144) kontserbazio-neurriak onartzea. Neurri horietako batzuen aplikazio-eremuak Natura 2000 guneen mugak gainditzen ditu.

Urdaibai Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean ez da aplikagarria izango Dekretu hone-tako 3.1.c) artikuluan aipatzen den araudia, eta haren erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana aplikatuko da.»

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 27an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

IRAILAREN 27KO 139/2016 DEKRETUAREN ERANSKINA

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1.1 KAPITULUA

KONTSIDERAZIO OROKORRAK

1.1.1 artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

- 1.– Plan hau Unescoren MaB Programako Estatutu Esparruaren eta Urdaibaiko Biosfera babesteari eta antolatzeari buruzko 5/1989 Legearen helburuak betetzeko ezartzen da, baita lege horretako 15. artikuluan ezarritakoa garatzeko ere.
- 2.– Haren aplikazio-eremua Urdaibaiko Biosfera Erreserba izango da, 5/1989 Legeak eta hirigintza-araudiak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen duten eta Plan honen dokumentazio grafikoan mugatzen den lurzoria. Plan honetako kartografia eguneratuta mantenduko da, eta Eusko Jaurlaritzaren web-orriaren eta Geoeuskadi plataformaren edo xede horretarako antzeko beste sistema batzuen bidez eskuratu ahal izango da.
https://www.euskadi.eus/y22-bopvmap/es?conf=BOPV/capas/D_139_2016/urdaibai.json

1.1.2 artikulua.– Zehaztapen orokorrak.

- 1.– Bere helburuak betetzeko, Plan honek honako zehaztapen hauek jasotzen ditu:
 - a) Helburu orokorrak, titulu honetan jasotzen diren erabilerarekin lotutako jasangarritasun-irizpideak oinarritzat hartuta.
 - b) Kategorizazioa, Unescok definitutako estatutu-esparruarekin eta natura-ondareari eta dibertsitateari buruzko 42/2007 Legeak, Biosfera Erreserben Sareari buruz ezartzen duenarekin bat etorritik, espazioa antolatzeko hiru kategoria hauek ezartzen baititu: Gunea, Gunearen Babes edo Amortiguazioa, eta Trantsizioa. Horrez gain, lurzoruaren kalifikazioa, lurralde-antolamenduko tresnetan eta II. tituluaren jasotako Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintzako legedian ezarritakoarekin bat etorritik.
 - c) Plana gauzatzeko beharrezko erregulazioak, eta kategoria eta kalifikazio bakoitzerako araubidea.
 - d) Egokitzen dituzten eremu eta zona edo erabileren antolamendu zehatzagoa egiteko aurreikusten diren garapen-erremintak, V. tituluaren jasotzen direnak.
- 2.– Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana hirigintza-plangintzaren gainera egongo da. Plan honetako zehaztapenak indarrean den hirigintza-plangintzako araudiarekin bateraezina direnean, azken hori ofizioz egokituko dute eskumena duten organoek. Egokitzapen hori egiten den bitartean, Plan honetako zehaztapenak aplikatuko dira beti, bitarteko horien gainera.

1.1.3 artikulua.– Planaren egitura.

- 1.– Honela egituratzen da Plana:
 - a) Dokumentazio idatzia:
 - i) Testu artikulatua.
 - b) Agiri grafikoak:
 - i) Antolamendu-planoak. Kategoriak, Eremuak eta Zonak.
- 2.– Dokumentazio idatziaren eta grafikoaren artean desadostasunik edo bat ez etortzerik sortuz gero, lehenengoa nagusituko da.

1.1.4 artikulua.– Administrazioen arteko harremanak.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua da, 5/1989 Legeak ematen dizkion eginkizunen eta betekizunen barnean, Plan honek ezartzen dituen politika sektorialetako printzipio gidarien inguruan koordinazioa eta gobernantza ahalbidetzen dituen organoa.

Aurreko lerrokadan adierazitakoaz gain, eta 5/1989 Legearen eta Plan honen helburuak betetze aldera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren lurralde-eremuan eragiten duten eskumenak dituzten agintari publiko guztiek kooperazioaren, elkarrekiko informazioaren, lankidetzaren eta koordinazioaren printzipioetara egokitu beharko dituzte beren harremanak, Plan hau gauzatzeko eta garatzeko unean. Era berean, Plana betetzeaz arduratuko dira, 5/1989 Legearen 18.3 artikuluan zehaztutakoaren arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuari hainbat betekizun eta eginkizun badagozkie ere.

1.1.5 artikulua.– Partaidetza publikorako bitartekoak eta organoak.

1.– Plan honek, Biosfera Erreserben Sarerako ezarritako helburuekin bat etorritik, partaidetza publikoa bermatu beharko du. Honako hauek izango dira horretarako bideak:

- a) Informazio publikorako prozedurak planak eta araudia prestatzeko unean.
- b) Hezkuntza-bitartekoak eta informazio zientifikoa eta teknikoa elkarrekin trukitzea.
- c) Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lankidetzaren Kontseilua.
- d) Gizartearen partaidetzarako ezartzen diren beste bide batzuk.

2.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lankidetzaren Kontseilua eztabaida-organo bat da; hura Patronatuaren kolaboratzailea da, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan diharduten gizarteko hainbat sektore –auzo-elkarteak, eta ekonomia, zientzia, hezkuntza, kultura eta ingurumenaren arlokoak– ordezkatzen dituzten erakundearen partaidetzarako bide gisa jarduten du. Organo hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lankidetzaren Kontseilua sortzen duen otsailaren 14ko 164/1995 Dekretu bidez arautzen da.

1.1.6 artikulua.– Urteko Plan Integrala.

1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserba babesteari eta antolatzeari buruzko 5/1989 Legeak ezartzen duenari kalterik egin gabe, eta hark dituen eskumen sektorialekin bat etorritik, Urdaibaiko Biosfera Erreserban eskumena duten administrazio publikoek urtero aurkeztu eta/edo jakinaraziko dituzte, Patronatuaren urteko azken osoko bilkuran, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburuak betetzeko ekitaldi bakoitzean aurreikusten diren planak, programak edo proiektuak.

2.– Informazio hori guztia osoko bilkuran aurkeztuko da, Urteko Plan Integrala eratu ahal izateko.

1.1.7 artikulua.– Mekanismo finantzarioak.

1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserban eskumena duten administrazio publikoek, beren aurrekontuen kargura eta beren eskumen-esparruaren barnean, Plan hau garatzeko proiektuak eta ekintzak finantzatu eta gauzatu dituzte.

2.– Era berean, administrazio publikoek beste erakunde publiko eta pribatu batzuekiko lankidetzaren bultzatu ahal izango dute, Plan honetan aurreikusten diren helburuak betetzeko funtsak bideratzeko.

3.– Araudi honek eragindako erabilera- eta aprobetxamendu-mugak 5/1989 Legearen adierazitako terminoetan konpentsatuko dira.

Administrazio publikoek sustapen-neurriak onartu ahal izango dituzte, zerga-pizgarri, diru-laguntza eta laguntza publiko, lurraldea zaintzeko mekanismo, ingurumen-zerbitzuengatik ordainketa, ingurumen-funts edo berariaz ezartzen diren beste mekanismo finantzario batzuen bidez.

1.2 KAPITULUA

PLANA ALDATZEA ETA BERRIKUSTEA

1.2.1 artikulua.– Berrikustea eta aldatzea.

- 1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserba babesteari eta antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzari dagokio Plan hau idaztea, berrikustea eta aldatzea, ingurumenaren arloan eskumena duen Sailaren bitartez.
- 2.– Plan honen indarraldia mugagabea da, baina berrikusi egin beharko da honako kasu hauetan:
 - a) Indarrean sartzen denetik hamar urteko epea igarotzen denean.
 - b) Goragoko mailako arauen batek edo batera gertatutako gertakariren batek eragiten dionean, eta horiek dokumentuaren funtsezko berrikuspen orokorra egitea eragiten badute dokumentua onartzeko unean kontuan hartutako lurralde-eredua aldatzen dutelako, eta, hala, hura mailan berritatzat har badaiteke, eta ez alderdi puntualei eta osagarriari bakarrik dagokienez.
- 3.– Aldaketatzat hartuko da aurreko zenbakian jasotzen ez den Plan honen edukian egindako berrikuspen oro.

Edonola ere, Plan honetan aurreikusten ez diren eta ezinbestean landa-ingurunean kokatu behar diren zerbitzu-azpiegitura berriak, komunitatearen ekipamenduak edo bide-azpiegiturak ezartzeko ez da Plana aldatu beharrik izango, horiek Plan honetako V. tituluan zehazten diren garapen-tresnen (Plan Bereziak) bitartez antolatu eta onartuko baitira.

Erakunde sustatzaileek, aurreko atalean aipatutako Garapen Plan Bereziak behin betiko onartu ostean, Patronatuari igorriko diote dagokion dokumentazioa. Ingurumenaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Sailak emandako Aginduaren bidez, eguneratu eta argitaratu egingo da Plan honetako kartografia.

1.2.2 artikulua.– Berrikuste-prozedura.

- 1.– Prozedura ofizios abiaraziko du Eusko Jaurlaritzak, ingurumenaren arloan eskumena duen Sailaren bidez, Patronatuak eskatuta edo haren ekimen bidez, betiere aldeztu aurretiko erabakia hartu ostean.
- 2.– Ingurumen-ebaluazio estrategikorako araudiak ezarritakoari kalterik egin gabe, Plan hau berrikusteko unean ezinbestean bete beharko dira prozedurako honako izapide hauek:
 - i) Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren akordioa, hura baita Planaren organo sustatzailea, prozedura abiatzeko.
 - ii) Partaidetza-saioak egitea, berrikuspenerako helburu eta proposamen orokorrak definitzeko. Horren aurretik, Osoko Bilkuraren Batzorde Iraunkorrek partaidetza-prozesuaren gidalerroak ezarriko ditu.
 - iii) Osoko Bilkuraren Batzordeak berrikuspenerako diagnostikoa, helburuak eta proposamenak jasotzen dituen dokumentua onartzea.
 - iv) Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak hasierako onespina ematea.

Hasierako onespina-akordioak hemezortzi (18) hilabeteko epea finkatuko du gehienez ere, eta epe horretan ezin izango da ingurune fisikoaren eraldaketa nabarmenak eragin ditzakeen inolako ekintzarik gauzatu, hark berrikusten ari den dokumentuaren helburuak lortzea galarazi edo nabarmen zailtzen badu. Epe hori ezarritako gehienezko epea igarotzen denean iraungiko da, baita Plan berrikusia Dekretu bidez behin betiko onartzen denean ere.
 - v) Jendaurreko informazioaren izapideak betetzea, eta administrazio publikoei eta publiko interesdunari audientziak egitea, bi hilabeteko epean.
 - vi) Herritarren eta erakundearen partaidetza, eta esposizioaren emaitza gaineratuko duen Plan-proposamen bat egitea. Hasierako onespina jaso duen dokumentua aldatzeko proposamenik erantsiz gero, proposamen horien irismena adierazi beharko da, hura funtsezkoa izan ala ez.
 - vii) Patronatuaren Osoko Batzarraren txostena.

- viii) Dokumentuaren behin-behineko onespena, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren aldetik. Dena den, Osoko Batzarrean adierazitakoak hasieran aurreikusitako antolamenduaren funtsezko aldaketak eraginez gero, ingurumenaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren Sailak haren hasierako onspen berria erabakiko du, eta jendaurreko informaziorako epe berri bat ireki beharko du.
- ix) Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena.
- x) Plana Dekretu bidez onartzeko beharrezko txosten juridikoak eta txosten sektorialak prestatzea.
- xi) Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak behin betiko onartzea, Dekretu bidez.

1.2.3 artikulua.– Aldaketa-prozedura.

- 1.– Plan honen aldaketak Eusko Jaurlaritzak abiaraziko ditu, ingurumenaren arloan eskumena duen Sailaren bidez, edo Patronatuak eskatuta edo haren ekimen bidez, betiere aldez aurretiko akordioa onartu ostean.
- 2.– Planeko zehaztapen ukituen aldaketa, hurrengo artikuluan adierazten den kasuan salbu, 1.2.2 artikuluan ezarritako prozeduraren bidez egingo da, 2. ataleko ii, iii eta viii. puntuetan deskribatutako izapideak salbu.

1.2.4 artikulua.– Aldaketa-prozedura sinplifikatua.

- 1.– Prozedura hau erabiliko da jarraian aipatzen diren egoeretarako:
 - a) Lurralde-plangintzan ezarritakoaren arabera, eta lurzoruari eta hirigintzari eta ingurumen-inpaktua ebaluatzeari buruzko arauetan jasotzen den prozeduran ezarriaren arabera, hirigintzako udal-plangintzaren bidez lurzoru urbanizaezinaren azalerak handiagotzeko edo murrizteko. Lurzoru urbanizaezina Trantsizio Gainkategoriai eragiten bazaio bakarrik murriztu ahal izango da. Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Nekazaritza Balio Handiko Zonei (T1.A1) eraginez gero, Nekazaritza eta Elikagaigintzako Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeari eta lur horien erabilpena sustatzeari buruzko urriaren 2ko 193/2012 Dekretuan nekazaritza-balio handiko lurretarako ezartzen dena aplikatuko da.
 - b) Kalifikatutako edo inbentariatutako ondasunen adierazpena onartzeko, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearekin bat etorritik.
 - c) Landa Gunearen Zonak –T3.NR– berriz mugatzeko.
 - d) Plan honetan jasotzen ez diren erabilerak eta jarduerak tipifikatzeko, aipatutako beste erabilera batzuen eraginekiko analogia dela eta, sailburuaren agindu bidez egingo da, Patronatuak aldez aurretiko txostena eman ostean.
- 2.– Lurzoru urbanizaezineko azalerak handitzeko edo murrizteko aldaketa izaera orokorreko hirigintzako udal-plangintza bidez gauzatuko da. Plan honen ondorioetarako, aldaketa izapidetzeko V. tituluaren arautzen diren txostenak beharko dira.

Hirigintzako udal-plangintza behin betiko onartu ostean, horretarako eskumena duen organoak dokumentuaren kopia bat igorriko dio Patronatuari. Ingurumenaren arloan eskumenak dituen Sailak emandako Aginduaren bidez, Plan honetako kartografia eguneratu eta argitaratuko da.
- 3.– Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearekin bat etorritik kalifikatu edo inbentariatutako ondasunaren adierazpenari dagokion onspena aldatzen bada, horretarako organo eskudunaren ebazpena onartu eta argitaratu beharko da. Horretarako, ondasunaren adierazpenaren jendaurreko informazioko fasean zehar, eskumena duen organoak Patronatuaren Osoko Batzarraren txostena eskatuko du.

Adierazpen horrek eremuaren kalifikazioa aldatuko du, eta hura Kultura Intereseko Eremu (N.5) bihurtuko da.
- 4.– Landa Gunearen Zonak –T3.NR– berriz mugatu behar izanez gero, hori hirigintzako udal-plangintza orokorraren edo Plan Berezi baten bitartez egingo da. Plan honen ondorioetarako, aldaketa izapidetzeko V. tituluaren arautzen diren txostenak beharko dira.

Hirigintzako udal-plangintza behin betiko onartu ostean, horretarako eskumena duen organoak dokumentuaren kopia bat igorriko dio Patronatuari. Ingurumenaren arloan eskumenak dituen Sailak emandako Aginduaren bidez, Plan honetako kartografia eguneratu eta argitaratuko da.

1.3 KAPITULUA

HELBURUAK, GIDALERROAK ETA JASANGARRITASUN-ADIERAZLEAK

1.3.1 artikulua.– Helburu orokorrak.

Honako hauek dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburu orokorrak:

A) EGITURAZKO HELBURUAK.

- 1) Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuko administrazio, erakunde eta elkarte guztien partaidetzan, lankidetzan eta kontsentsuan oinarritutako kudeaketa jasangarriko eredu bat sustatzea, gobernantza-eredu bat finkatuz, eta Urdaibaiko administrazio kudeatzaileen eta gizartearen arteko partaidetza eta elkarriketarako espazioak sustatzea.
- 2) Erabakiak hartzeko orduan ingurumen-, ekonomia-, gizarte-, kultura- eta hizkuntza-alderdiak jasotzea, etorkizuneko belaunaldien premiak hipotekatu gabe.
- 3) Urdaibaiko Biosfera Erreserbarako lurzoru-antolamendu eta -erabilerak esleitzea, Gune, Gunearen Babes eta Trantsizio kategorien eginkizunak bermatzeko helburuarekin.
- 4) Urdaibaiko Biosfera Erreserba entsegurako leku gisa erabiltzea, klima-aldaketaren aurrean egokitze- eta arintze-neurriak abian jartzeko eta, oro har, garapen jasangarria sustatzeko, ekosistemek gizakiari eskaintzen dizkioten zerbitzuak mantentzeko neurriak aplikatzeko.
- 5) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko prozesuetan ingurumenaren babesaren lehentasuna lurzoru-kontsumoaren gainetik ezartzea, Plan honek eta haren erabilera-araubideak ezartzen dituzten antolamendu-kategoriak eta -kalifikazioak kontuan hartuta.
- 6) Beste Biosfera Erreserba batzuekin lankidetzan, koordinazioa eta jakintza-trukea bultzatzea eta areagotzea.

B) KONTSERBAZIO-HELBURUAK

- 1) Habitat eta espezie naturalak, natura-dibertsitatea (geodibertsitatea eta biodibertsitatea), Interes Geologikoa duten Lekuak, paisaia eta korridore ekologikoak mantentzea, babestea, lehengoratzeta, modu arautuan eta jasangarrian erabiltzea, funtsezko prozesuen babesa ziurtatuz eta gizakiari eskaintzen dizkioten zerbitzuak bermatuz, baita horien hedapena eta sustapena ere.
- 2) Lur gaineko eta lurpeko ur kontinentalak, tarteko urak eta kostakoak mantentzea, babestea, lehengoratzeta eta modu arautuan eta jasangarrian erabiltzea, horien narriadura saihestuz; eta ur- eta lur-ekosistemen eta zuzenean horien mendean dauden hezeguneen ingurumen-egoera mantentzen edo, hala badagokio, lehengoratzen dela sustatzea, behar dituzten gutxieneko emari ekologikoei dagokienez bereziki, muturreko fenomenoak (lehorteak, uholdeak) eraginak eta ingurumeneko beste kutsadura-arazo batzuk murrizteaz gain.
- 3) Lurzorua babestea, hark duen nekazaritza-balioagatik eta biodibertsitatearen eta paisaiaren euskarria eta bermea izateagatik, baita desertizazio- eta higadura-prozesuak bridatzeko edo saihesteko duen gaitasunagatik ere.
- 4) Atmosfera-, argi- eta biologia-kutsadura, kutsadura elektromagnetikoa eta zarata prebenitzea eta murriztea.
- 5) Giza jarduerak sortutako hondakinak modu egokian kudeatzea, jatorrizko prebentzioa, horiek murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea sustatuz, baliabideen ekonomia itxia eta zirkularra bultzatuz, eta benetako ingurumen-kostuak (birziklatze- eta isurtze-kostuak, etab.) barneratuz.
- 6) Interes artistikoa, arkitektonikoa, historikoa, arkeologikoa, etnografikoa, dokumentala, bibliografikoa, linguistikoa, zientifikoa eta abar duten kultura-intereseko ondasun material eta immaterial guztiak osatzen duten kultura-ondarearen babesa, hedapena eta sustapena bultzatzea.

C) GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba Nazio Batuek onartutako Agenda 2030 dokumentuan jasotako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) lortzen lagunduko du:

- 1. helburua: mundu osoko pobrezia amaiara ematea, bere adierazpen guztietan

2016ko azaroaren 28a, astelehena

- 2. helburua: gosearekin amaitzea, elikadura-segurtasuna lortzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea
- 3. helburua: adin guztietan, bizitza osasuntsua eta ongizatea bermatzea
- 4. helburua: hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea, eta ikasteko aukerak sustatzea, guztientzat eta adin guztietan
- 5. helburua: genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea lortzea
- 6. helburua: pertsona guztientzako ura eta saneamendua eskura izango direla eta modu iraunkorrean kudeatuko direla bermatzea
- 7. helburua: energia merke, ziurra, jasangarria eta modernoa guztien eskura izango dela bermatzea
- 8. helburua: hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegua, enplegu produktiboa eta lan duina ere
- 9. helburua: azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria sustatzea, eta berrikuntza bultzatzea
- 10. helburua: herrialdeen arteko eta herrialdeen barneko desberdintasunak murriztea
- 11. helburua: hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezela lortzea
- 12. helburua: kontsumo- eta ekoizpen-eredu jasangarriak bermatzea
- 13. helburua: klima-aldaketari eta hark eragindako ondorioei aurre egiteko presazko neurriak hartzea
- 14. helburua: ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak garapen jasangarrirako modu jasangarrian kontserbatzea eta erabiltzea
- 15. helburua: lurreko ekosistemen erabilera jasangarria babestea, berrezartzea eta bultzatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiaraztea eta iraultzea, eta dibertsitate biologikoaren galera etetea
- 16. helburua: garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztiek justizia eskura izan dezagula bermatzea, eta maila guztietan erakunde eraginkorrak, arduratsuak eta inklusiboak sortzea
- 17. helburua: garapen Jasangarrirako exekuzio-baliabideak indartzea eta munduko aliantza biziberritzea.

Helburu horiek berrikusi eta zehaztu egingo dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako jarduera sozioekonomikoen egokitzapen eta garapenerako programa onartzen duen irailaren 29ko 258/1998 Dekretua berrikusten denean.

D) LAGUNTZA LOGISTIKOAREN HELBURUAK:

- 1) Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburuekin lotutako jakintza-esparru guztietan ikerkuntza bultzatzea eta sustatzea, batez ere giza jardueren eta natura-ingurunearen arteko elkarrekintzari dagokionez, hala, informazio hori, biztanleriaren eta kudeatzaileen esperientziarekin batera, erabakiak hartzeko kudeaketa-tresna bihur dadin.
- 2) Urdaibaiko gizarte-, natura- eta kultura-ondarearen inguruko interpretazioa, balioespena eta jasangarritasunaren arloko hezkuntza sustatzea, horretarako beharrezko bitarteko didaktikoak sustatuz. Jasangarritasunaren arloko hezkuntzarako behar diren ekipamenduak eta materialak sor daitezela sustatzea.
- 3) Biztanleriak jasangarritasunari dagokionez duen gaitasuna bultzatzea, horretarako, hitzaldiak, sinposioak, ikastaroak eta/edo argitalpenak antolatuz eta prestatuz.
- 4) Herritarrei ingurumenari buruzko informazioa ematea bultzatzea.

1.3.2 artikulua.– Helburu orokorren betetze-mailari buruzko jasangarritasun-adierazleak.

Adierazle-sorta bat planteatzen da, Planak planteatzen dituen helburuen gauzatze-maila ebaluatu ahal izateko. Helburuen betetze-maila hiru urtez behin aztertuko da. Gainera, lortutako betetze-mailari buruzko txosten bat

gingo da 10 urte igaro ostean. Horretarako, egiturazko lehen helburuari dagokionez, eskumenak dituzten administrazio guztiek eskatzen zaien informazioa bidaliko dute. Adierazle horiek Planeko helburuen gauzatze-maila zehatzago neurtzen lagun dezaketen beste batzuekin osatu edo ordezkatu ahal izango dira.

A) EGITURAZKO adierazleak.

- 1) Biosfera Erreserban inplementatutako partaidetza-prozesuen kopurua, partaide-kopurua, prozesu horietan nahastutako erakunde-/administrazio-kopurua.
- 2) Patronatuaren Osoko Batzarrak eta zuzendariak/kontserbatzaileak hartutako aldeko eta kontrako akordio-kopurua.
- 3) Plan hau aldatuz edo garatuz areagotu edo murriztu den antolamendu-kategoria bakoitzaren eremua. Urdaibaiko Biosfera Erreserban garapen jasangarrirako ezarritako proiektu berritzaileen kopurua. Klima-aldaketarekin lotutako proiektu-kopurua.
- 4) Lurzoru artifizializatuaren ehunekoa.
- 5) Beste Biosfera Erreserba batzuekin egindako lankidetzaproiektuen kopurua eta horien zenbateko ekonomikoa. Parte hartu den Biosfera Erreserba Sarearekin lotutako ekitaldi-kopurua; beste Biosfera Erreserba batzuetara egindako bisita-kopurua, eta beste Biosfera Erreserba batzuetatik jasotako bisita-kopurua.

B) KONTSERBAZIO adierazleak.

- 1) Babes- edo lehengoratzegarduketak egin diren habitat, espezie, Interes Geologikoko Leku, korridore ekologiko eta kultura-ondareko eremuak eta kopurua. Urdaibaiko KBE eta HBBEko espezie eta habitatetarako ezarritako adierazle espezifikoak.
- 2) Urdaibaiko eremuko arroetako ur-masen kalitatearen estatistika. Plan honek «nekazaritza-interes handiko» gisa kalifikatutako nekazaritzako lurzoruen eremua. Nekazaritza- eta basogintza-erabilerara bideratutako lurzoruen ehunekoa. Biosferako Erreserbaren eremuan aitortutako mendi babesleen kopurua.
- 3) Urdaibaiko eremuko airearen kalitatearen estatistika. Hondakin solido murriztu, berrerabili edo birziklatuen edo zabortegira bidalitakoen tona-kopurua.
- 4) Kultura-ondarea aberasteko, babesteko, hedatzeko eta sustatzeko jarduketa- eta proiektu-kopurua.

C) GARAPEN JASANGARRIAREN adierazleak.

- 1) Nekazaritzako ustiategi profesional eta ez profesionalen kopurua. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzako jardueraren jasangarritasunari eta kalitateari buruzko ziurtagiria duten ustiategiaren edo produktuen kopurua.
- 2) Lurzoru urbanizaezinean kokatuta dagoen biztanleriaren zerbitzuak eta ongizatea areagotzeko ezarri den proiektu-kopurua eta zenbateko ekonomikoa.
- 3) Lurzoru urbanizaezinean garatutako lurralde- eta hirigintza-planen kopurua, eta horiek eragindako Biosfera Erreserbako lurzoruen ehunekoa. Turismoko instalazio- eta azpiegitura-kopurua. Jasangarritasun-ziurtagiri bati atxikitako turismo-baliabideen kopurua.
- 4) Garraio publikoa, eta bide eta bidezidorren sarea erabiltzen duten erabiltzaileen kopurua, sexuaren arabera banatuta. Mugikortasun jasangarria sustatzeko plan- eta ekintza-kopurua.
- 5) Energia berriztagarrietarako instalazio-kopurua eta potentzia instalatua. Energia-eraginkortasunarekin lotutako proiektu-kopurua. Kontsumo jasangarriko ohiturekin lotutako proiektu-kopurua.

D) LAGUNTZA LOGISTIKOAREN adierazleak.

- 1) Garatutako ikerkuntza-proiektuen kopurua eta horien tematika. Interpretazio, balioespen eta jasangarritasuneko hezkuntzarako instalazio-kopurua. Interpretazio- eta jasangarritasuneko hezkuntza-zentroek jasotako bisitari-kopurua, sexuaren arabera banatuta. Eskolako Agenda 21 programaren barnean ezarritako proiektu-kopurua.
- 2) Jasangarritasunaren arloko gaikuntzarekin lotutako jarduera-kopurua. Parte hartu duten pertsonen eta kolektiboaren kopurua.

II. TITULUA

URDAIBAIKO ERRESERBAKO LURZORUAREN ARAUBIDEA

1. KAPITULUA

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAKO LURZORUAREN HIRIGINTZAKO SAILKAPENA

2.1.1 artikulua.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoruaren hirigintzako sailkapena.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoruak honako hirigintza-sailkapena hau izango du:
 - a) Lurzoru hiritarra eta urbanizagarria.
 - b) Lurzoru urbanizaezina.

2.1.2 artikulua.– Lurzoru hiritarra eta urbanizagarria.

- 1.– Plan honek hala identifikatzen ditu hirigintzako udal-plangintzan jasotzen diren hirigintza-sailkapen horietako lurzoruak.
- 2.– Plan honek Hirigintzako Udal Plangintzak Antolatzeako Eremutzat (HUPA) identifikatuko ditu lurzoru horiek. Lurzoru horiek Trantsizio Gainkategorian sartu ohi dira.

2.1.3 artikulua.– Lurzoru urbanizaezina.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, lurzoru hiritarraren edo urbanizagarriaren hirigintzako sailkapenetan sartzen ez diren lur guztiak dira lurzoru urbanizaezinak.

2. KAPITULUA

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAKO LURZORU URBANIZAEZINAREN ZONIFIKAZIOA

2.2.1 artikulua.– Kontsiderazio orokorrak.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean identifikatutako eremuei Planak berak erabilera globalak eta xehatuak esleitzea izango da lurzoruaren kalifikazioa.
- 2.– Eremu horiek identifikatzeko, ezaugarri homogeenak dituzten lurralde-zatiak hartu dira oinarritzat, horretarako honako irizpide hauek jarraituz:
 - a) Natura- edo kultura-balioengatik kontserbatu beharra.
 - b) Lurzoruek Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren garapen jasangarrirako eta helburu orokorrak lortzeko duten potentzialtasuna.
 - c) Antropizazio-egoera.
- 3.– Ezaugarri horiek identifikatzeko uneko zehaztapen-mailari esker, Plan honen bitartez hiru maila bereiz daitezke, zonifikazioaren bidez, lurzoru urbanizaezina antolatzeako orduan: Antolamendu Gainkategoria, Antolamendu Kategoriak eta Antolamendu Azpikategoriak.
- 4.– Antolamendu Gainkategoria mailari dagozkio Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legean eta Biosfera Erreserben Mundu Sarearen estatutu-esparruan identifikatutako hiru eremuak: Gunea zona, Gunea Babesteko zona eta Trantsizio zona.
- 5.– Antolamendu Kategoriak bat datoz aipatutako hiru gainkategorietako bakoitzean xehatutako zonekin. Era berean, Antolamendu Azpikategoriak Antolamendu Katategoria jakin batzuen are xehatze-maila handiagoari erantzuten diote.

6.– Plan honek, IV. tituluan jasotako zehaztapenen edo V. tituluan aurreikusitako garapeneko tresnen bitartez, dagokion erabilera-araubidea esleitzen dio antolamendu-kategoria edo -azpikategoria bakoitzari.

2.2.2 artikulua.– Antolamendu-gainkategoria.

1.– Gunea:

- a) Honako hau da Urdaibaiko Biosfera Erreserbako natura-ondareri berezia edo hauskorrena: estuarioa, kostaldea, artadi kantauriarrak, ibai-sareko zona sentikorrenak, habitat horietako fauna- eta flora-espezieak, eta habitat horiek gobernatzeko, jasaten eta baldintzatzen dituzten prozesuak, substratuak eta egitura geologikoak. Era berean, kultura-ondareri nabarmena hartzen du barne.
- b) Kategoria honetan funtsezkoa eta lehentasunezkoa da natura- eta kultura-balioak babestea, zaintzea eta lehengoratzea.

2.– Gunearen babesa:

- a) Gune Gainkategoriaiko elementuen zaintza egokia bermatzen duten zonak dira.
- b) Horien helburu nagusia Gune Gainkategoriairen babesa, zaintza eta lehengoratzea Trantsizio Gainkategoriairen garapen jasangarriarekin integra dadila ahalbidetzea da.

3.– Trantsizioa:

- a) Aurreko bi Gainkategorietan sartu ez diren eremuak dira.
- b) Horien helburu nagusia garapen sozioekonomikoa bultzatzea da, biztanleriaren ongizatea hobetzeko, betiere Biosfera Erreserbaren potentzialak eta bitarteko espezifikoak modu jasangarrian aprobetxatuz, eta Erreserbaren beraren eta Unescoren MaB programaren helburuak errespetatuz.

4.– Hiru kategoria horietan, ikerkuntza zientifikoa, interpretazioa, gaikuntza eta jasangarritasunerako hezkuntza sustatuko dira.

3. KAPITULUA

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAKO LURZORU URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDU-KATEGORIAK ETA -AZPIKATEGORIAK. EREMUAK ETA ZONAK

2.3.1 artikulua.– Kontsiderazio orokorrak.

- 1.– Testuaren ulermena eta erabilera errazteko helburuarekin, Plan honek Eremu gisa identifikatzen ditu antolamendu-kategoria, eta Zona gisa azpikategoria.
- 2.– Era berean, eta termino horiek *eremu* eta *zona* hitzetatik bereiztearren, Plan honetan horiei buruzko aipamenak egiten direnean larriak erabiliko dira.

1. ATALA

GUNE GAINKATEGORIA –N–

2.3.1.1 artikulua.– Itsasadarraren Eremua –N1–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Itsasadarraren Eremua –N1–: bertan sartzen dira estuario-sistema osatzen duten lehorreko eta itsasoko zona eta/edo trantsizio-urak. Kalifikazio xehatua egiteko orduan depositu-mota, antropizazio-maila eta marekiko lotura hartzen dira kontuan.

2.– Antolamendu-azpikategoria:

- N1.1. Marearteko edo mareaz gaindiko zonak, landarez nahiz landareri gabe osatuak, eta padura-zonak.

- N1.2. Lohiz edo padura-zonaz osaturiko marearteko edo mareaz gaindiko zonak, lezoi, muna edo euste-horma bidez uraren zirkulazio-sistematik isolatuta daudenak.
- N1.3. Lezoi, muna edo uraren zirkulazio-sistemari eusteko horma bidez isolatuta dauden eta hiri-okupazioa duten mareaz gaindiko zonak.
- N1.4. Marearteko edo mareaz gaindiko harea-zonak.
- N1.5. Itsasadarraren ibilguak osaturiko marea azpiko zonak.

2.3.1.2 artikulua.– Kostaldeko Eremua –N2–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Kostaldeko Eremua –N2–: Matxitxako lurmuturraren eta Arbolitz muturraren artean dagoen kostaldeko itsaso-lehorreko eragin-zona da, eta Izaro, Txatxarramendi eta Sandindere uharteak hartzen ditu barne, Itsasadarraren Eremua salbu.

2.3.1.3 artikulua.– Artadi Kantauriarren Eremua –N3–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Artadi Kantauriarren Eremua –N3–: itsasadarraren bi ertzetan formazio geologiko karbonatuen gainean garatutako artadi kantauriarrei dagokie.

2.– Antolamendu-azpikategoriak:

- N3.1. Natura-interes bereziko Zona: kontuan hartu beharreko natura- edo zientzia-izaerako elementu garrantzitsuak, landaretza- edo fauna-agerpenak, geomorfologikoak, hidrogeologikoak eta paisaiakoak dituzten barrutiak hartzen ditu barne, baita ia aldatu ez diren ekosistemak ere.
- N3.2. Osorik edo gutxi degradatuta dauden ekosistemen Zona: Artadi Kantauriarren Eremuan (N.3) dauden eta osorik edo gutxi degradatuta dauden ekosistemak dira.
- N3.3. Ekosistema degradatuen eta basoberritzeen Zona: Artadi Kantauriarren Eremuko (N.3) zonak hartzen ditu barne, giza jarduera biziaren edo natura-istripuen eraginez (suteen kasuan, normalean), natura-ingurunea nabarmen aldatu bada eta gaur egun degradatuta edo basoberritez okupatuta badago.
- N3.4. Zelai eta laborantza Zona: Artadi Kantauriarren Eremuko (N.3.) nekazaritza- eta abeltzaintza-bokazio handieneko zona hartzen du barne, baita lurraldeko erabilerak eraldatutako ekosistemak ere, horietan zuhaixka-hesi eta fruta-arbola zaharrez osatutako barruti txikiak mantentzen baitira.
- N3.5. Ekipamendu Zona. Kantera Gorria: Artadi Kantauriarren Eremuan (N.3) erabilerak publikora bideratutako lurraldea hartzen du barne. Kantera Gorriko barrutiari eragiten dio, bertan, ingurunearen narriadura dela-eta, intentsitate handiagoko erabilerak ezar baitaitezke. Horretarako, Plan hau garatuko duen tresna bat onartu beharko da, V. tituluan aurreikusitakoari jarraikiz.

2.3.1.4 artikulua.– Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremua –N4–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremua –N4–: ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea Kontserbazio Bereziko Eremuetako (KBE) zona sentikorrenak hartzen ditu barne.

2.3.1.5 artikulua.– Kultura Intereseko Eremua –N5–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Kultura Intereseko Eremua –N5–: Urdaibaiko Biosfera Erreserba babesteari eta antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean identifikatzen diren aztarnategiak edo aztarna arkeologikoak dituzten

zonak hartzen ditu barne. Gainera, kategoria honetan sartzen dira kalifikatuta edo inbentariatuta dauden maila historiko-arkitektonikoko eta arkeologikoko elementuak dauden zonak, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legean eta/edo, hala badagokio, adierazpen Dekretuan edo Aginduan ezarritako babes-araubidearen arabera legezko babesaren dutenak. 5/1989 Legean identifikatuta egonda ere, 7/1990 Legea garatzeko araudiak babestu dituen zonetan, eremu horien irudikapen grafikoa bat etorriko da azken horrek babesten duen eremuarekin.

2.– Antolamendu-azpikategoriak:

- N5.1. Ondare Historiko Arkitektonikoko Zonak. Kalifikatutako edo inbentariatutako ondasunak dira.
- N5.2. Ondare Arkeologikoko Zonak. Kultura Ondasun Kalifikatuak eta Zona Inbentariatuak dira, arkeologia-ondarearekin bat datozenak. 5/1989 Legearekin bat etorritik, haitzuloetako arkeologia-aztarnategi edo aztarrenen Zona (AA) eta aire libreko arkeologia-aztarnategi edo aztarrenen Zona (ALA) bereizten dira.

Arkeologia-presuntzio gisa aitortutako zonak Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian aipatzen den kultura-ondarearen zerrendan jaso arren, ez dira kalifikazio honetan sartzen.

2. ATALA

GUNEAREN BABES EDO AMORTIGUAZIO GAINKATEGORIA –B–

2.3.2.1 artikulua.– Itsasadarreko Babes Eremua –B1–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Itsasadarreko Babes Eremua –B1–: Itsasadarreko Eremuaren –N1– inguruko babeserako bazter-zerrendari dagozkion lurak hartzen ditu barne.

2.3.2.2 artikulua.– Kostaldeko Babes Eremua –B2–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Kostaldeko Babes Eremua –B2–: Kostaldeko Eremuaren –N2– inguruko babeserako bazter-zerrendari dagozkion lurak hartzen ditu barne.

2.3.2.3 artikulua.– Artadi Kantauriarren Babes Eremua –B3–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Artadi Kantauriarren Babes Eremua –B3–: Artadi Kantauriarren Babes Eremuaren –N3– inguruko babeserako bazter-zerrendari dagozkion lurak hartzen ditu barne.

2.– Antolamendu-azpikategoriak:

- B3.2. Artadi Kantauriarren Babes Eremuko ekosistema osoen edo gutxi degradatuen Zona: Artadi Kantauriarren Babes Eremuan –B3– dauden eta osorik edo gutxi degradatuta dauden ekosistemak hartzen ditu barne.
- B3.3. Artadi Kantauriarren Babes Eremuko ekosistema degradatuen eta basoberritzeen Zona: Artadi Kantauriarren Babes Eremuko –B3– Zona hartzen du barne, giza jarduera biziaren edo natura-istripuen eraginez (suteak, normalean), natura-ingurunea nabarmen aldatu bada eta gaur egun hura degradatuta edo basoberritzez beteta badago.
- B3.4. Artadi Kantauriarren Babes Eremuko zelai eta laborantza Zona: Artadi Kantauriarren Babes Eremuko –B3– nekazaritza- eta abeltzaintza-bokazio handieneko lurraldea hartzen du barne, lurraldearen erabilera tradizionalak eraldatutako ekosistemak barne, horietan zuhaixka-hesi eta fruta-arbola zaharrez osatutako barruti txikiak mantentzen baitira.

2.3.2.4 artikulua.– Ibai Sareko Babes Eremua –B4–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Ibai Sareko Babes Eremua –B4–: Ibai Sarearen Eremuko –N4– kalifikazio orokorreko babeserako bazter-zerrendari dagozkion lurak hartzen ditu barne, bertara isurtzen duten malda handiko arroetako lurrekin edo higaduraren aurrean litologia urrakorreko lurzorua dituztenekin batera.

2.– Antolamendu-azpikategoriak:

- B4.1. Ibai Sareko Babes Zonak. ES2130006 Urdaibaiko Ibai Sarea Kontserbazio Bereziko Eremuko (KBE) zonarik sentikorrenen bazter-zerrenda hartzen du barne.
- B4.2. Ibai-sarera isurtzen diren arroetako Babes Zonak. Ehuneko hirurogeitik (% 60) gorako malda duten zonak hartzen ditu barne, baita ehuneko berrogei (% 40) baino handiagoa eta ehuneko hirurogei (% 60) baino txikiagoa duten eta higaduraren aurrean litologia sentikorra duten lurzoruetan daudenak ere.

2.3.2.5 artikulua.– Paisaiaren Babes Eremua, Ikusizko eta Eszenografia Kalteberatasun Handiko Lurraldeak –B.5–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Paisaiaren Babes Eremua, Ikusizko eta Eszenografia Kalteberatasun Handiko Lurraldeak –B.5–: mendi-gailurrak eta ikus-eremu zabaleko espazioak hartzen ditu barne.

2.3.2.6 artikulua.– Baso Autoktonoen Eremua –B.6–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Baso Autoktonoen Eremuak –B.6–: baso autoktonoen unada heterometrikoak hartzen ditu barne.

2.3.2.7 artikulua.– Erabilera Publikoko Mendien (EPM) Eremua –B.7–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Erabilera Publikoko Mendien (EPM) Eremua –B7–: Bizkaiko Foru Aldundiak horrela aitortutako eremua hartzen du barne, eremu horren barnean N.3, N.4 edo N.5 kalifikazioa duten zonak izan ezik. Eremu horretako erabileren erregulazioa Mendiei eta Naturagune Babestuen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan jasotzen da, edo horren ordezkoko edo garapenerako araudian. Erabilerearen baten kasuan erregulaziorik ez badago, B4.2. Ibai-sarera isurtzen diren arroetako Zona Babestuen kalifikaziorako adierazitakoa aplikatuko da.

3. ATALA**TRANSIZIO GAINKATEGORIA –T–****2.3.3.1 artikulua.– Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremua –T1–.**

1.– Antolamendu-kategoria:

- Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuak –T1–: zenbait nekazaritza-gaitasun dituzten zonak hartzen ditu barne.

2.– Antolamendu-azpikategoriak:

- T1.A1. Nekazaritza-balio handiko Zonak: nekazaritza-potentzialaren ikuspegitik lurzoru onenak dituzten zonak hartzen dituzte barne. Lurzoru horiek ezaugarri fisiko eta kimiko bikainak dituztelako, emankorrak direlako, eta erabilerrazak eta irisgarriak direlako bereizten dira. Zona horiek estrategikotzat jotzen dira nekazaritza-sektorerako. Horregatik, zona horiek mantendu eta babesteari lehentasuna ematen zaio beste erabilera batzuen aurrean.

- T1.PRT. Trantsizioko Landa Paisaiako Zonak. Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak nagusitzen diren eta gizakiak neurri batean esku hartu dituen zonak hartzen ditu barne, landazabal atlantikoko paisaia sortuz. Natura-, paisaia- eta nekazaritza-ezaugarriek dagokienez berezitasun aipagarriak ez duten lurzoruak dira. Nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzio-balioaz gain, eremu horiek balio ekologiko garrantzitsua dute neguko hegazti-fauna migratzailearentzat, eta aisiako jarduerak garatzeko gaitasuna dute.

2.3.3.2 artikulua.– Baso Eremuak –T2–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Baso Eremuak –T2–: ehuneko hogeita hamar eta hirurogei (% 30-60) bitarteko malda duten isurialdeetan kokatuta daudenez, higaduraren aurrean urrakorrak diren substratuetan kokatutako lurra dira, eta baso-ustiapen jasangarri bat har dezakete.

2.– Antolamendu-azpikategoriak:

- T2. F1. Ehuneko hogeita hamar eta berrogeita bost (% 30-45) bitarteko maldak dituzten Baso Zonak.
- T2. F2. Ehuneko berrogeita bost eta hirurogei (% 45-60) bitarteko malda altuak dituzten Baso Zonak.

2.3.3.3 artikulua.– Landa Gunearen Eremuak –T3–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Landa Gunearen Eremuak –T3–: elkarrengandik hurbil dauden eta nukleo bat osatzen duten bizitegi- eta nekazaritza-erakinen multzoak dira. Hirigintza-legeriaren ondorioetarako, Plan Gidari honi jarraikiz kalifikatutako landa-nukleoko eremuak lurzoru ez urbanizagarri gisa sailkatuko dira, eta, beraz, ez dira berriro sailkatu ahal izango.
- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean zehaztutako Landa Nukleoaren Inbentarioan gaineratzen diren bizitegi-kokaleku nuklearrak dira. Nolanahi ere, horren ondorioz ez dira Gune edo Gunea Babesteko Galkategorietan barneratzen diren lurzoruak gutxituko, eta mugaketa HAPO edo dagokion Plan Berezia onartu ostean bakarrik aldatu ahal izango da.

2.3.3.4 artikulua.– Sistemen Eremua –T4–.

1.– Antolamendu-kategoria:

- Sistemen Eremua (T4). Oinarrizko azpiegiturak eta ekipamendu komunitarioak hartzera bideratutako eremuak dira, azpiegitura eta ekipamendu horien izaera eta ezaugarriak direla-eta, horiek lurzoru urbanizaezinean kokatu behar badira eta lurraldearen garapenerako beharrezkoak badira.

2.– Antolamendu-azpikategoriak:

- T4.IS. Azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko Zonak.

Garraiobideak hartzen dituzten azpiegitura linealak plan honetako IV. tituluaren definitzen dira. Plan honetako dokumentazio grafikoan jasotzen den mugaketari kalterik egin gabe, horien kalifikazioa bat etorriko da jabari publikoko eremuarekin, eta horrelakorik ez izanez gero, udal-inbentarioan jasotzen den mugaketarekin.

Aireko eta lur azpiko lineei dagozkien azpiegiturak ez daude grafiatuta Plan honetako lurzoru urbanizaezineko kalifikazioei buruzko dokumentazio grafikoan; dena den, eta bertan egin behar diren esku-hartzeen ondorioetarako, horiek T4.IS gisa kalifika daitezke. Bide publikoen kasuan, horien kalifikazioa bat etorriko da horiek zeharkatzen dituzten lurren kalifikazioarekin.

- T4.ECR. Eraikuntza-asetamenduak dituzten nahiz ez dituzten zona publiko edo pribatuak, ekipamendu komunitarioetarako beharrezkoak eta lurzoru urbanizaezinean prestatu beharrekoak.

III. TITULUA

PLANA GAUZATZEKO ARAUBIDE OROKORRA

1. KAPITULUA

PLANA GAUZATZEA

3.1.1 artikulua.– Plana gauzatzeko tipifikazioa.

- 1.– Plan hau dagokion aplikazio-eremuan gauzatzaren bitartez prestatu da; jarduera horiek pertsonak edo erakunde publiko edo pribatuak beharrezko baliabideak erabiliz garatzen dituzten operazioen edo eginkizunen multzoa dira.
- 2.– Maila espazialeko definizioak zenbait alderdi tipifikatzen ditu, hala nola:
 - a) Lurzoruaren erabilerak.
 - b) Eraikuntza-ekintzak.

2. KAPITULUA

LURZORUAREN ERABILERAK

1. ATALA

ARAUBIDE OROKORRA

3.2.1.1 artikulua.– Lurzoruaren erabileren definizioa.

- 1.– Lurzoruaren erabilerak:
 - a) Plan honen ondorioetarako, lurzoruaren erabilera lurzoru edo lursail naturaleko unitate jakin baten gainean nahiz eraikin jakin baten gainean eta haren inguruan ezartzen den erabilera da.
 - b) Espazioaren erabilera jasangarriarekin eta zuzenarekin bat datorren helburua duten jardueren ezarpen eta garapenaren zehaztapen espaziala da, betiere haren izaera kontuan hartuta.

3.2.1.2 artikulua.– Lurzoruaren erabilerak arautzearen xedea.

- 1.– Plan honek Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren erabilerari buruzko zehaztapenak ezartzen ditu, lurpearen, lurzoruaren, sailen gainespazioaren, eraikuntzen eta azpiegituren erabilera eta xedea modu jasangarrian antolatu eta erregulatzeko helburuarekin.

3.2.1.3 artikulua.– Lurzoruaren erabilera-ekintzen definizioa.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, honako hauek dira lurzoruaren erabilera-ekintzak:
 - A) Kontserbazioa. Ereku baten ezaugarriak eta unean uneko egoera mantentzea da, gizakiaren esku-hartzerik gabe, edo honako hauen bidez:
 - a) Ekosistemetan aldeko kontserbazio-egoera mantenduz, erabilera jakin batzuk galaraziz edo mugatuz (prebentzio-kontserbazioa).
 - b) Gaur egungo erabilerarekin jarraituz eta eremuaren kudeaketa jasangarrian gizakiaren partaidetza aktiboa garatuz, beste kasu guztietan (kontserbazio aktiboa). Azken ekintza horren kasuan, natura-ingurunearen gainean afekzio positiboak eragiten dituzten giza

jarduerak dira, eta jarduera horiek kokatuta dauden ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak areagotzen edo mantentzen laguntzen dute.

- B) Ingurumena lehengoratzea. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako natura-ondarearen bilakaera ingurumen-balio handiagoko egoeretara eramaten laguntzeko jarduera baten garapena da; horretarako, lehengoratzeko esku-hartzeak garatzen dira, hala, natura- eta/edo paisaia-balio garrantzitsuak izan arren, zenbait motatako eta mailatako aldaketa antropiko itzulgarriak jasan dituzten espazioetan, natura-ondarearen egoera ekologiko ona bilatzeko.
- C) Lurraldearen eta hark dituen bitartekoen ustiapen jasagarria. Lehen mailako bitartekoen ustiapenarekin lotutako jarduerak dira. Era berean, aisialdirako eta jolaserako ekintza estentsiboak eta intentsiboak, eta ehiza- edo arrantza-jarduerak hartzen ditu barne. Katgoria honetan jasotzen da, halaber, garraiobide, linea edo zerbitzu-instalazio teknikoen gisako azpiegiturak instalatzea. Gainera, zuzkidura- eta bizitegirako eraikuntza-erabilerak jasotzen dira. Era berean, multzo honetan sartzen dira Itsasadarraren Eremuan gauzatu beharreko dragatze- eta isurtze-jarduerak.

2. ATALA

LURZORUAREN ERABILEREN SAILKAPENA

3.2.2.1 artikulua.– Erabileren sailkapena, lehentasunen arabera. Berezko erabilera eta erabilera bateragarria.

1.–Plan honen ondorioetarako, erabilerak jarraian adierazten den moduan sailkatzen dira, bakoitzaren lehentasunaren eta xede nagusiaren arabera:

- A) Berezko erabilera: erabileraren xede nagusia osatzen duten eta berezko erabileraren izaera ematen dioten jarduerak dira.
- B) Erabilera bateragarria:
 - a) Plan honen ondorioetarako, berezko erabilerarik ez izan arren, horrekiko bateragarritasunari erreparatuta baimenduko lirakekeen erabilera bateragarriak dira.
 - b) Erabilera bateragarrien artean sartzen dira, halaber, atxikitako erabilera osagarriak:
 - i) Atxikitako erabilera osagarri horiek, berezko erabileraren lagungarriak edo osagarriak direla justifikatuz, azken horrekiko hurbileko harreman espazialean kokatzen dira.
 - ii) Plan honek berriaz zehaztuko du, Eremu edo Zona bakoitzerako baimentzen diren erabileren zerrendan, berezko erabileraren kokapen berean atxikitako erabilera osagarriak kokatzeko aukera. Kasu horietan, atxikitako erabilera osagarriek, halakotzat hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - 1) Mota eta dimentsioari dagokionez, berezko erabileraren premien arabera izatea.
 - 2) Berezko erabileraren xede den ondasuna edo zerbitzua ekoizten duen unitateari zerbitzatzea.
 - iii) Eraikuntza batean edo lursail batean erabilera bat kokatzea baimentzen denean berezko erabilerari atxikitako erabilera osagarri gisa, hura ezin izango da azken horrekiko modu independentean instalatu, eta ezin izango zaio erabilera nagusiaren lagungarri- edo osagarri-kontzeptua gainditzeko moduko dimentsioa eman; hori dela-eta, berezko erabileraren arabera justifikatu beharko da osagarriaren beharra.
 - c) Bateragarritasun hori Plan honetako IV. tituluan ezarritakoaren arabera baimendu edo galarazten da, titulu horrek erabileren kategoriak eta horiek Eremu edo Zona bakoitzean kokatzeko aukera definitzen baititu, erabileren kokapen espazial zehatzari dagozkion mugak ezartzeaz gain.

3.2.2.2 artikulua.– Lurzoruaren erabileren sailkapena, kokatzeko aukeren arabera.

1.–Planeko aurreikuspenen arabera erabilerak leku, eraikuntza edo azpiegitura jakin batean modu librean edo zenbait muga berezirekin gara daitezkeela edo garatu gabe gera daitezkeela, eta dagoeneko garatuta edo oraindik garatzeko egon daitezkeela kontuan hartuta, erabilerak honela sailkatzen dira:

A) Baimendutako erabilerak:

a) Plan honetako II. tituluan ezarritako Eremuetan eta Zonetan baimentzen direnak dira.

B) Erabilera debekatuak:

a) Plan honetako Eremu edo Zona bakoitzerako ezarritako zehaztapenek berariaz debekatzen dituztenak dira, baita garapeneko Plan Bereziek eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan aplikagarriak diren beste legedi sektorial batzuek adierazten dituztenak ere.

C) Behin-behineko erabilerak:

a) Behin-behineko erabilerak lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera ezarriko dira.

b) Era berean, behin-behineko erabilerak izango dira erabilera baimendu bat gauzatzeko beharrezko erabilerak, horiek obra edo instalazio iraunkorrik behar ez badute.

Behin-behineko erabilera horien gauzatzea behar bezala jaso beharko da erabilera baimendua gauzatzeko proiektuan. Behin-behineko erabilera horiek eraitsi edo kendu egin beharko dira erabilera baimendua lortzen denean.

Zenbaki honen barnean, bizitegi- eta industria-erabilerak ez dira, inola ere, behin-behineko erabilera gisa hartuko.

D) Erabilera toleratuak:

a) Erabilera toleratu gisa hartuko dira, aktibo egonik, Plan honek kategoría edo azpikategoría bakoitzerako ekintza baimendutzat definitzen dituztenen artean ez daudenak, baldin eta horien ezarpena bere garaian indarrean zegoen inolako araudi sektorial edo hirigintzakorik urratu gabe gauzatu bazen. Hori zehazteko, beharrezko ziurtagiria eskatu ahal izango zaio dagokion administrazioari.

b) Arau sektorialen baten antolamendutik kanpo dauden erabilerak ezin izango dira erabilera toleratutzat hartu, Plan honen ondorioetarako.

c) Hirigintza-ondorioetarako, erabilera horietara bideratutako Eraikinak, Plan honetan edo aplikagarria den arloko beste edozein arautan horiek desagertzea aurreikusten ez bada edo horretarako eperik finkatzen ez bada, plangintzaren aurkakotzat hartuko dira.

Lehendik dauden eraikinen kasuan, Plan honek ez ditu plangintzarekin bat ez datozen eraikintzat jotzen eraikin edo instalazio berrietarako ezarritako tartekak betetzen ez dituzten eraikinak.

d) Erabilera toleratuen kontsiderazioa galduko dute, honako kasu hauetakoren bat gertatzen denean:

i) Lehen sektoreko baliabideen ustiapen-erabileren kasuan:

i) Nekazaritza edo abeltzaintzako jarduera etetean.

ii) Produkzioko basogintza-erabilerako azken mozketan.

ii) Eraikuntzan oinarritutako erabileren kasuan, Eraikuntza erabilera iraungikotzat har daitekeenetik aurrera.

iii) Gainerako erabileren kasuan, jarduera amaitzen denean.

E) Antolamenduz kanpoko erabilerak:

a) Plan honen aurretik zeuden eraikin, instalazio eta erabilerak dira, Planarekin erabat bateraezinak izanik, Planak berak edo garapeneko edozein planek horrelakotzat jo eta horien erabateko eraispena edo eraiste partziala aurreikusten duenean. Horietarako araubide juridikoa hirigintzako legedian aurreikusitakoa izango da.

- b) Era berean, antolamendutik kanpokotzat joko dira edozein arau sektorial aplikatuta horrelakotzat identifikatzen diren eraikinak, instalazioak eta erabilerak.
- c) Antolamenduz kanpo adierazitako eraikinetan eta instalazioetan ez dira kontsolidazio-, berreraikitze-, erreforma-, dibisio- edo areagotze-lanak baimenduko. Dena den, Eraikuntza gutxieneko bizigaitasun- eta osasungarritasun-baldintzetan mantentzeko beharrezkotzat jotzen diren eta hirugarrenei kalteak saihestera xedaturiko lanak ez dira halakotzat hartuko, hori guztia hirigintza-legerian zehaztutako hondamenaren erregimen legalari kalterik egin gabe.
- d) Obrak egin nahi diren datatik kontatzen hasita 15 urteko epean ez bada aurreikusi higiezina desjabetzeko edo eraisteko datarik, finkatzeko lan partzialak eta zirkunstantzialak egin ahal izango dira; dena den, obra horiek ezingo izango dute higiezinaren balio-irabazirik eragin.

F) Erabilera iraungia:

- a) Lehendik zeuden baina desagertu egin diren jarduerak dira. Erabileraren iraungitze hori jarduera bera desagertze hutsarekin gauzatuko da, administrazio arloan oraindik ere artxiboetan edo lehenagoko espedienteetan jasota egon badaitezke ere. Udalari erabilera iraungi ez izanari buruzko frogagiria eskatu ahal izango zaio.

3.2.2.3 artikulua.– Erabilera baimenduak, debekatuak, toleratuak eta antolamenduz kanpoko ekintzak ezartzea eta kokatzea.

- 1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurraldea antolatzeko Eremu edo Zona bakoitzaren barnean, eta lurzoru urbanizaezinari dagokionez, lurzoruaren erabilera baimenduak, debekatuak edo toleratuak zehazten dira.

3.2.2.4 artikulua.– Erabilera aldatzea.

- 1.– Erabilera aldatzen dela ulertuko da, lehendik dagoen lurzati edo eraikin batean kokatuta dagoen eta lehendik dagoen erabilera bat, beste jarduera baimendu batek ordezkatzen duenean.
- 2.– Aurreko zenbakian adierazitakoaren ondorioetarako, eta indarrean den legediaren arabera beharrezkoa izan daitekeen jarduera irekitzeko lizentzia alde batera utzita, ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aplikatuz, erabilera aldatu ahal izateko dagokion hirigintzako lizentzia lortu beharko da, erabilera-aldaketa horrek gauzatzeko obra-baimenik behar duen ala ez kontuan hartu gabe.
- 3.– Plan honen ondorioetarako, eraikinetako erabilera berreraikitzeko, eraberritzeko edo zatitzeko edo batzeko esku-hartzeen bitartez bakarrik aldatu ahal izango da.
- 4.– Baso-erabilera beste erabilera batekin ordezkatu ahal izateko, hark Bizkaiko Foru Aldundiko mendien arloan eskumena duen Sailaren baimena beharko du.

3.2.2.5 artikulua.– Erabilera intentsifikatzea.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, erabilera intentsifikatzea izango da Eraikuntza baten gainean gauzatzen den eraikuntzako esku-hartze oro, horren bidez jardueraren edukiera handiagotzen bada, baina lehengo azalera mantentzen bada.
- 2.– Erabilera toleratuak dituzten eraikinen erabilera intentsifikatzeko aukera eskainiko da intentsifikatze hori zatitzeko esku-hartzearen bidez gauzatzen bada, betiere Plan honek zatitzea definitzen duen terminoetan.
- 3.– Lehendik dauden erabilera baimenduek beren erabilera intentsifikatu ahal izango dute, IV. tituluari zehazten diren gehienezko parametrotaraino.

3.2.2.6 artikulua.– Interes publikoko erabilerak.

- 1.– Kokatuta dauden lurzoruaren titulartasuna eta kalifikazioa denak direla, interes publikokotzat joko dira IV. tituluari zuzkidura- eta ekipamendu-erabilera gisa identifikatzen diren erabilerak, eta turismoko, ostalaritzako eta kanpinetarako ostatuak, agroturismoen kasuan salbu. Era berean, interes publikoko erabilera gisa hartuko dira araudi sektorialean halakotzat hartzen diren erabilerak.

- 2.– Erabilera horiek ezartzeko, Euskadiko hirigintzako legediak aurreikusten duen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ebazpen batez ematen den interes publikoaren adierazpena beharko da.
- 3.– Erabilera horiek Plan hau zuzenean gauzatzuz edo dagozkion garapen-tresnak onartuz ezarri ahal izango dira.

3.2.2.7 artikulua.– Erabilerak lurzoru-okupazioaren ezaugarrien edo eraikuntza-ezaugarrien arabera sailkatzea.

- 1.– Berezko erabilerak eraikin bateko lurzorua edo lurpea okupatzen duten ala ez kontuan hartuta, honela sailkatzen dira:
 - A) Eraikuntzan oinarritutako erabilerak:
 - a) Beren jardueraren berezko funtzionamendurako Eraikuntza baten euskarri fisikoa eta espaziala behar duten berezko erabilerak dira. Dena den, batzuetan multzo honetan sailkatutako erabilerak eraikinik gabeko lurzoru-zona handi bat behar izan dezake, jardueraren beraren oinarritzko zati gisa.
 - b) Eraikuntza lurpean edo goi-solairuetan egindako obrak osatuta egon daiteke.
 - B) Eraikuntzarik behar ez duten erabilerak:
 - a) Beren funtzionamendurako Eraikuntza edo instalazio baten euskarri fisikorik behar ez duten berezko erabilerak dira. Dena den, batzuetan, multzo honetan sailkatutako erabilerak jardueraren beraren funtsezko alderditzat atxikitako erabilera bateragarri eta osagarria bideratutako Eraikuntzek lurzorua okupatzea behar izan dezake.
 - b) Beren funtzionamendurako espazio libreak behar dituzten jarduerak dira batez ere, lurzoruaren azaleraren akabera jakin batzuk behar dituztenak edo inolako akaberarik behar ez dutenak.
- 2.– Plan honen ondorioetarako, Eraikuntza iraungitza hartuko dira lehen zegoen jarduera desagertu den eraikin edo instalazioak, egiturazko eta eraikuntzako funtsezko elementuak galdu dituztenez, gaur egun eraikitzearen xede izan zen erabilera bertan garatzea ezinezkoa denean.

Eraikin batek egiturazko eta eraikuntzako funtsezko elementuak galdu dituela ulertuko da, eraikita geratu den gainerako egiturarekin, bere oina eta jatorrizko bolumetria zein diren jakin ezin denean. Eraikuntzak, jatorriz, bi edo hiru isurialdeko estalkia badu, hori jatorrizko perimetroaren bitartez egiaztatu beharko da, eta fatxada nagusian edo atzekoan, albo-hormen eta bizkarreko hormaren hegala identifikatu beharko dira; jatorriz, eraikinak lau isurialdeko estalkia badu, haren jatorrizko perimetroa egiaztatu eta hegala jatorrizko kokapenean gutxienez bi horma perimetral identifikatu beharko dira. Bigarren kasu horretan, gailurraren antolamendua kalkulatzeko, gehienez ere % 30eko malda izango duen itxurazko estalki-hegalen planoak ebakiko dira; era berean, kasu horretan beharrezkoa izango da estalkiaren jatorrizko egoera irudikatzen duen Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Plan Gidaria indarrean jarri osteko argazkiak aurkeztea.

3.2.2.8 artikulua.– Erabilerak gainjartzea, kota desberdinetan kokatuta daudelako.

- 1.– Plan honek IV. tituluan definitzen diren D.1, D.2, D.3 eta D.8 erabilerak espazioan eta beste batzuekiko kota desberdinetan gainjarrita ezartzeko eta garatzeko aukera aurreikusten du, Planaren beraren IV. tituluan edo plana garatzeko Plan Berezetan jasotzen diren zehaztapenen bidez.
- 2.– Horretarako, kalifikazio jakin batzuk lur beraren gainean eta kota desberdinetan kokatzeko aukera ezartzen da, horrela, horien bateragarritasun funtzionala ahalbidetuz.
- 3.– Aipatutako erabilera horiek gainjartzeko, beste erabilera batzuk dituzten lurretan beharrezko pasagune publikorako edo lurpe, lurzoru edo sailen gainespazioaren erabilera publikorako zortasunak ezar daitezke, betiere honako kasuistika honen arabera:
 - a) Lurpean edo lurzoruaren azaleran edo gainespazioan –biak sestra gainean– erabilera espezifiko bat duten lursailak, artikuluko honetako 1. atalean aipatutako erabileretako bat dutenak; dena den, ez da lurpearen sestra gaineko eraikuntzarik onartuko.
 - b) Kota altuetan edo lurpeko sestraren azpian artikuluko honetako 1. atalean aipatutako erabileraren bat ezartzen den lurrak. Erabilera horiek ezartzeko lurpean zortasun-eremu bat sortu behar bada, bertan baimendutako erabileren araubidea dagozkion araudi sektorialean jasotzen denaren arabera

izango da. Kontrako kasuan, Plan honetako IV. tituluan erabilera horietarako orokorrean ezartzen denaren arabera arautuko da.

c) Artikulu honen 1. eta 2. ataletan adierazitako irizpideak errespetatzen dituen beste edozein.

- 4.– Gunearen Babes eta Trantsizio Gainkategorietako eremuetako lurpea –hirigintza-erakigarritasunari eta lurpeari azalerarekiko eman zaion erabilerari kalterik egiten ez dien kota batean kokatua–, eta Gune Gainkategoriaiko Ibai Sarearen Eremua erabilera edo zerbitzu publikorako xedeetara bideratu ahal izango dira, baita erabilgarritasun publikoko edo interes sozialeko jardueretara ere. Edonola ere, interes historiko eta kulturaleko elementu arkeologikoak babestu beharko dira, eta natura-baliabideei eta, bereziki, baliabide hidrológicoei eragin diezaieketen arriskuei aurrea hartu beharko zaie, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

Adierazitako kota kasu bakoitzean ezarri beharko da, zona bakoitzean erabilera bakoitzarentzat definitutako sestrapeko eta sestra gaineko erakigarritasunak aplikatuta, lurren ezaugarri geotekniko, hidrológico eta hidrogeologikoak, eta sestra gaineko eta sestrapeko eraikuntzaren forma eta ezaugarriak kontuan hartuta. Plan honek lurrari esleitutako kalifikazioak bertan mota guztietako eraikinak, instalazioak edo azpiegiturak eraikitzea galarazten badu, kota hori azalerari eragiten ez zaiola bermatzeko beharrezko sakoneran kokatuko da, betiere lurraren ezaugarri geoteknikoak, hidrológicoak eta hidrogeologikoak kontuan hartuta; oro har, sakonera hori 5 metrokoa izango da, gutxienez.

- 5.– Edonola ere, lur edo lursail bateko lurpean edo gainespazioan erabilera berri bat ezartzeko, Plan Berezi bat idatzi eta onartu beharko da, Plan honetako V. tituluan deskribatzen diren terminoetan.

3.2.2.9 artikulua.– Erabileren sailkapena jardueraren antzintasunaren arabera.

Antzintasuna kontuan hartuta, erabilera jakin batzuk honela sailkatzen dira:

- 1.– Plan hau indarrean sartzeko abian zeuden erabilerak: 1993an dagoeneko aktibo zeuden erabilerak, edo geroago baimendu diren eta lehengo Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren babespean gauzatu ziren erabilerak dira, oraindik ere mantentzen direnak.

Lehendik dauden eraikuntza gisa hartuko dira 1993. urterako dagoeneko eraikita zeuden eraikinak edo instalazioak, edo geroago baimendu diren eta lehengo Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren babespean gauzatu diren eta oraindik ere egoera horretan mantentzen diren eraikinak edo instalazioak, betiere egitura- eta eraikuntza-elementuak galdu ez badituzte, 3.2.2.7 artikuluan zehazten diren terminoetan.

- 2.– Ezarri beharreko erabilera berriak: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurzoruan edo lurzoru urbanizaezineko eraikin edo instalazioetan ezar daitezkeen jarduerak dira; horiek Plan honetako IV. tituluan berariaz ezartzen denari edo berariaz onartzen diren garapen-tresnetan ezartzen denari jarraikiz arautuko dira.

Gauzatu ostean, erabilera berri horiek ezin izango dira Plan hau aplikatzeko orduan zeuden erabilera gisa identifikatu, eta horiek Plan honetako IV. tituluan berariaz ezartzen denari edo berariaz onartzen den garapen-tresnan zehazten denari jarraikiz arautuko dira.

3. KAPITULUA

ERAIKUNTZA-EKINTZAK

1. ATALA

ARAU BIDE OROKORRA

3.3.1.1 artikulua.– Eraikuntza-ekintzen definizioa.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, eraikuntza-ekintzat hartzen dira oin berriko eraikin edo instalazioak ezartzera edo horrelakoak eraistera edo aldatzera zuzendutako ekintzak. Horien barnean sartzen dira, baita ere, horiek kokatzen diren lurzatiaren barne-urbanizazioko lan osagarriak egitera bideratuak.
- 2.– Eraikuntza-ekintzat hartuko dira, halaber, azpiegitura-proiektuetan sartutako obrak egitera zuzenduak.

- 3.– Eta eraikuntza-ekintzak izango dira edozein jarduera garatzeko beharrezko elementuak gauzatzeko behar diren obrak.
- 4.– Eraikuntza-ekintzen barnean, honako mota hauek bereizten dira:
 - a) Eraikuntza-tipoak.
 - b) Eraikuntzako esku-hartzeak.

3.3.1.2 artikulua.– Eraikuntza-ekintzetan erabiltzeko materialen inguruko ingurumen-kontsiderazioak.

- 1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren eremuan debekatuta dago honako hauek erabiltzea:
 - a) Arku elektrikoko labeetako altzairu-fabrikaziotik eratorritako zepak, otsailaren 18ko 34/2003 Dekretuan definitzen direnak.
 - b) Kreosota substantzia aktiboa duten edo izan duten zurezko elementuak.
 - c) Zurezko elementuak, produktu organokloratu edo organofosforatu bidez tratatutako teilatuetan.
 - d) Hondakin-uretarako araztegietatik eta hobi septikoetatik datozen lohiak.
- 2.– Eraikuntzako eta eraiste-lanetako hondakinak balioztatzetik datozen agregakin birziklatuen erabilerarako, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak 2015eko urtarrilaren 12ko Aginduaren bidez ezarritako araudia edo haren ordezkoko araua bete beharko da.
- 3.– Eraikuntzetako estalkietan Plan honetako 3.3.3.2 artikuluan ezarritako C, D edo E taldeetako eraikuntzako esku-hartzeak gauzatu eta kiropteroen presentzia hautematen denean, debekatuta egongo da teilatuetako zurari organokloratu edo organofosforatu bidezko intsektuen kontrako tratamendua ematea; produktu horien ordezkoko perimetrinak edo faunako ordena horren kontrako beste tratamendu eskuragarri eta ez kaltegarri batzuk erabili beharko dira. Apirila eta iraila bitartean ez dira tratamendu horiek egingo.
- 4.– Lanetan honako neurri hauek hartuko dira:
 - a) Flora-espezie inbaditzailearen propagulu edo hazirik gabeko landare-lurra erabiltzea.
 - b) Garbitasun-baldintza onetan dauden makinak erabiltzea, espezie inbaditzaileak txertatzea ahalbidetu dezaketen landare edo hazien arrastorik hedatzen ez dela bermatzeko.
 - c) Lanen berme-aldian zehar lanak zaintzea eta finka daitezkeen flora inbaditzailearen aleak derrigorrez kentzea, *fallopia japonica*, *cortaderia selloana* eta *buddleja davidii* espezieen kasuan bereziki.
 - d) Parke eta lorategietan 630/2013 Dekretuan edo hura ordeztzen duen arauan jasota dauden flora-aleak berriro hazi edo landatzeko debekua ezartzea.

3.3.1.3 artikulua.– Eraikuntza-ekintzak arautzearen xedea.

- 1.– Plan honek, espazioaren izaerarekiko eta haren erabilera jasangarriarekiko xede bateragarria duten jardueren ezarpen eta garapen jarraitura begira, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean egin behar diren arkitekturako elementuei buruzko zehaztapenak ezartzen ditu.

2. ATALA

ERAIKUNTZA-TIPOAK

3.3.2.1 artikulua.– Eraikuntza-tipoak.

- 1.– Plan honek honako eraikuntza-tipo hauek identifikatzen ditu:

A) Eraikuntzak:

Dokumentu honetan zehar, eraikuntza-tipo honi erreferentzia egiten zaionean, oro har, hura letra larriz adierazten da, horrela, eraikuntza-ekintzaren kontzeptu generikotik bereizteko.

Plan honen ondorioetarako, Eraikuntzat hartuko dira eraikinak eta instalazioak, betiere jarraian adierazten diren definizioen arabera:

i) Eraikina:

Eraikin gisa hartzen da lurpeko edo lurpetik ateratzen den obra oro, hark zimenduak izan ala ez, egurats zabaletik babestutako espazio habitagarria eratzen badu, eta bizileku gisa erabiltzeko edo, modu iraunkorrean eta elementu finkoen bidez, zerbitzu-prestaziorako jarduerak hartzeko egokia bada.

ii) Instalazioa:

- Instalazio gisa hartzen da baterako ideia baten arabera kokatutako elementuen multzoa, horiek espazio habitagarriak osatzen ez badute eta produkzio-jarduerak eta bitartekoak eraldatzeko jarduerak garatzeko xedea badute.
- Instalaziotzat hartzen da, halaber, zerbitzu-prestaziorako jarduerak elementu desmuntagarriak eta aldi baterako har ditzaketen elementuen multzoa. Hala, honako hauek hartuko dira instalazio desmuntagarri gisa:
 - Gehienez ere zimendatze-lan puntualak behar dituzten instalazioak; horiek 30 cm lodiko lur gaineko lauza bidez eginak egongo dira gehienez ere, eta ez dira lurretik gora aterako.
 - Serieko elementu aurrefabrikatu, modulu, panel edo antzekoz osatuta daudenak, obran materialik prestatu gabe eta soldadurarik erabili gabe.
 - Sekuentzia-prozesuen bitartez muntatzen eta desmuntatzen direnak, horiek altxatzeko lanak eraisterik gabe gauzatu daitezkeenean eta elementu-multzoa erraz garraia daitezkeenean.
- Instalazioak eraikinetatik independenteak izan daitezke, edo horietan sartuta egon daitezke. Instalazioaren definizio honetan sartuta geratuko dira funtsezko teknologia-, higiene- eta osasun-instalazioak, horiek lurzati hartzailean kokatuta badaude eta Eraikuntzak gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzeko beharrezkoak badira egurasteari, aireztapen eta argiztapen artifizialari, ur- eta saneamendu-instalazioei, elektrizitate-, berokuntza- eta etxeko ur beroaren instalazioei, telekomunikazioei eta higiene-zerbitzuei dagokienez.

B) **Eraikuntza hartzen duen lurzatiaren barnealdeko urbanizazioa:** lurzati hartzaileen barnean dauden elementu guztien multzoa da, lurzati horiek har ditzaketen Eraikuntzekin eta etxeko nekazaritza bideratutako espazioekin eta sailekin bat ez badatoz. Horretan sartzen dira, halaber, zerbitzu orokorrekiko lotura, eta lurzati hartzaileen akaberen nahiz lurzati-mugetan horiek ixteko kokatzen diren elementuen tratamendua.

C) **Azpiegitura:** azpiegituretat hartzen da IV. tituluko 4. atalean aurreikusten diren elementuen multzoa.

D) **Altzariak:** hiri-altzaritzat hartuko da sistema- eta zuzkidura-eremuetan jartzeko elementuen multzoa, horiek lurzati hartzaileko zuzkidurako edo itxiturako elementuei gainjarrita edo atxikita daudenean, eta dituen ezaugarriak direla-eta, aldatzeko edo lekuz aldatzeko unean elementu horietan funtsezko aldaketarik eragiten ez badu.

3. ATALA

ERAIKUNTZAKO ESKU-HARTZEAK

3.3.3.1 artikulua.– Eraikuntzako esku-hartzeak.

1.– Honako hauek dira eraikuntzako esku-hartzeak:

- a) Edozein eraikuntza-motatako oin berriko ezartze-lanak.
- b) Lehendik dagoen edo Plan hau aplikatuta gauzatu den oin berriko eraikuntza-mota ororen eraiste totala edo partziala.
- c) Lurzati hartzaile batean edo batzuetan dagoen edozein eraikuntza-motaren gainean egin beharreko obra-multzo sistematizatua, haren xedea lehengo aldatzea eta hura gutziz edo neurri batean

aurretikoarengandik eraldatzea denean, betiere haren arkitektura-balioetara hobeto egokitu dadin eta, hala dagokionean, bizigarritasun-baldintza hobeak izan ditzan.

2.– Aurreko ataletan gaineratzen ez diren, baina edozein jarduera garatzeko beharrezko elementuak gauzatzeko beharrezkoak diren obrak.

3.3.3.2 artikulua.– Eraikuntzako esku-hartze motak.

1.– Eraikuntzako esku-hartzeak zortzi multzo handitan sailkatzen dira:

- a) Oin berriko edozein eraikuntza-mota gauzatzea ahalbidetzen duten esku-hartzeak.
- b) Lehendik dagoen edo Plan hau aplikatuz gauzatutako oin berriko eraikuntza-mota ororen eraispena eragiten duten esku-hartzeak.
- c) Lurzati hartzaile batean dauden Eraikuntzak berreraikitzeko esku-hartzeak. Honako hauek bereizten dira:
 - i) Ordezkapenerako esku-hartzeak.
 - ii) Berreraikitzeko esku-hartzeak.
- d) Lehendik dauden Eraikuntzen gainean gauzatutako esku-hartzeak, azalera eraikia nahiz bolumena, altuera edo solairu-kopurua areagotzea eragiten ez duten aldaketak egin behar direnean. Esku-hartze horietan, honako hiru azpimultzo hauek bereizten dira:
 - i) Arkitektura-, kultura- edo historia-balioa duten, edo ondare eraikiaren alderdi interesgarria osatzen duten Eraikuntzetan eraikiari ahalik eta gehien lotzea eragiten duten esku-hartze motak:
 - Zaharberritze zientifikoa.
 - Zaharberritze kontserbatzailea.
 - ii) Beste Eraikuntzetan eraikiari ahalik eta gehien lotzea eragiten duten esku-hartze motak:
 - Kontserbazioa eta apaindura.
 - Finkatzea.
 - iii) Aldaketa sakonagoa ahalbidetzen duten esku-hartze motak:
 - Eraberritzea.
 - Zatitzea eta batzea.
- e) Lehendik dauden Eraikuntzen gainean gauzatutako esku-hartzeak, azalera eraikia edo bolumena handitzea eragiten duten aldaketak sortzen dituztenean.
- f) Lurzati hartzaileen barneko urbanizazio-obretarako esku-hartzeak.
- g) Atxikitako lurzatietan mota guztietako nekazaritza-, abeltzaintza- edo basogintza-erabilerak garatu ahal izateko, saila egokitzeko eta ixteko esku-hartzeak.
- h) Azpiegiturak eta hiri-altzariak konpontzeko esku-hartzeak.

2.– D eta E multzoetan identifikatutako esku-hartzeen barnean oin berriko esku-hartzeak egin ahal izango dira, horien helburua Eraikuntzei oinarrizko teknologia-, higiene- eta osasun-instalazioak hornitzea bada.

3.– Plan honek ez du D multzoko esku-hartzeen izaera metagarria jasotzen. Horregatik, Eraikuntza batean gauzatu beharreko jarduera bakoitzak behar bezala zehaztu beharko ditu, egin beharreko lanen irismena kontuan hartuta, gauzatuko diren aipatutako multzo horretako eraikuntzako esku-hartzeak.

4.– Oin berriko, eraberritzeko, zatitzeko eta handitzeko esku-hartzeek honako hauek lortzeko beharrezko jarduerak barne hartuko dituzte:

- a) Eraikinaren eraginkortasun energetikoan hobekuntza eragiteko eta ia energia-konsumorik gabeko eraikuntza bihurtzea.

Horretarako, esku-hartzearen ostean eraikinek A edo B kalifikazioa lortu dutela egiaztatzea beharko dute. Egiaztapen horretarako, eraikin amaituaren eraginkortasun energetikoari buruzko ziurtagiria aurkeztu

beharko da, eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura zehazten duen apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuan zehaztutakoarekin bat etorritz.

Salbuespen gisa, eta eraikina eraldatzeko edo zatitzeko esku-hartzeen kasuan, amaierako kalifikazio energetikoa letra baten hobekuntza izan daiteke lehendik dagoen eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriko letrari dagokionez, betiere lehen sektoreko edo landa-turismoko erabileren kasuan, eta bi letrakoa ostalaritza-establezimenduen –jaketxeak edo antzekoak–, ekipamenduen, museoen edo interpretazio-zentroen, familiako bizileku-erabileren eta turismo-alojamenduen kasuan.

- b) Eraikuntzaren ur-kontsumoan aurrezpen eraginkorra eragiten duten mekanismoak, sistemak eta ekipamenduak erabiltzeko. Horretarako, esku-hartze horietan gauzatu beharreko jardueren artean, euri-uraren bilketa eraginkorra aurreikusi beharko da, gero hura lurzati hartzaileko lurrak ureztatzeko erabili ahal izateko.
- c) Eraikuntzari hondakin-urak biltzeko eta tratatzeko sistema bat hornitzea, 4.1.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.
- d) Gutxieneko baldintza zehatz batzuk betetzeko, narriadura saihesteko eta, narriaduraren beraren edo desagertzearen bitartez, paisaiari ez eragiteko. Gutxieneko baldintza horiek egitura- eta eraikuntza-elementuen sendotasunari eta segurtasunari buruzkoak dira (zimendu egokiak izatea, egiturazko elementuak osatzen dituen materiala hondatuta ez egotea, betiere horien erresistentziak aldaketarik jasan ez duela bermatuz, edo eraikineko hegalkinak osatzen dituzten elementuak edo beste elementu batzuk ez askatzea, hala nola, teilak, fatxadako plakak, tximiniak, isurkinak, leihoburu eta ateburuak eta beirak), baita euriaren eta hezetetasunaren aurreko estankotasunari buruzkoak ere (itoginik edo fatxada, zolata, murru edo beste elementu batzuetan hezetasu ez izatea, eta estalkia osatzen duten elementuak osorik mantentzea).
- e) Lehendik dauden barneko altuerak mantentzea, betiere horiek 2,2 metrokoak edo gehiagokoak badira, amaitutako zoruaren eta sabaiaren artean neurtuta. Bestela, beharrezko esku-hartzeak gauzatuko dira hura gutxieneko altuera aske horretara egokitzeko. Esku-hartze horien eraginez ez da lehendik dagoen eraikinaren edo desagertu den eraikinaren teilatu-hegalen eta gailurraren gehieneko altuera gaindituko, Planak zehazten duen erabilera bakoitzeko.

Esku hartu aurretik, eraikinen teilatu-hegalek eta gailurrak erabilera bakoitzeko gehieneko altuera gainditzen badute, horietan esku-hartzeak egin ahal izango dira jatorrizko eraikinaren altuera osoa handitzeko; teilatu-hegaletan nahiz gailurrean neurtuta, handitze hori 0,4 metrokoa izan daiteke, gehienez ere. Altueraren igoera hori behar bezala justifikatu beharko da, jatorrizko perimetro-hormari hura lotzea ahalbidetuko duen, egituraren egonkortasuna hobetuko duen eta estalkiko kargak hobeto banatuko dituen elementu bat eransteko beharrean oinarrituz.

- 5.– IV. Tituluaren arabera, beren kultura-balioengatik inbentariatu edo kalifikatutako Eraikuntzetan edo horretarako proposatutako eraikuntzetan gauza daitezkeen eraikuntzako esku-hartzeak horrelakoak arautzeko eskumena duten araudiak eta erakunde sektorialeak aurreikusten dutenari jarraikiz gauzatuko dira.

3.3.3.3 artikulua.– Oin berriko eraikuntzako esku-hartzeak.

- 1.– Oin berriko eraikuntzako esku-hartzeak dira lehendik ez zegoen edozein eraikuntza-mota eratzeko beharrezko obrak, berreraikuntzaren multzoan sartu ezin direnak, baita eraikuntza-mota berria dagoeneko eraitsita dagoen beste batek okupatzen zuen azaleraren gainean altxatzen bada ere.

3.3.3.4 artikulua.– Eraisteko eraikuntzako esku-hartzeak.

- 1.– Eraistea lehendik dagoen edo Plan hau aplikatuta gauzatutako oin berriko edozein eraikuntza-motaren eraiste totalera edo partzialera bideratutako eraikuntzako esku-hartzea da.
- 2.– Eraiste totalerako esku-hartzea berreraikuntzako esku-hartzearekin lotuta egon daiteke. Horrelakoetan, eraisteko esku-hartzea berriaz jaso beharko da berreraikuntzarako espedientean.
- 3.– Eraiste partzialerako esku-hartzea finkatzeko edo eraberritzeko edo, hala badagokio, handitzeko esku-hartze bati lotuta egon daiteke. Horrelakoetan, eraisteko esku-hartzea berriaz jaso beharko da finkatze-, eraberritze- edo handitze-espeditentean.

Eraiste partzialak ezin izango dio, inola ere, alboko fatxadek eta atzekoak osatzen duten perimetroaren edo, horrelakorik izanez gero, mehelinaren % 40ri baino gehiagori eragin. Era berean, ez dio fatxada nagusiaren % 15i baino gehiagori eragingo.

3.3.3.5 artikulua.– Eraikuntzak eta azpiegiturak berreraikitzeako eraikuntzako esku-hartzeak.

- 1.– Berreraikuntza balio arkitektoniko, kultural edo historiko espezifikorik ez duen Eraikuntza edo azpiegitura bati jatorrizko itxura berrematera zuzendutako eraikuntzako esku-hartzea da. Berrezartze horren aurretik guztiz eraitsi beharko da Eraikuntza edo azpiegitura.
- 2.– Plan honen ondorioetarako, honako hau izango da jatorrizko konfigurazio formala:
 - a) Eraikuntzaren bolumetria eta fatxada nagusiaren itxura, hirigintzako legedia aplikatuz hura berreraikitzea ahalbidetzen duen ustekabeko edo halabeharrezko kasua gertatu aurretik.
 - b) Sistema orokorrak ezartzearen ondorioz derrigorrezko desjabetzeagatik eraitsitako eraikinaren bolumetria.
 - c) Hirigintzako legedia aplikatuz legezko hondamen-egoeran dagoen Eraikuntzaren, edo gaur egun duen egoera dela-eta eraiki zutenean xedetzat zuen erabilera garatzea ezinezkoa den Eraikuntzaren bolumetria, azalera eraikia eta fatxada nagusiaren itxuraketa.
 - d) Berreraikitzea eragin duen egoeraren aurretiko azpiegituraren diseinua eta trazadura.
- 3.– Plan honen ondorioetarako, lurzati hartzaile bateko eraikinak edo instalazioak berreraikitzeako esku-hartzeak honako hauek izango dira, berrezartze hori gauzatzen den lekuaren arabera:
 - i) Ordezteko esku-hartzeak:
 - Ordezkapeneko esku-hartzeetan, Eraikuntza berreraikia inguratzen duen solido berria jatorrizko Eraikuntzaren lurzati hartzaileko beste kokapen batean kokatuko da; bolumetriari dagokionez, hura bat etorriko da jatorrizkoarekin, edo, gehienez ere, % 20 murriztuko du haren bolumena, solairu-kopuru bera izan beharko du sestra gainean. Jatorrizko eraikuntzaren azalera eraikia ez da inola ere handituko.
 - Sistema orokorrak ezartzeagatik derrigorrezko desjabetzearen ondorioz ordeztu behar diren eraikinen kasuan, horiek 2.000 m²tik gorako azalera duen edozein lurzati hartzailetan kokatu ahal izango dira, betiere lurzati horren aurrealdeak bide publikora ematen badu, ur-, saneamendu- eta argindar-zerbitzuekin lotuta badago, eta Plan honetan Landa Gunearen Eremu –T3– edo Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuko Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatuta badago.
 - Gainera, ordezteko esku-hartzeak egin ahal izango dira Gune, Gunearen Babes eta Trantsizio kategorietan dauden Eraikuntzetan, betiere eraikuntza-lerroek adierazitako bereizketaren batek edo edozein arau sektorialek ezarritako zortasun eta jabari publikoko zonek eragiten badute, arau sektorialak horiek desjabetzea ez aurreikusi arren. Kasu horietan, ordezteko esku-hartzea eragindako Eraikuntza dagoen lurzati hartzaile berean egin beharko da, betiere hura Gune Gainekategoria sartutako lurzoruetan egiten ez bada, eta esku-hartze hori gauzatzea galarazten duten arau sektorialek eragiten ez badiote.
 - Eraikuntzak 5 metroko tartea izan beharko du, gutxienez, muga guztiekiko, araudi aplikagarriari jarraikiz. Gainera, eraikuntza-lerroari buruzko araudi espezifiko bat duten muga bidedunen kasuan, dagokion araudi sektorialak ezartzen duena aplikatuko da.
 - ii) Berreraikitzeako esku-hartzeak:
 - Berreraikitzeako esku-hartzeetan, berreraikitako Eraikuntzaren solido ingurutzailak bere bolumena % 20 murriztu beharko du gehienez ere, edo bat etorri beharko du, espazioari dagokionez, jatorrizkoarekin; gainera, lursail eta espazio berean kokatuta egon beharko du, azalera bera okupatu beharko du solairu guztietan –sotoan nahiz lurretik gora–, eta azalera eraikigarri eta solairu-kopuru berberak izango ditu.
- 4.– Edonola ere, Eraikuntzak berreraikitzeako esku-hartzeak haren jatorrizko formaren itxuraketa errespetatu beharko du. Barnealdean, jatorrizkoak ez diren beste egitura-material batzuk erabili ahal izango dira etxabeen eta lehen oineko solairu-armazoian, eta barneko banaketa aldatu ahal izango da, baita albo-

fatxadetako eta atzeko fatxadako baoen itxuraketa ere. Eraikuntza-tipologiaren oinarrizko antolaketa mantendu egin beharko da fatxadetan eta barnealdeko banaketan, baita estalkiaren forma ere. Eraikuntza-tipologiaren oinarrizko antolaketatzat hartuko da kasuan kasuko bizitegi-eraikin motaren ohiko banaketa-egitura, fatxadetako nahiz barnealdeko espazioena.

- 5.– Era berean, eraikinak berreraikitzeke kasuan, eta jatorrizkoetan ez egon arren, etxabearen okupazio bera duen sotoko oin bat eraiki ahal izango da, betiere etxabeko solairu-armazoi primitiboren maila 0,50 m baino gehiago aldatzen ez bada eta solairu-armazoiaren desplazamendu altimetriko absolutuan nahiz elkarren arteko erlatiboan 0,50 m-tik gorako aldaketarik egiten ez bada; dena den, sotoko oin bat ezin izango da etxabe bihurtu, ezta jatorrizko Eraikuntzak sestra gainean zituenak baino oin gehiago sortu ere.
- 6.– Berreraikuntzako esku-hartzea baimendu aurretik, berreraikiko den Eraikuntzaren lurzati hartzaileak gutxienez 25 metroko aurrealdea izan beharko du bide publiko batera, eta ur-, saneamendu- eta argindar-zuzkidurarako zerbitzuez hornituta egon beharko du. Dena den, hondakin-urak ateratzeko sistemarako eta energia elektrikoaren zuzkidurarako irtenbide autonomoetara joz gero, horiek berariaz jaso beharko dira dagokion obra-baimena eskatzeko erabiliko den proiektuan. Edonola ere, zerbitzu horiek eskuratzea eta mantentzea esku hartuko duen sustatzailearen kargura gauzatuko dira.
- 7.– Plan honen helburuetarako, 1950. urtearen aurretiko eraikinak berreraikitzeke esku-hartzeak eraberritzeke esku-hartze gisa hartuko dira, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 30. artikuluko 1. atalean adierazten denari jarraikiz.

3.3.3.6 artikulua.– Arkitektura-, kultura- edo historia-balioa duten, edo ondare eraikiaren alderdi interesgarri bat osatzen duten eraikuntzetan eraikiari ahalik eta zorrotzen lotzea eragiten duten esku-hartze motak.

- 1.– Arkitektura-, kultura- edo historia-balioa duten, edo ondare eraikia osatzen duten Eraikuntzetan gauzatzen diren esku-hartzeak Eusko Jaurlaritzak ondare katalogatuari edo inbentariatuari buruz ezartzen duenaren edo ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak edo hura ordezkatzeko duen araudiak ezartzen duenaren arabera arautuko dira.
- 2.– Era berean udalek, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aurreikusitako babestu beharreko ondasun naturalak edo artifizialak inbentariatu eta identifikatzeko katalogoen garapena kontuan hartuta, Eraikuntza horietan baimendutako esku-hartzeen erregimena ezarri eta zehaztu ahal izango dute, horien babesa bermatu ahal izateko; edonola ere, Plan honetan jasotakoa bete beharko dute, gutxienez.

3.3.3.7 artikulua.– Zaintzeko eta apaintzeko eraikuntzako esku-hartzeak.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, zaintzea eta apaintzea Eraikuntzetan obra txikiak egitera zuzendutako eraikuntzako esku-hartze mota bat da.
- 2.– Obra horien xede bakarra Eraikuntzan funtsezko instalazio teknologikoak eta higiearen eta osasunaren ingurukoak jartzea eta titulu honetan jasotzen diren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzea izango da. Zaintzeko eta apaintzeko esku-hartzeen barnean sartutako obrek ez dute eraginik izango Eraikuntzaren egonkortasunean, zimenduei, sostengu-egiturei edo estalkiaren egiturari dagokienez.
- 3.– Plan honetan, honako hauek hartzen dira horrelakotzat:
 - a) Lehendik dauden Eraikuntzetan edo Plan honen aplikazioaren bidez gauzatutako oin berrikoetan akabera-elementuak konpontzera, berritzera edo ordezkatzera zuzenduak.
 - b) Eraikinei gutxieneko bizigarritasun-baldintzak emateko beharrezkoak direnak, bainugela, komun eta sukaldeetako gasen aireztapenari dagokionez.
 - c) Eraikinari funtsezko instalazio teknologikoak eta higiearen eta osasunaren ingurukoak jartzea ahalbidetuko duten obrak; instalazio horien artean sartzen dira ur-zuzkidura, elektrizitatea, berokuntza eta saneamendua, eta komunikazio-sareen konexioa.
 - d) Geletako argitasun- eta aireztapen-baldintzak hobetzea, beharrezkoa izanez gero, fatxada-baoak aldatuz, betiere konposizio orokorrean eragin gabe.

- e) Eraikuntzak ez hondatzeko beharrezko lan txiki guztiak, euriaren eta hezetasunaren aurreko estankotasunari eta instalazioen egoera onari dagokienez.
 - f) Eraikuntzaren eranskin degradatzaileak edo kanpoaldeko estalduraren tratamendu desegokiak kentzea.
- 4.– Zentzu horretan, artapen eta apaindura esku-hartze bateko obrak honako hauek izan daitezke:
- a) Fatxaden itxura aldatzeko obra txikiak, baoen itxurari eraginez. Baoen neurriak behar bezala egokitu beharko du fatxada nagusiko baoek dituzten gehienezko neurrietara.
 - b) Estalkia konpontzeko obrak, hark duen forma aldatu gabe. Zurezko petralak ere ordeztu ahal izango dira, material bereko beste batzuekin.
 - c) Eraikineko edozein elementu iragazgaitzeko obrak.
 - d) Fatxada, balkoietako hegalkin, begiratoki, erlaitz eta sarbideetako ateetako arotzeria ordezkatzeko obrak. Horrelakoetan, lehendik zeuden material eta diseinuen antzekoak erabili beharko dira, horiek hobetzeko baldintzak direla-eta, horiek aldatzea komeni denean salbu.
 - e) Narriatuta dagoen beste akabera-elementuren bat konpontzeko helburua duten obrak, horiek egitura- edo sostengu-funtzioren bat dutenean izan ezik.
 - f) Eraikinaren banaketa ukitzen edo aldatzen ez duten obrak: emokadura eta pintatzea; zolak betearazi eta konpontzea; barneko arotzeria-lanak, iturgintza-, berokuntza- eta fumisteria-konponketak; sukaldeak nahiz osasun-tresnak aldatzea; aireztapen-sistemak egokitzea; eta oinarrizko instalazio teknologikoak eta higieniko-sanitarioak sartzeta.
 - g) Eraikina narriatzen duten eranskinak edo gainaldearen kanpoaldean gaizki erabilitako tratamenduak ezabatze lanak, hala nola, estaldura-materiala, haren pintura, kolorea edo testura, hala badagokio.
 - h) Garrantzi bereko edo esandakoen pareko beste edozein obra.

3.3.3.8 artikulua.– Sendotzeko eraikuntzako esku-hartzeak.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, sendotzea Eraikuntzaren egonkortasuna hobetzera eta haren narriadura saihestera bideratutako eraikuntzako esku-hartze mota bat da, egitura- eta eraikuntza-elementuen sendotasunari eta segurtasunari dagozkion terminoetan, betiere elementu horiek berrituz eta ordeztuz. Zentzu horretan, egitura-elementuak kontserbazio-egoerak hala egitea gomendatzen duenean bakarrik ordeztu ahal izango dira, edo ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak jasotzen dituen barneko gutxieneko altuera libreetara egokitzeko beharrezkoa denean.
- 2.– Sendotzeko esku-hartzeen artean sartzen diren obren artean, egoera txarrean dauden egitura-elementuak beste batzuekin ordeztu ahal izango dira, eta egonkortasuna eta segurtasuna areagotzea eragiten duten egituraren eta zimendatzearen osaketaren inguruko lanak egin ahal izango dira. Egitura-elementuak ordezkatzeko orduan, beheko oinean eta lehen oineko solairu-armazioan bakarrik erabili ahal izango da jatorrikoa ez den beste material bat.
- 3.– Egitura-elementuak ordezkatzeko lanek solairu-armazoiaren kotak aldatu ahal izango dituzte pixka bat, erlaitz edo teilatu-hegalen, gailurren eta leihoen kotak bere horretan mantentzen badira.
- 4.– Egitura sendotzeko lanak egitearekin batera, eta horiek Eraikuntzako elementu batzuen eraiste partziala eragiten badute, elementu horiek lehenago zituzten forma- eta banaketa-baldintza beretan berregin beharko dira.

3.3.3.9 artikulua.– Eraberritzeko eraikuntzako esku-hartzeak.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, eraberritzea eraikinari bizigaitasuna ematera eta Eraikuntzaren hondamena saihestera zuzendutako eraikuntzako esku-hartze mota bat da.
- 2.– Horretarako, kontserbazioko eta apaindurako, eta finkatzeko esku-hartzeetan jasotzen diren ekintzekin batera, eraberritzeko esku-hartzeetan honako hauek gaineratzen dira:
 - a) Barruko espazioen banaketa eta antolamendua aldatzea, instalazio teknologikoak eta higienearen eta osasunaren inguruko instalazioak barnean hartzean egindako egokitzapenak baino harago iritsiz eta eraikinei bizigarritasuna ematea ahalbidetuz.

- b) Zenbait egitura-elementuren, hau da, pilare, habe, solairu-armazoi, ganga eta eskailearen kokapena, kota, forma eta neurriak aldatzea. Harri-hormazko perimetro-hormaz eta zurezko barne-egituraz hornitutako Eraikuntzen kasuan, aldaketa horiek egiten direnean aurrekoen egitura-sistema eta material berdinak erabili behar dira, gutxienez lehen oineko solairu-armazoitik gora. Hura behar bezala dokumentatuta badago, aurreko egiturazko irtenbide bat berreskuratu ahal izango da, lehendik dagoena ez izan arren.
- c) Eraikuntzaren kanpoaldeko albo-fatxaden aldaketa. Balio estilistiko berezia duten elementuak mantendu beharko dira. Esku-hartze horien xedea barnealdeko espazioak argiztatzea eta aireztatzea izango da. Bao berriak fatxada nagusikoen neurri berekoak izan behar dute eta, baserri, errota, etxe tradizional arrunt, dorretxe eta jauretxeen kasuan, horiek kontraleiho bidez itxi ahal izango dira. Era berean, eta bao berriak ireki beharrean, fatxada altuera osoan zehar bertikalki urratu ahal izango da beira eta/edo egur bidez, ukuiluarekin eta lastategiarekin bat datorren atzealdean, eta gehienez ere 1,80 metroko zabaleran; gainera, 1,5/10 gehieneko proportzioa errespetatu beharko da fatxadari dagokionez.
- d) Geroago egindako altxaerek (gehienak iparrerantz orientatuta) jatorrizko itxuraketa mantendu beharko dute, eta gehienez ere 1,20 x 1,70 metroko lau bao zabaldu ahal izango dira; horiek 1,4ko proportzioa mantendu beharko dute oinarriaren eta altueraren artean. Era berean, fatxada beira eta/edo egur bidez urratu ahal izango da altuera osoan zehar, gehienez ere 1,80 metroko zabaleran. Horien kokapenak eraikinaren beraren tipologiari erantzun beharko dio, eta simetrikoa izan beharko du altxaerari dagokionez. Bi bizitzako baserrietan bao berriak zabaltzen badira, esku-hartzeak erdi bati bakarrik eragin arren, multzoaren ondorengo altxaera aurkeztu beharko da, eta, bertan, bao guztien kokapena ezarri beharko da; altxaera hori erabakigarria izango da beste erdian baoak zabaltzeko orduan.
- e) Gutxieneko bizigaitasun-baldintzak betetzen dituztelako lehendik dauden Eraikuntzen kasuan, jatorrizko eraikinaren altuera osoa gaindituko duten esku-hartzeak egin ahal izango dira. Lan horien bidez, erlaitz edo teilatu-hegalaren eta gailurraren kota 0,40 m handitu ahal izango da. Altueraren igoera hori ez da azalera eraikiaren zabalkuntzat hartuko, ezta bolumenaren, altueraren edo oin-kopuruaren areagotze gisa ere. Gainera, altueraren igoera hori behar bezala justifikatu beharko da, jatorrizko perimetro-hormari hura eranstea ahalbidetuko duen, egituraren egonkortasuna hobetuko duen eta estalkiko kargak hobeto banatuko dituen elementu bat hornitu behar izateagatik, hain zuzen ere.

Edonola ere, estalkiaren formak aldatu gabe jarraitu beharko du, eta ez da, inola ere, horietan *txoritokiak* ager daitezela baimenduko. Estalkiko isurkietan terrazak egokitzea ez da estalkiaren forma-aldaketatzat hartuko, betiere hura teilatu-hegalarekiko eta goiko gailurrarekiko lau metrotara egiten bada –estalkiko planoan neurtuta– eta lau metrotik gorako luzera ez badu.

3.– Eraberritzeko esku-hartzeak Eraikuntzaren eraiste partziala eragin dezake.

Berriz ere iraungita zegoen erabilera bat ezartzen bada, edo lehendik dagoen Eraikuntzan baimendutako erabilera berri bat ezartzen bada, eraberritzeko esku-hartzean ezin izango da lehendik dagoen eta baldintza onetan dagoen egiturazko inolako elementurik ezabatu. Horretarako, obra-fasean beharrezko neurri teknikoak hartu beharko dira.

4.– Kanpoaldeko hormaren baten egitura egonkortu behar bada, edo, bere garaian, kanpoko hormaren zati bat desagertzea eragin zuen jatorrizko forma nahasten duen elementuren bat kendu behar bada, jatorrizkoen ezaugarri berak dituzten materialak erabiliz horma jatorrizko egoerara lehengoratzea aurreikusiko da.

3.3.3.10 artikulua.– Zatitzeko eta batzeko eraikuntzako esku-hartzeak.

1.– Plan honen ondorioetarako, zatitzeko eta batzeko esku-hartze gisa identifikatuko dira eraberritzeko esku-hartzeetan sartuta daudenak eta etxebizitza berri bat sortzea edo bizitegi-eraikin batean dagoen etxebizitza bat desagertzea eragiten dutenak.

2.– Zatitzea, tipologiaren arabera:

- a) Bizitza bakarreko eta biko baserriak: lehendik dagoen eta jabetzaren erregistroan jasota dagoen etxebizitza-kopurua bakarrik aldatu ahal izango da. Bizitza bakarreko baserrien kasuan, bi bizitzakoa izango da gehienezko kopuru hori. Bi bizitzako baserrien kasuan, gehienezko kopurua bikoia izango da bizitza-unitate bakoitzeko, eta, beraz, guztira lau bizitza ezarri ahal izango dira eraikineko.
- b) Errotak, dorretxeak, jauregiak eta etxe tradizionalak:

- Erroten kasuan, halaber, gehienez ere bi bizitzako kopururaino handitu ahal izango da. Edonola ere, zatitzea gauzatu ahal izateko, eraikinari uholde-arriskuak eragiten ez diola bermatu beharko da.
- Etxe tradizional, dorretxe eta jauregien tipologietan sartutako eraikinetan, esku-hartzearen datan jabetzaren erregistroan jasota dagoen bizitza-kopurua bikoiztu ahal izango da, gehienez ere 4ko kopurura iritsiz.

Plan honetan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean dauden bizitegi-eraikinen banaketa justifikatzen da eraikitako espazio hutsak bizitegi-erabilera berriekin okupatzeko aukerarekin, hala, lurzoruak beste bizitegi-erabilera batzuekin eraldatu ez daitezten eta, hala badagokio, zenbait jarduera desagertu izanaren ondorioz abandonu-egoeran eta kaltetuta dagoen eraikitako ondarea kontserbatzea bermatzeko.

3.– Lursailen kalifikazioa eta eraikinaren egoera:

- Aipatutako zatiketa hori baimenduko da, antolamenduaren barnean dauden edo toleratuta dauden arestian aipatutako tipologia guztietan.
- Ez da inola ere baimenduko, kasuan kasuko eraikina honako egoera hauetakoren batean badago:
 - Antolamenduz kanpoko egoeran.
 - Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean.
 - Gune Gainkategorian sartutako kalifikazioen barnean.
 - Bere ezaugarri arkitektonikoak edo arkeologikoak direla-eta, hark duen babes-mailak ezinezko egiten duenean.

4.– Zatitzearen izaera juridikoa:

- Zatitzea jabetzaren banaketa horizontala izango da. Bertan, nekazaritzako materialak eta lanabesak gordetzeko espazioa –beheko oinean egon beharko du–, eta baserrietako zona estalia eta irekia (*atartea*) eta baserrirako sarbideak elementu komunak izango dira; horiek zati berdinetan banatuta egongo dira bizitza guztietarako.
- Etxebizitza bakoitzari lurzati hartzailean dagokion pro-indibisioa ezartzen diren ehunekoetan islatuko da, eta, gutxienez, bizitza bakoitzaren azalerekiko proportzionala izango da; ezin izango da, inola ere, lurzati-unitatearen bereizketarik edo hirigintza-partzelaziorik egin.
- Obra amaitu ostean, Obra Berriaren Adierazpen bat aurkeztu beharko da.

5.– Eraikinaren barnealdean:

- Zatitze horren bidez, jatorrizko bizitzaren beheko oinean, sukalde, egongela eta komunikazio-eskailerarako espazioaz gain, logela nagusi bat eta bainugela oso bat egokitu beharko dira; baserrien kasuan, ez da mehelinen gainean eragitea baimenduko, igarotzeko beharrezko baoak baino ez.
- Beheko oineko gainerako espazio hutsean, ateratako bizitzetarako espazio komun bat gaituko da, eta, bertan, nekazaritzako materialak eta lanabesak jasoko dira. Era berean, bizitza bakoitzak galdararako eta egurretarako espazio bat izan beharko du beheko oinean, baita esekitokirako espazio bat ere.
- Debekatuta dago eskailera eta/edo igogailuz osatutako komunikazio-espazio komunak egokitzea, bizitza-unitate bat baino gehiagorako sarbide komuna ahalbidetzeko. Bizitza-unitate bakoitzak bere komunikazio bertikaleko eskailera izan beharko du, hura osatzen duten oinen artean.
- Bizitza berriarekin ezin izango dira jatorriz bizitza nagusiak lehen oinean okupatzen zituen espazioak okupatu.
- Bizitza berriaren gutxieneko neurria 60 m²-koa izango da, eta hark honako hauek izan beharko ditu, gutxienez: egoteko, jateko eta sukaldatzeko moduko gela bat, logela bat, eta, gutxienez, komuna, konketa eta dutxa izango dituen garbigela oso bat.
- Egiturazko elementuak (hormak, pilareak, gatzariak, solairu-armazoiak, habetzanak, petralak, eta abar) horien kontserbazio-egoerak hala egitea eskatzen duenean edo gutxieneko 2,20 metroko altueretara egokitzeko bakarrik aldatu ahal izango dira; elementu horiek zurezkoak izango dira, lehen oineko solairu-armazoitik gora behintzat. Hura behar bezala dokumentatuta badago, aurreko egiturazko irtenbide bat berreskuratu ahal izango da, lehendik dagoena ez izan arren.

6.– Eraikinaren ingurutzailan:

- a) Zatitzeko esku-hartzearen bidez, albo-fatxadetan bao berriak zabaldu ahal izango dira bigarren bizitzara sartzeko nahiz gelak argiztatu eta aireztatzeko. Bao berriek fatxada nagusikoen neurri berberak izan beharko dituzte, eta kontraleiho bidez bakarrik itxi ahal izango dira. Era berean, eta bao berriak ireki beharrean, fatxada altuera osoan zehar bertikalki urratu ahal izango da beira eta/edo egur bidez, ukuiiarekin eta lastategiarekin bat datorren atzealdean, eta gehienez ere 1,80 metroko zabalera; gainera, 1,5/10 gehieneko proportzioa errespetatu beharko da fatxadari dagokionez.
- b) Geroago egindako altxaerek jatorrizko itxuraketa mantendu beharko dute, eta gehienez ere 1,20 x 1,70 metroko lau bao zabaldu ahal izango dira; horiek 1,4ko proportzioa mantendu beharko dute oinarriaren eta altueraren artean. Era berean, fatxada beira eta/edo egur bidez urratu ahal izango da ukuiiarekin eta lastategiarekin bat datorren gunean, altuera osoan zehar eta gehienez ere 1,80 metroko zabalera. Horien kokapenak eraikinaren berezko tipologiari erantzun beharko dio, eta simetrikoa izan beharko du altxaerari dagokionez. Bi bizitzako baserrietan, zatitzeko esku-hartzeak erdi bati bakarrik eragin arren, multzoaren geroko altxaera bat aurkeztu beharko da, eta, bertan, bao guztien kokapena ezarri beharko da; altxaera hori erabakigarria izango da beste erdian zatitzeko esku-hartze bat gauzatzeko orduan.
- c) Lehendik dauden eraikuntzen kasuan, esku-hartzea baino jatorrizko eraikinaren altuera handituko duten esku-hartzeak egin ahal izango dira gutxieneko bizigaitasun-baldintzak betetzeko. Lan horien eraginez, erlaitz edo teilatu-hegalaren eta gailurraren kota 0,40 m igo ahal izango da gehienez ere. Altueraren igoera hori ez da azalera eraikiaren zabaltzetat hartuko, ezta bolumen, altuera edo oin-kopuruaren handitze gisa ere. Gainera, altueraren igoera hori behar bezala justifikatu beharko da, jatorrizko perimetro-hormari erantsi ahal izatea ahalbidetuko duen, egituraren egonkortasuna hobetuko duen eta estalkiko kargak hobeto banatuko dituen elementu bat hornitzeko beharrezekin, hain zuzen ere.
Edonola ere, estalkiaren formak aldatu gabe jarraitu beharko du, eta ez da, inola ere, horietan *txori-tokiak* ager daitezela baimenduko. Estalkiko isurkietan terrazak egokitzea ez da estalkiaren forma-aldaketatzat hartuko, betiere hura teilatu-hegalarekiko eta goiko gailurrarekiko lau metrotara egiten bada –estalkiko planoan neurtuta– eta lau metrotik gorako luzera ez bada.
- d) Zatitzeko esku-hartzeak, eraberritzekoak bezala, eraikinaren eraiste partziala eragin dezake. Kanpoaldeko hormaren zati bat desagertzea eragin duen jatorrizko forma nahasten duen elementuren bat kendu behar bada, edo hormaren baten egitura egonkortu behar bada, hura lehengo egoerara lehengoratzeko aukera aurreikusiko da.

7.– Eraikinaren kanpoaldean:

- a) Bizitza bakoitzari lurzati hartzailean dagokion pro-indibisioa kontuan hartuta, mota guztietako lurzati-itxiturak debekatuko dira bizitzen artean.
- b) Debekatuta dago eraikinaren ingurua bere perimetro osoan metro bat baino gehiago asfaltatzea, hormigonatzea edo hura terraza modura jartzea. Era berean, lurzati hartzailearen barnean 40 m²-ko espazio libre bat dagoela bermatu beharko da, inolako Eraikuntzarik gabe, lehendik egon daitekeen zonaz gain. Azalera hori landaretza eta zoladura iragazkorak konbinatzen dituzten tekniken bidez egokitu beharko da, bizitza berriko ibilgailuentzako aparkaleku gisa.
- c) Lurzati hartzailean ez da ibilgailuak gordetzeko eraikuntzarik altxatu ahal izango. Nekazaritzako jarduerarik ez duten eraikinen kasuan, ezin izango da jarduera horretarako behar diren lanabesetarako txabolarik egin.
- d) Lur-mugimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikulua ezartzen duenera egokituko dira. Bizitzen eta horiek dituzten sarbide egokituaren kokapena lursaileko berezko sestrei eta esku-hartzearen aurretiko egoerari egokitu beharko zaie. Eraikina iragazgaitzeko eta babesteko obrak egin behar izanez gero, obrak egin ostean hura jatorrizko egoerara itzuli beharko da.

8.– Eraikinaren eta lurzati hartzailearen gutxieneko zuzkidurak:

- a) Eraikina Plan honetako 3.3.3.2 artikuluan jasotako zehaztapenen arabera hornitu beharko da.
- b) Eraikina hartzen duen lurzatiak ibilgailuentzako sarbidea izan beharko du. Sarbideak asfaltatuta eta hormigonatuta egon beharko du, edo zagor-legarrezko akabera izan beharko du bide publiko batetik bere luzera osoan, eta 2,50 metroko zabalera izan beharko du, gutxienez.
- c) Argiteria publikoari dagokionez, sarbideko zuzkidura energia berriztagarriak erabiltzen dituzten elementuetan oinarrituko da.

- 9.– Arau hauetara egokitzen ez den zatitzea gauzatu duten bizitegi-eraikinen kasuan, horiek zatiketa legeztatze eskaera egin beharko dute, behar bezala erregularizatu ahal izateko.
- a) Horrelako kasuetan, zatitze berrietarako ezartzen dena betetzen dela justifikatu beharko da, beheko oinean etxebizitza nagusirako logela eta bainugela egokitzen badira salbu.
- 10.–Kultura-ondarea babesteko figuraren batean gaineratzen diren eraikinetarako finkatzen den zatitzearen erregulazioa dagokion araudian aurreikusitakoa izango da. Hark berariaz jaso beharko du dokumentu honetan jasotzen dena bete beharko dela.

3.3.3.11 artikulua.– Handitzeko eraikuntzako esku-hartzeak.

- 1.– Handitzea lehendik dagoen eraikuntzaren azalera eraikia edo bolumena handiagotzera zuzendutako eraikuntzako esku-hartze bat da.
- 2.– Ez dira kontsumitutako eraikigarritasun edo azalera eraiki gisa hartuko atzeko edo alboetako fatxadetako beheko oinean perimetro eraikia handitzeko lanak, ezta estalkia igotzekoak ere, betiere eraikinaren jatorrizko azalera eraikia handitzen ez bada.
- Era berean, eta gutxieneko bizigaitasun-baldintzak betetzeko helburuarekin, ez dira kontsumitutako eraikigarritasun edo azalera eraiki gisa hartuko estalkiaren altuera altxatzeko egindako esku hartzeko lanen eraginez sor daitezkeen azalera eraikiaren handitzeak, betiere altuera gehienez ere 0,40 m igotzen bada, eta esku-hartzearen helburua jatorrizko horma perimetralari euskarria, egituraren egonkortasuna eta estalkiaren pisuen banaketa hobea ematea bada.
- 3.– Handitzeko eraikuntzako esku-hartzearekin batera, eraberritzeko eta eraiste partzialeko esku-hartzeak egin ahal izango dira; edonola ere, lehendik dagoen Eraikuntzaren forma- eta tipologia-ezaugarriak mantendu beharko dira. Salbuespen gisa, IV. tituluan baimentzen diren erabileren kasuan, handitzeko eta berreraikitze esku-hartzeak aldi berean egin ahal izango dira.
- 4.– Teknologia- eta higiene- eta osasun-instalazioen kasuan, handitzea elementu independenteen bitartez gauzatu ahal izango da, elementu horiek gehienez ere jatorrizkotik 15 metrotara jartzen badira. Horien neurriak zerbitzua bermatzeko beharrezkoak izango dira, eta gehienez ere Eraikuntzaren azalera eraikiaren % 5a hartu ahal izango dute.
- 5.– Ez da handitzeko esku-hartze gisa hartuko atzealdeko fatxadari edo albo-fatxadei atxikitako azalera eraiki bera berreraikitze esku-hartzea, ezta eraikin nagusiaren inguruan edo haren eranskin gisa dauden beste eraikin batzuk okupatzea ere, horiek antolamendutik kanpo ez badaude, eta erabilera nagusiarekiko bateragarriak eta osagarriak diren erabilerak barne hartzen badituzte. Edozein kasutan, horiek ez dute bizitegi-erabilerarik izango.
- 6.– Handitzeko esku-hartzetat hartuko dira garraiobideetan horien jabari publikotik harantzago gauzatzen direnak, betiere horiek azpiegituraren ahalmena handitzeko helburua badute.

3.3.3.12 artikulua.– Eraikuntzarako lurzati hartzaileen barnealdeko urbanizazio-obretarako esku-hartzeak.

- 1.– Lurzati hartzaileen barneko urbanizazio-obretarako esku-hartzeak Eraikuntzarako behar den baimenarekin batera tramitatzeko eta dagokien proiektuan sartzeko, Eraikuntzan baimendutako eraikuntzako esku-hartzeak kontrata bidez gauzatzeko aurrekontuaren % 5eko inbertsioa beharko dute, gehienez ere.
- 2.– Egin beharreko esku-hartzeen kostuak aurreko puntuan aipatutako kopurua gainditzen badu, edo Eraikuntzan eraikuntzako esku-hartzerik egin behar ez bada, baina lurzati hartzailearen barneko urbanizazioan obrak egin behar badira, horiek modu independentean tramitatuko dira.
- 3.– Lurzati hartzaileen barnealdeko urbanizazio-obretarako esku-hartzeak honako hauek izango dira:
- a) Dagoen urbanizazioa egokitzea edo birjartzea.
- b) Zerbitzu orokorrekiko konexioak egokitzea.
- c) Lurzatia ixtea, Planeko 3.5.3.1 artikuluan araututako terminoetan.
- d) Aparkaleku-zona bat prestatzeko beharrezko lanak, erabilera bakoitzari gehienez ere IV. tituluan arautzen diren neurriak emanez, landaretza eta elementu zurrun iragazkorrak eta zulatuak konbinatzen dituzten teknikekin, eta zonarako sarbidearekin batera.

- e) Igerileku-erabilera osagarri eta lotu bat ezartzea:
- i) Erabilera nagusia zuzkidurari edo ekipamenduari badagokio, eta turismo-establezimenduetan, ostalaritza-establezimenduetan eta kanpinetan, 4 x 15 m-tik beherako neurriak izango ditu, eta erabilera publikoko igerilekuen osasuneko araubideari buruzko 32/2003 eta 208/2004 Dekretuetan edo horiek ordezkatzan dituen arauan ezarritakoari jarraikiz arautuko da.
 - ii) Erabilera nagusia familiaren bizitegi-erabilera bada, haren neurriak 3,5 x 8 m-tik edo 3 m-ko diametrotik beherakoak izango dira. Lurzati hartzaileko beste edozein Eraikuntzaren loturatik aparteko lotura zuzena eta independentea izan beharko du ur-zuzkidura eta -ebakuaziorako sarearekin, dagokion uraren ziklo integrala arautzen duen ordenantzak jasotzen dituen baldintzetan. Ez du urbanizazio gogorrik izango inguruan, eta ez du inolako lur-mugimendurik eragingo; horrenbestez, lursailaren topografia aldatu gabe mantenduko da. Era berean, ez da igerilekua estaltzeko elementurik jarri ahal izango, olanak edo pertsianak izan ezik.
 - iii) Igerilekuek 2 m-ko tartea izan beharko dute, gutxienez, edozein mugaraino.
- f) Lur-mugimenduak honako termino hauetan gauzatuko dira:
- i) Ondoren adierazten diren zehaztapenetatik haratago, lur-mugimenduak gauzatu ahal izateko, horien zeroko balantzea bermatu beharko da lurzati hartzailearen barnean. Aparteko kasuetan, proiektuan behar bezala justifikatutako ingurumen- edo paisaia-arrazoiak daudenean, soberako lurrak berariaz baimendutako betelanelara garraiatu ahal izango dira.
 - ii) Eraikuntza-erabilera berriak gauzaten badira, zona horizontal bat egokitu beharko da; hark gehienez ere 5 metroko zabalera eta landare-akabera bat izango ditu, haren punturik kaltegarrienean berezko sestrarekiko 1,50 m-tik gorako kota-aldea izan gabe. Hala badagokio, lursailaren egokitzapen horretarako gutxienez 5 m-ko tartea utzi beharko da mugarekiko, eta tarte horrek aldatu gabe jarraitu beharko du.
 - iii) Eraikinetara ibilgailu bidez iristeko bideak sortu behar badira, horiek sestra naturalaren eraldaketa oro saihesteko moduan gauzatu beharko dira; salbuespen gisa, metro batetik gorako kota-desberdintasuna baimenduko da, sestra naturalari dagokionez. Sestrarean kokatuta dauden solairuetara iristeko bideen kasuan, altuera hori bi metrotara handitu ahal izango da, eta, horrenbestez, euste-hormak gauzatu ahal izango dira.

Era berean, sarbide horiekin ur-pasaguneak zeharkatu behar badira, diseinua indarrean den Plan Hidrologikoan zehazten denera egokituko da.
 - iv) Gainerako kasuetan, galarazita egongo da lurzati edozein punturen berezko sestra metro bat baino gehiago aldatzeko helburua duen lur-mugimenduak gauzatzea.
 - v) Eraikuntza-proiektuetarako % 12tik gorako malda duten zonetan lur-mugimenduak egin behar direnean, lurzuaren egonkortasunaren eta higagarritasunaren gaineko inpaktu negatiborik ez dagoela bermatzeko neurriak definituko dituzte. Edonola ere, malda mugimenduaren xede diren lurren materialari dagokion pausaguneko angeluari egokitzen zaiola bermatu beharko da.
 - vi) Egin nahi diren mota guztietako hondeaketa-lanetan, obren titularrak berezko landaredia berrezarri beharko du, lur beltzeko beharrezko geruza barne, lanen ondorioz hondatuta geratu den lursaileko azaleretan.
 - vii) Lurpeko garajeetarako sarbideak egokitzeko edo lurrei eusteko euste-hormak egitea, Plan hau indarrean sartzen den unean horren beharra sortzen den lurzatiaren mugetan:
 - Lurzatiaren mugetan lurrei eusteko hormak egin beharra argazki bidez, jasotze topografikoz eta aldameneko lurzati jabeek adostasuna adierazten duten idazkiaren bidez egiaztatu beharko da.
 - Horma horiek altxatzeko, bioingeniaritzako hormak erabiliko dira. Aparteko kasuetan, eta azterketa tekniko bidez behar bezala arrazoitu behar diren alderdi geoteknikoek horrela egitea gomendatzen dutenean, harri-lubetak egin ahal izango dira, horiek hormigoizko zimendurik behar ez badute eta hormigoirik gabe egiten badira.
 - viii) Eraikinaren perimetroan lur-mugimenduak egin behar badira barnealdeko osangarritasun- eta hermetikotasun-baldintzak hobe daitezela bermatzeko, itxituren arkugainaren iragazkortasunerako eta lur azpiko eta lurrazaleko urak jasotzeko beharrezko lanak gauzatu ahal izango dira. Horiek

egin ostean, eraikinaren perimetroko lurrak horien jatorrizko egoerara eta sestra naturalera berrerraman beharko dira.

g) Lurzoruaren kutsaduragatik lursailak zigilatzea.

4.– Kalifikatu eta inbentariatutako ondareak hartzeko lurzatiaren barnean gauzatzeko urbanizazio-lanei dagozkion esku-hartzeak arloko araudiak baimendutakoekin bat etorriko dira. Araudi horretan inolako zehaztapenik ezartzen ez bada, Plan honetan ezarritakoa aplikatuko da.

3.3.3.13 artikulua.– Atxikitako lurzatiaren nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako edozein erabilera garatu ahal izateko, lursaila egokitzeko eta ixteko esku-hartzeak.

1.– Atxikitako lurzatiaren nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako edozein erabilera garatzeko, saila egokitzeko eta ixteko honako esku-hartze hauek bakarrik egin ahal izango dira:

a) Lursaila ixtea, Plan honetako 3.5.3.1 artikuluan eta 4.4.3.21 artikuluan araututako terminoetan.

b) Baso-pistak irekitzeko, Planaren 4.4.3.23 artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da.

2.– Ez da lurzatiaren jatorrizko topografia edo momentuan duena aldatzeko helburua duen lur-mugimendurik egin ahal izango.

3.3.3.14 artikulua.– Azpiegiturak eta hiri-altzariak konpontzeko esku-hartzeak.

1.– Azpiegiturak eta hiri-altzariak konpontzeko esku-hartzeak dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean dauden azpiegiturak eta hiri-altzariak aurretiko egoerara itzultzeko beharrezko lanak.

2.– Hiri-altzarien kasuan, esku-hartze horien artean sartuko dira, halaber, horiek ordezkatzeko egiten diren esku-hartzeak, baldin eta jarduketa horren bidez elementuaren eraginkortasun energetikoa hobetzen bada edo elementua birziklatzen bada, eta paisaiarekin hobeto integratzeko egiten badira.

4. KAPITULUA

TERMINOLOGIA

1. ATALA

TERMINOLOGIA ERAIKUNTZAREN ONDORIOETARAKO

3.4.1.1 artikulua.– Xedapen orokorrak.

1.– Hurrengo artikuluen bidez, Plan honek eraikuntzako esku-hartze guztiak planean bertan zehazten diren arauekin bat etorrituz gauzatzeko terminologia zehazten du.

3.4.1.2 artikulua.– Eraikigarritasuna.

1.– Eraikigarritasun gisa hartuko da aurretiaz zegoen azalera eraiki osoa edo eraiki gabe dagoen sestra gaineko eta sestra azpiko erdisotoko azalera eraikia (Plan honetan ezarritakoa), IV. tituluaren zona eta sektore batzuetan erabilera jakin baterako zehaztutako gutxienezko lurzati hartzaileetarako. Sestrapean eta sotoan eraikitako azalera ez da eraikigarritasun-ondorioetarako kontuan hartuko, eta erdisotoko gainazal eraikia, berriz, % 50ean zenbatuko da.

2.– Eraikigarritasuna lurzati hartzailearen metro karratu bakoitzeko eraikitako metro karratuetan adieraziko da. Ondorio horietarako, hura lurzati hartzailearen azalera kontuan hartuta kalkulatu da, Eraikuntza gauza daitekeen kalifikazioei jarraikiz.

3.– Lanabesak gordetzeko etxolen kasuan, Plan honetan dimentsioak, profilak eta altuerak seinaltuz adierazten da eraikigarritasuna.

- 4.– Lurzati hartzaile berean erabilera desberdinei dagozkien eraikigarritasunak jaso daitezke. Horrela, Plan honetako IV. tituluari, lurzati hartzaileetan gehienez ere gauza daitekeen eraikigarritasuna ezartzen da, baimendutako erabilera bakoitzaren arabera. Edozein kasutan, Eraikuntzan sostengatutako erabilera desberdinak baitarutzen dituen lurzati hartzaile berean gauza daitekeen eraikigarritasuna, bertan baimendutako eraikigarritasun handieneko erabilerarako ezarritakoa baino 1,25 aldiz handiagoa izango da gehienez ere.
- 5.– Lurzati bakoitzean gauza daitekeen eraikigarritasuna eraikinaren lurzati hartzaileak dituen zatien arabera kalkulatu da, hura gauza daitekeen kalifikazioak barne.

3.4.1.3 artikulua.– Azalera eraikia.

- 1.– Azalera eraikia eraikitako metro karratu kopuru osoaren bitartez adieraziko da, eta sestra gainean eta erdisotoan eraikitako oin guztien azalera partzialen batura izango da.
- 2.– Neurketan honako hauek sartuko dira:
 - a) Barneko eta kanpoko itxitura guztien lodiera.
 - b) Goiko oinetako hegal irekien eta balkoien azaleraren % 50.
 - c) Goiko oinetako hiru albotara itxitako hegalen azaleraren % 100.
 - d) Beheko oinetako portxe edo eranskin estalien % 100, alde itxiak bat, bi edo gehiago diren kontuan hartu gabe.
 - e) 1,5 m-tik gorako altuera duen teilatupeko azaleraren % 100.
- 3.– Neurketatik kanpo geratuko dira honako hauek:
 - a) Igogailu-zuloa, interes publikoko eraikinetan horrelakorik izanez gero.
 - b) Eskaileraren sarbideko azken oinaren proiektzioa, baita Eraikuntzan altuera bikoitzak edo hirukoitzak egoteagatik oin batean falta diren solairu-tarteena ere.

3.4.1.4 artikulua.– Azalera erabilgarria.

- 1.– Azalera erabilgarria Eraikuntzako itxituren barnealdeak kanpoaldearekin edo beste erabilera batzuetako beste lokal batzuekin definitutako perimetroak mugatzen duen lurzoruaren azalera da.
- 2.– Azalera erabilgarriaren konpututik kanpo geratuko dira honako azalera hauek:
 - a) Etxebizitzaren barnealdeko itxiturek, finko edo mugikorrek, oinean okupatzen dutena.
 - b) Egiturazko elementu bertikalek oinean okupatzen dutena.
 - c) Proiektzio horizontala 1 m²-tik gorakoa duten kanalizazio edo hodi bertikalek oinean okupatzen dutena.
 - d) Altuera librean 1,5 m-tik behera egiten duen lurzoruarena.
- 3.– Azalera erabilgarrian sartuko da, halaber, erabilera pribatuko kanpo-espazioen lurzoruaren azaleraren erdia, hala nola, balkoi, terraza eta beheko oinetik gorako oinetan kokatutako bestelako batzuen.

3.4.1.5 artikulua.– Okupazioa.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, okupazio gisa hartuko da fatxada-planoei Eraikuntzari eusten dion lursailean duten proiektzioak okupatzen duen azalera.

3.4.1.6 artikulua.– Mugak, lerrokadurak eta tartekak.

- 1.– Mugak: muga esaten zaio lurzati bat beste batekiko nahiz bide batekiko mugatzen duen perimetro-lerroari.
- 2.– Lerrokadurak:
 - a) Plan honek ez du inolako lerrokadura ezarririk jasotzen lurzati hartzaileetan Eraikuntzak kokatzeko.

- b) V. tituluan aurreikusitako garapen-tresnetako edozeinen bitartez ezarri ahal izango dira lerrokadurak, egoki iritziz gero.
- c) Sestrarepeko oinak, IV. tituluan definitzen diren interes publikoko erabileren kasuan, ez du, inola ere, sestra gaineko oinen lerrokadura gaindituko.

3.– Tarteak:

- a) Eraikuntzaren fatxada-lerroen eta hurbilen dagoen lurzatiko mugaren artean neurtutako distantzia erreala da; hurbilen dagoen lurzatiko muga barrutia osatzen duen eta Eraikuntza bat edo gehiago izan ditzakeen lursailaren muga da.
- b) Oin berriko edo handitzetiko Eraikuntzen kasuan, IV. tituluak ezartzen ditu Eraikuntzan oinarritutako erabilera jakin batzuek izan behar dituzten gutxienezko tartekak. Inolako tarterik adierazten ez den kasuetan, tarte horrek 5 metrokoa izan beharko du, gutxienez.
- c) Oin berriko Eraikuntzen ibilgu publikoko mugaketa-lerroaren gutxienezko erretiroak EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duen azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuko landa-eremuko marjinetarako araudi zehatzetarako aurreikusten direnak izango dira.

3.4.1.7 artikulua.– Sestra, fatxada-planoa, teilatu-hegalaren altuera eta gailurraren altuera.

1.– Sestra:

- a) Lursail batek plano horizontalarekiko duen malda zehazten duen lerroa da.
- b) Plan honen ondorioetarako, horrelakotzat hartuko da lursailaren berezko sestra. Hura bat etorriko da lursailak esku-hartzearen aurretik zuen lerroarekin.

2.– Fatxada-planoa: sestra gainean eta gehien irteten den puntuan fatxada-zuzentzailearekiko modu paraleloan trazatutako plano bertikala da, barnean Eraikuntzako eraikuntza-elementu guztiak hartzen dituen, elementu irtenak eta hegalak izan ezik.

3.– Teilatu-hegalaren altuera: eraikuntzaren altuerarekin bat etorriko da. Altuera hori fatxada-planoan neurtuko da, eta neurketarako puntuak honako hauek izango dira:

- a) Beheko zonan, fatxada-planoaren eta berezko sestraren beheko puntuaren arteko intersekzio-puntua.
- b) Goiko zonan, fatxada-planoaren eta teilatu-hegalaren goiko puntuaren azpialdearen proiektzio horizontalaren arteko intersekzio-puntua.

4.– Gailurraren altuera: eraikinak estalkiko goiko punturaino duen erabateko altuera adierazteko balioko du. Hori definitzeko puntuak honako hauek izango dira:

- a) Beheko zonan, fatxada-planoaren eta berezko sestraren beheko puntuaren arteko intersekzio-puntua.
- b) Goiko zonan, estalkiko puntu goiena, estalkiko gailurreko teilu estradosean neurtua.

3.4.1.8 artikulua.– Oinplanoak. Definizioak.

1.– Sotoko solairua:

- a) Sotoa (SS):
 - i) Sabaiko puntu guztiak Eraikuntzaren fatxada-planoekin kontaktuan dagoen berezko sestraren azpitik dituen oina.
 - ii) Gutxienez bere perimetroaren % 80an berezko sestratik gora 1 m baino gehiago ateratzen ez den oina.
- b) Lurzorutik sabai amaitura arte dagoen gutxienezko garaiera libreak 2,50 m-koa izan behar du.

2.– Erdisotoko solairua (ESS):

- a) Erdisotoa:

i) Bere perimetroaren % 80 baino gehiago berezko sestratik 1 m baino gehiago irteten den oina, oin osoaren fatxada-azaleraren % 65, gehienez ere, Eraikuntzako fatxada-planoekiko kontaktuan dagoen berezko sestraren gainetik baldin badago.

b) Lurzorutik sabai amaitura bitarteko gutxieneko garaiera libreak 2,50 m-koa izan behar du.

3.– Beheko solairua (BS):

a) Solairu-armazoa berezko sestraren mailan dagoen eraikineko solairua da, sotoko edo erdisotoko solairutik gora dagoen hurrengoa.

b) Haren gutxieneko altuera librea honako hau izango da:

i) 2,50 m oin berriko eraikuntzetan.

ii) 2,20 m lehendik dauden eraikuntzetan.

4.– Goiko solairua (1S):

a) Beheko solairu edo etxabetik gora dagoen solairua da, teilatupekoa izan ezik.

b) Haren gutxieneko altuera librea honako hau izango da:

i) 2,50 m oin berriko eraikuntzetan.

ii) 2,20 m lehendik dauden eraikuntzetan.

5.– Teilatupeko solairua (TS):

a) Teilatupekoa:

i) Azkeneko goiko solairuaren sabaiko armazoiaren eta estalkiko armazoiaren arteko espazio eraikia.

3.4.1.9 artikulua.– Solairu-kopurua.

1.– IV. Tituluan zehaztutako erabilera batzuen kasuan, Planak zehaztuko ditu horietarako berariaz definitutako solairu-kopurua, teilatu-hegalen altuerak eta gehieneko gailur baimenduak. Berariazko zehaztapenik egiten ez bada, jarraian orokorrean definitzen dena izango da baimendutako gehieneko solairu-kopurua.

a) Bizitegi-eraikinen kasuan: sotoko solairua (SS) edo erdisotoa (ESS), beheko solairua (BS), goiko solairua (1S) eta teilatupeko solairua (TS).

b) Nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako erabileretarako instalazioen kasuan: beheko solairua (BS) eta lehen solairua (1S).

c) Zuzkidura- eta ekipamendu-eraikinen, eta turismo-establezimenduen, ostalaritza-establezimenduen eta kanpinen kasuan: sotoko solairua (SS) edo erdisotoa (ESS), beheko solairua (BS), goiko bi solairu (1S eta 2S) eta teilatupeko solairua (TS).

d) Eraikuntzetan oinarritu behar duten azpiegituren kasuan: sotoko solairua (SS) eta goiko solairua (1S) edo teilatupeko solairua (TS).

e) c eta d ataletan identifikatutako eraikuntzen kasuan, zerbitzuaren ezaugarriak direla-eta aurreikusitako gehienezko solairu-kopurua aldatu egin behar bada edo sotoko edo erdisotoko solairuren bat egin behar bada, Plan honetan dagokien garapeneko tresnaren bidez definitu ahal izango dira horiek.

2. ATALA

TERMINOLOGIA, BIZITEGI ERAIKINEN TIPOLOGIAREN ONDORIOETARAKO

3.4.2.1 artikulua.– Xedapen orokorrak.

- 1.– Plan hau prestatu eta hark behar duen araudi erregulatzailerik ezartzeko, zehatz-mehatz aztertu dira haren aplikazio-eremuan dauden eraikin guztiak. Azterketa horri esker, titulu honetako 3. kapituluko 3. Atalean baimendutako eraikuntzako esku-hartzeei buruzko zehaztapenak ezar daitezke.
- 2.– Hala, eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak 9. artikuluan baserriek dagokienez jasotzen duen definizioetik haratago, Plan honek zenbait azpimultzo identifikatzen eta zehazten ditu multzo horren barnean; era berean, azpimultzo horietan sei tipologia bereizten dira.
- 3.– Gainera, Plan honek bi tipologia identifikatzen ditu 1950. urtetik aurrera eraikitako bizitegi-eraikinei dagokienez. Alde batetik, Txalet deiturikoa dago eta, bestetik, etxebizitza-blokeei dagokiena.

Txaletari dagokion tipologia berezko eraikuntza- edo estetika-tipologiarik ez badu, Plan honek tipologia horretan sartzen ditu 1950. urtetik aurrera eraiki diren eta etxebizitza-blokearen tipologiaen antzik ez duten eraikinak, horien etxebizitza-kopurua dena dela.

Etxebizitza-blokearen tipologiatzat identifikatzen da komunikazio-gune bat eta elementu komun batzuk dituen, eta solairu bakoitzean, eta behin eta berriz errepikatzen den egitura bati jarraiki, bizitegi-unitate bat edo gehiago banatzen dituen.

3.4.2.2 artikulua.– Baserriak, Plan honen ondorioetarako. Bizitza bakarrekoak edo bi bizitzakoak.

- 1.– Eraikin konpaktuak eta unitarioak dira, bi edo hiru isurialdeko estalkia dutenak. Horietan, bizitegi-erabilera –beheko eta lehen solairuko aurrealdeko zonan kokatua– eta lurzati-unitatean gauzatzen den nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapena garatzeko espazioak –atzealdeko zonan– bateratu ohi dira.
- 2.– Honako hauek bereizten dira:
 - i) Bizitza bakarreko baserriak. Tipologia hau familia-unitate bakar baten bizitegi-erabilera bideratutako baserriek dagokie. Nagusiki, tipologia honek fatxada nagusian bao-kopuru bakoitia izaten du solairu bakoitzean, eta atarteak edo sarrera-inguruak osatzen duen ardatzarekiko simetriari jarraiki kokatuta egoten dira. Barnealdean, bi edo hiru solairu izaten dituzte, horiek guztiak zeharkako mehelin batekin zatituta; hark bizitza-zonak bereizten ditu aurrealdean, eskailera bakar batekin eta sukaldearekin osatuak, eta ukulua eta lastategia, atzealdean.
 - ii) Bi bizitzako baserriak. Tipologia honek bi familia-unitate eta horiei dagokien nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapena garatzeko bi espazio bereizi hartzen ditu barne solairu guztietan luzetara banatuta egongo den baserri bakar batean. Nagusiki, tipologia horrek fatxada nagusian bao-kopuru bikoitza izaten du solairu bakoitzean, eta atarteak edo bi bizitzen sarrera-inguruak osatzen duen ardatzarekiko simetriari jarraiki kokatuta egoten dira. Barnealdean, bi edo hiru solairu izaten dituzte, horiek guztiak zeharkako mehelin batekin zatituta; hark familia-unitateen zonak bereizten ditu aurrealdean, eskailera bakar batekin eta sukaldearekin osatuak, eta ukulua eta lastategi inguruak, atzealdean.

3.4.2.3 artikulua.– Errotak.

- 1.– Ibai-ibilguen edo estuarioen ertzetan kokatuta dauden burdinolak eta errotak dira. Horietan, bizitegi-erabilera bigarren maila batera igarotzen da, ibai-saretik edo marea-mugimendutik eratorritako energiak aprobetxatuz, bertan garatzen den jarduera protoindustrial baina horien erabilera nagusia.
- 2.– Eraikin horiek ez dute forma-tipologia unitariorik Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan, eta barne hartzen duten makineriaren arabera sailkatzen dira, baina kokapenaren arabera ere, ibai-ibilguen ondoan edo maren eraginpeko eremuetan egon baitaitezke.

3.4.2.4 artikulua.– Ohiko etxe tradizionala.

- 1.– Merkataritza-bideetatik edo bideetatik hurbil dauden bizitegi-eraikinei dagokien tipologia da. Hasiera batean baserriak izan zitezkeen, baina bizitegi-erabilera ez den beste batzuetara bideratutako espazioaren parte bat aldatu dute lekuz aldatzen edo garraio-lanean ari den biztanleriari zerbitzuak eskaintzeko. Erraz iristeko moduko lekuetan daudela da horien ezaugarri nagusia.
- 2.– Erroten kasuan bezala, horietan ez da tipologia unitariorik ikusten; dena den, kasu gehienetan beheko solairua edo etxabea jarduerarako erabiltzen dute, bizitegi-erabilerarekin konbinatuta, eta kasu batzuetan, baita nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerarekin ere; goiko solairua, berriz, bizitegi eta biltegi gisa mantentzen da. Kasu gehienetan, lau isurialdeko estalkia eta forma karratura izaten dituzte.

3.4.2.5 artikulua.– Arkitektura adierazgarriak dituzten eraikinak.

- 1.– Ia guztiz bizitegi-erabilerara bideratutako eraikinak dira. Landa-ingurunearekin lotuta badaude ere, nabarmen aldentzen dira nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren programatik, hori bigarren mailakoa baita. Bizitegi-programa sofistikatuagoa eta adierazgarriagoa dutelako bereizten dira.
- 2.– Duten jatorri militarra edo zibil-erlijioso delako-eta, bi tipologia identifikatzen dira:
 - a) Dorretxea: Erdi Aroko eraikin militarra, bolumen kubiko eta hermetikokoa, lau isurialdeko estalkiz hornitua eta harlanduz edo harri-horma eta zurez egindako kanpoaldeko egitura duena.

Ikuspegi militar eta ekonomikotik estrategikoak diren lekuetan daude, bide nagusi eta uberetatik hurbil, eta une historiko jakin batean, familia feudalen jarduera belikorako eta defentsiborako erabili ziren. Horiek beren berezko xedea galdu zuten historiaren bilakaerarekin batera, eta gaur egun zutik mantentzen direnek zonako nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera bereganatu zuten.
 - b) Jauretxe edo jauregia: arkitektura kultuaren patrioiak betetzen dituzten eraikinak dira, eta, hasiera batean, goi-burgesiarenak edo elizarenak izaten ziren. Tipologia honetan, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak bigarren mailako presentzia du bizitegi-erabilera nagusiaren aurrean.

Horrelakoetan, zaila da eraikuntza-tipologia unitarioak identifikatzea, baina horiek eraikin garai eta itxurazkotzat identifika daitezke; harlanduak eta aparailu onak dituzte elementu berezietan, hala nola, eskantzu, leihoburu eta ateburu eta bao-markoetan.

5. KAPITULUA

LURZATIAK, HIRIGINTZA-PARTZELAZIOA ETA BEREIZTEAK

1. ATALA

ERAIKUNTZAKO ETA NEKAZARITZAKO ARAUBIDE OROKORRA

3.5.1.1 artikulua.– Araubide orokorra.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren eremua lurzati publiko edo pribatuetan dago banatuta, eta horiek, II. tituluari jarraiki, dagokien kalifikazioa izango dute.
- 2.– Lurzatia:
 - a) Lurzatia da barruti osoa eratzen duen eta erabilera nagusi edo bateragarriren bat har dezakeen lur-azalera oro.
 - b) Era berean, lurzatiek Eraikuntza bat edo gehiago hartu ahal izango dituzte barne, edo lurzati-unitate baten parte izan daitezke. Edonola ere, erregistroko titulu batean jasota egon beharko du.

3.5.1.2 artikulua.– Eraikuntzako araubidea. Lurzati-unitate, eraikuntzaren lurzati hartzaile, lurzati lotu eta barruti osoaren definizioa.

- 1.– Lurzati-unitatea: lurzati-unitatea da Eraikuntzaren lurzati hartzaile batek edo batzuek osatutako multzoa, eta, hala badagokio, erregistroko unitate berean sartuta dauden eta titulu bakar bati jarraiki jabe batenak edo proindibiso gisa jabe batzuenak diren beste lurzati lotu batzuk.
- 2.– Eraikuntzaren lurzati hartzailea: lurzati hartzailea da barruti osoa eratzen duen eta Eraikuntza bat edo batzuk dituen edo izan ditzakeen lur-azalera oro. Gainera, lurzatiak bide publikora eman behar du. Lurzati hartzailearen barnean, Eraikina lurraren malda % 20tik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, gutxienez, Eraikinaren okupazioarekiko bost metroko perimetro batean.
- 3.– Lurzati lotua: lurzati lotua da barruti osoa eratzen duen eta, inolako eraikuntzarik barne hartu ezin duenez, bere azalerarekin lurzati-unitatearen azalera osoaren konputuan parte har dezakeen eta beste berezko erabilera batzuk edo erabilera bateragarriak har ditzakeen lur-azalera oro.
- 4.– Barruti osoa: barruti osoa da bide publikoek edo trenbide-sareak, edo jabari publiko hidraulikoak, jarraitutasuna eteten ez duen lur-unitate oro, betiere hura multzo unitario gisa har badaiteke.

3.5.1.3 artikulua.– Gutxieneko lurzati-neurriak.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, oin berriko edozein Eraikuntza gauzatzeko gutxieneko lurzatiak IV. tituluan jasotakoak izango dira.
- 2.– Lehendik dauden Eraikuntzen kasuan, gutxieneko lurzati hartzaile hauek ezartzen dira:
 - i) Bizitza bakarreko edo biko baserrien, erroten, etxe tradizionalen, dorretxeen eta jauregien tipologietarako: 7.500 m².
 - ii) Hirigintza-parametrorik aplikatu gabe eraiki diren lehendiko Eraikuntzen kasuan: 7.500 m².
 - iii) Hirigintza-parametro batzuk aplikatuta eraiki diren lehendiko Eraikuntzen kasuan: gauzatzeko unean, Eraikuntzari lurzati hartzailea lotu beharko zaio.
- 3.– Plan honen ondorioetarako, nekazaritzako gutxieneko lurzatiak izango da uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuan, edo hori ordezkatzeko duen arauan, Bizkaiko Lurralde Historikorako definitzen den labore-unitate minimorako ezartzen den gutxieneko azalera (7.500 m²) duen barruti osoa eratzen duena.
- 4.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barneko nahiz kanpoko azalera duten lurzati hartzaileen kasuan, gutxieneko lurzatiaren azalera zenbatzeko gainazal osoa hartuko da kontuan.

2. ATALA**HIRIGINTZA-PARTZELAZIOAK ETA BEREIZTEAK****3.5.2.1 artikulua.– Partzelazioa eta lurzatiak bereiztea.**

- 1.– Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aplikatuz, hirigintza-partzelazioa guztiz debekatuta egongo da Plan honen esparruan.
- 2.– Ekintza baten ondorio zuzena edo zeharkakoa Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuko lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan lurzatiak aldi berean edo segidan zatitzea eta bi lote berri edo independente edo gehiago egitea bada, ekintza hori hirigintza-partzelaziotzat identifikatzeko ezinbestekoa izango da lote berri edo independente bi edo gehiago horietako edozein egotea ondoren aipatzen diren balizkoetako batean:
 - i) Nekazaritzako legediak gutxieneko lurzatiarako jasotzen duen azalera baino txikiagoa izatea.
 - ii) Plan honetako IV. tituluak eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28. artikulua aipatzen dituzten jarduera eta erabileretarako beharrezko azpiegitura edo zerbitzu kolektiboak izan behar ditu, edo hala izan ditzala aurreikusi behar da.
 - iii) Edonola ere, urbanizatu ahal izatea.

- 3.– Lurzatiak zatitzeko ekintza hirigintza-partzelaziotzat hartzen ez denean, hura bereizte gisa identifikatuko da. Plan honen ondorioetarako, nekazaritza-helburuarekin bakarrik gauzatuko da, inolako eraikin edo instalaziorik eragin gabe. Dagokion titulu eta/edo eskritura publikoak berariaz adieraziko du haren eraikuntza edo hirigintza-erabilerarako legezko ezgaitasuna.
- 4.– Lurzati-unitatea osa dezaketen beste batzuekin barruti osoa eratzen ez duten lurzati hartzaileak edo lotuak zatitzea ez da bereiztetzat hartuko.

3.5.2.2 artikulua.– Lurzatiien zatiezintasuna.

- 1.– Plan Gidari honen ondorioetarako, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan, honako lurzati hauek ezin izango dira bereizteko helburuarekin zatitu:
 - a) Nekazaritzako gutxieneko lurzatiaren neurri berak edo txikiagoak dituztenak, betiere bertatik ateratako loteak aldameneko lurzatiien jabeek eskuratzen badituzte salbu, horiek bildu eta eska daitezkeen gutxieneko neurriak izango dituen lurzati berri bat osatzeko helburuarekin.
 - b) Nekazaritzako gutxieneko lurzatiaren bikoitza baino neurri txikiagoak dituztenak, gutxieneko horrekiko soberakoa aurreko letran aipatutako helburu bererako bereizi badaiteke salbu.
 - c) Azaleraren araberako eraikigarritasuna esleituta dutenak, eraikigarritasun horri dagokion guztia gauzatu denean.
 - d) Bertan baimendutako eraikuntza edo eraikinei legez lotuta edo eraginda daudenak.
- 2.– Eraikuntzen lurzati hartzaileen kasuan, Eraikuntza horiek eraikigarritasun baten zehaztapena aplikatuz gauzatu ez baziren, hura bereizi egin ahal izango da, betiere aurreko ataleko lehenbiziko bi azpiatalak betetzen badira.
- 3.– Plan hau onartu bitartean zegoen araudia aplikatuz lurzati-unitate bati lotutako Eraikuntza bat eraiki denean, eta haren azalera eraikia lurzati hartzaile bati lurzati lotu bat edo batzuk erantsi ostean lortu denean, lurzati-multzo horrek lurzati-unitate zatiezin bat osatzen du, Eraikuntzarekin batera, eta lurzatiak ezin izango dira elkarrekiko zein eraikuntzarekiko modu independentean besterendu.

3. ATALA

LURZATIEN ITXITURAK

3.5.3.1 artikulua.– Araubide orokorra.

- 1.– Nekazaritza- edo abeltzaintza-erabilera duten lurzatiien itxiturek –lurzati horiek hartzen dituzten produkzio-erabilerak direla-eta itxiturek behar dituztenean– eta Eraikuntzak hartzen dituzten lurzati-tako itxiturek 1 metroko gutxieneko tartea mantendu beharko dute bide edo bidezidorren ertzekiko.

Itxiturek foru-errepideekiko edo trenbide-sarearekiko mugan eginez gero, itxitura horiek kasuan kasuko arau sektorialak ezartzen dituen tarreak eta ezaugarri fisikoak bete beharko dituzte. Arau sektorial horrek ezaugarri fisikoak arautzen ez baditu, metal galbanizatu zurrunezko itxitura edo sare elektrosoldatu bat erabiliz egin ahal izango dira; dena den, horiek 1,8 metroko altuera izango dute gehienez ere.
- 2.– Itxiturek honelakoak izango dira:
 - a) Zonako harrizko horma lehorrez eginak, edo kare edo zementuz eginak, azaleraren % 70ean, betiere paretaren gailurra 1,2 m-tik behera badago.
 - b) Zurezko hesiak, hesolez eta arantzarik gabeko alanbrez hornituak, eta 1,8 m-tik beherako altuerakoak.
 - c) Zurezko hesiak, zurezko ohol horizontalez osatuak; oholek 0,15 metroko zabalera izango dute, eta 0,3 metroan behin jarriko dira oholaren ardatzari dagokionez; dena den, 1,8 m-tik beherako altuera izango dute.
 - d) Landarezko itxitura biziak, bakarrik edo aurrekoekin konbinatuta; horiek 1,8 metroko altuera izango dute gehienez ere. Itxitura ez da, inola ere, espezie koniferoak erabiliz gauzatuko.

- 3.– Itxituren altuerak honela neurtuko dira:
 - a) Lurzati pribatu baten eta espazio publiko baten arteko muga markatzen dutenean, azken horrek eta lurzati pribatuarekiko mugak bat egiten duten puntuko berezko sestratik gora.
 - b) Bi lurzati mugatzen direnean, lurzati-mugaren berezko sestratik altuera-neurketa handiena den aldetik.
- 4.– Debekatuta daude alanbre arantzadunez, burdin hesiz, metalezko sarez, sare plastifikatuz edo elektro-soldatuz egindako itxitura-mota guztiak.
- 5.– Abereentzako itxitura elektrifikatuak baimenduko dira, baldin eta, lurzatiaren barnean, horiek artikulua honetako 2. atalean adierazitakoari jarraiki egindako lurzati-itxituratik gutxienez 1,5 m-ko tartera jartzen badira.
- 6.– Lurzatietara sartzeko atea ere jarri ahal izango dira, honako baldintza hauek betetzen badira:
 - a) Zurezkoak edo metalezkoak izango dira, beltzak edo marroiak.
 - b) Gehienez ere 1,80 metroko altuera izango dute, eta 1,20 metroko altueraraino bakarrik izan daitezke opakoak.
 - c) Bide publikoa ez inbaditzeko, atea bide publikotik 5 metrotara jarri beharko dira.
- 7.– Jabari Publiko Hidraulikoaren Zortasun Zonari dagozkion ibilguen bi aldeetan kokaturiko 5 metroko lursail-zerrendan ezin izango da inolako itxiturarik ezarri.

6. KAPITULUA

ERAIKUNTZETARAKO ETA AZPIEGITURETARAKO ETA PAISAIA EGOKITZEKO IRIZPIDE ESTETIKOAK

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

3.6.1.1 artikulua.– Xedapen orokorrak.

- 1.– Plan honetan jasotzen diren lurzoru-erabilerak eta eraikuntza-ekintzak behar bezala egokituko dira, oinarritzko alderdiei dagokienez, kokatuta dauden inguruan. Eta, horretarako, honako antolamendu-arau hauek hartu beharko dira kontuan:
 - a) Eraikuntzak eta azpiegiturak arkitektura eta ingeniaria tradizionalaren, inguruaren eta paisaiaren irudira, konposiziora eta estetikara egokituko dira.
 - b) Paisaiaren begiespenerako ikus-eremua ez mugatzeko edo kultura-ondarearen ikuspegia ez desitxuratzeko neurriak hartuko dira paisaia irekia eta berezkoa duten lekuetan edo hura begiratzeko leku egokietan, baita paisaiari buruzko araudi orokorrarekin bat etorritz dagozkion tresnetan identifikatzen diren pasaiako mugarriei eta paisaia-interesa duten kultura-elementu edo multzoei dagokienez ere.

IV. TITULUA

PLANA GAUZATZEKO ARAUBIDEA

1. KAPITULUA

KONTSIDERAZIO OROKORRAK

4.1.1 artikulua.– Plana gauzatzea.

- 1.– Plan hau Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezina osatzen duten eremu eta zonetan gauzatuko da, eta, horretarako, jarraian aipatzen diren jarduketak baliatu ahal izango dira:
 - a) Lursail edo Eraikuntza batean erabilera berriak ezartzea, horiek eraikuntzako esku-hartzek behar izan ala ez.

- b) Lursail edo Eraikuntza baten erabilera aldatzea, horrek eraikuntzako esku-hartzek behar izan ala ez.
 - c) Edozein eraikuntza-motatan eraikuntzako esku-hartze bat edo batzuk gauzatzea, erabilera aldatu gabe.
- 2.– Titulu honetan jasotako erabileren xehakapenak horietako bakoitzaren ezaugarriak definitzen, deskribatzen eta arautzen ditu. Dena den, erabileren arauketa hori V. tituluan jasotako tresnen bidez garatu ahal izango da.
 - 3.– Titulu honetan jasotako erabileren sistematizazioa definizio ireki eta ez baztertzaila gisa hartuko da. Sailburuaren Agindu bidez, eta Patronatuak alde zuzenetik emandako aldeko txostenaren bitartez, Plan honetan jasotzen ez diren erabilerak eta jarduerak tipifikatu ahal izango dira, aipatutako beste erabilera batzuen eraginekiko duten parekotasuna kontuan hartuta.
 - 4.– Testu honetan indarrean dagoen sektoreko araudiari egiten zaizkion aipamenak informatzaileak izango dira. Txostenak egiteko, ikuskatzeko eta zigortzeko ahalmenak eskumena duten administrazioei dagozkie.

4.1.2 artikulua.– Uraren arloko baimenak eta emakidak.

- 1.– Ur Jabari Publikoaren Zaintza Zonan, Itsaso Lehorreko Jabari Publikoa Babesteko Zortasun Zonan eta, batez ere, urpean gera daitezkeen eremuetan uraren arloan aplikagarria den araudia bete beharko da, batez ere Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren Plan Berezia eta EAeko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duen azaroaren 19ko 449/2013 Dekretua.
- 2.– Hondakin-urei eta horien tratamenduari eta ebakuazioari dagokionez, ur horiek saneamendu-sare orokorraren bidez atera beharko dira, eta, horretarako, sarearen kudeatzailearen baimena jaso beharko dute. Konexio edo lotura hori bideragarria ez bada, urak arazte-sistema batean jaso eta tratatu beharko dira, horrela, urak tratamendu egokia jasotzen duela bermatzeko, betiere ingurune hartzaileko ingurumen-helburuak betetzeari utzi gabe.
- 3.– Ebakutzeko moduari dagokionez, etxeko hondakin-uren edo neurri txikiko asimilagarrien kasuan, lurrerako infiltrazioa izango da ebakutzeko lehentasunezko aukera. Isuriak saneamendu-sare orokorraren bidez ebakutzen ez diren kasu guztietan, Uraren Euskal Agentziak emandako isurketa-baimena beharko da edo, hala badagokio, hark baimen horren gainean –beharrezkoa den ala ez– hartutako erabakia.

4.1.3 artikulua.– Mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen arloko baimenak eta emakidak

- 1.– Mehatxupean dauden flora- eta fauna-espezieei eragiten dieten jarduketak guztiek Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako kudeaketa-planetan eskatutako baimenak eta txostenak izan beharko dituzte.

4.1.4 artikulua.– Kosten arloko baimenak eta emakidak.

- 1.– Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera kostaldeei buruzko Legearen III. tituluan zehaztutakoarekin bat etorritik arautuko da. Edonola ere, itsaso-lehorreko jabari publikoko lurretan planteatutako jarduketek dagokion titulu gaitzailea izan beharko dute.
- 2.– Babes-zortasuneko zonako erabilerak Kosteien buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan xedatutakora egokituko dira, eta, beraz, zona horretan baimendutako erabilerak autonomia-erkidegoko organo eskudunaren baimena izan beharko dute.
- 3.– Igarobide-zortasunak eta itsasora iristeko bideak errespetatzen direla bermatu beharko da, Kosteien buruzko Legearen 27. eta 28. artikuluetan hurrenez hurren xedatzen denaren arabera. Era berean, 30. artikuluan eraginpeko zonari dagokionez xedatzen diren baldintzak bete beharko dira.
- 4.– Kosteien buruzko Legea indarrean sartu aurretik zeuden eta jabari publikoan edo zortasun-gunean dauden obrak eta instalazioen kasuan, Kosteien buruzko Legearen laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa bete beharko da.
- 5.– Saneamendu-sarearen instalazioek Kosteien buruzko Legearen 44.6 artikuluan ezarritako baldintzak eta dagozkion Araudiaren baterakoak bete beharko dituzte.

2. KAPITULUA

ERABILERAK XEHATZEA ETA ARAUTZEA

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

4.2.1.1 artikulua.– Erabilerak jardueraren izaeraren arabera xehatzea.

1.– Plan honek, batetik, ingurumenaren kudeaketa-erabilerak bereizten ditu eta, bestetik, lurraldearen eta hark dituen baliabideen aprobetxamendu jasangarrira bideratutako erabilerak.

2.– Ingurumen-kudeaketako erabilerak.

- A.1.– Kontserbazioa.
- A.2.– Ingurumena lehengoratzea.

3.– Lurraldearen eta hark dituen baliabideen aprobetxamendu jasangarrirako erabilerak.

• B) Jolas- eta aisia-erabilerak:

- B.1.– Jolas-jarduera estentsiboa:
 - B.1.1.– Mendi-ibiliak eta bide berdeak.
 - B.1.2.– Zaldizko paseoak.
 - B.1.3.– Eskalada eta/edo naturako eta espeleologiako abentura-jarduerak.
 - B.1.4.– Aeronautika-jarduerak.
 - B.1.5.– Piroteknia-ikuskizunak edo soinu-instalazioak edo kontzertuak edo zarata sortzen duten ekitaldiak antolatzea.
 - B.1.6.– Urpekaritza.
 - B.1.7.– Jolas-erabilerak Kostaldeko Eremuan eta Itsasadarreko Eremuan.
- B.2.– Jolas-jarduera intentsiboa.
 - B.2.1.– Natura edo kultura-elementuak ikertzea eta balioestea.
 - B.2.2.– Jolas-jarduera kontzentratu iraunkorra.
 - B.2.3.– Aldi baterako jolas-jarduera kontzentratua.
 - B.2.4.– Kostaldeko Eremuarekin eta Itsasadarreko Eremuarekin lotutako jarduerak:
 - B.2.4.1.– Hondartzan zenbait erabileratarako zonak egokitzea, baliza adierazleak erabiliz.
 - B.2.4.2.– Artefaktu flotagarriak hondartzeko zonak egokitzea.
 - B.2.4.3.– Instalazio eta zerbitzuak hondartzetan.
 - B.2.4.4.– Ontzien zirkulazio kontrolatua.
 - B.2.4.5.– Ontziak atrakatzea.
 - B.2.4.6.– Hondartzak garbitzea eta mantentzea.
 - B.2.5.– Automobilismoa edo motoziklismoa praktikatzeko zirkuituei lotutako jarduerak.
 - B.2.6.– Zuhaitz-sailen gaineko abentura-kiroletako jarduerak.
- B.3.– Ehiza- eta arrantza-jarduerak:
 - B.3.1.– Kirol-ehiza.
 - B.3.2.– Kirol-arrantza.

- C) Oinarrizko baliabideak ustiatzeko erabilerak:
 - C.1.– Nekazaritza:
 - C.1.1.– Nekazaritza-erabilera.
 - C.1.2.– Jarduerarekin lotutako eraikuntzak:
 - C.1.2.1.– Lanabesak eta produktuak biltegitratzeko instalazioak.
 - C.1.2.2.– Lehen eraldaketarako eta salmentarako instalazioak.
 - C.1.2.3.– Berotegiak.
 - C.1.2.4.– Nekazaritzako, baratzeko eta apaindurako landareak, eta zuhaixka- eta zuhaitz-espezieak ekoitzi eta saltzeko mintegiak.
 - C.1.2.5.– Nekazaritzako produkzioako mintegiak, perretxikoak eta onddoak haztekoak.
 - C.2.– Abeltzaintza.
 - C.2.1.– Abeltzaintza-erabilera.
 - C.2.2.– Jarduerarekin lotutako eraikuntzak:
 - C.2.2.1.– Lanabesak eta makineria biltegitratzeko instalazioak.
 - C.2.2.2.– Abeltzaintzako produktuak biltegitratzeko instalazioak.
 - C.2.2.3.– Abeltzaintza-jardueratik eratorritako produktuak arazteko instalazioak.
 - C.2.2.4.– Ganadua ukuiluratzeko instalazioak.
 - C.2.2.5.– Osasun- eta erabilera-instalazioak.
 - C.2.2.6.– Lehen eraldaketarako eta salmentarako instalazioak.
 - C.2.2.7.– Eztia produzitzeko instalazioak.
 - C.2.2.8.– Ekitazioa praktikatzeko instalazioak.
 - C.2.2.9.– Gehienez ere 3 azienda larri unitateren aterperako instalazioak.
 - C.3.– Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabileraren erabilera osagarria:
 - C.3.1.– Nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiapenarekin lotutako bizitza-erabilera.
 - C.4.– Basogintza.
 - C.4.1.– Baso-erabilera.
 - C.4.2.– Baso-azpiegiturak:
 - C.4.2.1.– Baso-pistak.
 - C.4.2.2.– Zura prozesatzeko eta metatzeko parkeak edo deposituak.
 - C.4.3.– Perretxikoak biltzeko zonak mugatzea.
 - C.5.– Lehen mailako baliabideen ustiapenarekin lotutako industriak:
 - C.5.1.– Abeltzaintzako aprobetxamendu intentsiboetarako instalazio industrialak.
 - C.5.2.– Lehenengo transformazioko nekazaritza-elikagaien industriak, ustiategi bati zuzenean loturik ez daudenak.
 - C.5.3.– Lehen eraldaketarako baso-industriak.
 - C.6.– Baliabide geologikoak erauzteko jarduerak.
 - C.7.– Ur-aprobetxamenduak.
 - C.8.– Uretako animalia- eta landare-espeziak ur geza, gazi eta gatzdunean haztea eta erdi-haztea.

- C.9.– Itsaski- eta alga-bilketa:
 - C.9.1.– Itsaski-bilketa.
 - C.9.2.– Alga-bilketa (alga arreak).
- C.10.– Flora eta faunaren erazte-erabilerak.
- D) Azpiegitura-erabilerak:
 - D.1.– Garraiobideak:
 - D.1.1.– Foru-errepideak.
 - D.1.2.– Udal titulartasun publikoko errepideak.
 - D.1.3.– Landa-bideak.
 - D.1.4.– Lotura-bidea.
 - D.1.5.– Bidezidorra.
 - D.1.7.– Itsas paseoak.
 - D.1.6.– Trenbide-sarea.
 - D.2.– Airetiko eta lurpetiko lineak.
 - D.2.1.– Energia-garraioa eta -banaketa.
 - D.2.2.– Telekomunikazio-sareak.
 - D.2.3.– Gasa, petrolio, saneamendua eta beste fluido kutsatzaile batzuk.
 - D.2.4.– Ur-zuzkidura eta kanpo-argiteriako lineak.
 - D.3.– Izaera ez linealeko zerbitzu-instalazio teknikoak. A motakoak.
 - D.3.1.– Ura hartzeko eta banatzeko instalazioak.
 - D.3.2.– Urtegiak edo ur-depositu handiak eta ura arazteko eta tratatzeko instalazioak.
 - D.3.3.– Elektrizitatea transformatzeko estazioak, 100 m²-tik gorakoak.
 - D.3.4.– Zerbitzuguneak.
 - D.3.5.– Aire libreko urte-sasoiko aparkalekua.
 - D.4.– Izaera ez linealeko zerbitzu-instalazio teknikoak. B motakoak:
 - D.4.1.– Satellite bidezko irrati-, telebista-, komunikazio-dorre, -antena eta -estazio igorle-hartzaileak eta antzeko eragina duten beste komunikazio-instalazio batzuk.
 - D.4.2.– Faroak, irrati-faroak.
 - D.4.3.– Kanpoko argiak.
 - D.4.4.– Itsas energiaren aprobetxamendua.
 - D.4.5.– Haize-parkeak.
 - D.5.– Hondakinak tratatzeko eta biltegitratzeko instalazioak.
 - D.5.1.– Arriskutsuak ez diren hondakinak tratatu, birziklatu, berrerabili eta errebalorizatzen plantak.
 - D.5.2.– Hondakin geldoetarako zabortegiak eta betelanak.
 - D.5.3.– Konpostaje komunitariorako instalazioak.
 - D.6.– Energia berriztagarria sortzeko instalazioen bidez energia produzitzeko sistemak.
 - D.7.– Ibilguen edo ibilgu-ertzen trazadura aldatzen duten azpiegiturak.

- D.8.– Ontziak atrakatzeko eta amarratzeko azpiegiturak.
- D.9.– Instalazio aeronautikoak.
- D.10.– Publizitatea. Publizitate-hesiak eta -iragarkiak instalatzea.
- D.11.– Industria edo biltegiatze arriskutsuak.
- D.12.– Itsaso eta lehorren arteko Jabari Publikoari lotutako industriak (ontziolak).
- E) Eraikuntza-erabilerak:
 - E.1.– Zuzkidura- eta ekipamendu-erabilera:
 - E.1.1.– Gune zoologikoak.
 - E.1.2.– Kirol-instalazioak.
 - E.1.3.– Ekipamendu soziokulturalak.
 - E.1.4.– Behaketa eta ikerkuntza zientifiko eta teknikorako eta/edo natura- eta kultura-ondarearen zabalkunderako eraikuntzak.
 - E.1.5.– Eskolarekin edo irakaskuntzarekin lotutako arrazoiengatik bizilekura bideratutako establezimenduak.
 - E.1.6.– Osasun-, laguntza- eta gizarte-egoitzetarako ekipamenduak.
 - E.1.7.– Erljioko kultu-ofizioetarako ekipamenduak.
 - E.1.8.– Hilerriak.
 - E.1.9.– Zerbitzu publikoen ekipamendu berezia.
 - E.1.10.– Aisialdiko baratzeak.
 - E.2.– Turismoko ostatu-establezimenduen, ostalaritza-establezimenduen eta kanpinen erabilera. Baldintza orokorrak:
 - E.2.1.– Landa-turismoa.
 - E.2.2.– Landetxea.
 - E.2.3.– Landako hotela.
 - E.2.4.– Landako apartamentua.
 - E.2.5.– Landako turismo-aterpetxea.
 - E.2.6.– Jatetxeak eta edari-establezimenduak.
 - E.2.7.– Kanpinak.
 - E.2.8.– Kanpatzeko eremuak.
 - E.2.9.– Iragaitzako autokarabanak eta karabanak hartzeko eremu bereziak.
 - E.2.10.– Turismo-erabilerarako etxebizitza partikularretako logeletan ostatu hartzea.
 - E.3.– Familiaren bizitegi-erabilera:
 - E.3.1.– Bizitza bakarreko etxebizitza isolatua.
 - E.3.2.– Bi bizitzako etxebizitza isolatua lurzati hartzaile bakarrean.
 - E.3.3.– Bi bizitzako etxebizitza isolatua bi lurzati hartzailetan.
 - E.3.4.– Bizitza anitzeko etxebizitza isolatua lurzati hartzaile bakarrean.
 - E.3.5.– Bizitza anitzeko etxebizitza isolatua bi lurzati hartzailetan.
 - E.3.6.– Etxebizitza kolektiboa.

- E.4.– Bizitegi-erabilerari lotutako erabilera osagarriak:
 - E.4.1.– Garaje-erabilera.
 - E.4.2.– *Txoko*-erabilera.
 - E.4.3.– Igerileku-erabilera.
 - E.4.4.– Labe-erabilera.
 - E.4.5.– Instalazio osagarrien erabilera.
 - E.4.6.– Zerbitzu-erabilerak.
 - E.6.– Lanabesak eta makineria txikia biltegitzeko eta landare-espezieen hazkuntza eta autokon-tsumorako instalazioak.
 - F) Isurketak:
 - F.1.– Dragatzeak eta isurketak trantsizioko uretan.
 - F.2.– Hondakin geldoetarako zabortegiak eta betelanak.
 - F.3.– Likido-isurketak eta atmosferarako isurketak.
- 4.– Hurrengo kapitulueta artikuluetan, aipatutako talde eta azpitaldeetako bakoitzean sartzen diren erabilerak definitzen eta arautzen dira. Erabilera bakoitza bere taldean eta azpitaldean identifika dadila ahalbidetearren, artikulua kapitulu eta atalen arabera egituratzen dira. Gainera, eta xede berarekin, artikulua bakoitzean bere kode alfanumerikoarekin identifikatuko da erabilera bakoitza.

3. KAPITULUA

INGURUMENAREN KUDEAKETAKO ERABILERAK

1. ATALA

KONTSERBAZIOA

4.3.1.1 artikulua.– Kontserbazioa. A.1.

- 1.– Gaur egungo ezaugarriak eta egoera mantentzea, gizakiaren esku-hartzerik gabe edo, kasu naturalizatuenetan, izaera zientifiko edo kulturalako esku-hartzeak bakarrik garatuta, edo gaur egungo erabilerarekin jarraituz eta gizakiaren partaidetza aktiboarekin, garapen jasangarriko dinamikan oinarrituz, gainerako kasu guztietan.
- 2.– Kontserbazio-erabileran honako hauek bereizten dira:
 - a) A.1.1. Prebentziozko kontserbazioa.
 - b) A.1.2. Kontserbazio aktiboa.
- 3.– Prebentziozko kontserbazioa –A.1.1–:
 - a) Ekosistemetan aldeko kontserbazio-egoera mantentzea da, horretarako, erabilera jakin batzuk galaraziz edo mugatuz. Erabilera hau kontuan hartu da 4. kapituluari jasotzen diren eremu, zona eta sektoreetarako erabileren erregulazioan.
- 4.– Kontserbazio aktiboa –A.1.2–:
 - a) Kontserbazio aktiboa da 4. kapituluari jasotzen diren Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizazinezko eremu, zona eta sektoreetan baimendutako erabilerak garatzea, garapen jasangarriko praktika baten barnean, horiek natura-ingurunean ingurumen arloko onurak eragiten dituztenean.
 - b) Erabilerak ezartzeko prozeduran, Patronatutik edo organo substantibotik neurriak proposatu ahal izango dira, erabilera horien kontserbazio aktiboa are gehiago sendogatzeko helburuarekin.

- c) Plan honetan identifikatutako erabilerekin lotutako kontserbazio aktiborako praktika onen zerrenda bat prestatuko du Patronatuak.

2. ATALA

INGURUMENA LEHENGORATZEA

4.3.2.1 artikulua.– Ingurumena lehengoratzea. A.2.

- 1.– Plan honen ondorioetarako, ingurumena lehengoratzea Urdaibaiko Biosfera Erreserbako natura-ondarearen bilakaera ingurumen-balio handiagoko egoetarantz eramaten laguntzeko jarduera bat garatzea da; horretarako, lehengoratze esku-hartzeak garatzen dira, ingurumenaren aldetik balio garrantzitsuak izan arren, zenbait motatako eta mailatako aldaketa antropiko itzulgarriak jasan dituzten espazioetan natura-ondarearen egoera ekologiko ona bilatzeko helburuarekin.
- 2.– Erabilera hori Urdaibaiko Biosfera Erreserba osoan dago baimenduta, eta hura kultura-ondarearen kontserbazioarekin bateragarria izateko beharrezko neurriak gauzatzuz burutu beharko da, hala badagokio.
- 3.– Hierarkikoki antolatuta dauden honako egoera hauek aurreikusten dira:
 - a) Ingurunea jatorrizko natura-egoerara lehengoratzea, edo irizpide zientifikoei jarraiki, hura aurreikusitako natura-aldaketa baterako egokitzapen-egoera batera lehengoratzea. Jatorrizko egoera zein den zehazteko, jarduketa-eremua gobernatzen duten edo gobernatu duten prozesu abiotikoak eta biotikoak hartuko dira oinarritzat.
 - b) Natura-balio handiagoko beste egoera batzuetara lehengoratzea, berezko jatorrizko egoerara iristea lortu ez arren, etorkizunean jatorrizko egoera natural horretara iristea eragozten ez badute, eta horiek lehengoratze esku-hartzearen aurretik zegoena baino balio handiagoko ingurumen-egoera batera bideratuta badaude. Ingurumen-balioaren igoera jarduketa-eremua gobernatzen duten prozesu eta elementu naturalen lehengoratze-mailaren arabera ebaluatuko da; izan ere, horiek dira ingurumena lehengoratzearen xede den eremuko funtzionaltasun naturalaren eta bertan dagoen biodibertsitatearen bizi-kalitatearen igoeraren euskarriak.
- 4.– Lehengoratze-ekintzen bidez lortu nahi diren ingurumena lehengoratze esku-hartze espezifikoen zehazketak aurreko zenbakietan ezarritako hurrenkeraren arabera garatuko dira. Egoera bata edo bestea aukeratzeko unean, behar bezala arrazoitu beharko da, irizpide zientifiko edo teknikoetan oinarrituta.
- 5.– Honako lehentasunezko jarduera hauek ezartzen dira ingurumenaren lehengoratzea bultzatzeko:
 - a) Eremu guztietan:
 - i) Espezie exotiko inbaditzaileak kentzea.
 - ii) Eremu bakoitzeko ingurumen-ezaugarriekin bat datozen espezieak birsartzea edo indartzea.
 - iii) Eremuaren funtzionalitatean modu negatiboan eragiten duten airetiko edo lurpeko instalazioak, Eraikuntzak eta azpiegiturak kentzea.
 - b) Itsasadarraren Eremuan –N.1–:
 - i) Ingurumena lehengoratzea eta, oro har, estuarioko ekosistemak zabaltzea, baita horiek dituzten espezie elkartuen bizi-kalitatea hobetzea ere.
 - ii) Pixkanaka, airetiko edo lurpeko instalazioak kentzea.
 - iii) Aintzira artifizialak sortzea, martxoko eta iraileko ekinokzio-mareetan marea-maila gorenetik gorako kota topografikoan dauden goi-estuarioko zona antropizatuatan.
 - iv) Marearteko limo-buztin zonen azalera handitu dadila ahalbidetzea.
 - v) Isurketa-guneak kentzea, Urdaibaiko Saneamenduaren gaineko Lurralde Ekintza Planean ezarritakoarekin bat etorrituz (BAO, 112/2006, 2006ko ekainaren 13koa).
 - vi) Gaur egun dauden hazkunde bizkorreko zuhaitz-espezieen sailak kentzea.

- c) Kostaldeko Eremuan –N.2–, Kostaldea Babesteko Eremuan –B.2– eta Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremuan –B.1–:
- Kostaldeko ekosistemen ingurumena lehengoratzeta eta handitzea, eta horiek dituzten espezie elkartuen bizi-kalitatea hobetzea. Zehazki, Lagako hondartzan lehengoratzeta integrala eta erabilera publikoa berrantolatzea.
 - Konektagarritasun ekologikoa lehengoratzeta, baita konexio-espazio gisako gutxieneko ezaugarri funtzional batzuk ere.
 - Isurketa-guneak kentzea, Urdaibaiko Saneamenduaren gaineko Lurralde Ekintza Planean ezarritakoarekin bat etorritik (BAO, 112/2006, 2006ko ekainaren 13koa).
 - Lehendik dauden hazkunde azkarreko zuhaitz-espezieen landaketak bertako hazkunde ertaineko edo luzeko hostozabalekin ordeztzea.
- d) Artadi Kantauriarren Eremua –N.3– eta Artadi Kantauriarrak Babesteko Eremua –B.3–.
- Artadi kantauriarraren ekosistemak lehengoratzeta eta handitzea, baita horiek dituzten espezie elkartuak ere.
 - Konektagarritasun ekologikoa lehengoratzeta, baita konexio-espazio gisako gutxieneko ezaugarri funtzional batzuk ere.
 - Lehendik dauden hazkunde azkarreko zuhaitz-espezieen landaketak hazkunde ertaineko edo luzeko hostozabalekin ordeztzea.
- e) Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuan –N.4– eta Ibai Sarearen Eremuko Babes Zonetan –B4.1–.
- Ibaiertzeko basoa birsortuz, ibaiertz andeatuak lehengoratzeta, horretarako, espezie autoktonoak erabiliz eta natura-ingeniaritzako aukera bigunak jorratuz.
 - Ibilguen berezko morfologia berreskuratzeko esku-hartzeak ezartzea eta ibai-ibilguetako Lehentasunezko Fluxu Zonaren barnean eta ibilgutan zehar luzerako eta alboko jarraitutasuna xede duten jarduerak gauzatzea, horretarako ibai-korridoretatik gehiegi goratutako defentsak edo antzeko egiturak kenduz, eta kanala dagokion uholde-lautadatik isolatzen duten egiturak kenduz. Era berean, ibai-ibilguetako uholde-lautaden lehengoratzeta funtzionala sustatzen duten beste jarduketak batzuk gauzatzea.
 - 5 km²-tik gorako drainatze-arroak dituzten ibilguen kasuan, gaur egungo ibilguetako estaldurak kentzea, eta 5 km²-tik beherako drainatze-arroak dituzten ibilguetan, gaur egun dauden estaldurei dimentsio egokia ematea. Estaldurak kentzeko aukerak lehentasuna izango du, neurri txikiegiak direla-eta, zonako uholde-arriskua areagotu egiten dela egiaztatzen denean.
 - Lehendik dauden hazkunde azkarreko zuhaitz-espezieen landaketak hazkunde ertaineko edo luzeko hostozabalekin ordeztzea.
 - Isurketa-guneak kentzea, Urdaibaiko Saneamenduaren gaineko Lurralde Ekintza Planean ezarritakoarekin bat etorritik (BAO, 112/2006, 2006ko ekainaren 13koa).
- f) Ibai Sarearen Eremura isurtzen diren arroak babesteko Zonetan –B4.2–, Paisaia Babesteko Eremuan, Ikusizko eta Eszenografi Kalteberatasun Handiko Lurraldeetan –B.5– eta Baso Autoktonoen Eremuan –B.6–:
- Landaretza autoktonoa eta lehendik dagoen lurzorua kontserbatzea eta eremu degradatuak lehengora daitezela sustatzea, espezie autoktonoak erabiliz baso-berrituz eta isurtze-arroen berezko morfologia lehengoratzeko esku-hartzeen bidez.
 - Baso-erabilera mantentzea, nekazaritza-erabilera edo baso-erabilera produktiboa abandonatu izanaren ondorioz, bertako basoa lehengoratzen ari den eremuetan. Zona horietan, berezko birsortzea eta masa horiek hobetzea ziurtatuko duten tratamenduak aplikatuko dira.
 - Zona bakoitzerako zuhaitz-espezie egokienak erabiltzea, landarezko babes-estalki bat berreskuratu, babestu edo sortzeko, eta espezie desiragarrienak berritu daitezela ahalbidetzeko.
- g) Nekazaritza-balio handiko zonetan –T1.A1–:
- Ingurumena lehengoratzeta eta ekosistemak handiagotzea, batez ere nekazaritzako sailetan gaineratzen diren baso-orban autoktonoak eta nekazaritza-zonetan dauden hezegune edo istinguinguruetako landaretza.

- ii) Konektagarritasun ekologikoa lehengoratzea, nekazaritzako lurzatieen mugetan kokatutako landaretza naturaleko inguruak indartuz.
- h) Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan –T1.PRT– eta Baso Eremuetan –T.2–:
 - i) Ekosistemak ingurumenaren aldetik lehengoratzea, batez ere lursail horietan sartuta edo lurzati-mugetan kokatuta dauden baso-orban autoktonoak eta lehendik dauden hezegune edo istinga-inguruetakoko landaretza.
 - ii) Konektagarritasun ekologikoa lehengoratzea, kontserbaziorako interesgarriak diren landaretza naturaleko inguruak indartuz.

4. KAPITULUA

LURRALDEAREN ETA HARK DITUEN BALIABIDEEN APROBETXAMENDU JASANGARRIA

1. ATALA

KONTSIDERAZIO OROKORRAK

4.4.1.1 artikulua.– Kotsiderazio orokorrak.

- 1.– Lehen mailako baliabideen ustiapenarekin lotutako jarduerak dira, hala nola, nekazaritza, abeltzaintza, ur-baliabideen ustiapena edo baso-ustiapena. Era berean, aisialdirako eta jolaserako ekintza estentsiboak eta intentsiboak, eta ehiza- edo arrantza-jarduerak hartzen ditu barne. Katetoria honetan jasotzen da, halaber, azpiegiturak instalatzea, hala nola, garraiobideak, airtetiko edo lurpeko lineak, edo zerbitzu-instalazio teknikoak. Gainera, zuzkidura eta bizitegirako eraikuntza-erabilerak eta dragatze- eta isurtze-jarduerak jasotzen dira.
- 2.– Lurraldearen eta hark dituen baliabideen aprobetxamendu jasangarriak kapitulu honetan biltzen den erabilera-multzoa jasotzen du. Erabilera tipifikatuen irismen eta kopuru handia dela-eta, horiek hobeto ulertu eta interpretatzeko helburuarekin, kapitulu honetan honako atal hauek bereizi dira:
 - B) Jolas- eta aisia-erabilerak.
 - C) Oinarrizko baliabideak ustiatzeko erabilerak.
 - D) Azpiegitura-erabilerak.
 - E) Eraikuntza-erabilerak.
 - F) Dragatze eta isurketak.

2. ATALA

JOLAS ETA AISIA ERABILERA

4.4.2.1 artikulua.– Alderdi orokorrak.

- 1.– Honako erabilera hauek bereizten dira:
 - a) B.1. Jolas-jarduera estentsiboa:
 - i) Natura- eta kultura-ingurunea aisia-, turismo-, hezkuntza- eta interpretazio-helburuetarako erabiltzea eta gozatzea da, jarduera bigunetan oinarrituta eta ekipamendu adierazgarririk gabe, ingurune fisikoan gehiegi eragin gabe eta lurraldean modu zabalean gauzatuta.
 - b) B.2. Jolas-jarduera intentsiboa.
 - i) Garapen intentsiborako Eraikuntzarik behar ez duten erabilerak.

c) B.3. Ehiza- eta arrantza-jarduerak:

- i) Ehizaren eta arrantzaren praktika hartzen dituzte barne, betiere horiek arautzen dituzten estatu edo autonomia mailako araudiaren barnean.

4.4.2.2 artikulua.– Mendi-ibiliak eta bide berdeak. B.1.1.

- 1.– Publikoari zuzendutako jolas- eta kirol-xedeekin egindako oinezkoen zirkulaziorako bideak dira. Horietan aritzeko eta jasagarritasunaren arloan sentibilizatu eta hezteko gutxieneko instalazio desmuntagarri batzuk behar dira, hala nola, begiratokiak, erreka gaineko pasaguneak edo informazio-guneak eta bidezidorra seinaleztatzeko beharrezko hiri-altzariak.
- 2.– Mendi-ibilien jardueraren antolamendurako, Euskal Autonomia Erkidegoan xendazaletasuna antolatzeko eta arautzeko apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuan edo hura ordeztzen duen arauan jasotzen dena bete beharko da.
- 3.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremuaren ondorioetarako, mendi-ibilien praktika ahalbidetuko da erabilera horretarako behar bezala egokituta eta seinaleztatuta dauden ibilbideetan, horiek landa-bide, lotura-bide eta bidezidorretan zehar kokatuta daudenean eta, hurrenez hurren, titulu honetako 4.4.4.4, 4.4.4.5 eta 4.4.4.6 artikuluetan definitutako baldintzetan.

4.4.2.3 artikulua.– Zaldizko paseoak. B.1.2.

- 1.– Publikoari zuzendutako jolas- eta kirol-xedeekin egindako zaldizko zirkulazioa da, bide publiko eta baso-pistetan egiten dena eta jasagarritasunaren arloan sentibilizatu eta hezteko gutxieneko instalazio desmuntagarri batzuk behar dituena, hala nola, geratokiak eta askak, erreka gaineko pasaguneak edo informazio-guneak eta bidezidorra seinaleztatzeko beharrezko hiri-altzariak.
- 2.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremuaren ondorioetarako, zaldizko paseoak baimenduko dira landa-bide, lotura-bide eta bidezidorretan zehar kokatuta dauden, eta erabilera horretarako behar bezala egokitutako eta berariaz seinaleztatuta dauden ibilbideetan, Gune Gainkategoriaiko Artadi Eremuan –N3– eta Itsasadar Eremuan –N1– eta Urdaibaiko Ibai Sare Eremuan –N4–, eta Gunearen Babes eta Trantsizio Gainkategorietan.

Ibilbide horiek identifikatzeko proiektu bat aurkeztu beharko da, eta bertan, horiek dituzten ezaugarri teknikoak eta ingurumenekoak definitu beharko dira, baita horiek hartuko duten eremua ere.

4.4.2.4 artikulua.– Eskalada eta/edo naturako eta espeleologiako abentura-jarduerak. B.1.3.

- 1.– Eskalada-jardueraren praktikak eskalada-bideak mantentzea, irekitzea, hornitzea eta berrornitzea hartzen ditu barne.
- 2.– Eskaladari dagokionez, honako arau orokor hauek ezartzen dira:
 - a) Eskalada-bideetan eta bulder-zonetan ezin izango da materialik utzi –sokak, zintak, mosketoiak, koltxonetak, eta abar–, segurtasun-arrazoiak daudenean *express* zinten kasuan salbu, horiek jartzea zaila den bideetan.
 - b) Eskalada-bideak irekitzen, hornitzen eta berrornitzen direnean, soka finkoek ahalik eta denbora gutxien egon beharko dute, eta kendu egingo dira lanak amaitzean.
 - c) Ez da paretako landaretza suntsituko, ezta bide-oinekoa ere.
 - d) Paretan habiaren bat aurkituz gero, ezin izango da haren altuera gainditu, eta ahalik eta lasterren jaitsi beharko da, zaratarik egin gabe.
 - e) Inguruan ez da deiadar edo zarata karrankaririk sortuko.
 - f) Ibilgailuak bide-sareen sarbide-zonetan aparkatuko dira, eta ezin izango da baso-pistetan zehar zirkulatu.
 - g) Ez da pinturarik edo bestelako materialik erabiliko bideen kokapena pareta-oinetan markatzeko.
- 3.– Bizkaiko Foru Aldundiak ezarriko ditu eskalada baimentzen diren epeak eta lekuak, ekaitz-txoriaren eta harrapari harkaiztarren ugalketarako zonak eta garai kritikoak babesteko helburuarekin.

4.– Honako hauek izango dira espeleologia-jardueretarako arauak:

- a) Haitzuloetara sartu ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak aurretiaz emandako baimena beharko da KBEetan (Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuak).
- b) Busturiako San Pedro haitzuloaren kasuan, otsailaren 1etik ekainaren 30era, biak barne, ikerketa zientifikorako bakarrik sartu ahal izango da.

4.4.2.5 artikulua.– Jarduera aeronautikoak. B.1.4.

- 1.– Abioneta, helikoptero, paramotor, dron, globo aerostatiko, delta-hegal, parapente, turismoko abioneta, ultrarin edo antzekoen bidez hegaldia praktikatzea eta aire-nabigazioko beste kiroletan aritzea da.
- 2.– Gobernuak ezarriko ditu aireontziek espazio natural babestuetan eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu babestuetan hegaldiak egiteko murriztapenak edo debekuak, Aire Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/1960 Legearen 3. artikulua xedatutakoa betez. Aurreko atalak aipatutako murriztapenak eta debekuak izapidetzean, Defentsa eta Sustapenerako Ministerio Arteko Batzordearen aginduzko txostena lortu behar da.

4.4.2.6 artikulua.– Argi-ikuskizunak, piroteknia-ikuskizunak, soinu-instalazioak edo kontzertuak edo zarata sortzen duten ekitaldiak antolatzea. B.1.5.

- 1.– Argi-ikuskizunak edo piroteknia-ikuskizunak egitea da, edo soinu-instalazioak edo kontzertuak edo zarata sortzen duten ekitaldiak antolatzea.
- 2.– Erabilera hau baimenduta dago, 4.5.3 artikuluko 3. atalean ezarritako salbuespenekin.

4.4.2.7 artikulua.– Urpekaritza. B.1.6.

- 1.– Kirol-urpekaritza eta urpekaritza profesionala baimenduta daude Itsasadarreko Eremu –N1– eta Kostaldeko Eremu –N2– osoan. Azken horren kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoan urpekaritza profesionala arautzen duen urriaren 13ko 201/2004 Dekretuan ezarritakoa aplikatuko da.

4.4.2.8 artikulua.– Jolas-erabilerak Kostaldeko Eremuan eta Itsasadarreko Eremuan. B.1.7.

- 1.– Atal honetako beste artikulua batzuetan sartzen ez diren jolas-erabilerak dira, inolako lizentziarik edo baimenik behar ez dutenak, baita, horrelakoak behar izan arren, erabilera horiekin zuzenean lotuta daudenak ere, betiere garatzeko unean instalazio finko edo iraunkorrik behar ez badute, bainatzearen, surfaren edo beste jarduera asimilagarri batzuen kasuan, esaterako.
- 2.– Kostaldeko Eremuan –N.2– eta Itsasadarreko Eremuan –N.1– baimentzen dira.

4.4.2.9 artikulua.– Natura- edo kultura-elementuak ikertzea eta balioestea. B.2.1.

- 1.– Ingurune naturalean edo kultura-intereseko elementuen inguruan ikerkuntza garatzeko eta/edo jasangarritasunaren arloko hezkuntza indartzeko helburuarekin garatzen diren jarduerak dira. Jarduera hau baimenduta egongo da Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezineko kalifikazio guztietan, betiere instalaziorik behar ez bada eta jarduerarako lurzati hartzailean inolako egokitzapenik egin behar ez bada.
- 2.– Hura garatzeko zurezko instalazio desmuntagarriren bat behar bada, Patronatuak emandako txostena beharko da, lurzoruaren kalifikazioaren arabera dagokiona. Era berean, eta kasu honetan, honako arau hauek beteko dira:
 - a) Eremu mugatuaren gehieneko azalera 100 m²-koa izango da.
 - b) Zurezko instalazio desmuntagarriak ez ditu 15 m² baino gehiago okupatuko, eta haren azalera eraikia 20 m²koa izango da gehienez ere.
 - c) Barrutirako sarbidea, lehendik ez badago, bidezidor-motako azpiegitura baten bidez egin beharko da.

- d) Sarbidea bide publiko batetik duen kasuetan bakarrik baimendu ahal izango da lurzatian bi aparkaleku-plaza egitea, baldin-eta lurzatia Gune Kategoriatik kanpo badago; dena den, ezin izango da inolako zerbitzuekin hornitu.
- 3.– Baso-esperimentazioari dagokionez, Mendiei eta Babespeko Natura-guneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko da.

4.4.2.10 artikulua.– Jolas-jarduera kontzentratu iraunkorra. B.2.2.

- 1.– Erabilera publikoko eta doan sartzeko espazio bat aisialdi eta olgetarako egokitzea da. Espazio horretan hiri-altzariak kokatu ahal izango dira, baita osasun-zerbitzuetarako instalazio desmuntagarriren bat ere.
- 2.– Erabilera honetarako espazioak modu iraunkorren prestatu ahal izango dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezineko Gunearen Babesaren eta Trantsizioaren Gainkategorietan. Horretarako, honako arau hauek ezarri dira:
- a) Eremu mugatuaren gehieneko azalera 300 m²-koa izango da.
- b) Zerbitzu sanitarioak hartzeko instalazio desmuntagarriaren gehieneko azalera eraikia 30 m²-koa izango da. Eta honelakoak egin ahal izango dira:
- i) Bi isurialdeko estalkiaz, gailurra luzetarako ardatzean jarrita, edo laua, horrelakoetan lorategi gisa antolatuta. Teilatu-hegalaren altuera 2,40 m-koa izango da, eta gailurrarena, 2,80 m-koa.
- ii) Fatxadako itxiturek zuriz edo zurez zarpiatutako akabera izango dute, 0,15 m zabaleko oholak erabilia.
- c) Barrutirako sarbidea, lehendik ez badago, bidezidor-motako azpiegitura baten bidez egin beharko da.
- d) Bide publiko batetik sarbidea duen kasuetan bakarrik baimendu ahal izango da lurzatian bost aparkaleku-plaza egitea.
- e) Erabilera ezarri aurretik, lurzatiak ur-zuzkidurako zerbitzuak, hondakin-urak ebakutzeko sistema eta kanpo-argiteria izan beharko ditu. Horrelakorik ez badu:
- i) Instalazio desmuntagarriaren euri-ura jasotzeko sistema bat jarri ahal izango da, ur hori zerbitzu sanitarioetan erabili ahal izateko. Horrelako kasuetan, ur hori erabiltzeko puntuek behar bezala seinaleztatuta egon beharko dute, «edateko txarra» adierazita nazioartean erabiltzen den zeinu konbentzionalaren bidez.
- ii) Hondakin-uren ebakuazioa egiteko 4.1.2 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.
- iii) Kanpoaldeko argiteriaren kasuan, eraginkortasun energetikoaren irizpideak bete beharko dira.
- f) Barruti barruan ezin izango dira zonak zoladura ez naturalez egokitu.
- g) Eremuko itxitura egiteko, 0,15 m zabaleko eta oholaren ardatzean neurtuta 0,30 metroan behin jarritako zurezko ohol horizontalez egindako hesiak erabiliko dira.

4.4.2.11 artikulua.– Aldi baterako jolas-jarduera kontzentratua. B.2.3.

- 1.– Espazio mugatu bat aisialdi eta olgetarako egokitzea da, sei hilean behin astebetetik beherako epeetarako. Espazio horretan hiri-altzariak edo aldi baterako instalazio desmuntagarriak jarri ahal izango dira, zerbitzu sanitarioak, eszenatokiak edo mailadiak, esaterako.
- 2.– Erabilera honetarako espazioak prestatu ahal izango dira Trantsizio Gainkategorian sartutako lurzatietan, baita Itsasadarreko –B1– eta Kostaldeko –B2– Babes Eremuetan ere. Horretarako, ingurumen arloko neurriak txertatu beharko dira diseinuan eta antolamenduan, betiere horiek ingurumenean eragin ditzaketen ondorio negatiboak murrizteko helburuarekin. Txostenean edo baimenean beharrezkotzat jotzen diren zuzenketa-neurriak txertatu ahal izango dira eragin daitezkeen ingurumenarekiko ondorioetatik babesteko.
- 3.– Barruti mugatura sartzeko bide publiko edo espazio publiko bat zeharkatu beharko da.
- 4.– Ez da, inola ere, barruti barruan zonaren bat zoladura ez naturalez egokitzea baimenduko, ezta aparkaleku-zonak egokitzea ere.

4.4.2.12 artikulua.– Hondartzan zenbait erabileratarako zonak egokitzea, baliza adierazle bidez. B.2.4.1.

- 1.– Erabilera honetan sartzen dira hondartzan gauzatzen diren erabileretarako zonak baliza adierazleen bidez egokitze beharrezko ekintzak, horiek Itsasadarraren Eremuan eta Kostaldeko Eremuan gauzatzen direnean. Bi eremu horietan kokatu ahal izango da.
- 2.– Baliza adierazleak behar bezala egokituko dira Itsas Agintaritzak itsaso eta kostako seinaleztapenaren arloan ezarritakoari eta Koste buruzko legediak Itsaso eta lehorren arteko Jabari Publikoa okupatzeari buruz ezartzen duenari.

4.4.2.13 artikulua.– Artefaktu flotagarriak hondartzeko zonak egokitzea. B.2.4.2.

- 1.– Itsasadarreko eta Kostaldeko Eremuetan artefaktu flotagarriak, hala nola, optimist belaontziak, windsurfekoak, surfekoak, piraguak eta hidropedalak, hondartzeko zonak egokitzea da. Marearteko edo mareaz gaindiko harea-zonetan (N1.4) eta Kostaldeko Eremuan (N2) dago baimenduta.
- 2.– Hondartzeko zonak behar bezala egokituko dira Itsas Agintaritzak itsaso eta kostako seinaleztapenaren arloan ezarritakoari eta Koste buruzko legediak Itsaso eta lehorren arteko Jabari Publikoa okupatzeari dagokionez ezarritakoari.

4.4.2.14 artikulua.– Instalazio eta zerbitzuak hondartzetan. B.2.4.3.

- 1.– Koste buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean xedatuaren ondorioetarako, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezineko ertzean dauden hondartza-zatiak naturalizat hartuko dira, eta itsaso-lehorreko jabari publikoa itsasertzeko lerroarekin bat ez datorrenean, horiek hiritar gisa hartuko dira.
- 2.– Erabilera hau Kostaldeko Eremuan (N2) eta Itsasadarreko Eremuko Marearteko edo mareaz gaindiko harea-zonetan (N1.4) egongo da baimenduta. Salbuespen gisa, Itsasertza Babesteko Eremuan –B1– ere baimenduko da, lurrak hondartzarekiko modu jarraian kokatuta badaude.
- 3.– Hondartza naturaletan, eta duna-sistemak babesteko perimetro hesitutik kanpo, instalazio eta zerbitzu desmontagarriak eta urte-sasoikoak bakarrik prestatu ahal izango dira. Erabilera honek honako hauek hartzen ditu barne:
 - a) Hondartzetako urte-sasoiko instalazio desmontagarriak, hala nola, salbamendu- eta sorospen-instalazioak, minusbaliatu funtzionalentzako instalazioak, irisgarritasunerako instalazioak, itzalkin eta etzaulkiak biltegitratzekoak, edo dutxa, paperontzi edo iturri gisako hiri-altzariak jartzen diren zonak egokitzea. Itsas kirol federaturako jardueretara bakarrik bideratutako instalazioak ez dira horien artean sartzen.
 - b) Janaria eta edariak saltzen dituzten establezimenduak, Koste buruzko Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuan jasotako erregulazioari egokitzen zaizkionak.
- 4.– Hondartzetako hiri-zatiak okupatzeko, Kostaldeko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuan jasotzen dena bete beharko da.

4.4.2.15 artikulua.– Ontzien zirkulazio kontrolatua. B.2.4.4.

- 1.– Ontziak zirkulatzea da, abiadura-baldintza jakin batzuetan, zirkulazioa baimendutako zona batzuetan eta zirkulazio-denbora batzuetan.
- 2.– Artikulu honetan sartzen dira artefaktu flotagarriak, hala nola, optimist belaontziak, windsurfekoak, kite-surfekoak, paddle surfekoak, piraguak eta hidropedalak.
- 3.– Erabilera hau Kostaldeko Eremuan –N2–, Marearteko edo mareaz gaindiko harea-zonetan –N1.4– eta Itsasadarraren ibilguak osatutako marea azpiko Eremuetan –N1.5– –azken biak Itsasadarreko Eremukoak– dago baimenduta.
- 4.– Itsasbazterraren eta Errekaetxe errekaren bokalearen (Axpe-Busturia) artean, gehienezko abiadura baimendua hiru (3) korapilokoa izango da.

- 5.– Errekaetxe errekaren bokaletik gorako zirkulazioa debekatuta dago irailaren 1etik urriaren 31ra bitartean, biak barne, honako kasu hauetan salbu:
- Muruetako ontziolan eraikitako ontziak uretaratzen eta garraiatzen laguntzeko beharrezko ontziak.
 - Ikerkuntza-lanetan ari diren ontziak.
 - Larrialdi-kasuetan zirkulatu behar duten ontziak.
 - Errekaetxe errekaren bokaletik gorako zirkulazioa baimenduta dagoen epeetan, eta aurreko zenbakian azaldutako salbuespen kasuetarako, Itsasadarraren ibilguak osatutako marea azpiko Eremuetan –N1.5– bakarrik zirkulatuko da, ezingo da kanal zaharretik zehar zirkulatu, Ozolloko errotatik gora, eta gehieneko abiadura bi (2) korapilokoa izango da. Beraz, guztiz debekatuta egongo da Marearteko edo mareaz gaindiko zonetan zirkulatzea, landaretzaz osatuta nahiz osatu gabeko lohiz osatuetan, eta padura-zonetan –N1.1–, ikerkuntzak direla-eta aparteko kasuetan izan ezik.
- 6.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuak, behar bezala justifikatutako ingurunearen karga-ahalmenarekin lotutako arrazoiak direla-eta, honako hauek mugatu ahal izango ditu bere txostenean:
- itsasoko turismo-txangoak egiteko ontziek egunean egin ahal izango duten gehienezko bidaia-kopurua.
 - turismo-zerbitzuen enpresen bidez itsasadarrean zehar piragua, paddle, surf edo antzekoetan zeharkaldiak egiten dituen eguneko gehienezko erabiltzaile-kopurua.
- 7.– Itsasadarraren Eremuan, Biosfera Erreserbaren iparraldeko mugaren eta Sandindere uhartearen iparraldean kokatuta dagoen E-W lerroaren arteko eremuan bakarrik zirkulatu ahal izango da kite-surf eta windsurf bidez. Bi modalitate horien kasuan ez da artikuluko 4. atala aplikatuko.



4.4.2.16 artikulua.– Ontziak atrakatzea eta amarratzea. B.2.4.5.

- Ontziratzeko-puntu batera, kosta batera, kai batera edo beste ontzi batera gerturatzeko eragiketa da. Ontzi edo ibilgailu bat nasa batean, ilabe batean edo beste ontzi edo ibilgailu batean amarratuta jartzeko eta mugituko ez dela ziurtatzeko erabilera da. Horiek Kostearen Buruzko 22/1988 Legearekin bat etorritik gauzatu beharko dira.
- Erabilera honetan ez da sartzen 4.4.4.28 artikuluan definitzen diren ontziak atrakatzeko eta amarratzeko azpiegiturak egitea.
- Erabilera hau Itsasadarreko Eremuko Marearteko edo mareaz gaindiko harea-zonetan –N1.4– eta Itsasadarraren ibilguak osatutako marea azpiko Zonetan –N1.5– dago baimenduta, betiere ontzi edo ibilgailuen zirkulazio kontrolaturako ezarritako mugak errespetatzen badira, eta *Salicornia ramosissima* edota *Zostera noltii* espezieak dauden zona horietako eremuen gainean modu negatiboan eragiten ez badute.
Kostaldeko Eremuan –N2– ere baimenduta dago, betiere bertan dauden atrakatzeko baldintzek horretarako aukera ematen badute, Izaro uhartearen eta Ogoño lurmuturrean Laga eta Elantxobeko herrigune-portuaren artean izan ezik, horietan ikerkuntzarekin lotutako arrazoiak daudenean bakarrik atrakatu ahal izango baita.
- Ustiapen komertzialeko erregimena duten bidaiari-trafikorako linea erregularren ontziek edo portuetako zerbitzu-zonatik kanpoko itsasoko turismo-txangoak egiteko ontziek erabiltzen dituzten ontzitegiek, arrapalek edo beste atrakatzeko-mota batzuek behar bezala bete beharko dute Kostaldeearen buruzko Erregelamendu

Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuan edo hura ordezkatzeko duen araudian ezarritakoa.

5.– Atrakatzeko zonak Plan honetako 4.4.2.12 artikuluan ezarritakoari jarraiki balizatuko dira.

4.4.2.17 artikulua.– Hondartzak garbitzea eta mantentzea. B.2.4.6.

- 1.– Hondartzak garbitzeko eta horiek ingurune-egoera egokienean mantentzeko beharrezko jarduerak dira.
- 2.– Marearteko edo mareaz gaindiko harea-zonetan –N1.4– eta Kostaldeko Eremuan –N2– dago baimenduta.
- 3.– Garbitze-lanak eskuz egin daitezela sustatuko da.

4.4.2.18 artikulua.– Ibilgailu motordunak kirol- edo aisialdi-helburuetarako zirkulatzea. B.2.5.

- 1.– Kotxe, moto edo quad bidezko zirkulazioa da, automobilismorako, motoziklismorako edo kirol- edo aisialdi-helburuetarako beste praktika batzuetarako.
- 2.– Ibilgailu motordunen zirkulazioa guztiz debekatuta dago baso-pisten, landa-bideen eta udal- edo forutitulartasuneko errepideen eremutik kanpo. Horiek ez dira, inola ere, Gune –N– Gainkategorian baimenduko.
- 3.– Ezingo da 30 kilometro ordutik gorako abiadura gainditu.
- 4.– Salbuespen gisa, noizbehinka lehiaketak ospatu ahal izango dira Plan honek Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PTR–, Baso Eremu –T2–, Landa Gunearen Eremu –T3– eta Sistemen Eremu –T4– gisa kalifikatutako lurzoruak zeharkatzen dituzten pistetan eta landa-bideetan. Horretarako, lehiaketa jokatu aurretik, honako dokumentazio hau barneratuko duen dokumentu bat aurkeztu beharko da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Zuzendari/Kontserbatzaileak txostena eman dezan:
 - a) Eskatzailearen datuak.
 - b) Lehiaketak zeharkatuko duen eremuaren oineko planoak, gutxienez 1/500 eskalakoak.
 - c) Ibilbideen luzetarako sekzioen planoak.
 - d) Lehiaketaren aurretiko urteko ortofotoa; bertan, ibilbidea irudikatuko da.
 - e) Lehiaketan parte hartuko duten ibilgailuak eta bisitarienak aparkatzeko zonaren identifikazioa.
 - f) Partaideek behar dituzten zerbitzu sanitarioetarako instalazio desmuntagarrien deskribapena.
 - g) Ekitaldia antolatzen den lekuan egon daitezkeen eta interesgarriak izan daitezkeen natura-elementuak babesteko neurriak identifikatzea.
- 5.– Bide-azpiegiturei buruzko sistema-eremuetan indarrean den legerian ezarritakoari jarraituko zaio.

4.4.2.19 artikulua.– Zuhaitz-sailen gaineko abentura-kiroletako jarduerak. B.2.6.

- 1.– Zuhaitz-sailetan egiten diren abentura-kiroleko jarduerak dira: baso-inguruetan ibilbideak, pasagune esekiak eta tirolinak prestatzea. Honako arau hauek ezartzen dira:
 - a) Erabilera hau Trantsizio Gainkategorian sartuta dauden, nekazaritzako gutxieneko lurzatiak gorako azalera duten eta espezie aloktonoen sailak dituzten lurzatiak bakarrik baimentzen da. Jarduera hau lurzatiaren mugetatik gutxienez 10 metrotara gauzatu beharko da.
 - b) Debekatuta egongo da instalazioak egitea, jarduerarekin lotutako zerbitzu sanitarioak prestatzeko beharrezko instalazio desmuntagarrietatik haratago. Zerbitzu hauek honako ezaugarri hauek beteko dituzte:
 - i) Gehienez ere 40 m²-ko azalera hartuko dute.
 - ii) Oin bakarra eta isurialde bakarreko edo biko estalkia izango dituzte, teila gorrikoa edo zurezkoa.
 - iii) Fatxadak zurez estaliko dira.
 - iv) Muga guztietatik 10 m-tik gorako tartera jarriko dira.

- c) Debekatuta egongo da jarduera martxan jartzeko azpiegiturak egitea:
- i) Lurzatiak ibilgailuentzako sarbidea izan beharko du, landa-bide edo errepide batetik.
 - ii) Jarduera ezarri aurretik sare orokorrerako loturarik ez dagoen kasuetan osasun-zerbitzuak erabiltzeko beharrezko ur-zuzkidura izateko, zisterna-kamioiak bakarrik erabili ahal izango dira, horien bidez depositura edo euri-uraren biltegiara ura eramatearren. Edonola ere, deposituak ezin izango ditu 1.000 litro baino gehiago hartu, eta hartzen dituen uren kalitateak araudi aplikagarri guztiak bete beharko ditu.
 - iii) Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.
 - iv) Jarduera martxan jarri aurretik, argindar- eta kanpoko argiteria-sare orokorrerako konexioa izan beharko du lurzatiak. Inolako konexiorik ez badago, zerbitzu horiek energia berriztagarrietarako sistema autonomoen bidez bermatu beharko dira.
 - v) Lurzatiaren barnean gehienez ere 10 ibilgailu hartzeko moduko aparkaleku-zona bat egokitu ahal izango da. Horren tratamenduan material mistoak erabili beharko dira, landaretza haztearekin batera, azalera zurrun bat lortu ahal izateko.
 - vi) Ezin izango da jardueraren ingurua edo lurzati hartzailearena hesitu.

4.4.2.20 artikulua.– Kirol-ehiza. B.3.1.

- 1.– Debekatuta dago belatz handiaren habia egiteko zonetatik 500 m-ko erradioan ehiza xeherako postuak jartzea. Gaur egun daudenak birkokatzeari edo kentzeari ekingo zaio. Horrez gain, sektorearen araudiak ezartzen dituen muga osagarriak hartu beharko dira kontuan, Mundakako Itsasadarreko Ehiza Babeslekua handitzen duen otsailaren 9ko 5/1999 Foru Dekretuak eta Urdaibain ehiza kontrolatuko zona bat sortzen duen abenduaren 28ko 7148/2006 Foru Aginduak ezartzen dituenak bereziki.

4.4.2.21 artikulua.– Kirol-arrantza. B.3.2.

- 1.– Jarduera honen praktika nazioarte-, estatu-, autonomia- eta foru-mailako legedietan ezarritakoaren arabera arautuko da.
- 2.– Amunategi errekan debekatuta dago arrantzatzea.
- 3.– Aingiraren arrantza Urdaibaiako ibai-sare osoan dago debekatuta.

3. ATALA

ONARRIZKO BALIABIDEAK USTIATZEKO ERABILERAK

4.4.3.1 artikulua.– Alderdi orokorrak.

- 1.– Erabilera hauen artean honako hauek bereizten dira:
- a) C.1. Nekazaritza: kanpoan edo aterpeko laborantzan garatzen den nekazaritzako erabileraz gain, honekin bateragarriak diren laborantza-praktikak jasotzen ditu, jarduerarekin lotutako Eraikuntzekin eta azpiegiturekin batera.
 - b) C.2. Abeltzaintza: mota guztietako abereen hazkuntzarekin lotutako jardueraz eta horretarako behar diren Eraikuntzez gain, larreak eta bazka-laboreak lortzeko lurra prestatzeko laborantzako praktikak jasotzen ditu, artzaintzarekin batera.
 - c) C.3. Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerarekiko erabilera osagarria.
 - d) C.4. Basogintza.
 - e) C.5. Lehen mailako baliabideen ustiapenarekin lotutako industriak.
 - f) C.6. Erauzketa-jarduerak.

- g) C.7. Ur-aprobetxamendua.
- h) C.8. Ur-baliabideen ustiapena. Uretako animalia- eta landare-espezieak haztea eta erdi-haztea.
- i) C.9. Itsaski-bilketa eta arrantza profesionalak.
- j) C.10. Floraren eta faunaren erauzte-erabilerak.

4.4.3.2 artikulua.– Nekazaritzako erabilera. C.1.1.

- 1.– Basokoak ez diren bitartekoen laborantzarekin zuzenean lotuta dauden eta laboreak lortzeko zenbait eginkizun egin behar diren jarduera da, hala nola, lurra prestatzea, laborantza-jarduerak eta -praktikak garatzea, uztak biltzea, aukeratzea, sailkatzea eta garraiatzeko moduan jartzea, gero horiek biltegiratu edo kontsumitzeko, eta ur-ekarpena egitea.
- 2.– Jarduerarekin bateragarriak diren jardueren kasuan, honako laborantza-praktika hauek baimenduko dira:
 - a) Ureztatzeko ura ateratzea: horretarako, ezinbestekoa izango da urari buruzko araudiak eskatzen duen emakida izatea.
 - b) Lursailak simaurtu eta ongarritzea eta horietan landare-osasunerako produktuak erabiltzea:
 - i) Trantsizioaren Gainkategorian, ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuan jasotzen diren gomendioak bete beharko dira, nekazaritzako nitratoarekin kutsatzeko arriskua duten gunetzat jo ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko guneeetan aplikatzekoak diren Ohitura Onen Kodea onartzen duena. Gune Babesaren Gainkategorian aipatutako ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuan ezarritako gomendioak derrigorrez bete beharrekoak izango dira. Edonola ere, Gune Gainkategorian ez da ongari nitrogenaturik erabili ahal izango.
 - ii) Nekazaritzako lurzoruetan galarazita dago lohiak aplikatzea, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremu osoan.
 - c) Fruta-arbolak landatzea, moztea eta inaustea.
 - d) Luberritze-lanak, eta laborantza iraunkorra edo noizbehinkakoa. Kasu guztietan, Plan hau indarrean sartzen denean nekazaritzako erabilerak jasotzen dituzten lurzatien barnean dauden zuhaitziak bere horretan mantenduko dira.
 - e) Lurraren emankortasun-baldintzak hobetzeko beharrezko landare-lur ekarpenak. Landare-lurrezko ekarpenaren ostean gertatzen den aldaketa topografikoak ez du, inola ere, metro batetik gora hartuko jatorrizko kotarekiko, eta material naturalak (lurra eta harriak) erabiliz egindako ekarpen horretara ez da, inola ere, eusteko elementu osagarririk eraiki beharrik izango. Hezegune eta istingadi naturalak lehengo egoeran mantenduko dira.
- 3.– Ezarpen berriko erabilera hori baimenduko da honako kalifikazio hau duten lurzoruetan:
 - a) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremua –T1–.
 - b) % 30 eta 45 bitarteko malda duen Baso Zona –T2.F1–.
 - c) Landa Gunearen Eremuak –T.3–.
 - d) Artadi Kantauriarren Eremuetako zelai eta laborantza Zonak –N3.4– eta Gunearen Babes Gainkategoriako Eremuak eta Zonak, Baso Autoktonoen Eremua –B6– izan ezik.

Erabilera hau d) atalean deskribatutako zonetan ezartzeko, nekazaritza arloan eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak dagokion txostena eskatuko dio Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzaileari, hark bertan egon daitezkeen eta jardueraren garapena baldintza dezaketen elementu naturalak azter ditzan, baso naturalak edo istingak sor daitezkeen zonak, esaterako, baita eremuko eguzkialdiak ere.

Txostenak ustiapena Plan honen helburuetara egokitzen dela aztertuko du, eta dagozkion neurriak ezarri ahal izango ditu hautematen diren ingurumen-inpaktu potentzialak arintzeko edo desagerrarazteko, eta bereziki, faunarentzako pasaguneak eta galeria-basoaren eta artadiaren babesa eta hobekuntza bermatzeko.

Txostena emateko, nekazaritzaren arloan eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak garatu nahi den nekazaritzako jarduera deskribatzen duen dokumentazioa igorriko du, Nekazaritza

Ustialekuen Erroldan azaltzen diren datuak bidaliz nahiz proiektua edo bideragarritasun-plana bidaliz, jarduera ezartzeko beharrezkoa den kasuetan. Konpontzeko moduko akatsak badaude edo plana behar bezala aztertzeke beharrezko dokumentazioaren bat falta bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio, hamabost eguneko epean, hark akats eta gabezia horiek konpondu ahal izan ditzan.

- 4.– Jardueraren mugak Plan honetako 3.5.3.1 artikuluan arautzen diren lurzati-itxitura mota desberdinak konbinatuz gauzatu ahal izango dira, betiere baso-fauna txikiaren joan-etorriak ahalbidetzeko helburuarekin.

4.4.3.3 artikulua.– Nekazaritza-erabilerarekin lotutako instalazioak. Araubide orokorra.

- 1.– Plan honek oin berriko instalazioak egitea aurreikusten du, baita lehendik dauden eta erabilera baimendu, toleratu edo iraungiak dituzten Eraikuntzetan erabilera aldatzeko aukera ere; aldaketa hori eraberritzeko esku-hartzeen bidez gauzatu ahal izango da, hura hurrengo artikuluetan identifikatzen diren nekazaritza-erabilerarekin lotutako modalitatearen batera egokitu ahal izateko.

- 2.– Instalazioak gauzatzeko unean, horiek oin berriko instalazioak izan nahiz lehendik dauden eta erabilera baimendu, toleratu edo iraungiak dituzten Eraikuntzen erabilera aldatuz gauzatu, behar bezala bete beharko dira, hurrengo artikuluetan xehatzen diren zehaztapenez gain, honako baldintza orokor hauek:

- a) Ustiategiak Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan jasota egon behar du.
- b) Nekazaritzaren arloan eskumena duen Foru Sailaren aurretiazko baimena jaso beharko du, titularrak nekazariak direla egiaztatu ahal izateko, betiere Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearekin bat etorritik. Horretarako, eta instalazioak egin aurretik, nekazaritzaren arloan eskumena duen Foru Sailak aldeko txostena eman beharko du.

Instalazio horiek sortu ziren erabilerarako bakarrik erabili ahal izango dira. Erabilera bat aldatu ahal izateko, dagokion lizentzia izapidetu beharko da.

- c) Instalazioak hartuko dituen lurzatiaren gutxieneko azalera nekazaritzako gutxieneko lurzatiari dagokiona izango da, lurzati Landa Gunearen Eremuetan –T3– dagoenean salbu, horrelakoetan, gutxieneko azalera 2.000 m²koa izango baita.

Nekazari profesionalen ustiategiei lotutako instalazioak direnean, eta jarduerak aurreko lerrokadan ezartzen den lurzatiaren azalera berdina edo handiagoa badu, instalazioak jarduerarekin lotuta dauden eta aurreko lerrokadan zehaztutakoak baino txikiagoak izango diren beste partzela hartzaile batzuetan kokatu ahal izango dira. Lurzati hartzaile horien kalifikazioetan instalazioak ezartzea baimendu beharko da.

Edonola ere, instalazio horiek artikuluko honetan eta hurrengoetan zehaztutako gainerako zehaztapen guztiak bete beharko dituzte oin berriko instalazioak ezartzeko edo lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten Eraikuntzetan eraberritzeko esku-hartzeen bitartez.

- 3.– Oin berriko instalazioen kasuan, hurrengo artikuluetan aipatzen diren eraikigarritasunak bat datoz aipatutako kalifikazioa duen lurzoruko metro koadro bakoitzeko dagoen sabaiko metro koadro kopuruarekin. Zentzu horretan, hurrengo artikuluetan zerrendatzen diren tipologietako bi edo gehiago barne hartzen dituen oin berriko instalazio bat eraikitzea aurreikusten den kasuetan, lurzati hartzailearen gehieneko eraikigarritasuna ez da inoiz eraikigarritasun baimendu handiena duen instalazioari dagokiona baino 1,25 aldiz handiagoa izango.

- 4.– Nekazaritza-erabilerarekin lotutako oin berriko instalazioen diseinuan, honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 5,00 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 6,50 m-koa.
- b) Isurialde biko estalki bidez egin beharko dira, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izango dute. Horiei zeramikazko teila kurboz edo misto gorritz emango zaie akabera.
- c) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izango dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua. Debekatuta dago akabera hormigoizko blokez egitea, hura margotuta egon ala ez.
- d) Jartzen diren arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.
- e) Beheko solairua eta lehen solairu edo solairuartera izan ditzakete.

- 5.– Kasu guztietan, lurzati hartzaileak, erabilera ezarri aurretik, bere mugarainoko zerbitzuak izan beharko ditu, ur-zuzkidurari, energia elektrikoari eta kanpoko argiteriari dagokienez; zerbitzu horiek ez baditu, horiek

isurketak, energia berriztagarriak eta metagailuak edo beste baliabide autonomo batzuk aprobetxatuz hornitu ahal izango dira. Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.

6.– Lurzati hartzailearen barnean, eraikuntza % 25etik beherako malda duen edozein zatitan gauzatu ahal izango da, gutxienez, instalazioak okupatuko duen gainazalaren bost metroko perimetroan. % 12 baino gehiagoko malda duten zonetan lur-mugimenduak egitea dakarten eraikuntza-proiektuak garatzeko prestatzen diren azterketa teknikoek lurzoruaren egonkortasunaren eta higagarritasunaren gaineko inpaktu negatiborik ez dagoela bermatzeko neurriak definituko dituzte.

7.– Bestalde, instalazio horiek familiaren bizitegi-erabilera duen eraikin batean ezarriz gero, Plan honek zatitzeko esku-hartzeetarako ezartzen dituen baldintzatzaileak errespetatu beharko dira, eta horiek aplikatu ostean bakarrik okupatu ahal izango dira hutsik geratu diren espazioak. Lehen solairuan ezin izango dira jatorrizko etxebizitzari dagozkion espazioak okupatu. Edonola ere, instalazio horiek familiaren bizitegi-erabileratik bereizirik gauzatu beharko dira. Bereizketa horretarako, solairu guztietan pareta bertikal isolatzaile bat jarri beharko da.

Eraikuntzan dauden bestelako erabileretan, eta hurrengo artikuluetan jasotzen diren salbuespenak kontuan hartuta, dagokion nekazaritza-jarduera ezartzeko behar diren Eraikuntzako espazio guztien erabilera aldatu ahal izango da.

8.– Egin nahi diren mota guztietako hondeaketa-lanetan, obren titularrak berezko landaredia berrezarri beharko du, lur beltzezko beharrezko geruza barne, lanen ondorioz hondatuta geratu den lekuetan.

4.4.3.4 artikulua.– Lanabesak eta produktuak biltegitzeko instalazioak. C.1.2.1.

1.– Oin berriko eraikuntza baimenduta dago, honako zehaztapen hauei jarraiki:

a) Lurzoruen honako kalifikazio hauetan ezarri ahal izango dira:

- i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuak –T1–.
- ii) Landa Gunearen Eremuetan –T.3–.
- iii) Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremuetan –B1–, horiek itsaso-lehorreko jabari publikoko babes-zortasunaren zonatik kanpo daudenean.

b) Plan honek instalazioa hartuko duen lurzatiaren $0,10 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten du, eta Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuan dauden instalazioen azalera eraikia 500 m^2 koa izango da gehienez ere. Horrelako instalazioak Landa Gunearen Eremuetan –T.3– daudenean, gehieneko azalera eraikia 200 m^2 koa izango da.

2.– Era berean, horrelako instalazioak ezarri ahal izango dira honako leku hauetan:

- i) Lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten Eraikuntzetan, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetan –T1– eta Landa Gunearen Eremuetan –T3– daudenean.
- ii) Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremuetan –B1– eta Kostaldea Babesteko Eremuetan –B2– dauden eta erabilera toleratua duten Eraikuntzetan, betiere itsaso-lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-zonatik kanpo badaude.
- iii) Ibai Sarearen Eremuan –B4.1– dauden eta erabilera toleratua duten Eraikuntzetan.
- iv) Kultura Intereseko Eremuko –N5– Ondare Arkitektonikoko Zonetan –N5.1– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan.
- v) Artadi Kantauriarren Eremuko –N3– Zelai eta Laborantza Eremuetan –N3.4– dauden eta erabilera toleratua duten Eraikuntzetan.

4.4.3.5 artikulua.– Nekazaritzako produktuen lehen eraldaketarako eta salmentarako instalazioak. C.1.2.2.

1.– Nekazaritzako produktuen biltegitratzea, hautaketa eta lehen eraldatzea egiten den instalazioetan garatzen den jarduera da. Hala dagokionean, produktu eraldatuen salmenta gainera dezake, baita horiek dastatzeko

eta erakusteko espazioak, eta bulegoak eta garajeak ere. Mota horretako instalazioetan sartzen dira, halaber, upategiak eta kontserba begetalak, marmeladak eta konfiturak ekoizteko Eraikuntzak.

- 2.– Plan honek, erabilera honen barnean eta eraldaketa-prozesuaren mekanizazio-mailaren arabera, instalazio mekanizatuak aurreikusten ditu batetik, eta eskulangintzakoak, bestetik. Hala, instalazio bat eskulangintzakotzat hartu ahal izan dadin, eraldaketa-prozesuan instalazio mekanizatuak erabilitako makineriaren % 40 erabili ahal izango du, gehienez ere.
- 3.– Mota honetako oin berriko instalazioak ezartzeko, honako araudi hau bete beharko da:
 - a) Instalazio mekanizatuaren kasuan, $0,10 \text{ m}^2/\text{e}/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasun-koefizientea ezarri da, instalazioaren lurzati hartzailearen m^2 bakoitzeko. Horrelakoak baimendu ahal izango dira lurzoruek honako kalifikazio hauek badituzte:
 - i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonak –T1. PRT–. Lurzoru horietan, gehieneko azalera eraikia 1.500 m^2 -koa izango da.
 - ii) Landa Gunearen Eremuak –T.3–. Lurzoru horietan, gehieneko azalera eraikia 500 m^2 -koa izango da.
 - b) Eskulangintzako instalazioen kasuan, $0,05 \text{ m}^2$ -ko eraikigarritasun-koefizientea ezartzen da instalazioaren lurzati hartzailearen m^2 bakoitzeko. Horrelako instalazioak baimendu ahal izango dira lurzoruen kalifikazio hauek badituzte:
 - i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan –T1. PRT–. Lurzoru horietan, gehieneko azalera eraikia 500 m^2 -koa izango da.
 - ii) Landa Gunearen Eremuetan –T.3–. Lurzoru horietan, gehieneko azalera eraikia 250 m^2 -koa izango da.
 - c) Bi kasuetan, ustiapena Nekazaritza Balio Handiko Zona –T1.A1– gisa kalifikatutako lurzoruetan garatzen bada, eta hura hartzen duen lurzatiak ez badu Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– edo Landa Gunearen Eremu –T3– gisa kalifikatuta dagoen eta instalazioa har dezakeen inolako lursailik, instalazioa Nekazaritza Balio Handiko Eremu –T1.A1– gisa kalifikatutako lurzoruetan egin ahal izango da. Gutxienezko lurzati hartzailearen, eraikigarritasunaren eta gehieneko azalera eraikiaren parametroak Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan kokatu beharreko mekanizazio- eta artisau-instalazioetarako ezarritakoak izango dira, hurrenez hurren.
 - d) Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuak izan ezik. Edonola ere, lurzatiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - i) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - ii) Barnean, aparkalekurako zona bat hartzeko lekua izan behar dute, gehienez ere lau ibilgailuentzat.
- 4.– Era berean, mota honetako instalazioak jarri ahal izango dira lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten Eraikuntzetan, betiere honako zehaztapen hauek egokituak:
 - a) Plan honek Zelai eta Laborantza Eremu –N3.4– gisa kalifikatzen dituen lurzoruetan kokatu beharko da Eraikuntza, Gunearen Babes Galkategorian eta Trantsizioko Galkategorian, Sistemen Eremuen –T4– kasuan salbu. Era berean, Ondare Arkitektonikoko Zonetan –N5.1– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan jarri ahal izango dira.
 - b) Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuak izan ezik. Edonola ere, lurzatiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - i) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - ii) Barnean, jarduera honetarako aparkaleku-plazak hartzeko zona bat izan dezakete, gehienez ere lau ibilgailu hartzeko Trantsizioko Galkategorian kokatutako lurzatiaren kasuan, eta bi ibilgailu hartzeko Gunearen Babes Galkategorian kokatuta daudenen kasuan.
- 5.– Nekazaritzako produktuak lehen aldiz eraldatzeko upategiek edo instalazioek oin batetik gorako altuera duten lehen eraldaketarako elementuak behar badituzte, horiek sotoa edo erdisotoa izan dezakete, behe-solairuaz eta lehen solairuaz gain.

Gainera, instalazio mekanizatuen diseinuan, honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Estalkiak lauak izan daitezke; kasu horretan, hegala gehieneko altuera 6,5 metrokoa edo bi isurialdekoa izango da; teilatu-hegala 6,00 metrokoa izango da, eta gailurra, berriz, 7,50 metrokoa. Hark gorri edo antrazita-beltz koloreko akabera izango du.
- b) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, zuriz pintatutako zarpiatua edo harrizko plaka. Akabera ezin izango da hormigoizko blokez egin, hura pintatuta egon ala ez.
- c) Kokatu beharreko zura zuria, marroia edo antrazita-beltza izango da.
- d) Horiek sotoa edo erdisotoa, behe-solairua eta lehen solairua edo solairuarteak izan dezakete.

4.4.3.6 artikulua.– Berotegiak. C.1.2.3.

- 1.– Instalazio iraunkor, estali eta berotuetan egiten den jardura da. Horiek artifizialki estaltzen dira, gai gardenekin, nekazaritzako labore intentsiboak babesteko edo behartzeko (baratzeazaintza, apaindurazkoak). Negutegien barrualdeak laboreen ziklo osoa edo zati bat garatzea ahalbideratzen du.
- 2.– Nabe isolatuak edo bata bestearen atzetik, baterian lotutako nabe-multzoak izan daitezke. Landaketa-sistema lurduna edo lur gabea (hidroponikoa) izan daiteke, eta lur gaineko finkoak edo mugikorak izan daitezke.
- 3.– Oro har, nekazaritza-erabilerarekin lotutako praktikez gain, jardura honekin lotuta daude, halaber, mintegiak, itzalpeak, ugalketak, ureztapen ongarridun sistemak eta jardura mota honi dagozkion bestelakoak.
- 4.– Oin berriko horrelako instalazioak eraiki ahal izango dira lurzoruen kalifikazioak honako hauek badira:
 - a) Trantsizioko Landa Paisaiako Zonak –T1. PRT–.
 - b) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuen Nekazaritza Balio Handiko Zonak (T1.A1), horien exekuziorako zolatak edo lurzoruen iragazgaitzasunak gauzatu behar ez badira.
 - c) Landa Gunearen Eremuak –T.3–.
 - d) Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremuetan –B1–, horiek itsaso-lehorreko jabari publikoko babes-zortasunaren zonatik kanpo daudenean.
- 5.– Plan honek 0,40 m²e/m²l-ko gehieneko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten du, instalazioaren lurzati hartzailearen m² bakoitzeko, eta azalera eraikia 3.000 m²koa izango da gehienez ere. Horrelako instalazioak Landa Gunearen Eremuetan –T.3– kokatuta daudenean, gehieneko azalera eraikia 300 m²koa izango da.

Nekazari profesionalen kasuan, gehieneko eraikigarritasun-koefizientea instalazioaren lurzati hartzailearen 0,60 m²e/m²l-koa izango da instalazioaren lurzati hartzailearen m² bakoitzeko; azalera eraikia 10.000 m²koa izango da, gehienez ere, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetan –T3–, eta 1.000 m²koa Landa Gunearen Eremuetan –T3–.

4.4.3.7 artikulua.– Baratze eta apaindurako landareak eta zuhaixka- eta zuhaitz-espezieak ekoizteko eta saltzeko nekazaritzako ekoizpen-mintegiak. C.1.2.4.

- 1.– Jardura hau berotegi-instalazioetan eta kanpo-instalazioetan garatzen da. Horien helburu nagusia baratze eta apaindurako landareak eta zuhaixka- eta zuhaitz-espezieak lantzea, ekoiztea eta saltzea da.
- 2.– Instalazioak, laborantzarako zonez gain, produktuak prestatzeko, erakusteko eta saltzeko zona bat izango du. Gainera, instalazio horrek erabiltzaileentzako osasun-zerbitzuak izango ditu.
- 3.– Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzatiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - a) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - b) Barnean aparkalekurako zona bat hartzeko lekua izan behar dute, gehienez ere sei ibilgailuentzat.

- 4.– Horrelako oin berriko instalazioak baimendu ahal izango dira lurzoruen kalifikazio hauetan:
- Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan –T1. PRT–.
 - Landa Gunearen Eremuetan –T.3–.
- 5.– Plan honek $0,40 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten du instalazioaren lurzati hartzailearen m^2 bakoitzeko; gehieneko azalera eraikia 2.500 m^2 koa izango da. Horrelako instalazioak Landa Gunearen Eremuetan –T.3– kokatuta daudenean, gehieneko azalera eraikia 300 m^2 koa izango da.
- Nekazari profesionalen kasuan, gehieneko eraikigarritasun-koefizientea instalazioaren lurzati hartzailearen $0,60 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -koa izango da instalazioaren lurzati hartzailearen m^2 bakoitzeko; azalera eraikia 10.000 m^2 koa izango da, gehienez ere, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetan –T3–, eta 1.000 m^2 koa Landa Gunearen Eremuetan –T3–.
- 6.– Era berean, mota horretako instalazioak jarri ahal izango dira lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten Eraikuntzetan, betiere honako zehaztapen hauek betetzen badituzte:
- Plan honek Gunearen Babes Gainkategoria eta Trantsizioko Gainkategoria gisa kalifikatutako lurzoruetan kokatu beharko da Eraikuntza.
 - Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzatiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - Barnean, jarduera honetarako aparkaleku-plazak hartzeko zona bat izan dezakete, gehienez ere sei ibilgailu hartzeko Trantsizioko Gainkategoria kokatutako lurzatiaren kasuan, eta hiru ibilgailu hartzeko Gunearen Babes Gainkategoria daudenean.

4.4.3.8 artikulua.– Perretxikoak eta onddoak hazteko nekazaritza-ekoizpeneko mintegiak. C.1.2.5.

- 1.– Mikokultura-jarduera, ingurune kontrolatu batean [elikagaiak](#) edo [sendagaiak](#) ekoiztearren [perretxikoak](#) edo [onddoak](#) lantzen dituen, baimenduta dago oin berriko instalazioetan, baldin eta horiek hartzen dituzten lurzoru-motak honelakoak badira:
- Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonak –T1. PRT–.
 - Landa Gunearen Eremuak –T.3–.
- 2.– Oin berriko instalazioen kasuan, Plan honek $0,05 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten du instalazioaren lurzati hartzailearen m^2 bakoitzeko; haren gehieneko azalera eraikia 500 m^2 koa izango da. Horrelako instalazioak Landa Gunearen Eremuetan –T.3– daudenean, gehieneko azalera eraikia 250 m^2 koa izango da.
- 3.– Era berean, perretxikoak eta onddoak lantzeko nekazaritza-ekoizpenerako mintegietarako instalazioak lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten Eraikuntzetan jarri ahal izango dira, Plan honek Gunearen Babes Gainkategoria eta Trantsizioko Gainkategoria gisa kalifikatutako lurzoruetan badaude.

4.4.3.9 artikulua.– Abeltzaintza-erabilera. C.2.1.

- 1.– Abeltzaintzako jarduerak dira edozein ganadu-mota hazteko egiten diren jarduerak, baita larrugintzarako animaliak eta ehizarako espezieak hazteko granjak ere. Bertan sartzen dira, halaber, larreak eta bazka-laboreak lortzeko lurra prestatzea eta artzaintza:
- 2.– Abeltzaintzako ustiategiarekin lotutako laborantza-praktikak direnean, eta horien xedea bazka-laboreak, zelaia eta larreak maneiatzea bada, honako hauek baimenduko dira:
- Sastrakak kentzea.
 - Fitosanitarioak aplikatzea.

- c) Lurrak goldatzea eta larre-espezieak ereitea, larreak eta bazka-laboreak lortzeko helburuarekin.
- d) Ongarritzea.
- e) Eskuz edo bitarteko mekanikoz egindako uzta-bilketak.
- f) Siloratzekak.

3.– Jardueraren mugak Plan honetako 3.5.3.1 artikuluan arautzen diren lurzati-itxitura mota desberdinak konbinatuz gauzatu ahal izango dira, betiere baso-faunaren joan-etorriak ahalik eta gehien ahalbidetuz.

4.– Plan honen arabera, jarduera hau garatzeko honako hau izan behar du lurzoruen kalifikazioak:

- a) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremua –T1–.
- b) % 30 eta 45 arteko malda duen Baso Eremua –T2.F1–.
- c) Landa Gunearen Eremuak –T.3–.
- d) Artadi Kantauriarren Eremuetako Zelai eta Laborantza Zonak –N3.4– eta Gunearen Babes Gainkategoriaiko Eremuak eta Zonak, Baso Autoktonoen Eremua izan ezik.

Erabilera hau d) atalean deskribatutako zonetan ezartzeko, nekazaritza arloan eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak dagokion txostena eskatuko dio Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzaileari, hark bertan egon daitezkeen eta jardueraren garapena baldintza dezaketen elementu naturalak azter ditzan, baso naturalak edo istingak sor daitezkeen zonak, esaterako, baita eremuko eguzkialdiak ere.

Txostenak ustiapena Plan honen helburuetara egokitzen dela aztertuko du, eta dagozkion neurriak ezarri ahal izango ditu hautematen diren ingurumen-inpaktu potentzialak arintzeko edo desagerrarazteko, eta bereziki, faunarentzako pasaguneak eta galeria-basoaren eta artadiaren babesa eta hobekuntza bermatzeko.

Txostena emateko, nekazaritzaren arloan eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak garatu nahi den nekazaritzako jarduera deskribatzeko dokumentazioa igorriko du, abeltzaintzako ustialekuei buruzko erroldan azaltzen diren datuak bidaliz nahiz proiektua edo bideragarritasun-plana bidaliz, jarduera ezartzeko beharrezkoak badira. Konpontzeko moduko akatsak badaude edo plana behar bezala aztertzeke beharrezko dokumentazioaren bat falta bada, eskatzaileari jakinarazi eta hark hamabost eguneko epea izango du akats eta gabezia horiek konpondu ahal izateko.

5.– Baso-masen barneko artzaintza estentsiboa (baso-larregintza), lehen aipatutako kalifikazioetan, zuhaiztiak kaltetu gabe eta horien birsortzea arriskuan jarri gabe garatuko da, lurzoru-galerarik eragin gabe.

6.– Zuhaitzez hornitutako parajeetan ez da ahuntzak libre uztea onartuko; beraz, itxiturarik gabeko zonetan, ahuntzainak derrigorrez egon beharko du ganaduarekin.

7.– Sastrakadia edo bertako baso-masak lehengoratzten badira abere-kargaren murrizketarekin lotuta, horrek ez du larreak bitarteko artifizialen bidez mantendu behar izatea eragingo, natura edo paisaia aldetiko interes handiko kasuetan edo suebaki gisa erabiltzen denean salbu. Salbuespen horiek behar bezala justifikatu beharko dira.

8.– Zuhaitzi, heskai, landarezko pantaila, ertzeko landaretza eta ibaiertzeko landaretza eta abeltzaintzako lurzati eta larreetako mugetako landaretza sortzea eta mantentzea bultzatuko da, zuhaitz- eta zuhaixka-espeziak konbinatzea sustatuz, eta betiere horien bidez ahalik eta ingururik naturalena sortzeko helburuarekin.

9.– Tamaina txikiko baso-faunaren joan-etorriak bultzatuko dira, zona hezeak edo istiluneak lehengoratzuz eta mantenduz eta ehiza-motako itxituren ordez iragazkorrago beste batzuk erabiliz.

4.4.3.10 artikulua.– Abeltzaintza-erabilerarekin lotutako eraikinak. Araubide orokorra.

1.– Abeltzaintza-erabilerarekin lotutako mota bateko edo besteko oin berriko Eraikuntzak egin ahal izango dira.

Aparteko kasuetan, lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten Eraikuntzetan erabilera aldatzeko aukera aurreikusten du Plan honek, eraberritzeko esku-hartzeen bidez, eta osasun- eta maneiu-instalazioak ezartzeko helburuarekin.

2.– Egiten diren instalazio berriek, hurrengo artikuluetan azaltzen diren zehaztapenez gain, honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

- a) Ustiategiak Ustiategien Erroldan jasota egon beharko du.
- b) Instalazio horiek ezartzeko, abeltzaintzaren arloan eskumena duen Foru Sailaren aurretiazko baimena beharko da, titularrak abeltzainak direla egiaztatzeko helburuarekin. Horretarako, eta instalazioak egin aurretik, abeltzaintzaren arloan eskumena duen Foru Sailak aldeko txostena eman beharko du.
- c) Instalazioek abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuko zehaztapenak bete beharko dituzte. Hori guztia sektoreko bestelako araudiak, bereziak, higieniko-sanitarioak, ingurumenekoak, hirigintzakoak edota aplikagarriak diren bestelako batzuk betetzeaz gain.
- d) Edonola ere, horrelako instalazioak lurzatiaren arteko mugekiko 10 metroko tartera jarriko dira, udal-titulartasun publikoko errepideetatik eta bide publikoetatik 5 metrotara, bide-ertzetik neurtuta, eta foru-errepideei dagokienez, foru-arauak ezartzen duen tartera. Bestalde, abeltzaintzako beste ustiategi batzuekiko kokapena, Plan honetan Hirigintzako Udal Plangintzak Antolatzeako Eremutzat (HUPA) edo Landa Gunearen Eremutzat –T.3– identifikatutako lurzoruekiko mugekiko, edo lurraldeko beste elementu batzuekiko, behar bezala egokitu beharko da 515/2009 Dekretuaren I. eranskinean edo hura ordezkatzeko duen arauan ezartzen dena.
- e) Instalazioak sortu ziren unean zuten erabilerarako bakarrik erabili ahal izango dira. Erabilera bat aldatu ahal izateko, dagokion lizentzia izapidetu beharko da.
- f) Instalazioak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera Bizkaiko Lurralde Historikorako Gutxieneko Labore Unitate gisa definitzen dena izango da, 4.4.3.19 artikuluan araututako erabilera bada edo lurzattia Landa Gunearen Eremuan badago salbu, horrelako kasuetan, gutxieneko azalera 2.000 m²koa izango baita.

Abeltzain profesionalen ustiategiekin lotutako instalazioen kasuan, eta jarduerak aurreko lerrokadan ezarritako lurzatiaren azalera berdina edo handiagoa badu, instalazioak jarduerarekin lotuta dauden eta aurreko lerrokadan adierazitako neurriak baino txikiagoak izango dituzten beste lurzati hartzaile batzuetan kokatu ahal izango dira. Lurzati hartzaile horien kalifikazioetan instalazioak ezartzea baimendu beharko da.

Edonola ere, instalazio horiek artikuluan honetan eta hurrengoetan zehaztutako gainerako zehaztapen guztiak bete beharko dituzte oin berriko instalazioak ezartzeko edo lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten Eraikuntzetan eraberritzeko esku-hartzeen bitartez.

- g) Oin berriko instalazioen kasuan, hurrengo artikuluetan aipatzen diren eraikigarritasunak bat datozen aipatutako kalifikazioa duen lurzoruko metro koadro bakoitzeko dagoen sabaiko metro koadro kopuruarekin. Zentzu horretan, hurrengo artikuluetan zerrendatzen diren tipologietako bi edo gehiago barne hartzen dituen oin berriko instalazio bat eraikitzea aurreikusten den kasuetan, lurzati hartzailearen gehieneko eraikigarritasuna ez da inoiz eraikigarritasun baimendu handiena duen instalazioari dagokiona baino 1,25 aldiz handiagoa izango.
- h) Abeltzaintzako instalazio horiek diseinatzeko orduan, honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan, oro har:
 - i) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 5,00 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 6,50 m-koa.
 - ii) Bi isurialdeko estalkiz egin beharko dira, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izan beharko dute. Zeramikazko teila kurboaren edo misto gorriaren antzeko gorri koloreko akabera izango dute.
 - iii) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua. Debekatuta dago akabera hormigoizko blokez egitea, hura pintatuta egon ala ez.
 - iv) Kokatu beharreko arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.

- v) Beheko solairua eta lehen solairu edo solairuartea izan dezakete.
- 3.– Instalazio horien abeltzaintzako beste ustiategi batzuekiko edo lurraldeko beste elementu batzuekiko kokapena behar bezala egokituko da 515/2009 Dekretuaren I. eranskinean edo hura ordezkatzan duen arauan ezartzen denera.
- 4.– Osasun- eta manei- instalazioak, eta gehienez ere 3 A.L.U barne hartzeko instalazioak ezarri nahi izanez gero, lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten Eraikuntzetan eraberritzeko esku-hartzeak garatzen badira, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:
- a) Instalazio horiek familiaren bizitegi-erabilera duen Eraikuntza batean ezarriz gero, errespetatu egin beharko dira Plan honek, III. tituluari, zatitzeko esku-hartzeei ezartzen dizkien baldintzatzaileak, eta horiek aplikatu ostean bakarrik okupatu ahal izango dira hutsik geratu diren espazioak. Lehen solairuan ezin izango dira jatorrizko etxebizitzari dagozkion espazioak okupatu. Edonola ere, instalazio horiek familiaren bizitegi-erabilerarengandik bereizita gauzatu beharko dira. Bereizketa horretarako, solairu guztietan pareta bertikal isolatzaile bat jarri beharko da.
- b) Eraikuntzan dauden gainerako erabileretan, erabilera aldatu ahal izango da jarduera ezartzeko behar diren Eraikuntzako espazio guztietan.
- 5.– Kasu guztietan, lurzati hartzaileak, erabilera ezarri aurretik, bere mugarainoko zerbitzuak izan beharko ditu, ur-zuzkidurari, energia elektrikoari eta kanpoko argiteriari dagokienez; zerbitzu horiek ez baditu, horiek isurketak, energia berriztagarriak eta metagailuak edo beste baliabide autonomo batzuk aprobetxatuz hornitu ahal izango dira. Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira. Lurzati hartzailearen barnean, Eraikina luraren malda % 25etik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, Eraikinaren okupazioarekiko, gutxienez, bost metroko perimetro batean. % 12 baino gehiagoko malda duten zonetan lur-mugimenduak eragiten dituzten eraikuntza-proiektuak garatzeko prestatzen diren azterketa teknikoek lurzorua egonkortasunaren eta higagarritasunaren gaineko ondorio negatiborik eragiten ez dutela bermatzeko neurriak definituko dituzte.
- 6.– Egin nahi diren mota guztietako hondeaketa-lanetan, obren titularrak berezko landaredia berrezarri beharko du, lur beltzeko beharrezko geruza barne, lanen ondorioz hondatuta geratu den lursaileko azaleretan.

4.4.3.11 artikulua.– Lanabesak eta makineria biltegitzeko instalazioak. C.2.2.1.

- 1.– Instalazio horien oin berriko eraikuntza baimendu da honako zehaztapen hauek betetzen badira:
- a) Horrelakoak ezarri ahal izango diren lurzoruen kalifikazioak honako hauek direnean:
- i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuak –T1–.
- ii) Landa Gunearen Eremuak –T.3–.
- b) Plan honek instalazioa hartuko duen lurzatiaren $0,10 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten du, eta Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuan dauden instalazioen azalera eraikia 250 m^2 koa izango da gehienez ere. Horrelako instalazioak Landa Gunearen Eremuetan –T.3– daudenean, gehieneko azalera eraikia 100 m^2 koa izango da.
- 2.– Era berean, horrelako instalazioak ezarri ahal izango dira honako leku hauetan:
- i) Lehendik dauden eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duten Eraikuntzetan, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetan –T1– eta Landa Gunearen Eremuetan –T3– daudenean.
- ii) Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremuetan –B1– eta Kostaldea Babesteko Eremuetan –B2– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan, betiere horiek itsaso-lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-zonatik kanpo badaude.
- iii) Ibai Sarearen Eremuan –B4.1– dauden eta erabilera duten Eraikuntzetan.
- iv) Ondare Arkitektonikoko Zonetan –N5.1– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan.
- v) Zelai eta Laborantza Zonetan –N3.4– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan.

4.4.3.12 artikulua.– Abeltzaintzako produktuak biltegitzeko instalazioak. C.2.2.2.

- 1.– Jarduera honetan sartuko dira pentsu eta bazkarako siloak, horien xede bakarra ganaduarentzako zerealak, lekadunak, aleak, pentsuak eta bazkak biltegitzea denean.
- 2.– Oin berriko horrelako instalazioak eraiki ahal izango dira lurzoruen kalifikazioak honako hauek direnean:
 - a) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan –T1.PRT–.
 - b) Landa Gunearen Eremuak –T.3–.
- 3.– Bi kasuetan, ustiapena Nekazaritza Balio Handiko Zona –T1.A1– gisa kalifikatutako lurzoruetan garatzen bada, eta hura hartzen duen lurzatiak ez badu Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– edo Landa Gunearen Eremu –T3– gisa kalifikatuta dagoen eta instalazioa har dezakeen inolako lursailik, instalazioa Nekazaritza Balio Handiko Eremu –T1.A1– gisa kalifikatutako lurzoruetan egin ahal izango da. Gutxieneko lurzati hartzailearen, eraikigarritasunaren eta gehieneko azalera eraikiaren parametroak Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan kokatu beharreko mekanizazio- eta artisau-instalazioetarako ezarritakoak izango dira, hurrenez hurren.
- 4.– Plan honek $0,10 \text{ m}^2/\text{e}/\text{m}^2/\text{l}$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten du instalazioaren lurzati hartzailearen m^2 bakoitzeko, azalera eraikia gehienez ere 500 m^2 koa denean. Horrelako instalazioak Landa Gunearen Eremuetan –T.3– daudenean, gehieneko azalera eraikia 150 m^2 koa izango da.
- 5.– Instalazioak ustiategiaren perimetroan kokatuko dira, sarbidetik hurbil, elikagaiak garraiatzen dituzten kamioak bertan sar ez daitezten.
- 6.– Era berean, mota horretako instalazioak ezarri ahal izango dira honako leku hauetan:
 - i) Lehendik dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan, honako lurzoru hauetan kokatuta badaude:
 - Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetan –T1– eta Landa Gunearen Eremuetan –T3–.
 - Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremuetan –B1– eta Kostaldea Babesteko Eremuetan –B2–, betiere itsaso-lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-zonatik kanpo badaude.
 - Ondare Historiko-Arkitelktonikoko Zonetan –N5.1–.
 - ii) Zelai eta Laborantza Zonetan –N3.4– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan.

4.4.3.13 artikulua.– Abeltzaintza-jardueratik eratorritako produktuak arazteko instalazioak. C.2.2.3.

- 1.– Simaurtegi-instalazioak eta minda-deposituak dira. Horiek 515/2009 Dekretuaren arabera arautuko dira.
- 2.– Oin berriko horrelako instalazioak Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Eremu –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzoruetan eraiki ahal izango dira.
- 3.– Simaurtegia estalita eta ganadua gordetzen den instalazioetatik bereizita egongo da. Simaurtegiko zolata irazgaitza izango da, eta malda izango du likidoak bildu eta jasotze-hobi batera bideratzeko.
- 4.– Deiekzio likidoak jaso eta biltzeko hobia estankoa izango da, eta 5 m^3 ko edukiera izango du, Azienda Larrien Unitate bakoitzeko; edonola ere, hark ez du 100 m^2 tik gorako azalera eraikia izango. Sarrera errazeko zona batean kokatuta egon beharko du, manipulatu eta garbitzeko, eta lur gaineko nahiz lurpeko ur-ibilgu guztietatik gutxienez 25 metrotara egongo da.
- 5.– Simaurra eta minda ongarri gisa erabiltzea aurreikusten bada, ustiapenean beharko den gutxieneko azalera erabilgarria 515/2009 Dekretuaren I. eranskineko III. kapituluko 6. zenbakian ezarritakoaren arabera arautuko da.

4.4.3.14 artikulua.– Ganadua ukuilurtzeko instalazioak. C.2.2.4.

- 1.– Oin berriko horrelako instalazioak Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Eremu –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzoruetan eraiki ahal izango dira.

Plan honek $0,05 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten du instalazioaren lurzati hartzailerean m^2 bakoitzeko, azalera eraikia gehienez ere 750 m^2 koa denean.

- 2.– Era berean, lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten instalazioetan baimenduko dira, horiek Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetan –T1– eta Landa Gunearen Eremuetan –T3– daudenean.
- 3.– Ganadua ukuiluratzeko instalazioek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:
 - a) Instalazioaren diseinuak animalia guztiak argi natural eta artifizial bidez ikuskatu ahal izateko aukera eman behar du.
 - b) Animalia gaixoentzako eta erditzeetarako lokal isolatu bat gaitu beharko da.
 - c) Zoruak artekadunak izango dira, eta malda egokia izan beharko dute, likidoak drainatu eta horiek garbitu ahal izateko.

4.4.3.15 artikulua.– Osasun- eta maneiu-instalazioak. C.2.2.5.

- 1.– Parasitoen kontrako tratamenduak, txertaketak, ugalketarekin lotutako eragiketak, ganaduaren sailkapena, ontziratzea eta abar egiten diren instalazioak dira. Horiek honako elementu hauek izango dituzte: eskortak, tratamendu-eskortak, parasitoen kontrako baimenak eta ontziralekuak.
- 2.– Era berean, erabilera aldatzea ahalbidetzen duten eraberritzeko esku-hartzeen bitartez, lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten Eraikuntzetan ezarri ahal izango dira, Landa Gunearen Eremuetan –T3–.

4.4.3.16 artikulua.– Produktuen lehen eraldaketarako eta salmentarako eraikuntzak. C.2.2.6.

- 1.– Abeltzaintzako produktuen estabulazioa, erauzketa eta lehen eraldatzea egiten den instalazioetan garatzen den jardura da. Hala dagokionean, produktu eraldatuaren salmenta barne har dezake, baita horiek dastatzeko eta erakusteko espazioak ere, bulegoarekin eta garajearekin batera. Mota honetako instalazioetan sartzeko dira, halaber, esnetegiak, gaztandegiak edo oilo edo landako beste animalia batzuen abeletxeak.
- 2.– Horrelako oin berriko instalazioak eraiki ahal izango diren lurzoruen kalifikazioak honako hauek direnean:
 - a) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonak –T1. PRT–. Kasu horretan, $0,10 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten da instalazioaren lurzati hartzailerean m^2 bakoitzeko; haren azalera eraikia 1.000 m^2 koa izango da gehienez ere.
 - b) Landa Gunearen Eremuak –T.3–. Kasu horietan, $0,05 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten da, instalazioaren lurzati hartzailerean m^2 bakoitzeko. Lurzoru horietan, gehienezko azalera eraikia 250 m^2 -koa izango da.
- 3.– Horrelako instalazioetarako jezteko eta/edo produktua eraldatu aurretik edo bitartean biltegitzeko zona bat behar izanez gero, espazio horiek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:
 - a) Jeztegiaren kasuan:
 - i) Jeztegia kutsadura-iturri guztietatik behar bezala bereizita egongo da.
 - ii) Paretak azulejuz estalita egongo dira, edo luzituta eta pintura plastiko zuriz pintatuta.
 - iii) Edateko ur-hornidurarako sistema egokia egongo da, jezte-lanerako eta esnearekin kontaktuan sartuko diren materialak eta tresnak garbitzeko beharrezkoa.
 - iv) Jezteko tresneria garbitzeko erraza eta herdoilgaitza izango da. Ekipoak instalatzeko moduak mantentze- eta garbitze-lanak behar bezala egiteko aukera eman behar du.
 - v) Jezteko makinaren motorrak kanpoaldean instalatuko dira, espazio itxi eta estali eta aireztatu batean.
 - b) Produktua eraldatu aurretik edo bitartean biltegitzeko espazioen kasuan:
 - i) Espazio horrek ustiatzeko beste eremuetatik isolatuta egon beharko du.

- ii) Paretak azulejuz estalita egongo dira, edo luzituta eta pintura plastikoz pintatuta. Leihoak eltxo-sarez babestuta egongo dira, eta zikinkeria sartzeari saihestu beharko dute.
 - iii) Edateko ur-hornidurarako sistema egokia egongo da, eraldatu behar den produktuarekin kontaktuan sartuko diren materialak eta tresnak garbitzeko beharrezkoa.
 - iv) Konketa bat egongo da; hark eragite ez-eskuzkoa izango du, eta ur hotz eta beroz hornitua egongo da.
 - v) Espazio horretan esnea hozteko edo gazta hartitzeko andelak badaude, hura erraz garbitzeko moduko material herdoilgaitzez eginda egongo da. Hozte-motorrak kanpoaldean instalatuko dira, espazio itxi eta estali eta aireztatu batean.
- 4.– Instalazioak lanabesak eta makineria biltegitzeko, siloetarako edo depuraziorako espazioak behar baditu, espazio horiei dagokien azalera artikuluan honetan baimendutakoan konputatuko da. Beste zehaztapen guztiak, berriz, dagokien artikuluan ezarriko dira.
- 5.– Era berean, mota horretako instalazioak jarri ahal izango dira lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten Eraikuntzetan, betiere honako zehaztapen hauek betetzen badituzte:
- a) Plan honek Gunearen Babes Galkategoria eta Trantsizioko Galkategoria gisa kalifikatutako lurzoruetan kokatu beharko da Eraikuntza.
 - b) Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzatiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - i) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - ii) Barnean, jarduera honetarako aparkaleku-plazak hartzeko zona bat izan dezakete, gehienez ere sei ibilgailu hartzeko Trantsizioko Galkategorian kokatutako lurzatiaren kasuan, eta hiru ibilgailu hartzeko Gunearen Babes Galkategorian daudenetan.

4.4.3.17 artikulua.– Ezeria ekoizteko instalazioak. C.2.2.7.

- 1.– Erlezaintza antolatzeari buruzko otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuan edo hura ordezkatzeko duen arauan ezarritakoa aplikatuko da.
- 2.– Erlezaintza-jarduera Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremu osoan garatu ahal izango da, Itsasadarreko Eremuan –1–, Kostaldeko Eremuan –N2–, Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuan –N4– eta Landa Gunearen Eremuetan –T3– salbu.
- 3.– Erlezaintzako produktuen lehen eraldaketa, ontziratzea eta salmenta honako leku hauetan gauzatu ahal izango da:
- a) Berriaz egindako oin berriko instalazioetan, horiek kokatzeko lurzoruen kalifikazioak honako hauek direnean:
 - i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonak –T1. PRT–. Azalera eraikia 100 m²koa izango da gehienez ere.
 - ii) Landa Gunearen Eremuak –T.3–. Kasu hauetarako, 100 m²ko azalera eraikia aurreikusten da gehienez ere.
 - b) Lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten Eraikuntzetan, betiere honako zehaztapen hauetara egokitzen badira:
 - i) Plan honek Gunearen Babes Galkategoria eta Trantsizioko Galkategoria gisa kalifikatutako lurzoruetan kokatu beharko da Eraikuntza. Era berean, Ondare Arkitektonikoko Zonetan –N5.1– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan jarri ahal izango dira.
 - ii) Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzatiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.

- Barnean, jarduera honetarako aparkaleku-plazak hartzeko zona bat izan dezakete, gehienez ere lau ibilgailu hartzeko Trantsizioko Gainkategoria kokatutako lurzatiei kasuan, eta bi ibilgailu hartzeko Gunearen Babes Gainkategoria kokatuta daudenen kasuan.

4.4.3.18 artikulua.– Ekitazioa praktikatzeko instalazioak. C.2.2.8.

- 1.– Ekitazioa praktikatzeko instalazioak edo ekitazio-eskolak dira.
- 2.– Oin berriko instalazioak Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzoruetan eraiki ahal izango dira.
- 3.– Plan honek $0,05 \text{ m}^2/\text{e}/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasun-koefizientea aurreikusten du instalazioaren lurzati hartzailearen m^2 bakoitzeko; dena den, azalera eraikia 750 m^2 koa izango da gehienez ere.
- 4.– Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzatiei honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - a) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - b) Barnean, gehienez ere hamar ibilgailu aparkatzeko zona bat hartzeko lekua izan beharko dute.

4.4.3.19 artikulua.– Gehienez ere 3 azienda larri unitateren aterperako instalazioak. C.2.2.9.

- 1.– Gehienez ere 3 azienda larri unitateri (ALU) aterpea emateko instalazioek gehienez ere bi urte baino gehiago dituzten hiru behi-azienda unitate hartu ahal izango dituzte, edo abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan edo haren ordezkoko arauan identifikatutako animalia-espezieen unitate-kopuru baliokidea.
- 2.– Era berean, instalazioek abeltzaintzako lanabesak eta produktuak gordetzeko espazio bat hartu ahal izango dute.
- 3.– Instalazio horiek ezin izango dute simaurren edo minden erabilera aurreikusi nekazaritzako lurrak ureztatu ahal izateko, kontzeptu horiek 515/2009 Dekretuan edo haren ordezkoko arauan zehazten diren baldintzetan.
- 4.– Oin berriko instalazioak eraiki ahal izango dira, betiere honako arau hauei jarraiki:
 - a) Horrelakoak eraikitzeo, instalazioa hartuko duen lurzatiak 2.000 m^2 ko azalera izan beharko du gutxienez.
 - b) Instalazio horiek honako ezaugarri hauek izango dituzte:
 - i) Gehienezko neurriak, oinplanoan, $8 \times 7 \text{ m}$ -koak izango dira.
 - ii) Bi isurialdeko estalki bidez egin beharko dira, eta gailurra luzetara jarri beharko da. Teilatuegalaren altuera $3,00 \text{ m}$ -koa izango da, eta gailurrarena, berriz, $4,20 \text{ m}$ -koa. Estalkiaren akabera gorri kolorekoa izango da.
 - iii) Fatxadako itxiturek zuriz edo zurez zarpiatutako akabera izango dute, $0,15 \text{ m}$ zabaleko oholak erabilita. Hiru alderdi itxi izan beharko dituzte gutxienez. Era berean, gehienezko dimentsioen barnean, zona estali baina ez itxi bat prestatu ahal izango da, euria egiten duenean aterpe gisa jardun dezan.
- 5.– Gainera, lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten Eraikuntzetan ezarri ahal izango dira, erabilera aldatzea ahalbidetzen duten eraberritzeko esku-hartzeen bidez.
- 6.– Bi kasuetan, instalazioa hartzen duten lurzatiak kokatuta dauden lurzoruek Plan honetan duten kalifikazioa honako hauetakoren bat izango da:
 - i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuak –T1–.
 - ii) Landa Gunearen Eremuak –T.3–.
 - iii) % 30 eta 45 arteko malda duen Baso Eremua –T2.F1–.
- 7.– Instalazio horiek ez dira bizitokiak izango eta ezin izango dute egoitzarako moduko elementurik izan, tximiniarik, antenarik edo higie-nezerbitzurik, esaterako. Dena den, lanabesak eta makineria txikia

gordetzeko espazio bat izan dezakete, baita ur-hartune bat eta harraska bat ere. Kasu horretan, jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.

4.4.3.20 artikulua.– Nekazaritzako eta/edo abeltzaintzako ustiategiari lotutako bizitegi-erabilera. C.3.

1.– Plan honek nekazaritzako eta/edo abeltzaintzako ustiategi bati lotutako bizitegi-erabilera ezartzea aurreikusten du, ustiapen ekonomikoaren titularrak eta kudeatzaileak bizitegia ohiko bizileku gisa erabili behar duenean. Horretarako, obra-baimena emateko beharrezko dokumentazioarekin batera, eskaera-egileak honako dokumentazio hau egiaztatu beharko du Udalaren aurrean:

- a) Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari eskatu beharko dion lizentziaren aurretiko baimenarekin batera, eskaerari berari erantsita egongo diren honako alderdi hauek, gutxienez:
 - i) Ustiategiak era autonomoan ekonomikoki bideragarria izateko gutxieneko baldintzak betetzen dituela.
 - ii) Eskatzailea kasuan kasuko Gizarte Segurantzaren erregimen berezian izena emanda dagoela, eskaera egin baino gutxienez urtebete lehenagotik.
 - iii) Azken errenta aitorpenean, eskatzailearen sarrera arruntetatik % 50 baino gehiago nekazaritza- edo abeltzaintza-jardueraren ustiapenetik datozela.
- b) Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak emandako dokumentu ofiziala; horren bidez, nekazaritzako ustiategiaren produkzio-dimentsioa nahikoa izango dela ziurtatuko da, ustiategiari lotutako bizitegiarentzat honako hauek justifikatzeko:
 - i) Gutxienez Nekazaritzako Lan Unitate batentzako eskulana.
 - ii) Azken hiru urtetan zehar lanbidearteko gutxieneko soldataren pareko marjina garbia.
- c) Nekazaritzako ustiategia Bizkaiko Lurralde Historikoko Ustiategien Erregistroan inskribatzea.

2.– Edonola ere, eraikuntza-lanak baimentzen dituzten lizentziek lege-baldintza bat izango dute uneoro, eta erabilera hori dagokion nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiari modu jarraituan eta etengabeen lotuta mantendu beharko da, gutxienez, hogeita bost urteko epean. Era berean, nekazaritza- edo abeltzaintza-erabilerekiko lotura egiaztatzeko balio duten lurzatiak baimentzen den eraikinari lotuta geratuko dira, hirigintzari eta erregistroari dagokienez.

Legezko baldintza hori betetzen ez bada, bizitegi-erabilerak ez du hirigintza-legitimitaterik izango eta eraikuntza antolamenduz kanpo geratuko da; bi alderdi horiek jabetza-erregistroan adierazi beharko dira, legez dagokien moduan eta jabearen kontura.

Hori betetzen ez denean, Udalak lizentzia iraungi dela aitortu beharko du, eragindako titularrari entzun ostean eta kalte-ordainak ordaintzeko inolako eskubiderik gabe.

3.– Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiaketa horri dagokion ustiategien erregistroko inskripzioan egindako aldaketa guztiak jakinaraziko dizkio Udalari.

4.– Nekazaritza-erabilerarekin lotutako bizitegi-erabilera Plan hau indarrean sartu aurretik zeuden baserrietan ezarriko da, honako zehaztapen hauek betetzen badira:

- a) Baserri horiek dauden lurzatiak, hots, Eraikuntzen lurzati hartzaileen kalifikazioak honako hauek izatea:
 - i) Ondare Arkeologikoko Zonak –N5.1– eta Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuak –T1–. Kalifikazio honetan sartzen den lurzati hartzailearen azalera nekazaritzako gutxieneko azalaren parekoa edo handiagoa izan beharko du.
 - ii) Landa Gunearen Eremuak –T.3–. Kasu honetan, baserriak nekazaritzako gutxieneko lurzatiaren lurzati hartzaile bera edo handiagoa izan beharko du, gutxienez. Kalifikazio honetan sartutako lurzati hartzailearen azalera 2.000 m²koa izango da gutxienez; gainerako azalera nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuan –T1– sartutako lurzoruetan kokatu beharko dira.
- b) Baserria eraberritzea aurreikusten bada nekazaritzako ustiategi bati lotutako bizitegi-erabilera finkatu edo ezarri ahal izateko, nekazaritzako edota abeltzaintzako dependentzietatik bereizita egon beharko dute, beheko solairutik gailurrerainoko pareta bertikal isolatzaile baten bidez, edo eraikin

independente batean. Horrelako kasuetan, hori bideragarria izan dadin, Plan honek nekazaritza-eta/edo abeltzaintza-erabilerarekin lotutako Eraikuntzetarako ezartzen duena bete beharko da.

- c) Nekazaritzako ustiategiaren azaleraren % 80 Plan honek Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremu –T1– edo Landa Gunearen Eremu –T3– gisa kalifikatzen dituen lurzoruetan egotea.

5.– Salbuespen gisa, oin berriko bizitza bakarreko eraikin isolatuetan nekazaritza-erabilerarekin lotutako bizitegi-erabilera ezartzea aurreikusten du Plan honek, honako kasu hauetan:

- a) Baserriaren familia-bizitegirako erabilera eta Eraikuntza bera iraungita daudenean.
- b) Ustiategiko sailetan etxebizitzarik ez dagoenean.
- c) Baserrian lan egiten duen eta baserrian jarraitzea aurreikusten duen semeak edo alabak –edo oinordekoek– familia berria eratzen duenean, baserrian bigarren bizitza bat gaitzeko tokirik ez badago. Nekazari gazteak nekazaritzako ustiategian jarraitzen duela eskritura publiko bidez egiaztatuko da, indarrean diren legeen arabera eta honako modalitate juridiko hauen bitartez:
- i) Euskal Herriko Zuzenbide Zibilarren Legea aldatzen duen 3/1999 Legearen araberako oinordetza-itun bidez.
- ii) Nekazari gaztea ustiategiaren titularkidetasun izatera iritsiz, betiere nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko uztailaren 4ko 19/1995 Legean ezartzen denaren arabera eta aldi berean honako baldintza hauek betetzen badira:
- Titularrak eta nekazari gazteak azken horrek gerentzia-erantzukizunak, ustiategiaren emaitza ekonomikoak eta kudeaketari dagozkion arriskuak eta ustiategian egiten diren inbertsioak partekatuko dituela adostea, gutxienez 100eko 50eko proportzioan. Akordio horrek sei (6) urteko iraupena izan beharko du gutxienez.
 - Titularrak nekazari gazteari, gutxienez, bere ustiategia osatzen duten elementuen jabetzaren heren bat eskualdatzea; horren erabilerak eta aprobetxamenduak ustiategiaren barnean egoten jarraituko dute.
- iii) Ustiategiaren jabetza osoaren edo biziarteko usufruktuaren salerosketa edo dohaintza.

6.– Salbuespen hori jarraian adierazten diren baldintzak eta kalifikazioak betetzen dituzten lurzoruetan dauden ustiategi eta lurzati hartzaileetan gertatuko da:

- a) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonak –T1. PRT–. Kasu horretan, eraikina hartzen duen lurzatiak bost hektarea edo gehiago izan beharko ditu; azalera horretatik erdiak, gutxienez, aipatu kalifikazio horren barnean egon beharko du. Gainera, lurzatiak % 20tik beherako malda izan beharko du batez beste.
- b) Landa Gunearen Eremuak –T.3–. Eraikina hartzen duen lurzatiak gutxienez 2.000 m² izan beharko ditu kalifikazio honen barnean, eta bi hektarea Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremu –T1– gisa kalifikatutako lurzoruetan. Lurzati hartzailearen barnean, Eraikina lurraren malda % 20tik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, Eraikinaren okupazioarekiko, gutxienez, bost metroko perimetro batean.

Ustiaketa Nekazaritza eta Abeltzaintza Balio Handiko Zona -T1.A1- gisa kalifikatutako lurzoruetan garatzen bada, eta haren lurzati hartzaileak eraikina hartu ahal izateko Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– edo Landa Gunearen Eremu –T3– gisa kalifikatutako lursailik ez badu, instalazioa Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Balio Handiko Zona –T1.A1– gisa kalifikatutako lurzoruetan gauzatu ahal izango da. Eskatutako baldintzak eta zehaztapenak Trantsizioko Landa Paisaia Zonetarako zehaztutakoak izango dira. (...)

- c) Eraikinak lurzatiaren mugetatik eta bide publikotik 5 m baino gehiagoko tartera egon beharko du; horrez gain, beste arau sektorial batzuek ezartzen dituzten tartekak bete beharko dira.
- d) Lurzati hartzaileak, erabilera ezarri aurretik, bere mugarainoko zerbitzuak izan beharko ditu, ur-zuzkidurari, argindarrari eta kanpoko argiteriari dagokienez. Jarduera ezarri aurretik sare orokorrarekiko lotura edo konexiorik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki ebakatu beharko dira. Ukuiluak instalazio independenteetan eta bereizietan kokatu beharko dira, bizileku-eraikinetik gutxienez 10 metrotara. Abeltzaintzako edo nekazaritzako beste dependentzia batzuk instalazio

independenteetan eta bereizietan kokatu ahal izango dira, edo, besterik gabe, solairu guztietan pareta bertikal isolatzaile baten bidez berezita.

- e) Eraikuntzek honako arau estetiko hauek bete beharko dituzte:
- i) Gutxienez 250 m²ko azalera eraikia izango dute.
 - ii) Sotoko solairua, etxabea edo beheko solairua, lehen solairua eta teilatupeko solairua izango dituzte gehienez ere. Edonola ere, sotoko solairuak eraikinaren oinplanoko okupazioaren % 40 hartu ahal izango du gehienez ere.
 - iii) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 5,60 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 8,50 m-koa. Teilatu-hegalaren gutxienezko altuera 4,50 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 7,20 m-koa.
 - iv) Fatxadaren kanpoalderako akaberak honelakoak izan daitezke:
 - Zurezkoak. Zurezko oholetzko panelak erabili ahal izango dira, gehienez ere eraikineko fatxaden azalera osoaren % 40 hartuz.
 - Geruza bakarreko akaberak edo morterozko zarpiatuak. Kolore zurikoak edo anil-kolorekoak izango dira. Horrenbestez, hormigoizko blokez –bloke gris, lur-kolore edo antzeko kolore batekoak– edo termobuztinezko bloke bidez egindako kanporanzko itxituren akabera ez da bere horretan utzi ahal izango.
 - Harritzkoak.
 - Harlandua edo harri-horma erabiliz gero, hark eraikineko fatxada osoak okupatu ahal izango ditu.
 - Harritzko plakak erabiliz gero, horien piezek 0,50 x 0,80 m-koak izan beharko dute gutxienez, eta eraikineko fatxaden % 40 okupatu beharko dute, gehienez ere. Hura ez da, inola ere, harri-horma baten simulazioa eginez jarriko.
 - Bistako adreilu zeramikoa. Bistako adreilu zeramikoz egindako akaberak tonu gorria izan beharko du, eta lehen oineko solairutik gora jarri beharko da. Hori jartzean, gutxienez 1,5 cm-ko juntura edo albo-juntura barnesartua utzi beharko da.
 - Beira. Argiztapen- eta aireztapen-baoak egiteko.
 - v) Estalkia egiteko lana honela gauzatuko da:
 - Estalkiak, bi isurialde maldadunak, hirugarren isurkin bat izan dezake, miru-buztan eran. Hark gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko maldak izan beharko du. Gutxienez 1,00 m ateratzen diren teilatu-hegalak izango ditu.

Dena den, eta bolumen-konposizio osoan txertatuta geratzen denean, estalkiaren % 25erainoko zatia laua egin ahal izango da. Kasu horretan, landare-estalkia egin beharko da, eta mantentze-lanetarako bakarrik iritsi ahal izango da bertara.
 - Galarazita dago isurkiaren lautasuna hausten duen *txori-toki* motako elementuak edo mantsardak egitea. Dena den, estalkiko isurkietan terrazak egin ahal izango dira, betiere goiko teilatu-hegalarekiko distantzia lau metrotik gorakoa bada –estalkiko planoan neurtuta– eta lau metrotik gora luze egiten ez badute.
 - Estalkiak zeramikazko teila kurbozko akabera izango du, edo kolore gorri lisoko mistoa.
 - Estalkitik gora ateratzen diren elementuek, aireztapen-hodiek edo tximiniek, esaterako, kolore zuriko akabera izan beharko dute.
 - vi) Sartzan diren arotzeriek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:
 - Arotzeriak zurezkoak edo beste edozein materialetakoak izango dira, eta akaberak zurezkoak izan daitezke, baita marroiz, gurdi-gorritz, itsas urdinez edo berdez pintatuak ere.
 - Horiek ixteko ezingo da ez pertsianarik edo burdin sarerik erabili.
 - vii) Balkoiak edo antzekoak eginez gero, horien babesak zurezkoak edo beltzez pintatutako metalezkoak izango dira.

- viii) Ipar-hegoaldera aldera orientatuko dira nagusiki. Orientazio hori aldatu egin ahal izango da, lursailaren ezaugarri orografikoak direla-eta, hori betetzea ezinezkoa bada.
 - ix) Estalkian eguzki-panelak jarriz gero, horiek modu antolatuan kokatu beharko dira estalki gainean, horien kokapenak fatxadako leihoen erritmoarekin eta konposizioarekin bat egin dezan.
7. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiarekin lotutako bizitegi-etxebizitzak babes-zortasunetik kanpo kokatu beharko dira, Kosteï buruzko Legearen 25. artikuluan arautzen denarekin bat etorritz.

4.4.3.21 artikulua.– Baso-erabilera. C.4.1.

- 1.– Lursailak baso-espezieen bidez lehengoratzeta edo aprobetxatzea xede duten jarduerak dira. Oro har, baso-jarduerak beste batzuetatik bereizten dira eskuratutako produktu nagusia, zura, berriztagarria izateagatik, tratatzen diren landare-espezieen txanda luzeengatik, eta jarduera horiek ingurumenean izan dezaketen eraginagatik: ibaian behera dauden beste lur batzuei mesede edo kalte egitea, animalien biziaren euskarri izatea, aisialdirako onurak (paseatzea, produktu sekundarioak biltzea, ehiza eta arrantza), eta abar. Horregatik guztiagatik, basoek hainbat babes- eta ekoizpen-funtzio betetzen dituzte.
- 2.– Baso-kudeaketak honako fase hauek bereizten ditu:
 - a) Baso-masa finkatzeko fasea:
 - i) Basoko lurtean egindako lanak, hala nola: mugaketa, lur-lantzea, ongarritzea, medeapena, sasi-garbiketak eta landare-hondarrak kentzea.
 - ii) Basoaren goreneko mailan egindako lanak, hala nola: landatzea, ereitea, birsortzeko moztea, hazi aukeratuen bilketa, eta abar.
 - b) Baso-masa kudeatzeko eta hobetzeko fasea. Produktu fitosanitarioak aplikatzea, inaustea, hobekuntzako mozketak, zura ateratzeko sarea eraikitzea, baso-masaren inbentarioa, eta abar.
 - c) Baso-masako produktuak ateratzeko fasea. Moztea, produktuak sailkatzea, bide-sareraino eramatea, basoko soberakinak erretzea, eta abar.
- 3.– Basoaren kudeaketa-jarduerak oso bestelakoak izan daitezke zuhaitzi baten zikloan zehar: zuhaitz-masa finkatzeko behar direnak, zuhaitzen osasun, babes, aprobetxamendu eta lehengoratzeko egiten direnak, eta zuhaitzak berriztatzekoak.
- 4.– Zuhaitzak moztu eta landatzeko baimen-eskaerak Foru Aldundiaren Sail eskudunean aurkeztuko dira. Basozaintzako aprobetxamenduak baimentzeko unean, Plan hau aplikatzearen ondorioz, aprobetxamendu horiek ingurune naturalean edo aurretiaz dauden azpiegituretan eragin ditzaketen kalteak gutxitzeko behar diren neurriak ezarriko dira. Era berean, indarrean den araudian eskatzen diren lizentzia eta baimen guztiak eskatuko dira.
- 5.– Plan honen ondorioetarako, basoaren kudeaketak hiru helburu hauek izango ditu: masek irautea, etekin mantendua eta askotariko erabilera. Zentzu horretan, basoko lanak masen kontserbazio-egoera eta produktibitatea hobetzen saiatuko dira, betiere beste erabilera batzuen potentzialtasuna eta etorkizuneko baso-baliabideak arriskuan jarri gabe.
- 6.– Baso-kudeaketa basoko baliabideak aprobetxatzera eta ingurumena eta natura kontserbatzera bideratuta egongo da, baita arro hidrografikoak, lurzoruak eta basoen eginkizun publikoa babestera ere. Baso-kudeaketak askotariko produkzioa eragiten du, eta, beraz, hark dituen produkzio eta esternalizazio guztiak bateragarri egin behar dira.
- 7.– Basogintzako jarduerak baliabide edafikoen eta hidrikoen kontserbazioa bermatuko dute. Horretarako, suaren erabilera estentsiboa, belar-sastraken garbitze estentsiboak eta lur-mugimenduak ahalik eta gehien mugatuko dira, eta eskuz –ez makinaz– landatzea sustatuko da, baita mozteko metodo progresiboak erabili daitezela ere (besteak beste, mehazketa, arboladiak moztea edo bakantzeak), erabateko mozketaren gainetik.
- 8.– Jardueraren mugak, landaketaren ondorengo lehen 15 urteetan zehar, zurezko hesiz egindako lurzati-itxituraz zedarritu ahal izango dira, ehiza-sarek hornitutako 1,80 m-tik beherako hesola alanbredunez. Epe hori igaro ostean kendu egingo dira itxiturak, basoko faunaren joan-etorriak sustatu ahal izateko.

- 9.– Suak, ingurumen-kalte batek edo legez kanpoko mozketak soildutako lursailetan ez da erabilera-aldaketarik baimenduko, basogintzari eta hirigintzari buruzko araudi aplikagarriak ezarritakoari jarraiki.
- 10.–Era berean, mendien araudiak zehaztutako landaketa-distantziak errespetatuko dira.
- 11.–Plan honek ingurumena lehengora dadila bultzatuko du zuhaitz- edo zuhaixka-espezie autoktonoak landatuz edo ereinez, baita horiek mantentzeko beharrezko basogintzako lanak ere, betiere honako arau hauei jarraiki:
- a) Espezie autoktonotzat hartuko dira zenbait baso-espezie autoktonoren araubide espezifikorako urriaren 14ko 11/1997 Foru Arauan jasotzen direnak.
 - b) Batez ere birsortzeko gaitasuna duten jatorrizko basoak sortzera bideratuko da.
 - c) Egurra atera ahal izango da artadi, harizti eta sahasti-urkidietan, baina erabilera propiorako eta helburu komertzialik gabe bakarrik, edo kontserbazioarekin lotutako arrazoiak direla eta. Era berean, ezin izango da ereinotz-egurrik edo ereinotzaren beste materialik atera.
 - d) Elementu autoktonoetan oinarritutako baso-lehengoratzea baimenduko da, lurzorua kalifikazioa honako hauetakoren bat denean:
 - i) Itsasadarreko Eremua, marearteko edo mareaz gaindiko harea-zonetan –N1.4– eta Itsasadarraren ibilguak osatutako marea azpiko Zonetan –N1.5– izan ezik.
 - ii) Kostaldeko Eremua –N.2–.
 - iii) Artadi Kantauriarren Eremua –N.3–.
 - iv) Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremua –N.4–.
 - v) Ondare Arkeologikoko Eremua –N5.2–.
 - vi) Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremua –B.1–.
 - vii) Kostaldeko Babes Eremua –B.2–.
 - viii) Artadi Kantauriarren Babes Eremua –B.3–.
 - ix) Ibai Sareko Babes Eremua –B.4–.
 - x) Paisaiaren Babes Eremua, Ikusizko eta Eszenografia Kalteberatasun Handiko Lurraldeak -B.5-.
 - xi) Baso Autoktonoen Eremua –B.6–.
 - xii) Trantsizioko Landa Paisaiako Zonak –T1-PRT–.
 - xiii) Baso Eremuak –T.2–.
 - xiv) Landa Gunearen Eremua –T3–.
 - xv) Zona publikoak edo pribatuak, eraikuntza-asentamenduak dituztenak edo ez dituztenak, ekipamendu komunitarioarako beharrezkoak direnak eta Lurzoru Urbanizaezinean prestatu behar direnak. –T4 ECR–.
 - e) Artadi Kantauriarren Eremuan –N.3– eta Artadi Kantauriarrak Babesteko Eremuan –B.3– galarazita dago, halaber, baso-masa eta -sailak intsektizida ez espezifiko bidez tratatzea.
- 12.–Baso-aprobetxamendua zuhaitz- edo zuhaixka-espezieak landatzea edo ereitea izango da, baita horiei dagozkien basoko lanak ere, zuhaitz-masak maneiatzera eta ustiatzera bideratuta daudenak.
- a) Erabilera hori honako zehaztapen hauen arabera arautuko da:
 - i) Baso-aprobetxamenduek Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan edo hura ordeztzen duen arauan ezarritakoa bete beharko dute.
 - ii) Habitategi buruzko Zuzentarauaren 6.3 artikulua aplikatuz, indarrean den edo Natura 2000 esparruan gara daitekeen baso-antolamendurako plan guztiek behar bezala jaso beharko dute ekosistema naturalak indartzeko neurrien azterketa, aipatutako funtsezko elementuei dagokienez batez ere, eta betiere espezie nagusietako aleak kendu gabe.
 - iii) Berariazko aniztasuna erraztuko da, eta haritz eta beste espezieetako zuhaixkak errespetatuko dira zuhaitz aloktonoen landaketetan egiten diren bitarteko eta azken mozketetan.

- iv) Produkzioko baso-sailetarako sarrera eta mozketetako materiala ateratzea lehendik dauden zortasunen bitartez egingo da, ahal izanez gero. Espezie autoktonoetako basoetan zehar (hariztian, sahasian, haltzadian, artadian...) ez da enborrik arrastan eramango, edo errekek edo ibilguak aprobetxatuko.
 - v) Mozketa bat egin ostean ez dira epaitondoak aterako, hura ingurumena lehengoratzeko helburuarekin egiten denean salbu. Debekatuta dago bulldozerrak eta lur-mugimendu handiak edo lurzoruko horizonteen nahasketa eragiten duten laborantza-teknikak erabiltzea.
 - vi) Skidderraren ordeztu aurretiko kableak erabil daitezela bultzatuko da.
 - vii) Gune eta Gunearen Babes Gainkategorietan kokatutako ustiattegietan ez da ongarririk erabiliko.
 - viii) Inausketako edo mozketako hondarrak ilarak eginez metatu edo lurzatietan zehar zabalduko dira, erre beharrean. Lursailak espezie berarekin birlandatu behar badira, hondarrak xehatu egin beharko dira metatu edo zabaldu aurretik.
 - ix) Fauna eta florarentzako interes bereziko elementuak babestu eta mantenduko dira, baita haitzuloak, harrizko hormak, heskaiak, zuhaitz zaharrak eta ihartuak, eta interes arkeologiko eta kulturaleko elementuak ere.
 - x) Aprobetxamenduak sor ditzaketen hondakin guztiak bildu beharko dira (kableak, kateak, lubrifikatzaila-edukiontzia, janari hondakinak, eta abar). Konponketak eta makinerian egin beharreko bestelako jarduerak gauzatzen direnean, olio eta lubrifikatzailak natura-ingurunera ez isurtzeko neurriak hartuko dira.
 - xi) Landare-espeziearen eta -barietatearen aukeraketak bat etorri behar du lursailaren ezaugarriekin eta landaketaren helburuekin. Dena den, hurrengo zenbakian ezartzen dena bete beharko du.
- b) Baso-masen kudeaketa jasangarriagoa sustatzearren, Planak kalifikazio, ustiapen-teknika eta espezieen arabera bereizitako erregulazioa aurreikusten du. Plan honek baso-aprobetxamendua ahalbidetzen du jarraian aipatzen diren kalifikazioetan:
- i) Debekatuta egongo da Gune Gainkategoria osoan. Lehendik dauden landaketan kasuan, azkeneko mozketara iritsi ondoren debekatu egingo da baso-aprobetxamendurako landaketa gehiago egitea.
 - ii) Gunearen Babes Gainkategorian:
 - Zona horien ingurumen-balio handia dela-eta, lehendik dauden landaketetan, azkeneko mozketara iritsi ostean, eta berrietan, hazkunde ertain edo luzeko hostozabal-espezieen landaketetara mugatuko da, honako Eremu edo Zona hauetan:
 - Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremuan –B.1–.
 - Kostaldeko Babes Eremuan –B.2–.
 - Artadi Kantauriarren Babes Eremuan –B3–.
 - Ibai Sarearen Eremuko babes-zonetan –B4.1–.
 Kostaldeei buruzko Legearekin bat etorritik, itsaso-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasunaren barruan dauden B1 eta B2 Eremuetan, hostozabaleko espezieek bertakoak izan beharko dute.
 - Ustiapena eremuaren babes-helburuekin bateragarria izan dadila bermatzen duen kudeaketa eredugarria ahalbidetuko duten teknikak jorratzeko helburuarekin, eta landatzen den espeziea dena dela, baso-ustiapenak garatu ahal izango dira honako Eremu hauetan:
 - Ibai Sarearen Eremura –B4.2– isurtzen diren arroak babesteko zonetan.
 - Paisaiaren Babes Eremuan, Ikusizko eta Eszenografi Kalteberatasun Handiko Lurraldeetan –B5–.
 Horretarako, Eremu eta Zona horietan garatzen diren baso-aprobetxamenduak jarraian zehazten diren neurri jarraiki gauzatu beharko dira; era berean, artikulua honetan Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparruan garatzen diren ustiategi guztietarako oro har identifikatzen direnak bete beharko dira:
 - ✓ Garatzen diren baso-aprobetxamenduek Baso Kudeaketa Jasangarrirako Plan Tekniko bat izan beharko dute kudeaketa, landaketa edo mozketak gauzatu aurretik.

- ✓ Baso-kudeaketaren plangintzak kudeaketa-jarduerek eragin dezaketen higaduraren kontrola aurreikusi behar du. Prebentziozko neurriak hartu behar dira higadura sor dezaketen jardueretan, eta ondo dokumentatuko zuzenketa-neurriak higadura sortzen denean, betiere epe ertainera eta luzera eragindako ondorioak kontuan hartuta.
- ✓ Lurzorua prestatzeko fasean debekatuta dago makineria erabiltzea edo lurzoruaren mugak nahastea.
- ✓ Mozketen hondarrak nibel-kurbarekiko kordoi paraleloetan pilatuko dira, eta gero, horiek txikitu eta banatu egin ahal izango dira traktore sasi-garbitzaileen bidez. Kordoi horiek ezin izango dira kalifikazio horietatik kanpo ezarri.
- ✓ Arreta berezia jarri beharko da apeoaren plangintzan, aprobetxamenduaren jardunbideak gauzatzen direnean landaretza autoktonoa kaltetu ez dadin.
- ✓ Ezin izango da aprobetxamenduekin lotutako inolako jarduerarik egin horiek uren uherdura eragiten badute.
- ✓ Aprobetxamendu-lanak klima lehorreko garaietan egin beharko dira, horrela, lurzoruaren gaitasuna eta baso-bideen egoera zuzena mantentzeko.
- ✓ Aprobetxamendua bukatu ostean, eragin diren gurpilen markak kendu beharko dira, lurra ibilguetara jausi ez daitezela.
- ✓ Higadura-kalteak hautematen badira, hau da, maldaren noranzkoan luiziak, arrastoak edo lubakiak sortzen badira, horiek jatorrizko egoeran uzteko eta kalte horiek errepikatu ez daitezela bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

iii) Trantsizio Gainkategorian:

- Espeziea dena dela, Baso Eremuetan –T2– eta Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan –T1. PRT– baimenduko da.

13.–Arau bidez, laguntza ekonomikoetarako sistema bat onartuko da lehendik dauden baso-ustiapenen titularrak ekonomikoki konpentsatu ahal izateko, aurreko atalean ezarritako erregulazioari jarraiki aprobetxamendua edo lehengoratzea lortzeko egiten diren birlandaketan espezie aloktonoetatik hazkuntza ertain edo luzeko hostozabaletarako aldaketak eragiten dien errentagarritasun finantzarioaren galeragatik. Ez dira inola ere konpentsatuko Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legeak edo Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana onartzen duen abuztuaren 3ko 242/1993 Dekretuak ezarritakoa urratuz egin diren baso-landaketak.

4.4.3.22 artikulua.– Baso-pistak. C.4.2.1.

1.– Bide publikotik baso-ustiategira iristeko nahiz ustiategiaren beraren barnean erabiltzeko bideak dira.

2.– Honako arau hauek jarraitu beharko dira:

- a) Zura ateratzeko lehendik dauden bideez gain beste batzuk zabaldu behar direnean, jabeak edo baso-kudeatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari aurrez kontsulta egin eta dagokion baimena eskatu beharko dio. Era berean, indarrean den araudian eskatzen diren lizentzia eta baimen guztiak eskatuko dira.
- b) Baso-pista berriak irekitzen direnean, haren trazadurak % 12tik gorako maldak saihestu beharko ditu, eta diseinuak ahalik eta afekziorik txikiena eragingo dio lurzoruari. Ahal den neurrian, horiek sailaren maila-kurbekiko modu paraleloan gauzatuko dira, edo uren banalerroko lerroen gainean, eta guztiz debekatuta egongo da pistak saileko malda handieneko lerroekiko modu paraleloan irekitzea. Pisten zabalera murriztu egingo da, segurtasuna inola ere ahuldu gabe.
- c) Aparteko kasuetan, malda-muga gainditu egin ahal izango da, horrela paisaiaren gaineko inpaktuak saihesten badira; dena den, hori justifikatu egin beharko da, horretarako egokitzat jotzen den dokumentazioa aurkeztuz.
- d) Pista berrien trazadurak lehendik dauden ur-ibilguak eta iturbegi eta sarbegi naturalak errespetatu beharko ditu, eta, hala dagokionean, beharrezko mekanismoak izango ditu urak ateratzeko eta ezpondak finkatzeko, horretarako bioingeniaritzako teknikak erabiliz, betiere gehiegizko lurzoru-galerak

saihestu eta ibilgailu baimenduek pistak modu erregularrean erabil ditzatela bermatzeko. Makineria astunak eragindako kalteak berehala lehengoratu dira.

- 3.– Pista berriak jarduera ahalbidetzen den lurzoruetan bakarrik ireki ahal izango dira, edo, hala badagokio, beste kalifikazio batzuk dituzten lurzoruetan, horiek baso-ustiategi bat barne hartzen dutenean eta ustiategi hori behin betiko izaeraz kendu nahi denean. Azken kasu horretan, eragindako esparru osoa lehengoratzeari ekingo zaio, betiere bere horretan mantentzea suteen kontrako babesari begira beharrezkoa ez bada.
- 4.– Ur-lasterrak errespetatu dira. Aprobetxamendua moztu, lehortu eta garraiatzen den bitartean, horiek gurutzatzea beharrezkotzat jotzen bada, behin-behineko igarobideak ezarri beharko dira; horiek kendu egin beharko dira apeo-lanak amaitzean, Uraren Euskal Agentziak bere baimenean zehazten duenari kalterik egin gabe.

4.4.3.23 artikulua.– Zura prozesatzeko eta metatzeko parkeak edo deposituak. C.4.2.2.

- 1.– Moztu ondoren zura metatzen den eta lehen eraldaketako baso-industriara eramateko ibilgailuetan kargatzen den zonetan garatzen den jarduera da.
- 2.– Plan honek 1.000 m²tik beherako zonak gaitzea aurreikusten du jarduera hori garatzeko; dena den, lurzoru horiek bide publiko batetik 10 metrora baino gutxiagora egon beharko dute, bide horretatik ibilgailuentzako sarbidea izan behar dute eta Plan honek honela kalifikatutako hauetakoren batean egon beharko dute:
 - a) Baso Eremuetan –T.2–.
 - b) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan –T1.PRT–.
 - c) Sistemen Eremuetako –T4.IS– azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zonetan.
- 3.– Zona horiek prestatu aurretik, sarbideetarako beharrezko baimenak eskatu beharko dira. Jarduera amaitu ondoren, lurzoruak jatorrizko egoerara itzuli beharko dira.
- 4.– Bi isurialdeko estalkiz egin ahal izango da, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izango dute.

4.4.3.24. artikulua.– Perretxikoak biltzeko zonak mugatzea. C.4.3.

- 1.– Jarduera honen xedea titulartasun publikoko baso-eremuak perretxikoak eta onddoak biltzeko mugatzea eta zedarritzea da.
- 2.– Jarduera hau honako kalifikazio hauetakoren bat duten lurzoruetan baimenduko da:
 - a) Artadi Kantauriarren Eremua –N3–.
 - b) Itsasadarreko Babes Eremua –B1–.
 - c) Kostaldeko Babes Eremua –B2–.
 - d) Artadi Kantauriarren Babes Eremua –B3–.
 - e) Ibai Sareko Babes Eremua –B4–.
 - f) Paisaiaren Babes Eremua, Ikusizko eta Eszenografi Kalteberatasun Handiko Lurraldeak –B5–.
 - g) Baso autoktonoen Eremua –B6–.
 - h) Baso Eremuak –T.2–.
 - i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan –T1.PRT–.
- 3.– Horretarako, zedarritu beharreko lursailak kokatuta dauden udalerriko Udalak programa bat idatzi beharko du zona kudeatu eta mugatzeko. Programa horrek honako informazio hau gaineratu beharko du, gutxienez:
 - j) Zedarritu beharreko esparrua.
 - k) Eremuko zuhaitz-espezieen identifikazioa.

- l) Hartu ahal izango diren perretxiko- eta onddo-espezieen identifikazioa.
- m) Espezie bakoitza hartzeko garaia zehazten duen kronograma.
- n) Zonaren harrera-ahalmena.
- o) Harrera-zonarako sarbideak.

4.– Eremua fisikoki mugatu behar izanez gero, zurezko mugarriak erabiliko dira.

4.4.3.25 artikulua.– Abeltzaintzako aprobetxamendu intentsiboetarako instalazio industrialak. C.5.1.

1.– Jarduera hau gauzatzeko egin daitezkeen instalazio guztiak irailaren 22ko 515/2009 Dekretuak edo haren ordezeko arauak jasotako zehaztapenetara egokitu beharko dira.

Bestalde, baldintza teknikoei eta bolumen-konfigurazioari dagokionez, Plan honetako 4.4.3.10 artikuluan abeltzaintzako instalazioetarako ezarritakoa aplikatuko da.

2.– Araudi aplikagarriarekin bat etorritik, abeltzaintzako instalazioek ustiatzean dagoen animalia-kopuruarekiko mendekotasun eta proportzio egokia mantendu beharko dute, eta espezie bakoitzak dituen beharrak estali beharko dituzte azalera okupatuari, giro-tenperaturari, aireztapenari, hezetanunari eta abarrei dagokienez, betiere ganaduaren maneiu funtzionalarekin bat etorritik eta elikadura eta deiekzioak kontuan hartuta, eta osasunaren arloan indarrean den araudia betez.

3.– Plan honek abeltzaintzako ustiatze intentsibo berriak instalatzea debekatzen du edozein espezie exotiko inbaditzailearen kasuan, natura-ingurunean eta biodibertsitatean ondorioak izan ditzaketela uste delako, hain zuzen ere; espezie horien artean ditugu, esaterako, honako hauek:

- a) Bisoi amerikarra (*Mustela visón*).
- b) Koipua (*Myocastor coipus*).
- c) Floridako galapagoa (*Trachemys scripta*).

4.– PRTOin berriko instalazio horiek 20.000 m²tik gorako azalera duten lurzatietan kokatu ahal izango dira, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1. PRT– gisa kalifikatutako lurzoruetan. Kasu horretan, 0,05 m²-ko eraikigarritasuna aurreikusten da instalazioaren lurzati hartzailearen m² bakoitzeko; dena den, azalera eraikia 1.500 m²koa izango da gehienez ere.

4.4.3.26 artikulua.– Lehenengo eraldaketako nekazaritzako elikagaien industriak, ustiatze bati zuzenean loturik ez daudenak. C.5.2.

1.– Plan honek ustiatze bati zuzenean lotu gabeko lehen eraldaketako nekazaritzako elikagaien industrien lotutako jarduerak ezartzea aurreikusten du, horiek erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten eta lehendik dauden Eraikuntzetan gauzatzen badira, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1. PRT– gisa kalifikatutako lurzoruetan edo Landa Gunearen Eremuetan –T3–, eta honako arau hauek betetzen badituzte:

- a) Arrazoi funtzionalak, dimentsionalak eta sanitarioak, edo jatorri-deiturarekin edo zonako ekoizpenarekin lotutako arrazoiak direla-eta, kokapena justifikatuta badago.
- b) Jarduera bertan ezartzeko Eraikuntzak handitzeko esku-hartzerik behar ez badu, beste modu batera hartzerik ez lukeen makineria barruan hartu ahal izateko esku-hartzeak kanpo, betiere dagokion araudia betez. Kasu horretan, gainazalak ez du eraikitako azaleraren % 5 baino gehiago hartuko, eta mugetatik 10 m baino gehiagotara egingo da.
- c) Lurzati hartzaileak, erabilera ezarri aurretik, ur-zuzkidurako zerbitzuak, hondakin-urak sare orokorrera ebakutzeko sistema, energia elektrikoa eta kanpo-argiteria izan beharko ditu.
- d) Lurzati ibilgailuentzako sarbide edo aparkaleku berririk egin behar ez izatea.
- e) Instalazioak bulegoak izan behar baditu, edo produktua erakusteko eta saltzeko publikoa hartzeko zonak edo beste zerbitzu osagarri batzuk behar baditu, dependentzia horiek Eraikuntzaren barnean kokatu beharko dira.

4.4.3.27 artikulua.– Lehen eraldaketarako baso-industriak. C.5.3.

- 1.– Basoko produktuen lehen eraldaketarako instalazio batean garatzen diren jarduerak dira. Jarduera honetan sartzen da zura zerratzea eta marrusketatzea eta zura kontserbazio-agente kimiko bidez inpregnatzea edo tratatzea.
- 2.– Mota honetako instalazioak ezarri ahal izango dira, oin berriko esku-hartze bidez edo lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten instalazioetan erabilera aldatuz, Plan honek Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuko Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1. PRT– gisa kalifikatutako lur sailetan, betiere honako arau hauei jarraiki:
 - a) Instalazioa hartzen duen lurzatiak 10.000 m²ko azalera izango du gutxienez.
 - b) Eraikigarritasuna 0,10 m²koa izango da instalazioaren lurzati hartzailearen m² bakoitzeko; dena den, azalera eraikia 1.500 m²koa izango da gehienez ere. Eraikuntzatik mugetarainoko gutxienerako tartea 10 m-tik gorakoa izango da.
 - c) Jarduerak eraldatu beharreko materiala eta produktu eraldatua biltegitratzeko kanpoko zona bat izan beharko du, gutxienez, 2.000 m²koa.
 - d) Sarbidearen eta aparkalekuen ingurua bide publikotik hurbil egongo da.
 - e) Instalazioak bulegoak edo beste zerbitzu osagarri batzuk izan behar baditu, horien azalera eraikia instalaziorako baimendutako eraikigarritasunean konputatu beharko da.
- 3.– Instalazio horiek diseinatzean, honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:
 - a) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 5,00 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 6,50 m-koa.
 - b) Bi isurialdeko estalkiz egin beharko dira, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izan beharko dute. Zeramikazko teila kurboz edo misto gorritz emango zaio akabera.
 - c) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua. Akabera ez da hormigoizko blokez gauzatuko, hura pintatuta egon ala ez.
 - d) Jarri beharreko arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.

4.4.3.28 artikulua.– Baliabide geologikoak erazteko jarduerak. C.6.

- 1.– Baliabide geologikoak erazteko bideratutako jarduerak dira, baita horiekin zuzenean lotutako erabilera osagarriak ere. Zonan bertan kokatuta dauden baliabide geologikoak erazteko eta horiei lehen tratamendua emateko eraikinak eta instalazioak hartzen ditu barne.
- 2.– Ezin izango da aire zabaleko edo lurpeko erazketa-jarduerarik gauzatu.

4.4.3.29 artikulua.– Ur-aprobetxamenduak. C.7.

- 1.– Lur gaineko, lurpeko edo trantsizioko ur-masen aprobetxamendua da. Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduan ezarritako uraren erabilerak hartzen dira kontuan.
- 2.– Horiek erregulatzeko, uren arloan indarrean den legediak jasotzen duena bete beharko da.

4.4.3.30 artikulua.– Ur geza, gazi edo gatzduneko espezieak hazteko instalazioak. C.8.

- 1.– Ur gezako, gaziko edo gatzduneko animalia- eta landare-espezieak hazteko eta erdi-hazteko instalazioak dira. Horietan garatzen diren jarduerak espezieen ziklo biologikoko fase guztien edo batzuen erreproduktzioa hartuko du barne.
- 2.– Ustiapen intentsiboa Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzoruetan, % 30 eta % 45 arteko malda duten baso-zonetan, eta higaduraren aurrean kalteberak diren Baso Eremuetako –T2.F1– edo Landa Gunearen Eremuko –T.3– lurzoruetan baimenduko da.
- 3.– Plan honek instalazioak gauzatzeko aurreikusten du, gehieneko zehaztapen hauetara egokituko den Plan Berezi bat prestatu eta onartu ostean:

- a) $0,1 \text{ m}^2/\text{m}^2\text{l}$ -ko eraikigarritasuna eta 2.000 m^2 ko gehieneko azalera eraikia laborantzarako mantentze-, biltegitratze- eta arazketa-eraikuntzak eta gainerako eraketa guztiak egiteko.
- b) Ekoizpen-eremuek gehienez ere $0,50 \text{ m}^2/\text{m}^2\text{s}$ -ko azalera izango dute (laborantza-tankeak), iglu motako laborantza-tankeen bitartez.
- c) Eraikina hartzen duen lursailaren gutxieneko azalera bi hektareakoa izango da.
- d) Lurzati hartzailearen barnean, laborantzarako beharrezko mantentze-, biltegitratze- eta arazketa-eraikuntzak eta laborantza garatzeko beharrezko eragiketak, eta ekoizpenerako eremuak % 25etik beherako malda duen edozein zatitan gauzatu ahal izango da, gutxienez, instalazioak okupatuko duen gainazalaren bost metroko perimetroan.

% 12tik gorako malda duten zonetan lur-mugimenduak eragiten dituzten eraikuntza-proiektuak garatzeko prestatzen diren azterketa teknikoek lurzorua egonkortasunari eta higagarritasunari modu negatiboan ez eragiteko neurriak definituko dituzte.

4.– Instalazio horien diseinuan, honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera $5,00 \text{ m}$ -koa izango da, eta gailurrearena, berriz, $6,50 \text{ m}$ -koa.
- b) Bi isurialdeko estalkiz egin beharko dira, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izan beharko dute. Zeramikazko teila kurboz edo misto gorritz emango zaio akabera.
- c) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua. Akabera ez da hormigoizko blokez gauzatu, hura pintatuta egon ala ez.
- d) Jarri beharreko arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.

5.– Mugetatik 10 m -tik gorako tartera jarriko da.

6.– Instalazioak ez du inolako zerbitzurik izango, argindarra eta argiteria salbu.

Era berean, lurzati hartzaileak plataforma bat eduki beharko du, $10 \times 10 \text{ m}$ -koa gehienez ere, produktua kargatzeko prestatuta. Instalazioko langileentzako aparkaleku-plazetarako azalera aipatutako azalera horretan sartuta egongo da. Horrelako instalazioak egiteko, Plan honen III. tituluan jasotakoa bete beharko da.

7.– Egin nahi diren mota guztietako hondeaketa-lanetan, obren titularrak berezko landaredia berrezarri beharko du, lur beltzezko beharrezko geruza barne, lanen ondorioz hondatuta geratu den lekuetan.

4.4.3.31 artikulua.– Itsaski-bilketa. C.9.1.

1.– Plan honen ondorioetarako, itsaski-bilketa Itsasadarraren Eremuko –N1– antolamendu-kategoriako N1.1, N1.2, N1.4 eta N1.5 zonetan baimenduta egongo da, baita Kostaldeko Eremuan –N2– ere.

2.– Jarduera hau sektoreko araudiak erregulatzen du, eta horrez gain, honako hau bete beharko du:

- a) Urriaren 1etik 15era bitartean, biak barne, itsaski-bilketa debekatuta egongo da estuarioko erdialdeko zonan: «itsasadarraren mozketaren» iparreko muturretik Busturiako geralekuak eta Kanaleko ostrahaztegiko murraren iparreko muturrak bat egitean sortzen duten lerro zuzeneraino. Baimenduta dagoen garaian zehar, jarduera *Salicornia ramosissima* eta *Zostera noltii* espezieak dauden zonetan interferentziarik eragin gabe garatuko da.
- b) Debekatuta dago jarduerarako beharrezko elementuak abandonatuta uztea.

4.4.3.32 artikulua.– Alga-bilketa. C.9.2.

1.– Alga-bilketa da, alga arreak biltzea, hain zuzen ere.

2.– Sektoreko legediak erregulatzen duen jarduera hau Itsasadarraren Eremuko –N1– antolamendu-kategoriako N1.4. Zonan eta Kostaldeko Eremuan –N2– dago baimenduta.

4.4.3.33 artikulua.– Flora eta faunako erauzte-erabilerak. C.10.

1.– Debekatuta dago *Lucanus cervus* arkanbeleak harrapatzea, lan zientifikoetarako egiten denean salbu.

- 2.– Debekatuta dago Natura 2000 Sareko ibai-ertzetako, itsas ertzeko, padurako eta artadiko flora-elementu gakoak eta horietatik ateratako materiala biltzea. Debekatuta dago landare osoa edo haren zatiak ateratzea, herborizatzea, azterketa zientifikoak egiteko edo landareak ugaltzeko berariazko baimena eskuratzen denean salbu.

4. ATALA

AZPIEGITURAK

4.4.4.1 artikulua.– Alderdi orokorrak.

- 1.– Honako erabilera hauek bereizten dira:

- a) D.1. Garraiobideak: bide-sarea da, foru-errepide, udal-titulartasun publikoko errepide, landa-bide, lotura-bide, bidezidor, itsas pasealeku eta trenbide-sareaz nahiz horien guztien instalazio osagarriez osatua.
- Plan honen ondorioetarako, bide publikotzat hartuko da foru-errepideen eta udal-titulartasun publikoko errepideen multzoa. Era berean, «bide publiko» terminoan sartuko dira landa-bideak, lotura-bideak eta hurrengo artikuluetan definitzen diren bidezidorrak.
- b) D.2. Aireko eta lurpeko lineak: horien artean sartzen dira argindarra, gasa, petrolioa eta eratorritako produktuak, ura, saneamendua, telekomunikazioak eta beste azpiegitura batzuk garraiatzeko sareen multzoa, eta horiei guztiei dagozkien instalazio osagarriak.
- c) D.3. A motako eta izaera ez linealeko zerbitzu-instalazio teknikoak: horien artean sartzen dira, besteak beste, zerbitzuguneak, ura edangarri bihurtzeko eta tratatzeko plantak, urtegiak edo ur-depositu handiak, 100 m²tik gorako azalera duten transformazio-estazioak, araztegiak, eta ingurumen-inpaktu berdintsuko erabilgarritasun publikoko gainerako instalazioak.
- d) D.4. B motako eta izaera ez linealeko zerbitzu-instalazio teknikoak: instalazio-multzo bat hartzen dute barne, hala nola, irrati, telebista eta satellite bidezko komunikazioa hartzeko eta bidaltzeko dorreak, antenak eta estazioak; eta faroak, irrati-faroak eta ingurumen-inpaktu berdintsua eragiten duten beste komunikazio-instalazio batzuk. Bertan sartzen dira, halaber, kanpoko argiak eta energia sortzeko sistemak, energia berriztagarria sortzeko instalazioen bitartez.
- e) D.5. Hondakinak tratatzeko eta biltzeko instalazioak: bertan sartzen dira hondakin ez arriskutsuak tratatzeko, birziklatzeko, berrerabiltzeko eta birbaloratzeko instalazioak, eta hondakin geldoetarako eta betelantetarako zabortegeak, eta konpost komunitarioa egiteko instalazioak.
- f) D.6.– Energia sortzeko sistemak, energia berriztagarria sortzeko instalazioen bitartez: energia sortzeko hainbat sistema jasotzen dira, sortzaileak kontsumitzeko helburuarekin. Besteak beste, fotovoltaikoak, fototermikoak, geotermiakoak, aerogeneratzaileak izan daitezke.
- g) D.7. Ibilguen edo ibilgu-ertzen trazadura aldatzen duten azpiegiturak. Ibilguen trazadura aldatzen eta horien ertzak murrutzea edo dike bidez iragazgaizten dituzten azpiegiturak dira.
- h) D.8. Ontziak atrakatzeko eta amarratzeko azpiegiturak.
- i) D.9. Instalazio aeronautikoak.
- j) D.10. Publizitatea. Publizitate-hesi eta -iragarkiak instalatzea.
- k) D.11. Industria edo biltegiatze arriskutsuak.
- l) D.12. Itsaso Lehorreko Jabari Publikoarekin lotutako industriak (ontziolak).

- 2.– Plan honek Plan Berezi bat onartzea aurreikusten du Atal honetan jasotako azpiegitura edo instalazio batzuen oin berriko ezarpenerako nahiz horiek handitu edo konpontzeko. Garapen-tresna horrek kasuan kasuko azpiegitura edo instalazioa egiteko beharrezko proiektuen irismena zehazteko balioko du. Garapenerako tresna hori Plan honetako V. tituluan eta hurrengo ataletan horri buruz adierazitakoaren arabera izango da eta izapidetuko da:

- a) Plan Bereziak honako hauek jaso beharko ditu:
- i) Planari erantsitako Ingurumen Ebaluazio Estrategiko bat, dagokion araudiak eskatzen duen kasuetan.

- ii) Paisaiaren gaineko eraginari eta azpiegitura ezartzeko erregulazioari buruzko dokumentu zehatz bat. Dokumentu horrek honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:
- Jarduera-esparruko paisaiaren gaineko azterketa xehatu bat; hark honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:
 - Azpiegituraren exekuzioak eragiten dituen elementuen analisia, baita azpiegitura ikusgai egongo den begi-lerroena ere.
 - Azpiegitura paisaian kokatzeko proposamena, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztuko dituena:
 - Inguruan egin beharreko landareztatzea, baita paisaiako kromatismoekin lotutako azterketa eta justifikazioa ere.
 - Erabiliko diren hiri-altzariak, hesiak, argiak edo babes-hesiak, eta horien egokitzapena, zuraren gisako materialak erabiliz.
 - Azpiegituraren diseinua bera. Horretarako, erabilitako erreferentzien eta egingo diren industria-balio estetiko altuko elementuetarako proposamenaren azterketa bat aurkeztuko da.
- b) Foru-errepideak edo udal-titulartasun publikoko bideak konpontzeko edo oin berriko esku-hartzeak garatzeko proiektuen edo tresnen kasuan, proposamenak hainbat zehaztapen jasoko ditu honako alderdi hauei dagokienez:
- i) Bide-azpiegituren euste-hesiak mistoak izango dira, hau da, altzairuak eta zura konbinatu beharko dituzte, tekniko edo ekonomikoki bideragarria ez den kasuetan salbu. Zentzu horretan, gaur egungo sarean dauden elementuak birjartzen direnean, ezaugarri horiek dituzten euste-hesiak jarri beharko dira. Bizikleta edo oinezkoentzako ibilbide bat bide-saretik bereizteko babes-elementuak jarri behar direnean, ezin izango da hormigoizko elementu aurrefabrikaturik ipini.
- ii) Kasuan kasuko legedi sektorialari jarraiki bide-sarean jarri behar diren soinu-pantailek gutxienez azaleraren % 40 izan beharko dute paisaiaren bista-jarraitasuna ahalbidetzen duten elementu gardenez tratatuta.

3.– Plan honen ondorioetarako, zerbitzu-azpiegituratzat hartuko dira D.2, D.3 eta D.4 ataletan jasotzen diren azpiegiturak.

4.4.4.2 artikulua.– Foru-errepideak. D.1.1.

- 1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremua zeharkatzen duen foru bidesarea da, baita lurzoru-kalifikazio horretan egin daitekeen oin berrikoa ere.
- 2.– Horrelako azpiegiturak dagokien jabari publikoaren barnean konpontzeko eta/edo handitzeko esku-hartzeak gauzatu nahi izanez gero, horretarako nahikoa izango da proiektu bat prestatzea.
- 3.– Oin berriko ezarpenetarako esku-hartzeen kasuan, Plan Berezi bat onartu beharko da aurrez, esku-hartzearen gai diren lurzoruen kalifikazioaren hirigintzako doiketa egin ahal izateko eta behin betiko egiten den proposamenaren analisia eta justifikazio zehatua emateko.

Ezin izango da mota honetako azpiegiturarako oin berriko ezarpenetarako esku-hartzerik garatu Plan honetan Gune edo Gunearen Babes Galkategorietan sartutako lursailetan. Nolanahi ere, Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuen –N4– eta Ibai Sareko Babes Eremuen –B4– kasuan, erabilerak gainjarri egin ahal izango dira horiek kota desberdinetan antolatzen badira, betiere kalifikazio horiek dituzten lurzoruei eragiten ez bazaie.

Trantsizio Galkategoriako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako –T1.A1– Nekazaritza Balio Handiko Zona gisa kalifikatutako lurzoruei eragiten ez zaiela bultzatuko da.

- 4.– Jabari publikotik kanpo handitzeko esku-hartzeen kasuan, Plan Berezi bat onartu beharko da aurretiaz, Plan honen V. tituluan adierazitakoarekin bat etorritik; hark esku-hartzearen gai diren lurzoruen kalifikazioaren hirigintzako doiketa egin ahal izatea eta behin betiko egiten den proposamenaren analisia eta justifikazio zehatua ematea ahalbidetu beharko du.

Gune Galkategorian sartutako lurzoruetan ezin izango da horrelako esku-hartzerik egin. Dena den, Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuaren –N4– kasuan, erabilerak gainjarri egin ahal izango dira horiek kota

desberdinetan antolatzen badira, betiere kalifikazio hori duten lurzoruei eragin gabe. Plan honen bidez, Gunearen Babes Gainkategorian eta Trantsizio Gainkategoriaiako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako –T1.A1– Nekazaritza Balio Handiko Zonan sartutako lurzoruei eragiten ez zaiela bultzatuko da.

- 5.– Lursailak behin-behineko erabileretarako okupatu behar dituzten konpontzeko, handitzeko edo oin berriko esku-hartzeek proiektuan jasota egon beharko dute. Ezin izango da helburu horretarako lurzorurik okupatu Plan honek Gune edo Gunearen Babes Gainkategorietan sartutako lurzoruetan, ezta Trantsizio Gainkategoriaiako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako –T1.A1– Nekazaritza Balio Handiko Zona eta Baso Zona –T2.F2– gisa kalifikatutako lurzoruetan ere.

Edonola ere, esku-hartzeak amaitu ondoren lehengoratu egin beharko dira behin-behineko erabilerek okupatutako lursailak.

4.4.4.3 artikulua.– Udal-titulartasun publikoko errepideak. D.1.2.

- 1.– Biztanlegune, auzo eta baserrietatik nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-ustiategietara sartzeko izaera publikoko eta udal-titulartasuneko ibilgailuentzako komunikabideak dira, eraikuntzaren eta bide-zoruaren ezaugarri teknikoak denak direla.
- 2.– Horrelako azpiegiturak konpontzeko esku-hartzeak gauzatu nahi izanez gero, horretarako nahikoa izango da proiektu bat prestatzea.
- 3.– Oin berriko ezarpenetarako esku-hartzeen kasuan, Plan Berezi bat onartu beharko da aurrez, esku-hartzearen gai diren lurzoruen kalifikazioaren hirigintzako doiketa egin ahal izateko eta behin betiko egiten den proposamenaren analisia eta justifikazio xehatua emateko.

Mota horretako azpiegiturretarako oin berriko ezarpenetarako esku-hartzeak debekatuta egongo dira Plan honetan Gune edo Gunearen Babes Gainkategorietan sartuta dauden lursailetan. Nolanahi ere, Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuen –N4– eta Ibai Sareko Babes Eremuen –B4– kasuan, erabilerak gainjarri egin ahal izango dira horiek kota desberdinetan antolatzen badira, betiere kalifikazio horiek dituzten lurzoruei eragiten ez bazaie.

Trantsizio Gainkategoriaiako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako –T1.A1– Nekazaritza Balio Handiko Zona gisa kalifikatutako lurzoruei eragiten ez zaiela bultzatuko da.

- 4.– Handitzeko esku-hartzeen kasuan, Plan Berezi bat onartu beharko da aurretiaz, Plan honen V. tituluan adierazitakoarekin bat etorriz; hark esku-hartzearen gai diren lurzoruen kalifikazioaren hirigintzako doiketa egin ahal izatea eta behin betiko egiten den proposamenaren analisia eta justifikazio xehatua ematea ahalbidetu beharko du.

Gune Gainkategorian sartutako lurzoruetan ezin izango da horrelako esku-hartzerik egin. Dena den, Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuaren –N4– kasuan, erabilerak gainjarri egin ahal izango dira horiek kota desberdinetan antolatzen badira, betiere kalifikazio hori duten lurzoruei eragin gabe. Plan honek Gunearen Babes Gainkategorian eta Trantsizio Gainkategoriaiako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako –T1.A1– Nekazaritza Balio Handiko Zonan sartutako lurzoruei eragiten ez zaiela bultzatuko da.

- 5.– Lursailak behin-behineko erabileretarako okupatu behar dituzten konpontzeko edo oin berriko esku-hartzeek proiektuan jasota egon beharko dute. Ezin izango da, inola ere, helburu horretarako lurzorurik okupatu Plan honek Gune edo Gunearen Babes Gainkategorietan sartutako lurzoruetan, ezta Trantsizio Gainkategoriaiako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako –T1.A1– Nekazaritza Balio Handiko Zona eta Baso Zona –T2.F2– gisa kalifikatutako lurzoruetan ere.

Edonola ere, esku-hartzeak amaitu ondoren lehengoratu egin beharko dira behin-behineko erabilerek okupatutako lursailak.

4.4.4.4 artikulua.– Landa-bideak. D.1.3.

- 1.– Plan honetan adierazitakoaren ondorioetarako, landa-bidetzat hartuko dira nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-ustiategietara eta baserrietara sarbidea ematen duten bideak. Modu osagarrian, bide horiek biztanleguneak edo natura- edo kultura-intereseko guneak oinez eta bizikletaz lotzea ahalbidetuko dute; gainera, zaldizko erabilera eta mendi-ibilien erabilera ere bateragarriak izango dira.

2.– Oin berriko mota horretako azpiegiturak ezin izango dira Gune Gaiakategorian ezarri.

Plan honek Gunearen Babes Gaiakategorian sartzen dituen lurzoruetan ezarri ahal izateko, Plan Berezi bat onartu beharko da aurrez. Kasu horietan, landa-bideak, ahal den neurrian, lehendik dauden pista, bidezidor eta bideen trazaduretara egokitu beharko dira, eta trazadura berriak ezarri ahal izateko Plan honen helburuen arabera baloratuko den justifikazioa beharko da.

Trantsizio Gaiakategorian sartutako lurzoruen kasuan, oin berriko landa-bide bat ezartzeko nahikoa izango da dagokion proiektua onartzea. Ahal den neurrian, ibilbideak lehendik dauden pista, bidezidor eta bideen trazaduretara egokitu beharko dira, eta trazadura berriak ezarri ahal izateko Plan honen helburuen arabera baloratuko den justifikazioa beharko da. Horrelako kasuetan, eta natura-ingurunearen gaineko afekzioari dagokionez, behar diren babes-, zuzentze-eta konpentsazio-neurriak ezarri beharko ditu proiektuak.

3.– Horrelako bideen akaberak zagorrez, hormigoiz edo asfaltoz egin ahal izango dira. Edonola ere, bide-zoruak behar besteko sendotasuna eman beharko du, erabilera nahiz bertatik ibilgailu motordunak igarotzea bermatu ahal izateko.

4.– Horrelako bideen barnean, eta dagokien funtzionalitateari eragin gabe, hiri-altzariak jarri ahal izango dira, panel edo seinale modukoak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren iraunkortasunerako hezkuntzan sakondu ahal izateko.

4.4.4.5 artikulua.– Lotura-bidea. D.1.4.

1.– Lotura-bideak biztanleguneen edo natura- edo kultura-intereseko guneen arteko oinezko edo bizikletazko lotura ahalbidetzen duten bideak dira.

2.– Bizikleta erabiltzen den kasuan, gehieneko zirkulazio-abiadura 10 km/h izango da. Azpiegitura hauek erabili ahal izango dituzte, halaber, ibilgailu motordun baimendunek, bidearen zabalerak eta bestelako ezaugarriek horretarako aukera ematen duten tarteetan.

Zaldizkoek ere erabili ahal izango dituzte, pausoan soilik, zagorrezko akaberaz egindako tarteetan.

Mendi-ibilien erabilera ere erabilera horiekin bateragarria izango da.

3.– Oin berriko lotura-bide bat ezartzeko, dagokion proiektua onartu beharko da. Edonola ere, lotura-bideak lehendik dauden pista, bidezidor eta bideen trazaduretara egoki daitezela ahalegindu beharko da, eta lotura-bide berriak ebakitzeko Plan honen helburuen arabera baloratuko den justifikazio egokia beharko da. Inguru babesteko prebentzio-neurriak muturrera eramango dira. Horrelako bideak honako kalifikazio hauetan ezarri ahal izango dira:

a) Gune Gaiakategorian:

i) Artikulu honetako 5. zenbakian identifikatutako bere eraikuntza-ezaugarrietako edozeinen bidez, Mareaz gaindiko eremuetan, lezoi, muna edo uraren zirkulazio-sistemari eusteko hormen bidez isolatu eta hiri-okupazioa duten lurzoruetan –N1.3–, Kostaldeko Eremuan –N2– eta Artadi Kantauriarren Eremuan –N3–.

ii) Zurezko palafitoz eta/edo ur-pasagune edo ibilguak gainditzeko elementu bidez, Itsasadarraren Eremuko Marearteko edo mareaz gaindiko landaretzaz osaturiko nahiz osatu gabeko lohiz osatutako zonetan, eta padura-eremuetan –N1.1–, eta lohiz edo padura-zonaz osaturiko Marearteko edo mareaz gaindiko eremuetan, lezoi, muna edo euste-horma bidez uraren zirkulazio-sistematik isolatuetan –N1.2–.

b) Gunearen Babes edo Trantsizio Gaiakategorietan sartutako guztietan.

4.– Horrelako bideen eremuaren barnean, instalazio ez iraunkorrak jarri ahal izango dira, panel edo seinale modukoak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren jasangarritasunerako hezkuntzan sakondu ahal izateko.

5.– Horrelako azpiegiturak egiteko honako arau hauek bete beharko dira, horiek duten kokapenaren arabera:

- a) Lur gainean egiten diren kasuetan, zurezko palafito edo zagor bidez egin ahal izango dira:
 - i) Zurezko palafitoz egindako bideak:
 - Zur tratatuzko palafitoak, 1,5 m zabaleko pasokoak, aurrez eskuz berdindutako lurraren gainean zuzenean oinarrituak. 200 x 100 mm-ko zurezko trabesa edo oholez eginda eta portiko eran jarrita egongo dira, lurlean 8 mm-ko diametroko eta 80 cm luzeko metalezko elementuekin ainguratuta. Trabes horien gainean zurezko 3 habetzan jarriko dira, 75 x 150 mm-koak, zaldainaren zabalera osoa hartuz eta banaka lotuta. Goialdean ohol urratuak jarriko dira, 45 x 145 x 1.000 mm-koak, ez labaingarriak eta batetik bestera 1 cm-ko tartea utzita. Bere luzera osoan 70 x 70 mm-ko albo-erradapia izango du.
 - Zur osoa onddoen eta intsektuen kontra babestuta egongo da, bere alderdi guztietarako autoklabe-tratamendu bidez (IV. arrisku-mota), UNE-EN 335-1 arauaren arabera. Zurezko elementuak lotzeko erabiltzen den burdineria osoa A2 kalitateko altzairu herdoilgaitzezkoa (AISI304) izango da.
 - Altuera edo lehendik dagoen lurraren trinkotze-maila dela-eta beharrezkoa izanez gero, eta zurezko palafittoa jarriko den zonetan makineria astuna ez sartu behar izateko, lursailarekiko mailaraino 100 x 200 x 1.000 mm-ko sekzioko zurezko trabes edo ohol ekologikoak sartzea aurreikusiko da. Zura onddoen eta intsektuen kontra babestuta egongo da, autoklabe-tratamendu bidez (IV. arrisku-mota).
 - Edonola ere, euskarri duten lurlean alteraziorik aurreikusten ez den zonetan erabiliko da akabera hori.
 - ii) Zagorrezko bideak:
 - 1,50 m zabalekoak egingo dira. Marrusketatu gabeko 50 x 150 mm-ko bi ohol jarriko dira oinarri gisa, lurlean 5 cm sartuta eta 8 mm-ko diametroko eta 80 cm luzeko elementu metalikoekin lurlean ainguratuta, bidearen alde banatan, eta barnean 5 cm-ko 20/40ko legar-geruza bat eta ACT-0/25-B ofitokozko 5 cm-ko beste geruza bat hartuko dituzte.
- b) Ur-pasaguneak edo ibilguak gainditzeko elementuak egin behar izanez gero, horiek indarrean den Plan Hidrologikoan zehaztutakoaren arabera gauzatuko dira, betiere honako baldintza hauek betez:
 - i) Bi ertzak lotzeko beharrezko distantzia gainditzeko moduan itxuratuko dira, uraren berezko bidea eten dezakeen tarteko inolako elementurik jarri gabe.
 - ii) Oro har, uholdeengatiko uraldien kasuan afekziorik jasan ez dezatela bermatzeko moduko sestran jarriko dira. Bide zorudunen eta beharrezko sestraren arteko lotura-sistemaren bat ezarri behar bada, bertara sartu ahal izateko arrapalak jarriko dira, gutxieneko egonkortasun bat bermatzearen.
 - iii) Horrelakoak diseinatzen direnean, kokatuta dauden paisaian txertatu daitezela aurreikusi beharko da. Horrenbestez, altzairu herdoilgaitzezko akaberak edo sekzio handiak eta eskema masiboak –hormigoia-ren edo zuraren kasuan, adibidez– behar dituzten egitura-elementuak erabiltzea saihestuko da. Elementu arinak eta inguruko ezaugarrietatik hurbilekoak eraikitzen saiatu beharko da.
 - iv) Horien bide-zoruari akabera emateko, zur tratatuzko ohol urratuak erabiliko dira, 45 x 145 x 1.000 mm edo 45 x 145 x 1.150 mm-koak, ez labaingarriak eta batetik bestera 1 cm-ko tartea utzita.
 - v) Zur osoa onddoen eta intsektuen kontra babestuta egongo da, bere alderdi guztietarako autoklabe-tratamendu bidez (IV. arrisku-mota), UNE-EN 335-1 arauaren arabera. Zurezko elementuak lotzeko erabiltzen den burdineria osoa gutxienez A2 kalitateko altzairu herdoilgaitzezkoa (AISI304) izango da.

6.– Bizikleten eta oinezkoen erabilera bizia aurreikusten den bideen kasuan, bide horien zabalera 4,5 metrora arte areagotzeko aukera aztertu ahal izango da, Gune eta Gune Babeseko Gainkategoriatik kanpo. Era berean, kolore gorriko edo berdeko nahasketa bituminosoko akaberak aztertu ahal izango dira. Horiek ezartzeko proiektuan behar bezala justifikatu beharko da neurri horien premia.

4.4.4.6 artikulua.– Bidezidorra. D.1.5.

- 1.– Mendi-ibilien erabilera garatzea ahalbidetzen duten bideak dira. Zaldizkoek ere erabili ahal izango dituzte, baina pausoan bakarrik.
- 2.– Oin berriko bidezidor berriak eginez gero, horiek ez dira 1 metro baino zabalagoak izango, eta lur trinkotuzko akabera izan beharko dute.
- 3.– Oin berriko lotura-bide bat ezartzeko, dagokion proiektua onartu beharko da. Edonola ere, lotura-bideak lehendik dauden pista, bidezidor eta bideen trazaduretara egokitu beharko dira, eta lotura-bide berriak ebakitzeko Plan honen helburuen arabera baloratuko den justifikazio egokia beharko da. Ingurua babesteko prebentzio-neurriak muturrera eramango dira.

Edonola ere, ezin izango da bidezidor berriak egin Gune Gainkategorian sartuta dauden eta Itsasadarreko Eremuko Marearteko edo mareaz gaindiko harea-zona –N.1.4– eta Itsasadarraren ibilguak osatutako marea azpiko Zona –N1.5– gisa kalifikatutako lurzoruetan.

- 4.– Horrelako bidezidorren eremuaren barnean, instalazio ez iraunkorrak jarri ahal izango dira, panel edo seinale modukoak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren jasangarritasunerako hezkuntzan sakondu ahal izateko.

4.4.4.7 artikulua.– Itsas paseoak. D.1.6.

- 1.– Itsas paseo gisa hartuko dira itsasertzari lotutako oinezko paseoak, horiek gauzatzeko orduan Kostaldeein buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen testu finkatuak arlo horri dagokionez arautzen duena betetzen bada.
- 2.– Plan honek itsas paseoak egitea aurreikusten du honako kalifikazio hauetan:
 - a) Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremuan –B1–.
 - b) Kostaldeko Babes Eremuan –B2–.
- 3.– Itsas paseoak oinezkoak izango dira batez ere, eta honako ezaugarri hauek izango dituzte:
 - a) 3 m zabal izango dira gehienez ere.
 - b) Akaberak bide-zoru iragazkorrez edo iragazkortasuna bermatzen duten piezak erabiliz egingo dira.
 - c) Babes-hesiak eta barandak paseoa kokatuta dagoen inguruari eta paisaiari egokituko zaizkio.
 - d) Urbanizaezintzat sailkatutako lurzoruetan egiten duten ibilbidean zehar ezin izango da kanpo-argiteriarik jarri.
- 4.– Plan honetako lotura-bideak ez dira itsas paseotzat hartuko.

4.4.4.8 artikulua.– Trenbide-sarea. D.1.7.

- 1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremua zeharkatzen duen trenbide-sarea da, baita egin daitekeen oin berrikoa ere.
- 2.– Azpiegitura berriak ezartzeko Plan Berezi bat onartu beharko da aurrez, Plan honetako V. tituluari adierazten denarekin bat etorriz.

Ezin izango da horrelako esku-hartzerik egin Gune eta Gunearen Babes Gainkategorietan sartutako lurzoruetan. Nolanahi ere, Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuen –N.4– eta Ibai Sareko Babes Eremuen –B.4– kasuan, erabilerak gainjarri egin ahal izango dira horiek kota desberdinetan antolatuta, betiere kalifikazio horiek dituzten lurzoruei eragiten ez bazaie.
- 3.– Horrelako azpiegiturak dagokien jabari publikoaren barnean konpontzeko eta/edo handitzeko esku-hartzeak gauzatu nahi izanez gero, horretarako nahikoa izango da proiektu bat aurkeztea.
- 4.– Jabari publikotik kanpo handitzeko esku-hartzeen kasuan, Plan Berezi bat onartu beharko da aurretiaz, Plan honen V. tituluari adierazitakoarekin bat etorriz; hark esku-hartzearen gai diren lurzoruaren kalifikazioaren

hirigintzako doiketa egin ahal izatea eta behin betiko egiten den proposamenaren analisisa eta justifikazio zehatua ematea ahalbidetu beharko du.

Gune Gai kategorian sartutako lurzoruetan ezin izango da horrelako esku-hartzerik egin. Dena den, Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuaren –N.4– kasuan, erabilerak gainjarri ahal izango dira horiek kota desberdinetan antolatuta, betiere aipatutako kalifikazio hori duten lurzoruei eragin gabe.

- 5.– Lursailak behin-behineko erabileretarako okupatu behar dituzten konpontzeko edo oin berriko esku-hartzeek proiektuan jasota egon beharko dute. Ezingo izango da helburu horretarako lurzorurik okupatu, Plan honek Gune edo Gunearen Babes Gai kategorietan sartutako lurzoruetan, ezta Trantsizio Gai kategoriarako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako –T1.A1– Nekazaritza Balio Handiko Zona gisa kalifikatutako lurzoruetan ere.

Edonola ere, esku-hartzeak amaitu ondoren lehengoratu egin beharko dira behin-behineko erabilerek okupatutako lursailak.

- 6.– Trenbide-sarearen mantentze-jardueretan, tratamendu herbizidak aplikatzean neurri egokiak hartu beharko dira, hala, kutsagarriak izan daitezkeen dosiak saihesteko.

4.4.4.9 artikulua.– Energia-garraioa eta -banaketa. D.2.1.

- 1.– Energia elektrikoa behe-tentsio, tentsio ertain edo goi-tentsioan produkzio- edo transformazio-zentroetatik Eraikuntzetara garraiatzeko edo banatzeko behar den azpiegitura da. Bertan sartzan dira eginkizun horretarako aireko edo lurpeko lineak, kableatuak, zutabeak eta beharrezko bestelako elementuak.

- 2.– Plan honek ez du energia garraiatzeko edo banatzeko oin berriko aireko linea berririk ezartzea aurreikusten, haren ezintasun teknikoa edo ingurumen-inpaktu handiagoa justifikatzen den kasuetan salbu. Aitzitik, horrelakoak lurpetik bideratzea aurreikusten du. Bideratze hori, oro har, Trantsizio Gai kategorian dauden pista, bidezidor edo bide-zortasuneko zonei egokituko zaie. Horretarako, proiektu bat prestatu beharko da.

Arau orokor honek ingurumenaren gaineko inpaktu larriak eragiten dituen kasuetan, lurpeko trazadurarako beste aukera bat jorratu ahal izango da aipatutako egoera horietatik kanpo, Gunearen Babes Gai kategorian, betiere, Plan honen helburuen arabera baloratuko den justifikazio baten bidez, aipatutako azken aukera horrek ingurumen-inpaktu txikiagoa izango duela egiaztatzen bada.

Era berean, aipatutako salbuespen horretan, Urdaibaiko Ibai Sareko Eremuekiko –N4– trazadura perpendikularrak egin ahal izango dira, barneratze-teknika erabiliz edo gaur egun dauden zubien taulako beheko aldean. Dena den, barneratze-lanari ekiteko puntuak Gune Gai kategoriatik kanpo kokatuko dira.

Bi kasuetan, eta natura-inguruneari eragindako afekzioari dagokionez, proiektuak beharrezko babes-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak ezarri beharko ditu.

- 3.– Azpiegitura horiek konpontzeko edo aldatzeko esku-hartzeen kasuan, dagokion proiektuak beharrezko babes-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak buruzko atal bat jaso beharko du, aurrekontu eta guzti. Batez ere, hegazti-faunaren gaineko inpaktu-arriskua deuseztatu edo murrizteko helburuarekin. Azpiegitura horiek belatz handiak habia egiteko dituen barrutietatik 500 m baino gutxiagoko tartera daudenean, edo sai zuriarenetik 1.000 m baino gutxiagora, horiek Natura 2000 Sarearen esparruan ezarritako prebentzio-araubide arrunta bete beharko dute. Edonola ere, horrelako azpiegiturak lurpean kokatuko dira pixkanaka.

4.4.4.10 artikulua.– Telekomunikazio-sareak. D.2.2.

- 1.– Urrutiko ahots- eta datu-zerbitzua eskaini ahal izateko azpiegitura da, aireko edo lurpeko kable bidez osatua.

- 2.– Plan honek ez du ahots- eta datu-zerbitzuak emateko sare-erabileretarako oin berriko aireko linea berririk ezartzea aurreikusten. Aitzitik, horiek lurpetik bideratzea aurreikusten du. Bideratze hori, oro har, Trantsizio Gai kategorian dauden pista, bidezidor edo bide-zortasuneko zonetara egokitu beharko da. Horretarako, proiektu bat prestatu beharko da.

Arau orokor honek ingurumenaren gaineko inpaktu larriak eragiten dituen kasuetan, lurpeko trazadurarako beste aukera bat jorratu ahal izango da aipatutako egoera horietatik kanpo, Gunearen Babes Gai kategorian, betiere, Plan honen helburuen arabera baloratuko den justifikazio baten bidez, aipatutako azken aukera horrek ingurumen-inpaktu txikiagoa izango duela egiaztatzen bada.

Era berean, aipatutako salbuespen horretan, Urdaibaiko Ibai Sareko Eremuekiko –N4– trazadura perpendikularrak egin ahal izango dira, barneratze-teknika erabiliz edo gaur egun dauden zubien taulako beheko aldean. Dena den, barneratze-lanari ekiteko puntuek Gune Gaiakategoriatik kanpo egon beharko dute.

Bi kasuetan, eta natura-inguruneari eragindako afekzioari dagokionez, proiektuak beharrezko babes-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak ezarri beharko ditu.

- 3.– Azpiegitura horiek aldatzeko esku-hartzeen kasuan, dagokion proiektuak behar diren babes-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriei buruzko atal bat jaso beharko du, aurrekontu eta guzti. Batez ere, hegazti-faunaren gaineko inpaktu-arriskua deuseztatu edo murrizteko helburuarekin. Azpiegitura horiek belatz handiak habia egiteko dituen barrutietatik 500 m baino gutxiagoko tartera daudenean, edo sai zuriarenetik 1.000 m baino gutxiagora, horiek Natura 2000 Sarearen esparruan ezarritako prebentzio-araubide arrunta bete beharko dute. Edonola ere, horrelako azpiegiturak lurpean kokatuko dira pixkanaka.

4.4.4.11 artikulua.– Gasa, petrolioa, saneamendua eta beste fluido kutsatzaile batzuk. D.2.3.

- 1.– Gasa, petrolioa, saneamendua eta beste fluido kutsatzaile batzuk garraiatzeko edo banatzeko lurpeko sare-multzoa da.
- 2.– Debekatuta dago petrolioa eta beste fluido kutsatzaile batzuk garraiatzeko edo banatzeko sareak instalatzea.
- 3.– Gasa garraiatzeko edo banatzeko sareek plangintza egoki bat beharko dute ezarri ahal izateko, Plan Berezi baten bidez eta Plan honek V. tituluan adierazten duenarekin bat etorritz.
- 4.– Saneamendu-hodiak eta horien instalazio osagarriak Busturialdeko Ur Partzuergoaren Kontseilu Orokorrak 2004ko irailaren 29ko saioan behin betiko onartutako Urdaibaiko Saneamenduaren gaineko Lurralde Ekintza Planean aurreikusten direnak izango dira (BAO, 112/2006, 2006ko ekainaren 13koa). Aipatutako LEP horretan aurreikusi gabeko saneamendu-hodiek, ezarri ahal izateko, plangintza egoki bat beharko dute, Plan Berezi baten bidez eta Plan honek V. tituluan adierazten duenarekin bat etorritz.
- 5.– Oro har, Lurralde Ekintza Planean jasotzen ez diren gas-hodiak edo saneamendu-hodiak Trantsizio Gaiakategorian dauden pista, bidezidor edo bide-zortasuneko zonetara egokituko dira.

Arau orokor horrek ingurumenaren gaineko inpaktu larriak eragiten dituenean, aipatutako hori ez den lurpeko trazadurarako beste aukera bat jorratu ahal izango da, Gunearen Babes Gaiakategorian, betiere Plan honen helburuen arabera baloratuko den justifikazio baten bidez, aipatutako azken aukerak ingurumen-inpaktu txikiagoa izango duela egiaztatzen bada.

Era berean, aipatutako salbuespen horretan, Urdaibaiko Ibai Sareko Eremuekiko –N4– trazadura perpendikularrak egin ahal izango dira, barneratze-teknika erabiliz edo gaur egun dauden zubien taulako beheko aldean. Dena den, barneratze-lanari ekiteko puntuek Gune Gaiakategoriatik kanpo egon beharko dute.

Bi kasuetan, eta natura-inguruneari eragindako afekzioari dagokionez, proiektuak beharrezko babes-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak ezarri beharko ditu.

- 6.– Sare orokorrarekiko loturarik ez badago, eraikin edo instalazioetarako saneamendu-aukera indibidualak 4.1.2 artikuluaaren arabera egin beharko dira.
- 7.– Kostaldeko Eremuan –N2– dauden saneamenduko urpeko hustubideak kostalerrotik 500 m-ra iritsiko dira, gutxienez. Kategoria honetako urpeko hodiak behar beste seinaleztatuta, isolatuta eta hondoan finkatuta egongo dira, eta Itsas Agintaritzari osasun publikoari edo nabigazioaren segurtasunari eragin diezaioketen haustura guztiak jakinarazi beharko zaizkio.

4.4.4.12 artikulua.– Ur-zuzkidura eta kanpo-argiteriako lineak. D.2.4.

- 1.– Ura eta kanpo-argiteria garraiatzeko edo banatzeko lurpeko sare-multzoa da.
- 2.– Horrelakoak ezarri ahal izateko plangintza egoki bat egin beharko da, Plan Berezi baten bidez eta Plan honek V. tituluan adierazten duenarekin bat etorritz.
- 3.– Ur-zuzkidurarako azpiegiturak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zuzkiduraren gaineko Lurralde Ekintza Planean aurreikusitakoak izango dira. Hura onartu bitartean, hurrengo zenbakian ezartzen dena aplikatuko da.

- 4.– Oro har, bide publikoei eta Trantsizio Gainkategorian dauden beste azpiegitura batzuen zortasun-zonei egokitu beharko zaizkie.

Arau orokor horrek ingurumenaren gaineko inpaktu larriak eragiten dituenean, aipatutako hori ez den lurpeko trazadurarako beste aukera bat jorratu ahal izango da Gunearen Babes Gainkategorian, betiere Plan honen helburuen arabera baloratuko den justifikazio baten bidez, aipatutako azken aukerak baliabide-kontsumo txikiagoa izango duela egiaztatzen bada.

Era berean, aipatutako salbuespen horretan, Urdaibaiko Ibai Sareko Eremuekiko –N4– trazadura perpendikularrak egin ahal izango dira, barneratze-teknika erabiliz edo gaur egun dauden zubien taulako beheko aldean. Dena den, barneratze-lanari ekiteko puntuek Gune Gainkategoriatik kanpo egon beharko dute.

Bi kasuetan, eta natura-inguruneari eragindako afekzioari dagokionez, proiektuak beharrezko babes-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak ezarri beharko ditu.

4.4.4.13 artikulua.– Ura hartzeko eta banatzeko instalazioak. D.3.1.

- 1.– Ura hartzeko, arazteko, edangarri bihurtzeko eta banatzeko beharrezko instalazioak dira.
- 2.– Ur-zuzkidurarako azpiegiturak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zuzkiduraren gaineko Lurralde Ekintza Planean aurreikusitakoak izango dira. Hori onartu bitartean, hurrengo zenbakian ezartzen dena aplikatuko da.
- 3.– Mota honetako oin berriko azpiegiturak ezartzeko, Plan Berezi bat egin beharko da, Plan honetako V. Tituluan horri dagokionez adierazten denarekin bat etorritz. Edonola ere, instalazioa honako erregulazio honetara egokituko da:
- Instalazio hauen erabilera bakarra azpiegiturei buruzko Atal honetan jasotako erabileretakoren bat izango da.
 - Instalazioak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera 7.500 m²koa izango da, eta eraikigarritasuna ez da 0,20 m²t/m²s-tik gorakoa izango; dena den, azken hori handitu egin ahal izango da dagokion garapen-tresnaren bitartez, interes publikoko arrazoiek hala egitea justifikatzen dutenean.
- 4.– Instalazioa txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.
- 5.– Lurzati hartzailearen barnean, Eraikina lurraren malda % 25etik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, Eraikinaren okupazioarekiko, gutxienez, bost metroko perimetro batean. % 12tik gorako malda duten zonetan lur-mugimenduak eragiten dituzten eraikuntza-proiektuak garatzeko prestatzen diren azterketa teknikoek lurzorua egonkortasunari eta higagarritasunari modu negatiboan ez eragiteko neurriak definituko dituzte.
- 6.– Egin nahi diren mota guztietako hondeaketa-lanetan, obren titularrak berezko landaredia berrezarri beharko du, lur beltzeko beharrezko geruza barne, lanen ondorioz hondatuta geratu den lursaileko azalerean.
- 7.– Plan honek Sistemen Eremuen barnean Azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zona –T4.IS– gisa kalifikatzen dituen lurzoruetan bakarrik eraiki ahal izango dira instalazioak. Horretarako, Plan honek lurzoruak aurrez birkalifikatzea jasotzen du, horiei aipatutako kalifikazioa ematearren, dagokion Plan Bereziaren onarpenaren bidez, betiere Plan honetako V. tituluak horren inguruan adierazten duenarekin bat etorritz. Birkalifikatuko liratekeen lurzoruak honako hauek izango lirateke:
- Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan –T1.PRT–.
 - Ibai Sareko Eremuen Babes Zonak –B4.1–, ibai-ibilgutik 30 metroko distantziara daudenak (horizontaleko proiektzioan eta Gune Gainkategoriaiko Ibai Sarearen Eremuaren –N4– mugarekiko perpendikularrean neurtuta), betiere azpiegituraren kokapena Plan Hidrologikoa aplikatuz ezarritako Lehenasunezko Fluxu Zonatik kanpo badago.
 - % 30 eta 45 bitarteko malda duten Baso Zonak –T2.F1–.
- 8.– Ura hartune-ingurutik instalaziora deribatu, garraiatu eta banatzeko hodian eta instalaziotik ibai-ibilgura ebakutzeko hodian trazadura Plan Bereziaren definituko da, eta ahal izanez gero, horiek dauden bideetako zortasun-zonetan kokatuko dira. Trantsizio Gainkategorian, Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuan –N.4– eta Ibai Sareko Babes Eremuan –B.4.1– sartutako lurzoruak zeharkatu ahal izango dituzte.

4.4.4.14 artikulua.– Urtegiak edo ur-depositu handiak eta ura arazteko eta tratatzeko instalazioak. D.3.2.

- 1.– Erabilera honetan sartzen dira herrien zuzkidurarako urtegi edo depositu handiak. Bertan sartzen dira, halaber, ura arazteko eta tratatzeko instalazioak.
- 2.– Azpiegitura horiek Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zuzkiduraren gaineko Lurralde Ekintza Planean aurreikusitakoak izango dira.

4.4.4.15 artikulua.– 100 m² baino azalera handiagoa duten elektrizitateko transformazio-estazioak. D.3.3.

- 1.– 100 m²tik gorako azalera duten elektrizitateko transformazio-instalazioak dira.
- 2.– Plan honek aurreikusten duenaren arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan oin berriko mota horretako instalazioak ezarri ahal izango dira, baina Plana bera indarrean sartzean Sistemen Eremuetako –T4.IS– azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko Eremu gisa kalifikatutako lurzoruetan bakarrik. Dena den, dagokion Plan Berezia onartuz eta Plan honetako V. tituluan ezartzen denarekin bat etorritik, Planak berak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzorua Plan honek aipatutako kalifikaziora birkalifikatzea jasotzen du.
- 3.– Handitzeko esku-hartzeak baimentzen dira Trantsizioko Gainkategoria osoan. Lehendik dauden instalazioetan handitzeko edozein esku-hartze gauzatzeko, dagokion Plan Berezia onartu beharko da, Plan honetako V. tituluan horren gainean adierazten denarekin bat etorritik.

4.4.4.16 artikulua.– Zerbitzuguneak. D.3.4.

- 1.– Foru-errepideen inguruan kokatutako lursailetan dauden instalazioak dira, ibilgailuentzako energia-zuzkidurarako gailuz hornituak; dena den, horietan ezin izango dira lantegi-garajeetan eta ibilgailuak saltzeko garajeetan garatzen diren jarduerak gauzatu ahal izango.
- 2.– Plan honek aurreikusten duenaren arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan hidrokarburo-zuzkidurarako oin berriko estazioak ezarri ahal izango dira, baina Plana bera indarrean sartzen den uanean Sistemen Eremuetako azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko Zona –T4.IS– gisa kalifikatuta dauden lurzoruetan bakarrik. Dena den, dagokion Plan Berezia onartuz eta Plan honetako V. tituluan ezartzen denarekin bat etorritik, Planak berak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzorua Plan honek aipatutako kalifikaziora birkalifikatzea jasotzen du. Instalazioak hartzeko lurzatiaren gutxienezko azalera 7.500 m²koa izango da.
- 3.– Ibilgailu elektrikoentzako energia hornitzeko estazioak azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko Zona (T4.IS) gisa kalifikatutako lurzoruetan instalatu ahal izango dira, betiere horien azalera 70 m² baino handiagoa ez bada eta gehienez ere 4 ibilgailuentzako zerbitzua ematen badute. Lurzati hartzailearen barnean, instalazioa lurraren malda % 20tik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, Eraikinaren okupazioarekiko, gutxienez, bost metroko perimetro batean. Lurzorua ez da material bituminoso edo konglomeratu bidez iragazgaiztu ahal izango.
- 4.– Era berean, hidrokarburo-zuzkidurarako estazioetan handitzeko esku-hartzeren bat gauzatzeko, aurrez Plan Berezi bat onartu beharko da, Plan honen 5. tituluan ezarritakoarekin bat etorritik; bertan, lehendik dagoen instalazioari dagozkion gehieneko eraikigarritasunei, mugekiko distantzietan, sarbideei, zerbitzuei eta abarrei buruzko erregulazioa jasoko da.

4.4.4.17 artikulua.– Aire libreko urte-sasoiko aparkalekua. D.3.5.

- 1.– Mota guztietako ibilgailu automobilak kokatzeko lursailetan urte-sasoia araberaren arabera egiten den jarduera da.
- 2.– Aire libreko aparkalekutzat hartuko dira jabetza pribatuko edo publikoko eremu edo leku irekiak, gehienez ere 75 ibilgailuentzako geraleku edo terminal gisa erabiltzera bideratuta daudenak.
- 3.– Urte-sasoikotzat hartuko da ekainetik irailera bitarteko hilabeteek, biak barne, hartzen duten epea.

- 4.– Plan honek urte-sasoiko aparkalekua baimendu dezakeen lurzoruak honako hauek dira:
- a) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Eremuak (T1.PRT).
- 5.– Lurzoru berean ezingo dira 1.500 m² baino gehiago okupatu erabilera horretarako, eta ezin izango dira bi lurzati erabilera berera bideratu, bi horien arteko distantzia 50 m baino txikiagoa denean; dena den, aparteko kasuetan parametro horiek % 50 gainditu ahal izango dira, baldin eta lurzatiaren eta Hirigintzako Udal Plangintzak Antolatzeako Eremutzat (HUPA) kalifikatutako lurzoruen arteko distantzia 100 m baino txikiagoa bada. Era berean, % 20tik gorako malda duten lurzatiak ezin izango dira erabilera horretara bideratu. Gainera, lurzatiak ezin izango da, inola ere, ur-zuzkidura edo -ebakuazio, argindar- edo argiteria- zerbitzu berriekin hornitu.
- 6.– Aparkaleku-zona prestatzeko, aparkaleku-zonatik datorren ur-bilketa aurreikusi beharko da, dekantazio- eta erregistro-kutxa batekin batera, ibilgailuak lursailean eragin ditzakeen filtrazioak isuri aurretik jasotzearen.
- 7.– Aparkalekuko seinaleztatze- eta mugatze-elementu guztiak ez-iraunkorrak izango dira.
- 8.– Lursailek gehienez foru-errepide batetik 50 metrotara egon beharko dute.
- 9.– Erabilera ezarri aurretik, aparkalekuaren ezaugarriak definitzeko proiektuarekin batera, foru-errepidetiko sarbidea prestatzeko Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Sailaren baimena aurkeztu beharko da Udalean.
- 10.– Aire libreko urte-sasoiko aparkaleku-erabilera ezarri aurretik, eta erabiliko den lurzoruaren egoeraren ezaugarriak zehaztearren, erabilera ezarri nahi den lurzoruaren gaineko esplorazio-jarduketa bat gauzatu da. Hurrengo urteetan ere erabilera hori ezarri nahi izanez gero, eta urte-sasoiko erabileraren ostean lurzoruaren egoera aztertzearen, lau urtez behin erabilera ezarrita egon den lurzoruaren gaineko esplorazio-jarduketa bat gauzatu da. Hori egin ostean, eta hala badagokio, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatuta dagoena garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean zehaztutakoa aplikatu beharko da.
- Era berean, erabilitako elementu ez-iraunkor guztiak kendu eta lurzati erabilera ezarri aurretik zuen jatorrizko egoerara lehengoratu da.

4.4.4.18 artikulua.– Irratia, telebista eta satellite bidezko komunikazioa hartzeko eta bidaltzeko dorre, antena eta estazioak, eta ingurumen-inpaktu berdintsua eragiten duten gainerako komunikazio-instalazioak. D.4.1.

- 1.– Irratia, telebista eta satellite bidezko komunikazioa hartzeko eta bidaltzeko dorre, antena eta estazioak, eta inpaktu berdintsua eragiten duten beste komunikazio-instalazio batzuk ezartzea eta erabiltzea da.
- 2.– Horrelakoak ezarri ahal izango dira bide publiko batetik ibilgailuentzako sarbidea duten lursailetan, Trantsizio Gainkategoria osoan, baina ez Nekazaritza Balio Handiko Zonetan –T1.A1–, Landa Gunearen Eremuetan –T3– eta Zona publiko edo pribatuetan, horiek lurzoru urbanizaezinean prestatu beharreko –T4.ERC– ekipamendu komunitarioarako beharrezko eraikuntza-asentamenduak izan ala ez.

4.4.4.19 artikulua.– Faroak, irrati-faroak. D.4.2.

- 1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremuan dauden faroen eta irrati-faroen instalazioak dira.
- 2.– Plan honek mota horretako instalazio berriak ezartzea ahalbidetzen du Kostaldeko Babes Eremuko lurzoruetan –B2–.

4.4.4.20 artikulua.– Kanpo-argiteria. D.4.3.

- 1.– Aire libreko eta barruti irekietako argiteria-mota guztiak dira, instalazio egonkorak nahiz noizbehinkakoak dituztenak.
- 2.– Instalazio berriak egiteko, eta lehendik dauden instalazioen birmoldatzeak edo handitzeak egiteko, kanpo-argiteriako instalazioen energia-eraginkortasunerako Erregelamendua eta haren Instrukzio Tekniko Osagarriak –EA-01etik EA-07ra bitartekoak– onartzen dituen azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuan ezarritakoa edo haren ordezkariak ezarritakoa bete beharko da.

3.– Kanpo-argiteria berria ezarri ahal izango da honako hauetan:

- a) Trantsizio Gaiak kategorian dauden lurzatiak, baldin eta honako hauek hartzen badituzte:
 - i) Aisia- edo jolas-erabilerak.
 - ii) Nekazaritzako edo abeltzaintzako jarduerekin lotutako eraikuntzak.
 - iii) Nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiapenarekin lotutako etxebizitzak.
 - iv) Lehen mailako baliabideen ustiapenarekin lotutako industriak.
 - v) Bide publikoak.
 - vi) Azpiegiturak.
 - vii) Eraikuntza-erabilerak.
- b) Gune eta Gunearen Babes Gaiak kategorietan dauden lurzatiak, baldin eta honako hauek hartzen badituzte:
 - i) Turismoko ostatu-establezimenduen eta ostalaritza-establezimenduen erabilerak. Kanpo-argiteria aparkaleku-zonan eta Eraikuntzarainoko sarreran bakarrik jarri ahal izango da, eta gehienez ere 1 m garaiko argi-paldoak erabiliz.
 - ii) Familiaren bizitegi-erabilerak. Argiteria bakarra jarriko da bide publikotik lurzatiarako sarbidean.

4.– Argiztapen-maila S3 edo S4 klasekoa izango da Trantsizio Gaiak kategorian, eta S4 klasekoa Gune edo Gunearen Babes Gaiak kategorietan.

5.– Energia berriztagarri bidez elikatutako elementuak instalatu daitezela sustatuko da.

4.4.4.21 artikulua.– Itsas energiaren aprobetxamendurako instalazioak. D.4.4.

- 1.– Lehorrean prestatuta dauden eta itsasoan metatutako energia energia elektriko bihurtzeko helburua duten instalazioak dira.
- 2.– Plan honek Sistema Eremuen barnean azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko Zona –T4.IS– gisa kalifikatzen dituen lurzoruetan bakarrik eraiki ahal izango dira instalazio hauek, itsas zonan kokatuko diren eta dagozkien baimenak beharko dituzten instalazioak alde batera utzita. Horretarako, eta dagokion Plan Berezia onartu ostean, Plan honek Trantsizio Gaiak kategorian sartzen dituen lurzorua aipatutako kalifikaziora birkalifikatzea aurreikusten du Plan honek, Nekazaritza Balio Handiko Zonen –T1.A1–, ehuneko berrogeita bost eta hirurogei bitarteko malda (% 45-60) duten Baso Zonen –T2.F2– eta Landa Gunearen Eremuaren –T3– kasuan salbu.
- 3.– Sortutako energia garraiatzeko eta banatzeko azpiegiturak Kostaldeko Eremuan –N2– eta Kostaldearen Babes Eremuan –B2– kokatu ahal izango dira, ahal izanez gero, lehendik dauden bideen zortasun-zonan kokatuko badira ere.

4.4.4.22 artikulua.– Haize-parkeak. D.4.5.

- 1.– Haizearen energia abiapuntutzat hartuta elektrizitatea sortzen duten instalazioak dira. Horiek hainbat haize-sorgailu erabiltzen dituzte, sare propioen bidez elkarrekin konektatuta daude eta sarbide- eta kontrol-egitura bera partekatzen dute, eta energia-neurketa propio bat eta sare orokorrerako lotura dute.
- 2.– Plan honek ez du bere aplikazio-eremuan inolako haize-parkerik instalatzea baimentzen.

4.4.4.23 artikulua.– Arriskutsuak ez diren hondakinak tratatu, birziklatu, berrerabili eta errebalorizatzen dituzten plantak D.5.1.

- 1.– Hondakin ez arriskutsuak tratatzeko, birziklatzeko, berrerabiltzeko eta baloratzeko behar diren instalazioak dira.
- 2.– EA Erako eta Bizkairako ezarritako hondakinei buruzko legedia aplikatuko da.
- 3.– Mota honetako oin berriko azpiegiturak ezartzeko, Plan Berezi bat onartu beharko da aurretiaz, betiere Plan honetako V. tituluaren horri dagokionez adierazten denarekin bat etorriz.

4.– Edonola ere, instalazioa honako erregulazio honi egokitu beharko zaio:

- a) Instalazio horiek sortu ziren erabilerarako bakarrik erabili ahal izango dira.
- b) Instalazioak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera 5.000 m²koa izango da, eta eraikigarritasuna ez da 0,15 m²tik gorakoa izango.
- c) Kasu guztietan, lurzati hartzaileak, erabilera ezarri aurretik, bere mugarainoko zerbitzuak izan beharko ditu ur-zuzkidurari, energia elektrikoari, kanpoko argiteriari eta hondakin-uren ebakuazioari dagokienez.
- d) Lurzati hartzailearen barnean, instalazioa lurraren malda % 20tik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, Eraikinaren okupazioarekiko, gutxienez, bost metroko perimetro batean. % 12tik gorako malda duten zonetan lur-mugimenduak eragiten dituzten eraikuntza-proiektuak garatzeko prestatzen diren azterketa teknikoek lurzorua egonkortasunari eta higagarritasunari modu negatiboan ez eragiteko neurriak definituko dituzte.
- e) Egin nahi diren mota guztietako hondeaketa-lanetan, obren titularrak berezko landaredia berrezarriko du, lur beltzeko beharrezko geruza barne, lanen ondorioz hondatuta geratu den lekuetan.
- f) Plan honek Sistema Eremuen barnean azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zona –T4.IS– gisa kalifikatzen dituen lurzoruetan bakarrik eraiki ahal izango dira instalazio hauek. Horretarako, Plan honek bertan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzoruak aipatutako kalifikaziora birkalifikatzea jasotzen du, dagokion Plan Berezia onartuz eta Plan honetako V. tituluak ezartzen duenarekin bat etorritz.

4.4.4.24 artikulua.– Hondakin geldoetarako zaborteziak eta betelanak. D.5.2.

1.– Hondakin geldoetarako zaborteziak hondakinak lurpean edo lur gainean utziz deuseztatzeko zona egokituak dira. Horietan ez dira sartzen hondakinak, gero beste leku batera garraiatu eta balioztatu, tratatu edo ezabatzearen, prestatzeko deskargatzen diren instalazioak.

Betelana deitzen zaio zona baten alterazio morfologikoari, bertan lurzoru naturaletik datozen lurrak eta arrokkak erabiltzen direnean.

2.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremu osoan debekatuta dago hondakin arriskutsuetarako zaborteziak instalatzea.

3.– Plan honek aurreikusten duenaren arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan hondakin ez-arriskutsuetarako oin berriko zaborteziak ezarri ahal izango dira, baina Plana bera indarrean sartzen den unean Sistemen Eremuetako azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko zona –T4.IS– gisa kalifikatzen diren lurzoruetan bakarrik. Dena den, dagokion Plan Berezia onartuz eta Plan honetako V. Tituluan ezartzen denarekin bat etorritz, Planak berak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzoruak Plan honek aipatutako kalifikaziora birkalifikatzea jasotzen du. Instalazioak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera 10.000 m²koa izango da eta jardueraren instalazio osagarrien gehieneko azalera eraikia, berriz 100 m²koa.

4.– Herri-administrazioek sustatutako azpiegitura-obretatik datozen erauzketako soberakinekin egindako betelanak bakarrik baimenduko dira, Peña Forua harrobian egiten diren betelaneen kasuan salbu.

Betelanei dagokionez, honako hau adierazi behar da:

- a) Plan honek Sistemen Eremuen barnean azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko Zona –T4.IS– gisa kalifikatzen dituen lurzoruetan eraiki ahal izango dira instalazioak.

Dena den, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan –T1.PRT– ere egin ahal izango dira, betiere erabilera hori materialen sorburu den azpiegiturari buruzko Plan Berezi batean jasotzen bada, Plan honen V. tituluan ezarritakoarekin bat etorritz.

5.–Artikulu honetan adierazten denaz gain, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak edo haren ordezkoko arauak ezartzen duena aplikatuko da.

4.4.4.25 artikulua.– Konpostaje komunitariorako instalazioak. D.5.3.

- 1.– Biohondakinak tratatzeko prestatutako instalazio komunak dira. Biohondakinen bolumena ez da 10 m³tik gorakoa izango, eta horren tratamendua norbanako edo familia batzuek egin ahal izango dute, ondoren ateratzen den konpostari erabilera partikularra ematearren.
- 2.– Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko urriaren 19ko 1/2015 Aginduan EAeko lurralde-eremuan erki-degoko konpostaje-instalazioek bete behar dituzten administrazio-prozedurei edo hura ordeztzeko arauari buruz barneratzen den erregulazioaz gain, Plan honetan honako zehaztapen hauek barneratzen dira:
 - a) Instalazio hauek zerbitzua ematen dieten Eraikuntzak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera Bizkaiko Lurralde Historikorako Labore Unitate Minimotzat definitzen dena izango da.
 - b) Dena den, instalazioen gehieneko azalera eraikia 100 m²koa izango da.
 - c) Erabilera honekin lotutako oin berriko instalazio isolatuen diseinuan, honako gehieneko zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:
 - i) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 3,00 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 4,50 m-koa.
 - ii) Instalazioak isurialde bateko edo biko estalkiarekin egin beharko dira, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izango dute. Zeramikazko teila kurbo, misto gorri edo zur bidez emango zaio akabera.
 - iii) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua instalazioetarako. Debekatuta dago akabera hormigoizko bloke bidez egitea, hura pintatuta egon ala ez.
 - iv) Jarri beharreko arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.
 - v) Beheko solairuan egingo dira.
 - d) Baimendutako lurzatiaren barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartzeak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzatiek ezaugarri batzuk bete beharko dituzte, honako hauek, hain zuzen ere:
 - i) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - ii) Barnean, aparkalekurako zona bat hartzeko lekua izan behar dute, gehienez ere lau ibilgailuentzat.
 - e) Lurzati hartzaileak, erabilera ezarri aurretik, bere mugarainoko zerbitzuak izan beharko ditu, ur-zuzkidurari, argindarrari eta kanpoko argiteriari dagokienez. Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.
- 3.– Horrelako instalazioak jarri ahal izango dira Plan honek Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PTR– eta Sistemen Ereku –T4– gisa kalifikatutako lurzoruetan.

4.4.4.26 artikulua.– Energia berriztagarria sortzeko instalazioen bidez energia ekoizteko sistemak. D.6.

- 1.– Energia ekoizteko instalazioak dira, ekoizleak berak energia hori kontsumitzeko helburuarekin. Honako hauek bereizten dira:
 - a) Energia elektrikoa sortzeko instalazioak:
 - i) Instalazio fotovoltaikoak.
 - ii) Haize-sorgailu unitarioak. Eraikuntza bati edo batzuei lotutako haize-sorgailu bakarra da.
 - b) Energia termikoa sortzeko instalazioak:
 - i) Instalazio fototermikoak.
 - ii) Biomasa-instalazioak. Honako hauek bereizten dira:
 - Pellet edo ezpalek errekuntzarako banakako instalazioak edo instalazio kolektiboak.
 - Metanoaren aprobetxamendua duten konpostaje-instalazioak.
 - Nekazaritzako eta basogintzako hondakinak erretzeko instalazioak.

iii) Geotermiako instalazioak. Honako hauek bereizten dira:

- Azaleko eremu-instalazioak.
- Zundaketa bidezko sakoneko instalazioak.

2.– Instalazio fotovoltaikoak eta fototermikoak ezarri ahal izango dira lehendik dauden Eraikuntzei edo oin berriko Eraikuntzei zerbitzua emateko. Zehaztapen hauek aplikatuko dira:

- a) Instalazioaren gehieneko neurriak zerbitzua eman behar dien Eraikuntzen energia-beharrak asetzeko beharrezkoak izango dira.
- b) Plakak estalkiaren gainean jarri beharko dira Eraikuntzetan eta, aparteko kasuetan, Eraikuntzen lurzati hartzaileetan. Azken kasu horretan, aurrez justifikatu egin beharko da egindako aukera, eguzki-orientazioarekin edo arkitekturarekin lotutako arrazoietan oinarrituz.
- c) Instalazioa Eraikuntzen estalkian kokatuta dagoenean, okupatu ahal izango den gehieneko azalera bertan dauden estalkiena izango da.

Instalazioa zuzenean kokatzen denean Eraikuntzen lurzati hartzailearen lurrian, instalatuko diren plaka fotovoltaiko edo fototermikoen potentzia-muga honako hau izango da: eskaera egindako dataren aurreko urtean zehar plakek zerbitzua ematen dieten Eraikuntzek egindako kontsumoen batura. Oin berriko Eraikuntzen kasuan, potentzia-muga kalkulatzeko unean kontuan hartu beharko da ezaugarri bereko Eraikuntzek, eskaera egindako dataren aurreko urtean zehar, egindako kontsumoen batura, eta eskaerari erantsiko zaion frogagiri baten bidez justifikatuko da. Edonola ere, lurzatian gehienez ere 100 m²ko azalera okupatu ahal izango da.

Sistemen Eremu gisa kalifikatutako lurzoruetan dauden Eraikuntzen kasuan, azalera hori behar den heinean handitu ahal izango da, erabilera modu autonomoan garatu ahal izateko beharrezko energia ekoizten dela bermatzeko.

- d) Eraikuntzen lurzati hartzailearen barnean kokatutako instalazio fotovoltaiko edo fototermikoetatik lurzati-mugetara eta udal-titulartasuneko errepide eta bide publikoetara dagoen tartea 5 m-koa izango da; foru-errepideekiko distantzia errepideei buruzko foru-arauan ezarritakoa izango da.
- e) Energia elektrikoa bildu, banatu edo sare orokorrera isurtzeko instalazioak kokatzeko zehaztapenak honako hauek dira:
 - i) Eraikuntzetan: eraikuntzen barnean, 1 m² bider instalatu nahi den potentzia (KW/h) egin, eta ateratzen den azalera okupatu ahal izango da; gehienez ere 25 m² okupatu ahal izango dira.
 - ii) Lurzati hartzailean, oin berriko instalazioak ezarri: kasu horretan, zenbaki honetan azalera eta okupatzeko gehieneko azalera kalkulatzeko finkatutako bide berari jarraituko zaio. Instalazio horien diseinuan, honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:
 - Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 2,50 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 3,50 m-koa.
 - Instalazioak bi isurialdeko estalki bidez egin beharko dira, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izango dute. Zeramikazko teila kurboz edo misto gorritz emango zaio akabera.
 - Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua instalazioetarako. Debekatuta dago akabera hormigoizko bloke bidez egitea, hura pintatuta egon ala ez.
 - Jarri beharreko arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.
 - Beheko solairuan egingo dira.
- f) Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu osoan baimenduta egongo da Eraikuntzen estalkiaren gainean plaka fotovoltaikoak edo fototermikoak jartzea, edo Eraikuntzen barnean energia elektrikoa bildu, banatu edo sare orokorrera isurtzeko instalazioak jartzea. Plakak eta/edo Eraikuntzen lurzati hartzailearen gainean energia elektrikoa bildu, banatu edo sare orokorrera isurtzeko elementuak hartzeko instalazioak jartzea baimenduko da, baina Trantsizio Gaiakategoriakotzat kalifikatutako lurzoruetan bakarrik.

- 3.– Haize-sorgailuak ezarri ahal izango dira, lehendik dauden Eraikuntzei eta oin berriko Eraikuntzei zerbitzua emateko. Honako zehaztapen hauek bete beharko dira:
- a) Haize-sorgailu unitarioaren gehieneko neurriak zerbitzua eman behar dien Eraikuntzen energia-beharrak asetzeko beharrezkoak izango dira. Haize-sorgailu unitarioaren potentzia-muga eskaera egin aurreko urtean zerbitzua ematen dien Eraikuntzek egindako kontsumoen baturaren arabera izango da.
 - b) Haize-sorgailu unitarioa oin berriko Eraikuntza bati edo batzuei lotuta badago, horren gehieneko potentzia kalkulatzeko unean, ezaugarri bereko Eraikuntzek eskaera egin aurreko urtean egin duten kontsumoen batura hartu beharko da kontuan.
 - c) Horrelakoak ezartzeko, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:
 - i) Haize-instalazio unitarioari eraginkortasun gehien ateratzea ahalbidetzen duten kokaguneen artean, jarduketatik hurbileko eremuan ikus-eragin txikiena duen kokapena aukeratu da. Horretarako, eskaerarekin batera kokapena justifikatzen duen txosten tekniko bat aurkeztuko da. Haize-sorgailu unitarioa zerbitzua ematen dien Eraikuntzen lurzati hartzailearen batean kokatuko da, edo horien aldameneko beste lurzati batzuetan.
 - ii) Haize-instalazio unitarioak indarrean den zaratari buruzko araudia bete beharko du, eta, horretarako, zarataren arloan indarrean den araudia betetzeari buruzko justifikazio-txosten bat aurkeztuko da eskaerarekin batera.
 - iii) Ardatz horizontaleko sistemen kasuan, haize-instalazio unitarioaren dorreak ezin izango du 8 m-ko altuera gainditu luraren sestratik neurtuta, eta beste sistemen kasuan, ezta 13 m-ko altuera ere, punturik gorenean neurtuta.
 - iv) Jartzen den haize-instalazio unitariotik aldameneko Eraikuntzetara 25 m-ko gutxieneko tarte utzi beharko da, eta 15 m-koa lurzati-mugetara eta udal-titulartasuneko errepide eta bide publikoetara; foru-errepideekiko distantzia errepideei buruzko foru-arauan ezarritakoa izango da.
 - d) Instalazioak hegazti-faunak ikusteko moduko gailuak izan beharko ditu, hegaztien talkak saihesteko, hain zuzen ere.
 - e) Haize-sorgailu unitarioarekin lotutako energia elektrikoa bildu, banatu edo sare orokorrera isurtzeko ekipamenduak honela ezarriko dira:
 - i) Eraikuntzetan barne-espazioetako erabilerak aldatuz. Xede horretarako, honako azalera hau okupatu ahal izango da: 1 m² bider potentzia instalatua (KW/h) eginez ateratzen dena; gehienez ere 25 m² okupatu ahal izango dira.
 - ii) Zerbitzua ematen zaien Eraikuntzen lurzati hartzaileen barnean xede horretarako ekipamenduak hartzeko oin berriko instalazioak ezarri. Kasu horretan, atal honetan okupatzeko azalera kalkulatzeko ezarri den bide berari jarraituko zaio, baita artikulua honetako 2.c zenbakian ezarritakoari ere, instalazioaren diseinuari dagokionez.
 - iii) Energia elektrikoa bildu, banatu edo sare orokorrera isurtzeko ekipamenduen instalazioa oin berriko Eraikuntzei lotuta dagoenean, baimendutako lurzoru-okupazioa kalkulatzeko unean, ezaugarri bereko instalazioek eskaera egin aurreko urtean zehar egindako kontsumoen batura hartuko da kontuan; gehienez ere 25 m²ko lurzoru okupatu ahal izango da.
 - f) Plan honek aurreikusten duenaren arabera, horrelako instalazioak Trantsizio Gainkategoriaiko lurzoruetan bakarrik ezarriko dira.
- 4.– Biomasa-instalazio indibidualak –pellet edo ezpalak erretzeko instalazioak– jarri ahal izango dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezineko edozein gainkategorialean kokatutako lehendiko Eraikuntzei zerbitzua eman ahal izateko. Era berean, horrelako instalazioak oin berriko Eraikuntzetan ezartzeko aukera aurreikusten da. Horrelakoak ezartzeko, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:
- a) Pellet edo ezpalak erretzeko biomasa-instalazioaren gehieneko neurriak zerbitzua ematen dien lehendiko edo oin berriko Eraikuntzaren ur bero eta Txorrotako Ur Bero beharrak asetzeko beharrezkoak izango dira.
 - b) Biomasa-instalazio indibiduala –pelletak edo ezpalak erretzeko instalazioa– lehendik dauden Eraikuntzen edo oin berriko Eraikuntzen barnean kokatuko da, eta, horretarako, gehienez ere 12 m²ko azalera okupatu ahal izango da.

- c) Plan honek mota horretako instalazioak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu osoan ezartzea aurreikusten du.
- 5.– Biomasa-instalazio kolektiboak –pellet edo ezpalak erretzeko instalazioak– jarri ahal izango dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezineko Trantsizio eta Gunearen Babes Gaiakategorietan kokatutako lehendiko Eraikuntzei zerbitzua eman ahal izateko. Era berean, horrelako instalazioak oin berriko Eraikuntzetan ezartzeko aukera aurreikusten da. Horrelakoak ezartzeko, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:
- a) Instalazioa Eraikuntzaren barnean kokatuko da, eta, horretarako, 40 m² okupatu ahal izango ditu gehienez ere.
- b) Era berean, biomasa-instalazio kolektiboak oin berriko Eraikuntzetan jarri ahal izango dira. Honako zehaztapen hauek bete beharko dira:
- i) Instalazio horiek sortu ziren erabilerarako bakarrik erabili ahal izango dira.
- ii) Oin berriko biomasa-instalazio kolektibo bat ezartzeko edo lehendik dagoen instalazioan handitzeko edozein esku-hartze mota gauzatzeko, Plan Berezi bat onartu beharko da.
- iii) Oin berriko biomasa-instalazio kolektiboak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera nekazaritzako gutxieneko lurzatiari dagokiona izango da.
- iv) Biomasa-instalazio kolektibotik aldameneko Eraikuntzetara 10 m-ko tartea gordeko da gutxienez, eta lurzati-mugetara eta udal-titulartasuneko errepide eta bide publikoetara, berriz, 5 m-koa; foru-errepideekiko distantzia errepideei buruzko foru-arauan ezarritakoa izango da.
- v) Erabilera honekin lotutako oin berriko instalazioen diseinuan, honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:
- Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 3,00 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 4,50 m-koa.
 - Instalazioak bi isurialdeko estalki bidez egin beharko dira, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izango dute. Zeramikazko teila kurboz edo misto gorritz emango zaio akabera.
 - Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua instalazioetarako, eta harri naturalezko akabera karga-ganberen kasuan. Debeztatuta dago akabera hormigoizko bloke bidez egitea, hura pintatuta egon ala ez.
 - Jarri beharreko arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.
 - Beheko solairuan egingo dira.
 - Biomasa-instalazio kolektibotik Eraikuntzetara garraiatu eta banatzeko hodiak lehendik dauden bideetako zortasun-zonetan kokatuko dira edo, hala dagokionean, natura-, kultura- edo paisaia-balioa duten elementuei ez eragiteko moduko trazadurak izango dituzte.
- c) Plan honek aurreikusten duenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Trantsizio Gaiakategoria gisa kalifikatutako lurzoruetan oin berriko mota horretako instalazioak ezarri ahal izango dira, Landa Gunearen Zonetan –T3.NR– salbu.
- 6.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinean ezin izango da nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinak erretzeko instalaziorik jarri.
- 7.– Plan honetako 4.4.4.25 artikuluan arautzen diren konpostaje-instalazioek konpostaje-prozesuan zehar sortutako metano gasa berrerabiliz energia produzitzeko sistemak gaineratu ahal izango dituzte. Instalazioak konpostaje-erabilera nagusiaren izaera osagarria izango du, beharrezko ezaugarriak izango ditu, eta plantaren beraren instalazioen barnean egongo da.
- 8.– Azalpeko eremuko beroa biltzeko sistemak nahiz zundaketa bidezko sakoneko sistemak dituzten geotermia-instalazioak baimenduko dira lehendik dauden Eraikuntzei zerbitzua emateko; horretarako, erabilerara egokitzeko eraberritzeko esku-hartzeak gauzatu beharko dira Eraikuntzen barruan –beharrezko biltegitratze- eta banatze-gailuak jasotzeko– nahiz Eraikuntzen lurzati hartzaileetan –lurreko energia termikoa hartzeko gailuak kokatu ahal izateko–. Era berean, horrelako instalazioak oin berriko Eraikuntzetan ezartzeko aukera aurreikusten da. Zehaztapen hauek bete beharko dituzte:
- a) Instalazio horiek sortu ziren erabilerarako bakarrik erabili ahal izango dira.

- b) Azalpeko eremuko nahiz zundaketa bidezko sakoneko beroa hartzeko sistemak zerbitzua ematen dieten Eraikuntzen lurzati hartzaileetan kokatuko dira; beroa hartzeko gailu guztiak lurpean izango dituzte, baina eragite- eta kontrol-aginteak sestra gainean jarri ahal izango dira.
- c) Beroa hartzeko sistemetarako ekipamendu osagarrien instalazioa lehendik dauden edo oin berriko Eraikuntzen barnean kokatuko da, eta gehienez ere 30 m²ko azalera okupatu ahal izango dute.
- d) Plan honek aurreikusten duenaren arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu osoan ezarri ahal izango dira horrelako instalazioak.

4.4.4.27 artikulua.– Ibilguen edo ibilgu-ertzen trazadura aldatzen duten azpiegiturak. D.7.

- 1.– Ibilguen trazadura aldatzeko eta/edo horien ertzak horma eta dike bidez iragazgaitzeko bideratze- eta kanalizazio-lanak dira.
- 2.– Zubiak, estaldurak eta egiturazko defentsa-neurriak diseinatzeko eta ibilguen trazadura aldatzeko indarrean den Plan Hidrologikoko arau zehatzetan jasotakoa aplikatuko da.
- 3.– Horrelakoak egiteko, beharrezko Plan Berezia idatzi beharko da, Plan honen V. tituluaren ezarriarekin bat etorritik.
- 4.– Bizkaiko bisoi europarraren Kudeaketa Planean ezarritakoari jarraiki, jarduketa horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunaren alde aurretiko baimena beharko dute.

4.4.4.28 artikulua.– Ontziak atrakatzeko eta amarratzeko azpiegiturak. Ontziak atrakatzeko eta amarratzeko instalazio iraunkorrak eta horiekin lotutako zerbitzuak. D.8.

- 1.– Ontziak amarratzeko eta atrakatzeko instalazio iraunkorrak eta horiekin lotutako zerbitzuak dira.
- 2.– Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legea indarrean sartu zenean dagoeneko bertan zeuden amarratze-lekuak eta ontziralekuak mantentzea eta konpontzea baimentzen da.
- 3.– 5/1989 Legea indarrean sartu zenerako harri-hazta bidezko amarratze-lekuak bazirenez, eta horiek antolatu eta ingurumenean eta paisaian duten eragina murriztearren, Arketa eta Portuondo inguruetan, instalazioak mantentzeko eta konpontzeko ekintzen barnean jasoko dira ontziak lerroan, modu antolatuan eta jarraituan jartzea ahalbidetzen duten harri-hazta bidezko amarratze-lekuak prestatzeko jarduerak; horrela, murriztu egingo da eragindako ur-laminaren azalera.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako ingurumen arloko Sail eskudunak Plan Berezi bat onartuko du, Plan honetako V. tituluaren ezarritakoarekin bat etorritik, bi zona horiek mugatu eta arautzeko eta baimendutako gehieneko ontzi-kopurua finkatzeko, betiere horretarako 5/1989 Legea indarrean sartu zen unean itsasadarrean harri-hazta bidez finkatutako kopurua eta, betiere, inguru horrek duen harrera-ahalmena kontuan hartuta.

4.4.4.29 artikulua.– Instalazio aeronautikoak. D.9.

- 1.– Instalazio aeronautikoak dira, hala nola, aireportuak, aerodromoak edo heliportuak.
- 2.– Plan honek ez du mota honetako instalazioak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan jartzea jasotzen, heliportuen kasuan salbu; azken kasu horretan, lurzati hartzaileak 3.500 m² izan beharko ditu gutxienez, edozein bide publikotatik 50 m-ra egon beharko du gehienez, eta % 15eko batez besteko malda izan beharko du.
- 3.– Gainera, lurzatiak Sistemen Eremuetako –T4.IS– azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko Zona gisako kalifikazioa izan beharko du. Horretarako, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzoruak birkalifikatzeko aukera jasotzen du Plan honek, betiere V. tituluaren ezarritakoarekin bat etorritik, dagokion Plan Bereziaren onartu ostean.

4.4.4.30 artikulua.– Publizitatea. Publizitate-hesiak eta -iragarkiak instalatzea. D.10.

- 1.– Plan honek debekatu egiten du kartel edo hesi bidezko edo soinu edo ikus-entzunezko estatiko bidezko publizitatea, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinen eremu osoan zehar.
- 2.– Ez dira kartel edo hesizat hartuko seinale estandarrak, bide publikoetan jarriak eta turismoko establezimendu, kanpin, upategi, ekipamendu eta abarretarako bidea adierazten dutenak. Horrelakoak jartzeko, bidearen titularrak emandako baimena beharko da.

4.4.4.31 artikulua.– Industria edo biltegitratze arriskutsuak. D.11.

- 1.– Beren izaera, ezaugarriak edo manipulatu diren materialak direla-eta arrisku larriak eragin ditzaketenez, lur-eremu hiritarretan edo hiritargarrietan kokatzerik ez dauden substantziak biltegitratzeko eta produkzio-prozesuak garatzeko instalazioak dira.
- 2.– Plan honek ez du Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan horrelako instalaziorik ezartzea aurreikusten.

4.4.4.32 artikulua.– Itsaso Lehorreko Jabari Publikoarekin lotutako industriak (ontziolak). D.12.

- 1.– Jarduera honetan sartzen dira Itsaso Lehorreko Jabari Publikoarekin lotutako industriak garatzeko eta itsasontziak fabrikatzeko beharrezko instalazioak, ontziolak kasu.
- 2.– Plan honek ez du bere aplikazio-eremuan instalazio berririk ezartzea aurreikusten.

5. ATALA**ERAIKUNTZA ERABILERAK****4.4.5.1 artikulua.– Alderdi orokorrak.**

- 1.– Eraikuntzetan oinarritzen diren erabilerak dira. Dena den, garatzeko unean lurzati hartzailea okupatzea eta eraldatzea eragin dezakete.
- 2.– Erabilera horien artean, honako hauek bereizten dira:
 - a) E.1. Zuzkidura- eta ekipamendu-erabilerak.
 - b) E.2. Turismoko ostatu-establezimenduen, ostalaritza-establezimenduen eta kanpinen erabilera.
 - c) E.3. Familiaren bizitegi-erabilera.
 - d) E.4. Bizitegi-erabilerarekin lotutako erabilera osagarria.
 - e) E.5. Zerbitzu-erabilera.
 - f) E.6. Lanabesak eta makineria txikia biltegitratzeko eta landare-espezieen hazkuntza eta autokontsumorako instalazioak.
- 3.– Erabilera bakoitzak Eraikuntza horien eta lurzati hartzaileen urbanizazioaren diseinu-ezaugarri espezifikoak zehatu ahal izango baditu ere, jarraian, guztiei eragingo dien araudi orokor bat azaltzen da:
 - a) Oin berriko Eraikuntzak diseinatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:
 - i) Fatxadan, kanpoalderanzko akaberak honelakoak izan daitezke:
 - Zurezkoak. Zurezko oholezko panelak erabili ahal izango dira, gehienez ere eraikineko fatxaden azalera osoaren % 40 hartuz.
 - Geruza bakarreko akaberak edo morterozko zarpiatuak. Kolore zurikoak edo anil-kolorekoak izango dira. Horrenbestez, hormigoizko blokez –bloke gris, lur-kolore edo antzeko kolore batekin– edo termobuztinezko blokez egindako kanporanzko itxituren akabera ezin izango da bere horretan utzi.

- Harrizkoak.
 - Harlandua edo harri-horma erabiliz gero, hark eraikineko fatxadak oso-osorik okupatu ahal izango ditu.
 - Harrizko plakak erabiliz gero, horien piezek 0,50 x 0,80 m-koak izan beharko dute gutxienez, eta eraikineko fatxaden % 40 okupatu beharko dute, gehienez ere. Hura ez da, inola ere, harri-horma baten simulazioa eginez jarriko.
 - Bistako adreilu zeramikoa. Bistako adreilu zeramikoz egiten den akaberek tonu gorria izango du, eta lehen oineko solairutik gora jarri beharko da. Hori jartzean, gutxienez 1,5 cm-ko juntura edo albo-juntura barnesartua egingo da.
 - Beira. Argiztapen- eta aireztapen-baoak egiteko.
- ii) Estalkia egiteko lana honela gauzatuko da:
- Estalkiak maldadunak izango dira, bi edo hiru isurialdekoak, eta zeramikazko teila kurbozko akabera izango dute, edo kolore gorri lisoko mistoa.
 - Galarazita dago isurkiaren lautasuna hausten duten *txori-toki* motako elementuak edo mantsardak egitea. Dena den, estalkiko isurkietan terrazak egin ahal izango dira, betiere goiko teilatu-hegalarekiko distantzia 4 metrotik gorakoa bada –estalkiko planoan neurtuta– eta lau metrotik gora luze egiten ez badute.
 - Estalki lauak egin ahal izango dira, gehienez ere, eraikinak okupatzen duenaren % 40ko azalera hartuz. Horrelakoak eginez gero, berdeak edo lorategi-modukoak izan beharko dute.
 - Estalkitik gora ateratzen diren elementuek, aireztapen-hodiek edo tximiniek, esaterako, kolore zuriko akabera izan beharko dute.
- iii) Sartzen diren arotzeriek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:
- Arotzeriak zurezkoak edo beste edozein materialetakoak izango dira, eta akaberek zurezkoak izan daitezke, baita marroiz, gurdi-gorritz, itsas urdinez edo berdez pintatuak ere.
 - Horiek ixteko ezingo da ez pertsianarik edo burdin sarerik erabili.
- b) Lehendik dauden eraikinen kasuan, eraberritzeko edo zatitzeko esku-hartzearen bidez erabilera aldatu edo erabilera berriren bat hartu badute:
- i) Fatxadan dituzten kanpoalderanzko akaberek fatxada nagusiaren jatorrizko itxuraketa errespetatu beharko dute, eta albo-fatxadetan eta atzeko fatxadan, jatorrizko materialez gain, honako hauek hartu beharko dituzte:
- Bistako adreilu zeramikoa. Bistako adreilu zeramikoz egiten den akaberek tonu gorria izan beharko du, eta, gutxienez, lehen oineko solairu-armazoitik gora jarri beharko da. Hori jartzean, gutxienez 1,5 cm-ko juntura edo albo-juntura barnesartua egingo da.
 - Zurezkoak. Zurezko oholezko panelak erabili ahal izango dira, gehienez ere fatxaden azalera osoaren % 40 hartuz.
 - Geruza bakarreko akaberek edo morterozko zarpiatuak. Kolore zuriz egingo dira. Horrenbestez, hormigoizko blokez –bloke gris, lur-kolore edo antzeko kolore batekoak– edo termobuztinezko bloke bidez egindako kanporanzko itxituren akabera ez da bere horretan utzi ahal izango.
 - Beira. Argiztapen- eta aireztapen-baoak egiteko.
- ii) Estalkiaren jatorrizko itxuraketa mantentzea; ez da, inola ere, horietan txori-tokiak ager daitezela onartuko. Estalkiko isurkietan terrazak egokitzea ez da estalkiaren formaren aldaketatzat hartuko, baldin eta teilatu-hegalarekiko eta goiko gailurrekiko distantzia lau metrokoa bada, estalkiko planoan neurtuta, eta 4 metrotik gora luze egiten ez badu. Era berean, zehaztapen hauek bete beharko dira:
- Estalkiek zeramikazko teila kurbozko akabera izango dute, edo kolore gorri lisoko mistoa.
 - Estalkitik gora ateratzen diren elementuek, aireztapen-hodiek edo tximiniek, esaterako, kolore zuriko akabera izan beharko dute.

iii) Sartzen diren arotzeriek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Arotzeriak zurezkoak edo beste edozein materialetakoak izango dira, eta akaberak zurezkoak izan daitezke, baita marroiz, gurdi-gorritz, itsas urdinez edo berdez pintatuak ere.
- Horiek ixteko ezingo da ez pertsianarik edo burdin sarerik erabili.

4.– Lurzati hartzaileen barnean aparkaleku-zona bat egokitzeko beharrezko lanak eta horretarako sarbidea landaretza eta lur gaineko isurketak igaro ditzakeen elementu zurrun eta zulatuak konbinatzen dituzten teknikak erabiliz egin beharko dira. Oin berriko Eraikuntzetan oinarritzen diren erabilera guztietarako, lurzati hartzaileak % 20tik beherako batez besteko malda izan beharko du. % 12tik gorako malda duten zonetan lur-mugimenduak eragiten dituzten eraikuntza-proiektuak garatzeko prestatzen diren azterketa teknikoek lurzorua egonkortasunari eta higagarritasunari modu negatiboan ez eragiteko neurriak definituko dituzte.

5.– Egin nahi diren mota guztietako hondeaketa-lanetan, obren titularrak berezko landaredia berrezarri beharko du, lur beltzezko beharrezko geruza barne, lanen ondorioz hondatuta geratu den lursaileko azaleretan.

4.4.5.2 artikulua.– Zuzkidura- eta ekipamendu-erabilerak. Araubide orokorra. E.1.

- 1.– Erabilera honetan sartzen dira landa-ingurunean kokatu behar diren eraikinetan oinarritutako interes publikoko zuzkidurak eta ekipamenduak, horien xedea hurrengo artikuluetan aipatzen diren helburuetako bat lortzea denean, jasangarritasunerako ikerkuntzan eta hezkuntzan eta/edo Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren antolamendu eta landa-garapenean ekarpenen bat egiteko, hain zuzen ere.
- 2.– Erabilera hauetakoren bat Eremu edo Zona batean baimendutzat identifikatuz gero, Plan honek interes publikoko erabilera aitortuko du Eremu edo Zona horretan; gainera, erabileraren izaera eta ezaugarriak direla-eta, Eremu edo Zona horretan koka daitekeela joko du, betiere hurrengo artikuluetan ezartzen den araudi espezifikoi jarraiki.
- 3.– Era berean, eta jarduera lortzeko helburuarekin, eraikin horiek beren izaerarekin lotutako ekipamendu, zuzkidura eta erabilera bateragarri guztiak hartu ahal izango dituzte barne; horiek zehatz-mehatz arautuko dira hurrengo artikuluetan.
- 4.– Material berriak edo fatxada-proporzio berriak sartu ahal izango dira, gauzatu aurretik behar diren garapen-tresnen bidez. Horrez gain, tresna horiek gehieneko solairu-kopurua zehaztuko dute oin berriko edo handitzeko esku-hartzeen kasuan; dena den, horiek sotoko solairu bat eta sestra gaineko hiru solairu izan ditzakete gehienez ere.
- 5.– Erabilera hauek barne hartzen dituzten eraikinetan ezin izango da, inola ere, familiaren bizitegi-erabilerarik gauzatu.

4.4.5.3 artikulua.– Gune zoologikoak. E.1.1.

- 1.– Plan honek, gune zoologikoen barnean, jarduera nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuari atxikiak dituzten establezimenduak hartzen ditu barne.
- 2.– Multzo honen barnean sartzen dira jarduera nagusitzat animaliak mantentzea, leku batean edukitzea, haztea eta/edo saltzea duten zentroak edo establezimenduak.
- 3.– Planak honako hauek bakarrik hartzen ditu multzo honen barnean:
 - a) Baso-fauna autoktono eta aloktono ez inbaditzailearen parke zoologikoak.
 - b) Basapiztiak sendatzeko zentroak.
 - c) Urtebete baino zaharragoak diren 10 txakur edo gehiago dituzten eta 20 m²tik gorako azalera eraikia duten txakurtegiak.
 - d) Animaliak gaineratzeko instalazio propioak dituzten txakurrak hezteko eskolak.
- 4.– Jarduera hauek hartu ahal izateko, lurzati azalera nekazaritzako gutxieneko lurzatiari dagokiona baino handiagoa izango da, eta horiek Plan honek Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatutako lurzoruetan kokatuta egon beharko dute.

- 5.– Horrelakoak ezartzeko, oin berriko edo lehendik dauden eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duten Eraikuntzen erabilera aldatzeko esku-hartzeak gauzatu ahal izango dira.
- 6.– Ezaugarriak eta zehaztapenak dagokion garapen-tresnan –Plan Berezia– ezarritakoak izango dira. Edonola ere, elementu guztietatik muga, bide eta bide publikoetara dagoen distantzia 10 metrotik gorakoa izango da, eta lurzati hartzailearen eraikigarritasuna $0,08 \text{ m}^2\text{e}/\text{m}^2\text{l}$ -koa izango da; dena den, azalera eraikia 750 m^2 koa izango da, gehienez ere, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonetan. Erabilera lehendik dauden Eraikuntzetan ezarri gero, azalera eraikia ere hartuko da kontuan eraikigarritasuna zenbatzeko orduan.
- 7.– 10 txakur baino gutxiago dituzten txakurtegien kasuan, lurzati hartzailean $1,5 \text{ m}^2$ ko instalazioak ezarri ahal izango dira txakur bakoitzeko, Trantsizio Gainkategorian dauden eraikinetan, bizitegi-erabilerarekin lotutako erabilera gisa.

4.4.5.4 artikulua.– Kirol-instalazioak. E.1.2.

- 1.– Kultura fisikoko eta kiroleko ariketak praktikatzea eta irakastea ahalbidetzen duten jarduerak dira, estalita edo estali gabe dauden aire libreko instalazioetan.
- 2.– Honako hauek bereizten dira:
 - a) Aire libreko igerileku estali gabeetan gauzatzen diren uretako jarduerak. Kategoria honetan sartzen dira igeriketarako edo talasoterapiako aisiarako beharrezko instalazioak, otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuan eta azaroaren 2ko 208/2004 Dekretuan edo horiek ordezkatzan dituen arauan erregulatzen direnak. Horiek ezarri ahal izateko, Plan honek honako arau hauek ezartzen ditu:
 - i) Plan Berezi bat onartu beharko da, V. tituluan adierazitako baldintzetan. Dokumentu horrek instalazio mekanikoen edo ezar litezkeen edari-establezimendu eta zerbitzu sanitarioen eraikigarritasunari, azalera eraikiari eta altuerari buruzko zehaztapen guztiak jasoko ditu, baita Eraikuntza guztiek mugekiko izan beharko dituzten tarteak, sarbideak eta aparkaleku-zonak, eta abar ere.
 - ii) Instalazio horiek Plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik ezarri ahal izango dira:
 - Mareaz gairikozko zonetan, horiek lezoi, muna edo uraren zirkulazio-sistemari eusteko hormen bidez isolatuta daudenean eta hiri-okupazioa dutenean –N1.3–.
 - Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zonan –T4.ECR–.
 - Trantsizioko Landa Paisaiako Zonan –T1-PRT–. Kasu horietan, lursail horiek Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zona –T4.ECR– gisa birkalifikatzea aurreikusi beharko du Plan Bereziak.

Erabilera berriarekin okupatuko den lurzatiak, erabilera ezarri aurretik, ur-zuzkidurako zerbitzuak, hondakin-urak sare orokorrera ebakutzeko sistema eta argindarra eta kanpo-argiteria izan beharko ditu, baita bide publikora ematen duen eta gutxienez 25 metro dituen alde bat, eta % 15etik beherako batez besteko malda ere.
 - iii) Ez da, inola ere, jarduerarako behar diren Eraikuntzak egitea baimenduko horiek lurzatiari okupatzen duten azalera 6 kaleko eta 25 m luzeko igerileku bat eta erdiri dagokiona baino handiagoa denean.
 - b) Pilotaleku edo aire libreko joko-zelai libre estali edo estali gabeetan egin daitezkeen kirol-jarduerak. Horien garapenerako behar diren Eraikuntzak ezartzeko, honako araudi hau finkatu da:
 - i) Horrelakoak oin berriko esku-hartze bidez bakarrik ezarri ahal izango dira, lezoi, muna edo uraren zirkulazio-sistemari eusteko hormen bidez isolatuta dauden eta hiri-okupazioa duten mareaz gairikozko zonetan –N1.3–. Gauzatu ahal izateko, Plan honetako V. tituluan araututako Plan Berezia onartu beharko da.
 - ii) Eraikigarritasunarekin, azalera eraikiarekin, altuerarekin, mugetarako distantziarekin, bereizketekin, sarrera- eta aparkaleku-zonekin, lotutako erabilera osagarriekin eta abarrekin lotutako zehaztapenak aipatutako Plan Berezian erregulatuko dira.

4.4.5.5 artikulua.– Gizarte eta kultura arloko ekipamenduak. E.1.3.

1.– Erabilera honetan sartzen dira kultura-sustapeneko edo arte-sorkuntzako jardueretarako ekipamendu-erakinak, hala nola, oin berriko Eraikuntzetan ezarri beharreko harrera- eta informazio-zentroak, interpretazio-zentroak edo museoak.

Era berean, lehendik dauden eta familia-bizitegia ez den beste erabilera baimendu edo toleratu batzuk dituzten eraikinetan erabilera aldatzeko aukera aurreikusten du Plan honek, eraberritzeko esku-hartzeen bidez eta mota honetako erabileretara egokitzeko helburuarekin.

2.– Oin berriko eraikinen kasuan, Plan Berezi bat onartu beharko da, V. tituluan adierazitako baldintzetan. Dokumentu horrek eraikigarritasunari, azalera eraikiari eta eraikina osatzen duten elementuen altuerari buruzko zehaztapen guztiak jasoko ditu, baita Eraikuntza guztiak mugekiko izango dituzten tartearak, bereizketak, sarbide- eta aparkaleku-zonak eta abar ere. Edonola ere, honako zehaztapen hauek ezarri dira:

a) Oin berriko ezarpenak Plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik gauzatu ahal izango dira:

- i) Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zonan –T4.ECR–.
- ii) Trantsizioko Landa Paisaiako Zonan –T1.PRT–, haren lurzati-azalera nekazaritzako gutxienekoaren gainetik badago. Kasu horietan, lursail horiek Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zona –T4.ECR– gisa birkalifikatzea aurreikusi beharko du Plan Bereziak.

3.– Mota honetako jarduerak ezarri ahal izango dira erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten eraikinetan, baldin eta honako zehaztapen hauek betetzen badira:

a) Eraikinak Trantsizio Gainkategorian dauden lurzoruetan egon beharko du, Landa Gunearen Zonen –T3– kasuan salbu. Gainera, lurzati hartzailearen azalera nekazaritzarako beharrezkoa den gutxieneko azalera eraikia baino handiagoa izan beharko du. Eraberritzeko edo berreraikitze esku-hartzeez gain, eraikin horiek azalera eraikiaren % 15 handitu ahal izango dira.

b) Era berean, horrelako jarduerak hartu ahal izango dituzte Gunearen Babes Gainkategorian dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten eraikinek, gutxienez, lurzati hartzailearen azalera nekazaritzako gutxienekoaren gainetik badago. Eraikin hauetan eraberritzeko eraikuntzako esku-hartzeak bakarrik gauzatu ahal izango dira. Era berean, Ondare Arkitektonikoko Zonetan –N5.1– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan ezarri ahal izango dira.

4.– Erabilera ezarri aurretik, lurzatiak ur-zuzkidurako zerbitzuak, hondakin-urak sare orokorrera ebakutzeko sistema, argindarra eta kanpo-argiteria izan beharko ditu, baita bide publikora ematen duen alde bat ere. Lurzati hartzailearen barnean, Eraikina lurraren malda % 20tik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, Eraikinaren okupazioarekiko, gutxienez, bost metroko perimetro batean.

5.– Baimendutako lurzatiaren barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartzeak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzatiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

- a) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
- b) Aparkaleku-plazak hartzeko zona bat edukitzeko gai izan behar dute, betiere horren beharra aurrez justifikatuta; zona horrek ez du, inola ere, lurzati-azaleraren % 10a gaindituko.

4.4.5.6 artikulua.– Behaketa eta ikerkuntza zientifiko eta teknikorako eta/edo natura- eta kultura-ondarearen zabalkunderako eraikuntzak. E.1.4.

1.– Titulartasun publikoko edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen Eraikuntzak dira, natura- eta kultura-ondarearen behaketa, ikerketa, interpretazio eta/edo hedapenera xedaturik daudenak.

2.– Batetik, oin berriko Eraikuntzak bereizten dira, natura behatzeko xedea dutenak, eta, bestetik, eginkizun zientifikoa eta/edo dibulgatzailea duten Eraikuntzak.

3.– Natura behatzera bakarrik zuzenduta daudenak honako zehaztapen hauei jarraiki arautuko dira:

- a) Gehienez ere 20 m²ko azalera eraikia izango dute, eta kanpoalderako akaberak zurezkoak izango dira.
- b) Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu osoan jarri ahal izango dira. Gune edo Gunearen Babes Gainkategorietan ezarriz gero, desmuntagarriak izango dira, eta ez dute natura-ingurunearen gaineko eragin adierazgarriak izango.

4.– Natura- eta kultura-ondarearen gaineko behaketa, ikerkuntza, interpretazioa eta/edo zabalkundera bideratutako oin berriko eraikinei honako arau hauek aplikatuko zaizkie:

- a) Egin aurretik, Plan Berezi bat onartu beharko da, V. tituluan adierazitako baldintzetan. Dokumentu horrek eraikigarritasunari, azalera eraikiari eta eraikina osatzen duten elementuen altueri buruzko zehaztapen guztiak jasoko ditu, baita Eraikuntza guztiak mugetik izan behar dituzten tartearak, bereizketak, sarbide- eta aparkaleku-zonak eta abar ere.
- b) Instalazio horiek Plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik ezarri ahal izango dira:
 - i) Sistemen Eremuetako Ekipamendu Komunitarioko Zonan –T4.ECR–.
 - ii) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonan –T1.PRT–, lurzati-azalera nekazaritzako gutxienekoaren gainetik badago. Kasu hauetan, Plan Bereziak lursail horiek Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zona –T4.ECR– gisa birkalifikatzea aurreikusi beharko du.
 - iii) Artadi Kantauriarraren Zonan –N3.5–, Kantera Gorriko esparruan.
- c) Erabilera ezarri aurretik, lurzatiak ur-zuzkidurako zerbitzuak, hondakin-urak sare orokorrera ebakua-tzeko sistema, argindarra eta kanpo-argiteria izan beharko ditu, baita bide publikora ematen duen eta gutxienez 25 metro dituen alde bat, eta % 20tik beherako batez besteko malda ere.
- d) Baimendutako lurzatiaren barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartzeak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzatiek ezaugarri batzuk bete beharko dituzte, honako hauek, hain zuzen ere:
 - i) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - ii) Barnealdean aparkaleku-plazetarako zona bat hartzeko lekua izan behar dute, betiere lurzatiaren % 10 baino gehiago egin gabe. Kantera Gorriko sailen kasuan, gehieneko ehuneko hori lurzatiaren % 5koa izango da.

5.– Era berean, natura- eta kultura-ondarearen behaketara, ikerkuntzara, interpretaziora eta/edo zabalkundera bideratu ahal izango dira lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten Eraikuntzak, horiek honako lurzoru hauetan kokatuta badaude:

- a) Plan honetan Gune eta Gunearen Babes Gainkategorietan sartuta badaude. Kasu horietan ez da lurzati hartzailearen barnean aparkaleku-zona berriak prestatzea baimenduko, ezta Eraikuntzan handitzeak egitea ere.
- b) Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zona –T4.ECR–, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT–. Kasu horietan, Eraikuntzaren lurzati hartzailearen % 10erainoko azalera prestatu ahal izango da aparkaleku-zona gisa. Era berean, eraberritze edo berreraikitze esku-hartzeek gain, azalera eraikia % 15 handitu ahal izango da gehienez ere.
- c) Ondare Arkitektonikoko Zonak –N5.1–, lurzati hartzailearen barnean gutxienez 6 aparkaleku-plaza egin badaitezke. Kasu horietan ezin izango da handitzeko inolako esku-hartzerik gauzatu.

4.4.5.7 artikulua.– Eskolarekin edo irakaskuntzarekin lotutako arrazoiak direla-eta, bizilekura bideratutako establezimenduak. E.1.5.

1.– Bertan garatzen den eskola- edo irakaskuntza-jardueraren izaera dela-eta, logela kolektiboak edo banakakoak izateko espazioak behar dituzten ekipamenduak dira. Erabilera honen barnean sartzen dira baserri-eskolak, ingurumen-hezkuntzarako zentroak, haurrentzako udalekuak edo ikasleentzako edo Urdaibaiko Biosfera Erreserbako natura- eta kultura-ondarearen ikerlarientzako egoitzak.

2.– Horrelako ekipamenduak ezartzeko, eraberritzeko esku-hartzeak gauzatu beharko dira lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten Eraikuntzetan, betiere honako arau hauek betetzen badituzte:

- a) Trantsizio Gainkategorian:
 - i) Sistemen Eremuetako Ekipamendu Komunitarioko Zona –T4.ECR–, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– edo Landa Gunearen Eremu –T3– gisa kalifikatutako lurzoruetan kokatuta egon behar dute.

Salbuespen gisa, baserri-eskolen kasuan horiek Nekazaritza Balio Handiko Zonetan –T1.A1– jarri ahal izango dira.

- ii) Eraikuntzaren lurzati hartzailearen barnean, ibilgailuentzako gutxienez 6 aparkaleku-plaza sartu ahal izango dira, eta gehienez ere, 12.

b) Gune Gainkategorian:

- i) Ondare Historiko-Arkitetkonekoko Zona –N5.1– gisa kalifikatutako lurzoruetan kokatuta egon beharko dute, lurzoru hartzaileak barnean behar besteko azalera badu, gutxienez, 4 aparkaleku-plaza eta, gehienez, 10 plaza hartzeko. Kasu horietan ezin izango da handitzeko inolako esku-hartzerik gauzatu.

3.– Lurzati hartzaileak, erabilera ezarri aurretik, bere mugarainoko zerbitzuak gaineratu beharko ditu, ur-zuzkidurari, argindarrari eta kanpoko argiteriari dagokienez. Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.

4.– Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako baimendutako esku-hartzeak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira. Edonola ere, lurzatiek ibilgailuentzako sarbidea izan beharko dute bide publikotik.

4.4.5.8 artikulua.– Osasun-, sorospen- eta gizarte-helburuak dituzten ekipamenduak. E.1.6.

1.– Erabilera hau osatzen dute gaixoei, adineko pertsoneri edo drogamenpekotasun-arrazoiengatik gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsoneri, eta derrigorrezko desplazamenduengatik beste herrialde batzuetatik heldutako errefuxiatuei edo gizarte-arriskuan dauden emakumei emandako egoitzetako tratamenduak eta bizilekuak.

2.– Horrelako ekipamenduak ezartzeko eraberritzeko esku-hartzeak gauzatu beharko dira lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten eraikinetan, betiere Plan honek lurzoru horiei emandako kalifikazioa honako hau bada:

- a) Landa Gunearen Eremua –T3–.

3.– Lurzati hartzaileak, erabilera ezarri aurretik, bere mugarainoko zerbitzuak izan beharko ditu, ur-zuzkidurari, argindarrari eta kanpoko argiteriari dagokienez. Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.

4.– Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako baimendutako esku-hartzeak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira. Edonola ere, lurzatiek ezaugarri batzuk bete beharko dituzte, honako hauek, hain zuzen ere:

- a) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
- b) Barnean, aparkalekurako zona bat hartzeko lekua izan behar dute, gehienez ere hogeita hamar ibilgailuentzat.

4.4.5.9 artikulua.– Erlijio- ofizioetarako ekipamenduak. E.1.7.

1.– Kultu-zentroetan garatzen diren gurtza- edo erlijio-prestakuntzako jarduerak dira.

2.– Plan honen ondorioetarako, erabilera hau ezin izango da oin berriko esku-hartzeen bidez ezarri.

3.– Horrelako ekipamenduak ezartzeko, eraberritzeko esku-hartzeak gauzatu ahal izango dira lehendik dauden eta erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten eraikinetan, betiere Plan honek Landa Gunearen Eremu –T3– gisa kalifikatutako lurzoruetan.

4.4.5.10 artikulua.– Hilerriak. E.1.8.

1.– Pertsona-gorpuzkinak hobiratzeko lekuak eta eraikuntzak dira. Legedi sektorial aplikagarriko zehaztapen guztiak bete beharko dituzte.

2.– Instalazio horiek Plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik ezarri ahal izango dira:

- a) Sistemen Eremuetako Ekipamendu Komunitarioko Zona –T4.ECR–.

- b) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT–, nekazaritzako gutxienezko gorako lurzatietan.
- 3.– Gainera, kasuan kasuko Udalak hilerria osatzen duten eraikinak handitu ahal izango ditu, baita bertako nitxo-elementuak ere, sor daitezkeen beharren arabera eta dagokion proiektua onartu ostean.

4.4.5.11 artikulua.– Zerbitzu publikoen ekipamendu berezia. E.1.9.

- 1.– Biztanleriari xedaturiko zerbitzu-erabilerak dira, aurreko modalitateetan sartzen ez direnak eta Administrazio Publikoaren erakundeek garatzen dituztenak. Multzo honetan sartzen dira suhiltzaile- eta polizia-etxeak.
- 2.– Instalazio horiek Plan honetan honela kalifikatutako lurzoruetan bakarrik ezarri ahal izango dira:
 - a) Sistemen Eremuetako Ekipamendu Komunitarioko Zonan –T4.ECR–.
 - b) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonan –T1.PRT–, lurzatiak nekazaritzako gutxienezkoak baino handiagoak badira eta Udal Hirigintza Plangintzak antolatu beharreko eremu gisa kalifikatutako lurzoruen ondoan badaude.
- 3.– Egin aurretik, Plan Berezi bat onartu beharko da, V. tituluan adierazitako baldintzetan. Dokumentu horrek eraikigarritasunari, azalera eraikiari eta eraikina osatzen duten elementuen altuerari buruzko zehaztapen guztiak jasoko ditu, baita Eraikuntza guztiek mugekiko izan behar dituzten tartekak, bereizketak, sarbide- eta aparkaleku-zonak eta abar ere.

4.4.5.12 artikulua.– Aisialdiko baratzeak. E.1.10.

- 1.– Baratze-komplexuak dira, neurri txikiko azpi-lurzatitan banatuak eta instalazio komunez hornituak, hiri-biztanleriaren aisiarako sortuak.
- 2.– Ekipamendu horiek bioaniztasunerako espazioak sortzen lagundu behar dute, baita laborantzarekin lotutako jardun onak bultzatzeko, ingurune naturalaren eta giza jardueren arteko harremanak finkatu eta balioesteko, elikadura osasuntsua eta ohitura osasuntsuagoetara aldaketa bultzatzeko, eta herritarren artean tokiko produktuak eta produktu ekologikoak ekoizti eta kontsumitzeko kontzientzia sortu eta sustatzeko ere.
- 3.– Jarduera horien lurzati hartzaileen azalera nekazaritzako gutxienezko lurzatiari dagokiona baino handiagoa izango da, eta Plan honek Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa sailkatutako lurzoruetan kokatuta egon beharko dute.
- 4.– Horiek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:
 - a) Instalazioaren itxiturarik egin behar izanez gero, horiek Plan honetako 3.5.3.1 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz gauzatuko dira.
 - b) Jarduera hori gauzatzeko ezinbestekoa izango da lurzatiak, jarduera ezarri aurretik edo ezarpenaren unean bertan, argindarra eta ur-hornidura izatea.
 - c) Erabilera hori garatzeko, jardueraren erabiltzaileek behar duten material guztia gordetzeko instalazio bat egin ahal izango da. Hark 40 m²ko azalera eraikia izango du gehienez ere, solairu bakar batean, eta mugetatik gutxienez 5 metrotara kokatu beharko da. Gainera, instalazio horrek erabiltzaileentzako osasun-zerbitzuak izan ahal izango ditu, baita kanpoko ur-hartune bat ere, eskuz ureztatzeko eta lanabesak garbitzeko. Instalazioaren zimenduak azalekoa izan beharko du, eta gehienez ere 30 cm lodiko hormigoi armatuzko lauza bidez egingo dira. Gainera, instalazioak honako arau hauek bete beharko ditu:
 - i) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 3,00 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 4,50 m-koa.
 - ii) Instalazioak bi isurialdeko estalki bidez egin beharko dira, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izango dute. Zeramikazko teila kurbo, misto gorri edo zur bidez emango zaio akabera.
 - iii) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua instalazioetarako. Debeztatuta dago akabera hormigoizko blokez egitea, hura pintatuta egon ala ez.
 - iv) Jartzen diren arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.
 - v) Beheko solairuan egingo dira.

- d) Lurzati bakoitzera sartzeko bideak elementu naturalez egin beharko dira. Debehatuta dago hormigoia, baldosa, asfaltoa edo antzekoak erabiltzea.
- e) Berotegi-instalazioak egin behar izanez gero, lurzati bakoitzean horietako bat jarriko da, lur gainean, eta gehienez ere 15 m²ko azalera eraikia izango dute.
- f) Lurzatiaren barneko urbanizazio-lanetarako baimendutako esku-hartze bakarrak aparkaleku-plazetarako zona bat egokitzera xedaturik daudenak izango dira. Zona horren beharra behar bezala justifikatu beharko da, eta hark ez du jardueraren lurzati hartzailearen azalaren % 10 baino gehiago izango.
- g) Edonola ere, lurzati hartzaileek ibilgailuentzako sarbidea eduki beharko dute bide publikotik.
- h) Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.

4.4.5.13 artikulua.– Turismoko ostatu-establezimenduen, ostalaritza-establezimenduen eta kanpinen erabilera. Baldintza orokorrak. E.2.

- 1.– Turismoko ostatu-establezimendutzat hartuko dira, ohiz eta maila profesionalean, turismo-erabiltzaileei, prezio baten truke, aldi baterako ostatua ematen dieten establezimenduak, betiere ostatu ematen zaion pertsonari egoitza-aldaketarik eragin gabe, eta turismoari buruzko araudian ezarritako baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira.
- 2.– Plan honek, turismoko ostatu-establezimenduen artean, Nekazaritza Turismoen, Landetxeen, Landa Hotelen, Landa Turismoko Apartamentuen eta Landa Turismoko Aterpetxeen modalitateak bereizten ditu.

a) Modalitate horiek guztiek honako zehaztapen orokor hauek bete beharko dituzte:

- i) Turismoaren arloan eskumenak dituen organoak igorritako dokumentua aurkeztu beharko da, horretan behar bezala egiaztatuko baita dagokion erregulazio-araudiaren arabera turismoko ostatu-jarduerarako dedikazioari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dela.
- ii) Erabilera horietako edozein ezarri ahal izateko, jardueraren Bideragarritasun Ekonomikorako Programa bat aurkeztu beharko da.

Dokumentuak honako agiri hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Ezarri beharreko jardueraren ideia eta kontzeptuaren identifikazio, deskribapen eta zehaztapen argia eta zehatza.
- Bideragarritasun teknikoaren eta komertzialaren azterketa eta analisia, gutxienez 10 urteko eperako. Jardueraren kokapenaren egokitasuna, eskaintza, eskaera eta lehiakortasuna aztertuko dira.
- Jarduera ezartzeko eta, gutxienez, 10 urtez mantentzeko jarraitu beharreko estrategien plangintza. Produktua balioztatzeko garatu behar den politika komertziala aztertuko da, baita prezioarekiko eta merkatuarekiko egokitzapena ere.
- Plan Ekonomiko eta Finantzarioa 10 urteko jarduerarako: dokumentuak inbertsio-plan bat jaso beharko du, eta bertan, jarduera abian jartzeko behar diren bitarteko ekonomikoen bolumena jasoko da, betiere horretarako behar diren obrak eta ekipoak, materia-kontsumoak eta oinarrizko zuzkidurak, langile-kostuak, zergak eta abar kontuan hartuta. Era berean, plan finantzario bat jaso beharko da, eta bertan, sortuko diren finantzaketa-beharrak eta horiei aurre egiteko modua ezagutzeaz gain, lortu nahi den emaitza ekonomikoaren analisia egin eta aurreikusten den errentagarritasuna zehaztuko da.

Sustatzaileak jarduera ezartzeko behar den proiektuarekin batera aurkeztuko du dokumentua, eta jardueraren bideragarritasuna egiaztatuko du.

- iii) Oin berriko esku-hartzeen kasuan, nekazaritza-turismoko establezimendu bat ezartzeko unean eraikigarritasunari, azalera eraikiari, mugekiko distantzietan, lerrokadurei, bereizketei, sestrei eta teilatu-hegalaren eta gailurraren altuerari buruzko zehaztapenak Plan honetan nekazaritza- edo abeltzaintza-erabilerekin lotutako bizileku-erabilerei dagokionez jasotako berberak izango dira. Lurzati hartzailearen barnean, Eraikina lurraren malda % 20tik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, Eraikinaren okupazioarekiko, gutxienez, bost metroko perimetro batean.

- iv) Lehendik dauden eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duten eraikinetan modalitate horietako edozein ezartzeko, hurrengo artikuluetan erabilera bakoitzari dagokionez identifikatutako kalifikazioak hartu beharko dira kontuan, Eraikuntza hartuko duen lurzatiaren azalera dena dela. Modalitateak ezartzeko, honako eraikuntzako esku-hartze hauek baliatuko dira:
 - Eraberritzea.
 - v) Lehendik dagoen eraikin bateko nekazaritza-turismo eta landetxe modalitateen kasuan, eraikinaren azalera eraikia % 15 handitzeko esku-hartzea ere baimenduko da.
Gainera, modalitate horien kasuan Berreraikitze esku-hartzea baimenduko da, baina Landa Gunearen Eremuan –T3– kokatutako eraikinetan bakarrik.
 - vi) Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako baimendutako esku-hartzeak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira. Edonola ere, lurzatiek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - Barnean aparkaleku-zona bat hartzeko lekua izan behar dute; hark eskainitako plaza-kopurua gehi bi hartu ahal izango ditu gehienez ere.
 - vii) Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.
- b) Nekazaritza-turismo eta landetxeei dagokienez, honako zehaztapen zehatz hauek ere bete beharko dira:
- i) Nekazaritza-turismoko eta landetxeko establezimenduek ostatu-zerbitzua eskaini ahal izango dute logeletan eta/edo lagatako dependenzietan, betiere horiek establezimenduan txertatuta badaude.
 - ii) Establezimenduen edukiera landa-inguruneko turismoko ostatu-establezimenduak arautzen dituen apirilaren 16ko 199/2013 Dekretuak ezartzen duena izango da.
 - iii) Nekazaritza-turismoko eta landetxeetako establezimenduek bete behar dituzten baldintza teknikoak 199/2013 Dekretuak edo haren ordezkotako arauak jasotakoak izango dira.
- 3.– Era berean, Plan honek ostalaritza-jarduerarako behar diren Eraikuntzak jasotzen ditu. Ostalaritza-jardueratzat hartzen da, normalean, lokalean bertan kontsumitzeko janaria salduz garatzen den jarduera, jatetxe, erretegi, upategi edo hondartzako txosnetan janarien osagarri gauzatzen den edari-salmenta barne. Era berean, normalean lokalean bertan kontsumitzen diren edarien salmenta sartzen da, taberna eta garagardotegietan, esaterako.
- 4.– Erabilera-kategoria honetan sartzen da, halaber, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan kanpinak, kanpatzeko eremuak eta autokarabanak hartzeko eremu bereziak jartzea. 396/2013 Dekretuak edo haren ordezkotako arauak erregulatuko ditu erabilera horiek, baita Plan honetako dagozkion artikuluetan ezarritako zehaztapenek ere.
- 5.– Artikulu honetan jasotako jarduerak lortu ahal izateko, eraikin horiek beren izaerari berari dagozkion ekipamendu, zuzkidura eta erabilera bateragarri guztiak hartu ahal izango dituzte barne; horiek hurrengo artikuluetan arautuko dira zehatz-mehatz.

4.4.5.14 artikulua.– Nekazaritza-turismoa. E.2.1.

- 1.– Nekazaritza-turismotzat hartzen dira ostatu-zerbitzuak –mantenuz zein gabeak– eta beste zerbitzu osagarri batzuk prezio baten truke eskaintzen dituzten establezimenduak, horiek nekazaritza-ustiategietan integratutako eraikinetan kokatuta daudenean.
- 2.– Nekazaritza-turismoko establezimendutzat hartuko da, halaber, etxebizitzara eta nekazaritzako ustiategi baten beharrak asetzerat bideratuta dagoen eraikin batek eratua dagoena. Etxebizitzak eraikinaren zati bat edo eraikin osoa okupatu beharko du, eta kanpoaldera irteera izan beharko du.
- 3.– Eraikinak oin berrikoak izan daitezke, baita lehendik daudenak eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia dutenak ere:
 - a) Oin berriko eraikinen kasuan, Plan honek Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuko Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– edo Landa Gunearen Eremu –T3.NR– gisa

kalifikatutako lurzoruetan kokatu beharko dira. Nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiategiari lotutako bizitegi-erabilera ezartzeko beharrezko baldintzak eta zehaztapenak bete beharko dira.

Ustiaketa Nekazaritza eta Abeltzaintza Balio Handiko Zona –T1.A1– gisa kalifikatutako lurzoruetan garatzen bada, eta haren lurzati hartzaileak eraikina hartu ahal izateko Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– edo Landa Gunearen Eremu –T3– gisa kalifikatutako lursailik ez badu, instalazioa Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Balio Handiko Zona –T1.A1– gisa kalifikatutako lurzoruetan gauzatu ahal izango da. Nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiategiari lotutako bizitegi-erabilera ezartzeko beharrezko baldintzak eta zehaztapenak bete beharko dira.

- b) Jarduera erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duten eraikinetan kokatzen bada, eraikin horiek baserri-tipologiakoak izango dira, Plan honek tipologia horri buruz ematen duen definizioaren arabera, eta Gunearen Babes edo Trantsizio Gainkategorietan edo Kultura Intereseko Eremuan sartutako lurzoruetan egon beharko dute, araudi eta organo kultural eskudunek eremu horri dagokionez ezartzen dituzten terminoetan.

- 4.– Nekazaritza-turismoko jardueran aritu ahal izateko, ezinbestekoa izango da horretan ari direnek nekazari izaera izatea, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik. Nekazari izaera modu iraunkorrean eta mugagabean mantendu beharko da, jarduerari nekazaritza-turismoko jarduera-kalifikazioa eman ahal izateko.

4.4.5.15 artikulua.– Landetxea. E.2.2.

- 1.– Landetxetzat hartzen dira, prezio baten truke, alojamendu-zerbitzua –mantenuarekin edo gabe– eskaintzen duten establezimenduak, betiere horiek Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremu edo zona jakin batzuetan kokatutako eraikinetan badaude.
- 2.– Landetxe-modalitatea lehendik dauden eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duten eraikinetan bakarrik garatu ahal izango da. Eraikin horiek bat etorri beharko dute, Plan honetako III. tituluko 4. kapituluko 2. atalean identifikatzen diren tipologiekin, txalet eta etxebizitza-blokearen tipologiekin izan ezik, eta Gunearen Babes edo Trantsizio Gainkategorietan edo Kultura Intereseko Eremuan sartuta egon beharko dute, azken eremu horri dagokionez Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ezartzen dituen baldintzetan.

4.4.5.16 artikulua.– Landa-hotela. E.2.3.

- 1.– Landa-hotel gisa hartzen dira lehendik dauden eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duten eraikinetan kokatuta dauden establezimenduak, horiek honako lurzoru hauetan daudenean:
 - a) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuaren Trantsizioko Landa Paisaiako Zonan –T1.PRT–.
 - b) Landa Gunearen Eremuan –T3–.
 - c) Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zonan –ECR–.
 - d) Interes Kulturalako Eremuan –N5–.
- 2.– Eraikin horiek bat etorri beharko dute Plan honetako III. tituluko 4. kapituluko 2. atalean identifikatutako tipologiekin, txaletaren eta etxebizitza-blokearen tipologiekin izan ezik.
- 3.– Hotel-establezimendutzat hartuko dira ostatua –jangela-zerbitzuduna nahiz gabea– eta beste zerbitzu osagarri batzuk eskaintzen dituzten eta eraikin bat osorik edo haren zati independente bat okupatzen duten establezimenduak; horien logelek osotasun homogeen bat osatzen dute eta erabilera eskusiboko sarrera, igogailua eta eskailerak dituzte, horrelako establezimenduak erregulatzen dituen araudiak jasotzen dituen baldintzak betez.
- 4.– Landa-hotelak 102/2001 Dekretuak edo haren ordezkoko arauak ezartzen duenaren arabera arautuko dira.

4.4.5.17 artikulua.– Landa-turismoko apartamentua. E.2.4.

- 1.– Landa-turismoko apartamentu gisa hartzen dira Landa Gunearen Eremuan –T3– lehendik dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten turismo-apartamentuak.

- 2.– Jardueraren ezaugarriak ikusita, horrelako eraikinek bat etorri behar dute Plan honetako III. tituluko 4. kapituluko 2. atalean identifikatzen diren Ohiko Etxe Tradizionalen edo Dorretxeen tipologiekin, edo zerbitzuak eskaintzeko jarduerak barne hartzen dituen beste edozein eraikinekin.
- 3.– Establezimendu horien gehieneko edukiera turismoari buruzko araudian ezarritakoa izango da.

4.4.5.18 artikulua.– Landa-turismoko aterpetxea. E.2.5.

- 1.– Landa-turismoko aterpetxe gisa hartzen dira landa-ingurunean kokatuta dauden turismoko aterpetxeak, horiek Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuko Trantsizioko Landa Paisaiako Zonan –T1.PRT– edo Landa Gunearen Eremuan –T3– lehendik dagoen eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duen eraikin batean kokatuta daudenean.
- 2.– Eraikin horiek bat etorri beharko dute Plan honetako III. tituluko 4. kapituluko 2. atalean identifikatutako tipologiekin, txaletaren eta etxebizitza-blokearen tipologiekin izan ezik.
- 3.– Turismoko aterpetxetzat hartzen dira modu arruntean eta profesionalean, eta prezio baten truke, edukiera anitzeko logeletako ostatu-zerbitzua –zerbitzu osagarri hornitua nahiz hornitu gabea– ematen duten establezimenduak.
- 4.– Establezimendu horien gehieneko edukiera turismoari buruzko araudian ezarritakoa izango da.

4.4.5.19 artikulua.– Jatetxeak eta edari-establezimenduak. E.2.6.

- 1.– Artikulu honek normalean lokalean bertan kontsumitzeko egiten den janari-salmenta hartzen du barne, baita jatetxe, erretegi edo upategien gisako establezimenduetan janarien osagarri gisa eskaintzen den edari-salmenta ere. Era berean, normalean lokalean bertan kontsumitzen diren edarien salmenta hartzen du barne, tabernetan eta garagardotegietan gauzatzen dena, esaterako.
- 2.– Udalerrri bakoitzeko hiri-lurzorurako eta lurzoru urbanizagarriarako araudiak adierazten duen arautuko ditu jardueraren ezaugarriak. Dena den, eta Plan honen ondorioetarako, horrelako jarduerak Lurzoru Urbanizaezinean ezarri ahal izateko, honako arau hauek bete beharko dira:
 - a) Jarduera ez da, inola ere, Eraikuntza iraungi batean ezarriko.
 - b) Lehendik dagoen eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duen Eraikuntza batean ezarri beharko da, eta lurzoruak honako kalifikazio hauetakoren bat izan beharko du:
 - i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuko Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT–.
 - ii) Landa Gunearen Eremua –T3–.
 - iii) Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitariorako beharrezkoak diren Zonak –T4.ECR–
 - iv) Ondare Arkitektonikoko Zonak –N5.1–.
- 3.– Jarduera hauek har ditzakeen establezimenduak, bizitegi-erabilerarekiko erabilera bateragarri gisa ezarri gero, errespetatu egin beharko ditu Plan honetan zatitzeko esku-hartzeetarako ezarritako baldintzak, eta hura aplikatu ostean geratzen diren espazio hutsak bakarrik okupatu ahal izango ditu. Horrenbestez, jatorrizko etxebizitzetarako edo etxebizitza matrizeetarako erreserba aurreikusi ostean hutsik geratu den beheko solairuko azalera bakarrik okupatu ahal izango da: sukaldeko espazioaz gain, egongela eta komunikazio-eskailera, logela nagusi bat, bainugela oso bat, gutxienez 12 m² izango dituen galdara ipintzeko, egurra pilatzeko eta arropa zabaltzeko espazio bat, eta etxebizitza bakoitzeko gutxienez 12 m² izango dituen baterako espazio bat, laborantzarako materialak eta lanabesak gordetzeko. Lehen solairuan ezin izango dira jatorrizko etxebizitzari dagozkion espazioak okupatu.
- 4.– Aipatutako modalitateetako edozein erabilera baimendu, toleratu edo iraungia duten lehendiko Eraikuntzetan ezartzeko, honako eraikuntzako esku-hartze hauek gauzatu beharko dira:
 - i) Berreraikitzea, Landa Gunearen Eremuetan –T3– kokatutako eraikinetan bakarrik.
 - ii) Eraberritzea.

- 5.– Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzati hartzaileek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
- i) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - ii) Barnean aparkalekurako zona bat hartzeko lekua izan behar dute, gehienez ere hogeit hamar aparkaleku-plazarako.
 - a) Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.
 - b) Lurzati hartzailean lehendik dagoen eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duen Eraikuntzan gauzatzen diren esku-hartze guztiek gutxienez 5 metroko tartea izan beharko dute lurzati hartzailearen muga guztietatik.

4.4.5.20 artikulua.– Kanpinak. E.2.7.

- 1.– Kanpinak turismo-establezimenduak dira; aldi baterako okupatzeko helburuarekin, horiek behar bezala mugatu, hornitu eta egokitutako lursail bat dute, eta aterpe mugikorrek eta/edo aterpe finkoak erabiliz, opor-edo aisialdi-helburuarekin aire librean bizi nahi duten hamar pertsona baino gehiago hartzeko gai dira.
- 2.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremuan, kanpinak 10.000 m²tik gorako lurzati hartzaileetan bakarrik jarri ahal izango dira, Plan honek honela kalifikatzen dituen lursailetan:
 - a) Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zonan –T4.ECR–.
 - b) Trantsizioko Landa Paisaiako Zonan –T1-PRT–. Kasu horietan, Plan Berezian lursail horiek Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zona –T4.ECR– gisa birkalifikatzea aurreikusi beharko da. Era berean, garapen-erremintak instalazioaren egokitasuna aztertu beharko du, eta paisaiaren azterketa bat txertatu beharko du erabilera lurraldean behar bezala txertatzen dela bermatzeko.
- 3.– Lurzatiak, jarduera ezarri aurretik, ibilgailuentzako sarrera izan beharko du bide publiko batetik, baita ur- eta argindar-zuzkidurako zerbitzuak ere. Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.
- 4.– Gainera, horrelakoak ezartzeko Plan Berezi bat idatzi beharko da, Plan honen V. tituluaren ezarritakoarekin bat etorritik. Edonola ere, dokumentu horrek eraikigarritasunari, azalera eraikiari eta erabilera bateragarriari, hala nola, igerilekuak, haurrentzako joko-eremuak, osasun-zerbitzuekin lotutako zerbitzu-instalazioak edo erabilera osagarriak, hartzeko eraikinen altuerari buruzko zehaztapenak jasoko ditu, baita Eraikuntza guztiek mugekiko izan beharko dituzten tartea, bereizketak, sarbide- eta aparkaleku-zonak eta abar ere.
- 5.– Dena den, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:
 - a) Lurzati hartzailearen gehieneko eraikigarritasuna 0,20 m²/m²e-koa izango da erabilera kolektiboko instalazioetarako eta ostatu finkoetarako.
 - b) Gehieneko aparkaleku-plaza kopurua: aparkaleku-zona zehatz bat jarriko da, gehienez ere, kanpalekuko plaza-kopuruaren % 35erako. Gainerako plaza guztiak kanpaleku-plazetan aurreikusi beharko dira.
 - c) Kanpatzeko zonak, barneko bideek, kirol-zonek eta erabilera komuneko beste zerbitzu batzuek ez dute kanpinaren azalera osoaren % 70etik gora hartuko; gainerako % 30a espezie autoktonoz osatutako zuhaitzietarako eta aisialdirako eremuak izango dira.
 Kanpinaren azalera dagokion % 70 horretan ezin izango da lur-mugimendurik sortu, baldin-eta horiek sortzen diren plataformen zabalera, jatorrizko maldaren norabidean, 4 metro baino txikiagoa bada, eta horien altuera 1,00 m-tik gorakoa bada, jatorrizko sestrari dagokionez. Plataformak berriz hazitako ezponda bidez eutsi beharko dira, eta horiek 1:1 maldak izango dituzte gehienez ere.
 Lurzatiaren gainerako % 30ean, sarbideetarako beharrezko lur-mugimenduak bakarrik gauzatu ahal izango dira.
 - d) Eraikuntza guztiak mugetatik gutxienez 10 metro bereizi beharko dira. Lurzatiaren perimetro hau, hamar metro zabaleko hau, bertako espezie hostozabalez estaliko da. Kanpotik begiratuta kanpatze-zona ez ikusteko moduan jarriko dira zuhaitzak.

- e) Lorategi-inguruak ureztatzeko, giza kontsumorako egokia ez den ura erabili beharko da. Neurri bera aplikatu ahal izango da bai zerbitzu sanitarioetan bai ura edangarria izatea beharrezko ez dela iritzitako beste gauza batzuetan ere. Horrelako kasuetan, ur horiek erabiltzeko puntuak behar bezala seinaleztatuta egon behar dute, «edateko txarra» adierazita, nazioartean erabiltzen den zeinu konbentzionalaren bidez.

6.– Kanpinen autokarabanak eta iragaitzako karabanak hartzeko zona erantsi berezi bat izan dezakete, artikulua honetan aurreikusten diren baldintzak eta 396/2013 Dekretuan arautzen dena betez gero, eta zona horrekin partekatu ahal izango dute harrera. Zerbitzuak eta azpiegiturak partekatuz gero, aipatutako Dekretuan ezartzen diren gutxieneko eskakizunak errespetatu beharko dira.

4.4.5.21 artikulua.– Kanpatzeko eremuak. E.2.8.

1.– Plan honek ez du kanpatzeko eremurik jasotzen baimendutako erabileren artean, eremu horiek 396/2013 Dekretuan definitzen diren baldintzetan.

4.4.5.22 artikulua.– Iragaitzako autokarabanak eta karabanak hartzeko eremu bereziak. E.2.9.

1.– Iragaitzako autokarabanak eta karabanak hartzeko Eremu bereziak behar bezala mugatu, hornitu eta egokitutako lursailak dira; horiek jendeari irekita egoten dira, prezio truke eta aldi baterako okupatzeko, bidaian atsedean hartu eta ibilgailuetan metatutako hondakinak hustu ahal izateko, eta gutxienez mota horretako bost ibilgailu hartzeko gai izan behar dute.

2.– Plan honen ondorioetako, modalitate honetatik kanpo geratuko da autokarabanak eta karabanak apartatzea, errepide, autobide, hiri-bide eta aparkalekuetan horretarako prestatutako eremuetan. Gainera, ez da kanpatutzat joko hiriarteko bide publikoetako zona baimenduetan eta trafiko- eta zirkulazio-arauekin bat etorritik geldirik edo aparkatuta dagoen autokarabana, baldin-eta zenbait elementu eraldatu edo zabalduz, hark perimetroa gainditzen edo handitzen ez badu, bere gorpilen gainean oinarritzen bada altxagarrikeri erabili gabe, eta bidera substantziarik edo hondakinik isurtzen ez badu.

3.– Iragaitzako autokarabanak eta karabanak hartzeko Eremu bereziak ibilgailu horiek eta antzekoek bakarrik erabili ahal izango dituzte. Beraz, ezin izango da aurreko multzoan sartzen ez den kanpin-dendarik edo aterpe mugikorrik instalatu. Era berean, harrera-eremu berezi horietan ezin izango da erabiltzaileei ostatu emateko inolako aterpe finkorik edo antzekorik instalatu. Gainera, eremu horietako egonaldia 48 ordukoa izango da gehienez ere.

4.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremuan, honako hauetan bakarrik finkatu ahal izango dira joan-etorrian diren auto-karabanak eta karabanak:

- a) 2.000 m²tik gorako lurzati hartzaileetan, horiek Plan honetan Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.NPC– edo Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zona –4.ECR– gisa kalifikatutako lurzoruetan kokatzen direnean.
- b) Plan honetan Trantsizioko Landa Paisaiako Zona –T1.PRT– gisa kalifikatzen diren eta Udal Hirigintza Plangintzak Antolatutako Eremu –UHPA– gisa kalifikatzen dituen lurzoruen alboan edo hurbil dauden lurzoruetan kokatutako nekazaritzako gutxienekoaren gainetiko lurzatietan.

5.– Modalitate hori ezartzeko, Patronatuaren txostena lortzeko nahitaezko dokumentazioaz gain, jardueraren Bideragarritasun Ekonomikorako Programa bat aurkeztu beharko da.

Dokumentuak honako dokumentazio hau izan beharko du, gutxienez:

- a) Ezarri beharreko jardueraren ideia eta kontzeptuaren identifikazio, deskribapen eta zehaztapen argia eta zehatza.
- b) Bideragarritasun teknikoaren eta komertzialaren azterketa eta analisia, gutxienez 10 urteko eperako. Jardueraren kokapenaren egokitasuna, eskaintza, eskaera eta lehiakortasuna aztertuko dira.
- c) Jarduera ezartzeko eta, gutxienez, 10 urtez mantentzeko jarraitu beharreko estrategien plangintza. Produktua balioztatzeko garatu behar den politika komertziala aztertuko da, baita prezioarekiko eta merkatuarekiko egokitzapena ere.
- d) Plan Ekonomiko eta Finantzarioa 10 urteko jarduerarako: dokumentuak inbertsio-plan bat jaso beharko du, eta bertan, jarduera abian jartzeko behar diren bitarteko ekonomikoen bolumena jasoko da, betiere

horretarako behar diren obrak eta ekipoak, materia-kontsumoak eta oinarrizko zuzkidurak, langile-kostuak, zergak eta abar kontuan hartuta. Era berean, plan finantzario bat jaso beharko da, eta bertan, sortuko diren finantzaketa-beharrak eta horiei aurre egiteko modua ezagutzeaz gain, lortu nahi den emaitza ekonomikoaren analisisia egin eta aurreikusten den errentagarritasuna zehaztuko da.

Aztertu eta dagokion txostena emateko prozedura honako hau izango da:

- a) Sustatzaileak jarduera ezartzeko behar den proiektuarekin batera aurkeztuko du dokumentua, eta jardueraren bideragarritasuna egiaztatuko du. Edonola ere, Patronatuaren Osoko Batzarrak edo Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzaileak programari buruz irizitako beharrezko argibideak eskatu ahal izango dituzte.

6.– 396/2013 Dekretuan edo hura ordezkatzeko duen arauan jasotako arauketaz gain, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:

- a) Lurzati hartzaile batean iragaitzako autokarabanak eta karabanak hartzeko Eremu bakar bat prestatu ahal izango da. Eremu bakoitzak autokarabana eta karabanentzako 30 m²ko 8 plaza izan ditzake gehienez ere.
- b) Plaza horien zorua berdinduta eta trinkotuta egongo da, beharrezko drainatzeaz hornituta; ezin izango da zoru zurrun edo malgurik erabili, hormigoizko edo asfaltozko lauzen gisakorik, eta akaberarako, landaretza eta elementu zurrun iragazkor eta zulatuak konbinatzen dituzten teknikak erabiliko dira.
- c) Plazetara iristeko bide bat bakarrik egin ahal izango da, aparkatzeko eta irteteko maniobrak egin ahal izateko behar diren espazioez gain. Bideak eta maniobra-zonak, sarbideak eta plazek garbi egon beharko dute, 3,5 m-ko altueraraino, eta mugetatik 5 metro baino gehiagoko tartera egongo dira.
- d) Horrelako eremuak garatzeko behar diren lokalak –harrera eta informaziorako, zona komunetarako eta osasun-zerbitzuetarako– lurzati hartzailean dagoen eta erabilera baimendua edo toleratua duen eraikinaren barnean egongo dira, eta Plan honek zatitzeko esku-hartzei dagokienez ezarritako baldintzak bete beharko dituzte; gainera, horiek aplikatu ostean hutsik geratzen diren espazioak bakarrik okupatuko dituzte. Instalazio horiek dagoen bizitegi-erabileratik independenteak izango dira, eta mugikortasun murriztua duten pertsonen beharretara egokituta egongo dira.

Era berean, eta eraikinik ez badago, instalazio bat egin ahal izango da, bertan, erabilera garatu ahal izateko osasun-zerbitzuak eta harrera-zerbitzuak ezarri ahal izateko. Instalazio horrek honako ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- i) Gehienezko azalera eraikia 50 m²koa izango da.
 - ii) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 3,00 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 4,50 m-koa.
 - iii) Instalazioak bi isurialdeko estalki bidez egin beharko dira, eta isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izango dute. Zeramikazko teila kurbo, misto gorri edo zur bidez emango zaio akabera.
 - iv) Fatxada-itxiturek zurezko akabera izan beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua instalazioetarako. Akabera ez da, inola ere, hormigoizko blokez egingo, hura pintatuta egon ala ez.
 - v) Jarri beharreko arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.
 - vi) Beheko solairuan egingo dira.
 - vii) Lurzatiak, jarduera ezarri aurretik, ibilgailuentzako sarrera izan beharko du bide publiko batetik, baita ur- eta argindar-zuzkidurako zerbitzuak ere. Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.
- e) Lurzatiak, jarduera ezarri aurretik, ibilgailuentzako sarrera izan beharko du bide publiko batetik, baita ur- eta argindar-zuzkidurako zerbitzuak, hondakin-urak ebakutzeko zerbitzuak –sare orokorrerako loturarekin– eta argindarra ere.
 - f) Erabiltzaileek ibilgailuari dagozkion deposituak hustu eta berronitu ahal izateko, eremu guztiek honako hauek izan beharko dituzte, gutxienez:
 - i) Hondakinak tratatzeko garbigune bat, hau da, ur erabilien (ur gris) depositua eta komuneko hondakin biologikoen (ur beltzen) depositua husteko hustubide irisgarri bat, eta horiek garbitzeko ur-zuzkidurarako elementu bat.
 - ii) Edateko ur-txorrota, ur-depositua betetzeko.

g) Lurzati hartzailearen barnean, plaza inguruan bakarrik jarri ahal izango da argiteria. Hura lurretik 1 metro baino gutxiagoko altueran kokatu beharko da.

7.– Plan honen ondorioetarako, autokarabanak eta iragaitzako karabanak hartzeko eremu bereziko jarduera eta familiaren bizitegi-erabilera bateragarriak izango dira. Era berean, eremu horien pertsona titularrek turismoko edo ostalaritzako beste establezimendu batzuk edo kanpinak ustiatu ahal izango dituzte, modu osagarrian edo batera; horrelakoetan, horiek eremuaren kanpoaldetik sarrera independentea izan beharko dute. Jarduera horiek garatzen direnean, aplikagarria den araudi espezifikoak bete beharko dute.

4.4.5.23 artikulua.– Turismo-erabilerarako etxebizitza partikularretan ostatu hartzea. E.2.10.

- 1.– Turismo- edo opor-erabilerako etxebizitzak dira. Lehendik dauden eraikinak dira, edozein tipologiatakoak, haren altzariak, ekipoak, instalazioak eta zerbitzuak denak direla, turismo edo oporretarako bizileku gisa eskaintzen edo merkaturatzen direnak, jabeak, ustiatzaileak edo kudeatzaileak, zuzenean nahiz zeharka, aldi baterako lagatzen baitizkie hirugarren batzuei, turismo-eskaintzarako kanalen bidez, modu errepikatu edo ohikoan, eta ordain ekonomiko baten truke, berehala erabiltzeko baldintzetan.
- 2.– Plan honen aplikazio-esparrutik kanpo daude hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 29ko 29/1994 Legeak edo haren ordezkoko araudiak ezarritakoaren arabera errentan ematen diren etxebizitzak.
- 3.– Horrelako jarduerak hartu ahal izango dituzte Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezin osoan zehar kokatuta dauden eta familiaren bizitegi-erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten eraikinek, betiere turismoari buruzko araudiak baimentzen badu.

4.4.5.24 artikulua.– Familiaren bizitegi-erabilera. E.3 Alderdi orokorrak.

- 1.– Erabilera honetan sartzen da familia-unitateen bizitegi iraunkorra edo aldi baterakoa barne hartzeko eraikinetan gauzatzen den jarduera, horiek Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinean kokatuta daudenean eta lehen mailako baliabideen ustiapenerako erabilerarekin loturarik ez dutenean.
- 2.– Plan honek, hurrengo artikuluetan zehazten diren modalitate bakoitzerako erregulazio espezifikoarekin, honako hauek jasotzen ditu:
 - a) Familiaren bizitegi-erabilera berria ezartzea, horretarako honako esku-hartze hauek gauzatu:
 - i) Oin berrikoa, eraikinaren lurzati hartzaile batean. Horrelako kasuetan, erabilera berria erabilera baimendutzat hartuko da.
 - ii) Zatitzekoa, erabilera baimendua edo toleratua duen eraikin batean. Kasu horietan, erabilera berriak mantendu egingo du zatituko den eraikinaren erabilera baimenduaren edo toleratuaren izaera.
 - b) Lehendik dagoen eraikin batean oinarritutako familiaren bizitegi-erabilera iraungia berrezartzea, eraberritzeko esku-hartzearen bidez. Kasu horretan, erabilera berrezarria baimendutzat hartuko da hura Bizitegi Kokaleku Nuklearren Eremu –T3– gisa kalifikatutako lurzoruetan gauzatzen denean, eta toleratutzat gainerako kasuetan.

Honako egoera hauetan, lehendik dauden eraikinetan ez da, inola ere, familiaren bizitegi-erabilera iraungia berrezarri ahal izango:

 - i) Antolamenduz kanpoko egoeran.
 - ii) Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean.
 - iii) Ezaugarri arkitektonikoak edo arkeologikoak direla-eta, ezinezko egiten duen babes-maila bat dutenean.
- 3.– Eraikinaren lurzati hartzaileak bizitza bat edo batzuk hartzen dituen kontuan hartuta, Plan honek honako erabilera-modalitate hauek jasotzen ditu eraikinarentzat, oro har:
 - a) Bizitza bakarreko etxebizitza isolatua.
 - b) Bi bizitzako etxebizitza isolatua, lurzati hartzaile bakar batean.
 - c) Bi bizitzako etxebizitza isolatua, bi lurzati hartzailetan.
 - d) Bizitza anitzeko etxebizitza, bi lurzatitan.

- e) Bizitza anitzeko etxebizitza, hainbat lurzatitan.
 - f) Etxebizitza kolektiboa.
- 4.– Erabilera horiek independenteak dira kokatzen diren bizitegi-erakinen tipologiarengandik, Plan honetako III. tituluko 4. kapituluko 2. atalean erabiltzen den terminologiaren arabera.
- 5.– Eraikuntza-erabileren diseinuari buruz dagoeneko adierazi denaz gain, bizitegi-erakinen diseinuan honako zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:
- a) Teilatu-hegalaren gehieneko altuera 5,60 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 8,50 m-koa. Teilatu-hegalaren gutxieneko altuera 4,50 m-koa izango da.
 - b) Balkoiak edo antzekoak eginez gero, horien babesak zurezkoak edo beltzez pintatutako metalezkoak izango dira.
 - c) Luzetara orientatuko dira batez ere, ipar-hego norabidean. Orientazio hori aldatu egin ahal izango da, lursailaren ezaugarri orografikoek ezinezko egiten badute.
 - d) Estalkiak, bi isurialde maldadunak, hirugarren isurkin bat izan dezake, miru-buztan eran. Hark gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda izan beharko du. Gutxienez 1,00 m ateratzen diren teilatu-hegalak izango ditu.

Dena den, eta bolumen-konposizio osoan txertatuta geratzen denean, estalkiaren % 40rainoko zatia laua egin ahal izango da. Kasu horretan, landare-estalkia egin beharko da, eta mantentze-lanetarako bakarrik iritsi ahal izango da bertara.
 - e) Estalkian eguzki-panelak jarriz gero, horiek modu antolatuan kokatu beharko dira estalki gainean, hura fatxadako leihoen aurretiko bistako kokapenarekin bat etor dadin.
- 6.– Eraikina hartzen duen lurzatiak, erabilera ezarri aurretik, ur- eta argindar-zuzkidurako zerbitzuak eta kanpo-argiteria izan beharko ditu, baita bide publikora ematen duen gutxienez 5 metroko alde bat ere. Oin berriko esku-hartzeen bidez ezartzen diren familiaren bizitegi-erabileren kasuan, lurzatiak % 20tik beherako batez besteko malda duen edozein zonatan kokatu ahal izango da eraikina, gutxienez, eraikinaren okupaziotik bost metrotako perimetroan.
- 7.– Hondakin-uren ebakuazioa, jarduera ezarri aurretik sare orokorrekiko lotura edo konexiorik ez badago eta lotura hori ezinezkoa bada, 4.1.2 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.
- 8.– Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako baimendutako esku-hartzeak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira. Edonola ere, lurzatiek ezaugarri batzuk bete beharko dituzte, honako hauek, hain zuzen ere:
- a) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - b) Barnean aparkaleku-plazetarako zona bat hartu ahal izango dute, bi ibilgailuentzako tokia izanik, oin berriko nahiz zatiketako esku-hartzeen bidez ezarri berriko etxebizitza bakoitzeko. Ibilgailu batentzako aparkaleku-plaza batek 20 m²ko azalera izan behar duela uste da. Etxebizitza berrietarako aparkaleku-zona landaretza eta bide-zoru iragazkorrek konbinatzen dituzten teknikak erabiliz egin beharko da.
- 9.– Familiaren bizitegi-erabilerak eraikinaren azalera eraiki guztia hartu ahal izango du, edo ez; edonola ere, eraikin batean familiaren bizitegi-erabilera badago, eraikin horren erabilera familiaren bizitegiarena dela joko da, dagokion modalitatean.
- 10.– Plan honen ondorioetarako, familia-unitate bat hartzen duen etxebizitza bakoitzak ezin izango du sukalde bat baino gehiago barne hartu. Txoko-erabilera osagarri lotua badu, hark etxebizitzarekin zuzenean komunikatuta egon beharko du.

4.4.5.25 artikulua.– Bizitza bakarreko etxebizitza isolatua. E.3.1.

- 1.– Lurzati hartzaile batean familia-unitate batentzako bizilekua barne hartzen duen eraikin isolatuan kokatzen den etxebizitza-erabilera da.
- 2.– Plan honen ondorioetarako, erabilera hau oin berriko esku-hartzeen bidez bakarrik ezarri ahal izango da, Landa Gunearen Zona –T3.NR– gisa kalifikatutako lursailetan kokatuta dauden lurzatietan. Erabilera hori hartuko duen eraikinaren lurzati hartzaileak Landa Gunearen xehetasunezko antolamendua barneratzen

duen Plan Berezian zehaztu beharko dira, Plan honetako V. tituluan horri buruz adierazten denarekin bat etorritik.

- 3.– Era berean, familiaren bizitegi-erabilera mota hau berrezarri ahal izango da, eraberritzeko esku-hartzeen bidez, 4.4.5.25 artikuluan adieraziarekin bat etorritik, erabilera hori iraungi den lehendiko eraikinetan.

4.4.5.26 artikulua.– Bi bizitzako etxebizitza isolatua, lurzati hartzaile bakar batean. E.3.2.

- 1.– Lurzati hartzaile batean, bi familia-unitaterentzako bizilekua barne hatzen duen eta eraikin isolatuan kokatuta dagoen etxebizitza-erabilera da.
 - 2.– Plan honen ondorioetarako, oin berriko esku-hartzeen bidez bakarrik ezarri ahal izango da erabilera hori:
 - a) Landa Gunearen Zona –T3.NR– gisa kalifikatutako lursailetan dauden lurzatietan oin berriko esku-hartzeak gauzatu.

Erabilera hori barne hartzen duen eraikinaren lurzati hartzaileak landa-gunearen xehetasunezko antolamendua barneratzen duen Plan Berezian zehaztu beharko dira.
 - b) Bizitza bakarreko baserrietan, errota, dorretxe eta etxe tradizionaletan dauden bizitza bakarreko etxebizitza isolatuak zatitzeko esku-hartzeen bidez. Edonola ere, eraikin hauek egoera baimenduan edo toleratuan egon beharko dute, eta ez dira honako egoera hauetan egongo:
 - i) Antolamenduz kanpoko egoeran.
 - ii) Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean.
 - iii) Gune Gainkategorian barneratutako kalifikazioen barnean, Ondare Arkeologikoko Zonak –N5.1– izan ezik, betiere, bere arkitektura- edo arkeologia-ezaugarriak direla-eta, hori ahalbidetzen duen babes-maila badu.
- 3.– Gainera, 4.4.5.25 artikuluan jasotako terminoetan, modalitate hori ezarri ahal izango da erabilera iraungia duten eta lehendik dauden eraikinetan.

4.4.5.27 artikulua.– Bi bizitzako etxebizitza isolatua, bi lurzati hartzailetan E.3.3.

- 1.– Bi familia-unitaterentzako bizilekua barne hartzen duen eta eraikin isolatuan kokatuta dagoen etxebizitza-erabilera da. Familia-unitate bakoitza eraikinaren zati bat hartzen duen lurzati hartzaile batean kokatzen da. Bi lurzatiak mugakideak dira, bi bizitzak bereizten dituen eraikinaren zonan gutxienez.
- 2.– Plan honen ondorioetarako, erabilera berri hori ezin izango da eraikuntzako inolako esku-hartzeen bitartez ezarri. Aitzitik, familiaren bizitegi-erabilera mota hau eraberritzeko esku-hartzeen bitartez berrezarri ahal izango da, 4.4.5.25 artikuluan adieraziarekin bat etorritik erabilera hori iraungi egin den lehendiko eraikinetan.

4.4.5.28 artikulua.– Bizitza anitzeko etxebizitza isolatua, lurzati hartzaile batean. E.3.4.

- 1.– Hiru edo lau familia-unitaterentzako bizilekua barne hartzen duen eraikin isolatuan dagoen eta lurzati hartzaile bakar batean kokatuta dagoen etxebizitza-erabilera da.
- 2.– Plan honen ondorioetarako, erabilera berri hau errotak, dorretxeak eta etxe tradizionalak zatitzeko esku-hartzeen bidez bakarrik ezarri ahal izango da.
- 3.– Edonola ere, erabilera hau lehendik dagoen eraikin batean ezartzeko baldintzak deskribatzen dituen proiektuak baldintza bat bete beharko du: lurzati bertan, kanpotiko sarbide komun eta zuzena izan beharko du bizitza guztietarako, eta fatxadaren ezin izango da xede horretarako bao berririk zabalduko.

Era berean, eraikin horiek baimenduta edo toleratuta egon beharko dute, eta ez dira honako egoera hauetan egongo:

 - a) Antolamenduz kanpoko egoeran.
 - b) Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean.

- c) Gune Gainkategorian barneratutako kalifikazioen barnean, Ondare Arkeologikoko Zonak –N5.1– izan ezik, betiere, bere arkitektura- edo arkeologia-ezaugarriak direla-eta, hori ahalbidetzen duen babes-maila badu.

4.4.5.29 artikulua.– Bizitza anitzeko etxebizitza, bi lurzati hartzailetan. E.3.5.

- 1.– Hiru edo lau familia-unitateren bizileku barne hartzen dituen Eraikin isolatu batean garatzen den etxebizitza-erabilera da; familia-unitate horietako bat edo bi Eraikinaren zati bateko lurzati hartzailean kokatzen dira, eta beste bat edo beste bi Eraikinaren bestaldeko lurzati hartzailean. Bi lurzatiak mugakideak dira, gutxienez, bizitza bat edo batzuk eta bestea edo beste batzuk hartzen dituen Eraikuntzako zonan.
- 2.– Plan honen ondorioetarako, bi bizitzako baserrietan –edo, hala badagokio, errota, dorretxe eta etxe tradizioaletan– dauden bi bizitzako etxebizitza isolatuak bi lurzati hartzailetan zatitzeko esku-hartzeen bidez ezarri ahal izango da erabilera hau. Edonola ere, eraikin horiek antolamendu barruko edo toleratuko egoeran egon beharko dute, eta ez honako egoera hauetan:
 - a) Antolamenduz kanpoko egoeran.
 - b) Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean.
 - c) Gune Gainkategorian barneratutako kalifikazioen barnean, Ondare Arkeologikoko Zonak –N5.1– izan ezik, betiere, bere arkitektura- edo arkeologia-ezaugarriak direla-eta, hori ahalbidetzen duen babes-maila badu.

4.4.5.30 artikulua.– Etxebizitza kolektiboa. E.3.6.

- 1.– Lau familia-unitate baino gehiagorentzako bizilekua barne hartzen duen Eraikin isolatuan eta lurzati hartzaile bakar batean kokatuta dagoen etxebizitza-erabilera da. Erabilera hartzen duen Eraikinak zenbait solairu, eta sarbide eta elementu komunak izan behar ditu.
- 2.– Etxebizitza kolektiboko erabilera duten eta beheko oinetan beste erabilera batzuk barne hartzen dituzten etxebizitza-blokeen kasuan, hirigintzako udal-plangintzak bizitza berriak ezartzeko aukera aurreikusi ahal izango du. Dena den, horregatik ez dira elementu komunak edo lehendik dauden bizitzak neurriak murriztu ahal izango.
- 3.– Edonola ere, Eraikin horiek antolamendu barruko edo toleratuko egoeran egon beharko dute, eta ez honako egoera hauetan:
 - a) Antolamenduz kanpoko egoeran.
 - b) Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean.
 - c) Gune Gainkategorian barneratutako kalifikazioen barnean, Ondare Arkeologikoko Zonak –N5.1– izan ezik, betiere, bere arkitektura- edo arkeologia-ezaugarriak direla-eta, hori ahalbidetzen duen babes-maila badu.

4.4.5.31 artikulua.– Bizitegi-erabilerarekin lotutako erabilera osagarriak. E.4. Baldintza orokorrak.

- 1.– Plan honek bizitegi-erabilerarekin lotutako erabilera osagarritzat hartzen ditu bizitegi-erabileraren lagungarriak edo osagarriak diren eta azken harekiko hurbileko harreman espazialean dauden erabilerak.
- 2.– Honako hauek identifikatzen dira:
 - a) Garaje-erabilera.
 - b) Txoko-erabilera.
 - c) Igerileku-erabilera.
 - d) Labe-erabilera.
 - e) Instalazio osagarrien erabilera.

4.4.5.32 artikulua.– Garaje-erabilera E.4.1.

- 1.– Bizitegi-erabilerarekin lotutako garaje-erabilera osagarria eraikinean aparkaleku estalira eta babesera xedaturik dagoen espazioan garatzen da.
- 2.– Plan honen ondorioetarako, bizitegi-erabilerarekin lotutako garaje-erabilera osagarria honela ezarri ahal izango da:
 - a) Oin berriko esku-hartze bidez, Landa Gunearen Zonetan ezarri beharreko familia-bizitegirako eraikuntzetako –T3.NR– sotoko edo beheko solairuan bakarrik.
 - b) Eraberritzeko esku-hartze bidez, lehendik dagoen eta baimenduta edo toleratuta dagoen eraikin baten beheko solairuan bakarrik.
- 3.– Erabilera horretara xedaturiko gehieneko azalera 80 m²koa izango da.

4.4.5.33 artikulua.– Txoko-erabilera. E.4.2.

- 1.– Bizitegi-erabilerarekin lotutako txoko-erabilera osagarria da eraikinean egoteko eta familia-unitatea osatzen duen kideak baino mahaikide-kopuru handiago baten otorduak egiteko espazioa.
- 2.– Jangela eta sukalderako espazio bakar bat izan beharko du, baita komun bat ere. Era berean, gehienez ere 8 m²ko jaki-tokirako gela bat izango du.
- 3.– Beheko solairuan egon beharko du, eta zuzenean komunikatuta egon beharko du bizitzako egongelarekin, jangelarekin edo sukaldearekin.

4.4.5.34 artikulua.– Igerileku-erabilera. E.4.3.

- 1.– Plan honek ez du bizitegi-erabilerarekin lotutako igerileku-erabilera osagarria jartzeko inolako eraikinik egitea jasotzen, baina erabilera hori, Planaren ondorioetarako, eta bizitegi-erabileraren osagarria izanik, atal honetan sartzen da.
- 2.– Erabilera hori Landa Guneako Eremuetan –T3.NR– gauzatzen den oin berriko bizitegi-erabileraren osagarri gisa ezarri ahal izango da, baita zatitzeko esku-hartzeen bidez ere, Trantsizioko Landa Paisaiako Eremuetan –T1.PRT–, % 30-45 bitarteko malda duen baso Zonan –T2.F1– eta Landa Guneen Eremuetan –T3–.
- 3.– Igerilekuaren neurriak 3,5 m x 8 m baino txikiagoak izango dira laukizuzenen kasuan, eta 3 m-ko erradioa baino txikiagoak zirkularren kasuan.
- 4.– Lurzati hartzaileko beste edozein Eraikuntzaren loturatik aparteko lotura zuzena eta independentea izan beharko du ur-zuzkidura eta -ebakuaziorako sarearekin, dagokion uraren ziklo integrala arautzen duen ordenantzak jasotzen dituen baldintzetan.
- 5.– Ezin izango du urbanizazio gogorrik izan inguruan, eta ez du inolako lur-mugimendurik eragingo, lursailaren topografiak aldatu gabe jarraitu beharko baitu.
- 6.– Ez da igerilekua estaltzeko elementurik jarri ahal izango, olanak edo pertsianak izan ezik.
- 7.– Igerilekuetatik 2 m-ko tartea utzi beharko da, gutxienez, muga guztietara.

4.4.5.35 artikulua.– Labe-erabilera. E.4.4.

- 1.– Labe-erabilera bizitegi-eraikinaren lurzati hartzailean erabilera horretara xedaturik dagoen Eraikuntza da.
- 2.– Bizitegi-eraikuntzaren lurzati hartzailean ezin izango da labe-erabilerarako oin berriko inolako Eraikuntzarik ezarri.

4.4.5.36 artikulua.– Instalazio osagarrien erabilera. E.4.5.

- 1.– Erabilera honetan sartzen dira funtsezko instalazio teknologikoak eta higiene- eta osasun-instalazioak, horiek ezarri ahal izateko lurzati hartzailean barruti estali eta/edo itxi bat egin behar bada, eta Eraikuntzak gutxienezko bizigarritasun-baldintza guztiak bete ditzan beharrezkoak badira.
- 2.– Ondorio horietarako, deposituak, galdarak edo hidrokarburo bidezko energia-produkzioa hartzeko barrutiak identifikatzen dira.
- 3.– Erabilera hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezin osoan ezarri ahal izango da, betiere erabilera baimendua duen Eraikuntzaren barnean kokatzen bada. Hark ez du, inola ere, 20 m²tik gorako azalera izango.
- 4.– Erabilera hori ezarri ahal izango da Eraikuntzaren kanpoaldean, betiere lurzati hartzailea Trantsizio Gainkategoria gaineratuta badago. Horrelakoetan, barrutia ezin izango da estali eta alde guztietatik itxita egon beharko du, horretarako, zuhaixka-espezie autoktonoz osatutako 1,80 m garai baino gutxiagoko itxitura biziak erabiliz.

4.4.5.37 artikulua.– Zerbitzu-erabilerak. E.4.6.

- 1.– Plan honek zerbitzu-erabileratzat hartzen ditu lehen mailako bitartekoen ustiapenarekin lotuta ez dauden lanbideetarako bulego- eta lantegi-erabilerak, horiek erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten lehendiko eraikinetan ezar daitezkeenean. Horretarako, honako esku-hartze hauek gauzatu ahal izango dira:
 - a) Eraberritzea.
 - b) Bolumena handitzea bakarrik, 3.3.3.11 artikuluko 2. zenbakian deskribatzen diren baldintzetan.
Eraikinaren perimetroan gauza daitekeen azalera eraikia jatorrizko okupazioaren % 30 baino txikiagoa izango da.
- 2.– Jarduera ez da, inola ere, eraikin iraungi batean ezarriko.
- 3.– Lehendik dagoen eta erabilera baimendua edo toleratua duen eraikin batean ezarri beharko da, honako kalifikazio hau duten lurzoruetan:
 - a) Itsasadarreko Babes Eremuan –B1–.
 - b) Kostaldeko Babes Eremuan –B2–.
 - c) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuko Trantsizioko Landa Paisaiako Zonan –T1.PRT–.
 - d) Landa Gunearen Eremuan –T3–.
- 4.– Erabilera hau bizitegi-erabilerarekiko erabilera bateragarri gisa bakarrik ezarri ahal izango da; gainera, Plan honetan zatiitako esku-hartzeetarako ezarritako baldintzak errespetatu beharko ditu, eta hura aplikatu ostean geratzen diren espazio hutsak bakarrik okupatu beharko ditu. Horrenbestez, jatorrizko etxebizitzetarako edo etxebizitza matrizeetarako erreserba aurreikusitako ostean hutsik geratu den beheko solairuko azalera bakarrik okupatu ahal izango da: sukaldeko espazioaz gain, egongela eta komunikazio-eskailera, logela nagusi bat, bainugela oso bat, gutxienez 12 m² izango dituen galdara ipintzeko, egurra pilatzeko eta arropa zabaltzeko espazio bat, eta etxebizitza bakoitzeko gutxienez 12 m² izango dituen baterako espazio bat, laborantzarako materialak eta lanabesak gordetzeko. Lehen solairuan ezin izango dira jatorrizko etxebizitzari dagozkion espazioak okupatu.
- 5.– Lurzati barneko urbanizazio-lanetarako esku-hartze baimenduak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira, igerilekuen kasuan salbu. Edonola ere, lurzati hartzaileek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - a) Bide publikotiko sarbidea izan beharko dute ibilgailuentzat.
 - b) Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira. Lehendik dagoen eraikinean edo lurzati hartzailean gauzatzen diren esku-hartze guztiek gutxienez 5 metroko tartea utzi beharko dute lurzati hartzailearen muga guztietatik.

4.4.5.38 artikulua.– Lanabesak eta makineria txikia biltegitzeko eta landare-espezieen hazkuntza eta autokontsumorako instalazioak. E.6.

- 1.– Tresnak eta makineria txikia biltegitzeko eta landare-espezieak landu eta kontsumitzeko instalazioak egitea aurreikusten du Plan honek; horretarako, oin berriko esku-hartzeak gauzatuko dira. Instalazio horiek jarraian zehazten diren zehaztapenei jarraikiz gauzatu behar dira:
 - a) Bi kasuetan, instalazioa 3.000 m²ko lurzati hartzaileetan kokatu beharko da gutxienez, eta 5 m baino gehiagoko tartera egon beharko du lurzatiaren mugetatik eta bide publikotik; horrez gain, beste arau sektorial batzuk ezartzen dituzten tarreak bete beharko dira.
 - b) Instalazio horiek ezartzeko, lizentzia lortzeko beharrezko dokumentazioari honako hauek gehitu beharko zaizkio: lurzatiaren plano eta instalazioaren kokapen zehatza, eta instalazioaren beharrari buruzko justifikazio zehatua, idatzia eta grafikoa.
- 2.– Natura-baliabideen jolaserako ustiapenarekin lotutako tresnak eta makineria txikia biltzeko instalazioek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:
 - a) Oin berriko horrelako instalazioak eraiki ahal izango dira lurzoruen kalifikazioak honako hauek direnean:
 - i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuak –T1–.
 - ii) Landa Gunearen Eremuak –T.3–.
 - b) Horrelakoak eraikitzeko, instalazioa hartuko duen lurzatiak 2.000 m²ko azalera izan beharko du gutxienez. Lurzati hartzailean zatitzeko esku-hartzea gauza daitekeen bizitegi-eraikin bat badago, ez da instalazio hori gauzatu ahal izango.
 - c) Instalazio horiek honako ezaugarri hauek izango dituzte:
 - i) Neurritz laukizuzenak izango dira, 2,5 x 3,5 m-koak.
 - ii) Isurialde bateko edo biko estalki bidez egin beharko dira, eta gailurra luzetara jarri beharko da. Teilatu-hegalaren altuera 2,40 m-koa izango da, eta gailurrarena, berriz, 2,80 m-koa. Estalkiaren akabera gorri kolorekoa izango da.
 - iii) Fatxadako itxiturek zuriz edo zurez zarpiatutako akabera izango dute, 0,15 m zabaleko oholak erabilita. Bao bakarria izan dezakete, sarrerako baoari dagokiona, hain zuzen ere.
 - iv) Horrelakoak egiteko, 0,20 m lodiko hormigoi armatuzko zolata bat egin ahal izango da, betiere hark lanabesetarako lokalaren fatxada-planoen mugak gainditzen ez baditu.
 - d) Instalazio horiek ez dute bizileku-izaera izango, eta ezin izango dute bizitegirako elementurik izan, tximiniarik, antenarik edo higiene-zerbitzurik, esaterako, ezta inolako zerbitzu berririk ere, instalazioari ur-hartune bat eta harraska bat hornitzeko beharrezko ur-zuzkidura baino ez. Kasu horretan, jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2 artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.
 - e) Era berean, horrelako instalazioak ezarri ahal izango dira honako leku hauetan:
 - i) Lehendik dauden eta erabilera baimendua, toleratua edo iraungia duten Eraikuntzetan, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetan –T1– eta Landa Gunearen Eremuetan –T3– daudenean.
 - ii) Itsasadarreko Ertzak Babesteko Eremuetan –B1– eta Kostaldea Babesteko Eremuetan –B2– dauden eta erabilera toleratua duten Eraikuntzetan, betiere itsaso-lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-zonatik kanpo badaude.
 - iii) Ibai Sarearen Eremuan –B4.1– dauden eta erabilera toleratua duten Eraikuntzetan.
 - iv) Ondare Arkitektonikoko Zonetan –N5.1– dauden eta erabilera baimendua edo toleratua duten Eraikuntzetan.

- 3.– Natura-baliabideen aisialdirako ustiapenarekin lotutako landareen landaketarako eta autokontsumorako instalazioak hezetasuna, tenperatura eta landareen landaketa ahalbidetzeko ingurumen arloko beste zenbait faktore modu iraunkorrean mantentzeko barrutiak izango dira, material gardenekin artifizialki estaliak eta babestuak. Horrelakoak ezartzeko, honako zehaztapen hauek bete beharko dira:
- a) Lur gainean eta paraleloan jarritako arku-erdiz itxuratutako instalazioak izango dira, eta gehienez ere 36 m²ko azalera eraikia izango dute. Plastikoko gardenez estaliko dira eta ezingo da bertako lurzoru ez den beste bat jarri, ezta zimendurik, zolatarik eta hornidura elektrikorik ere.
 - b) Horrelakoak eraikitzeko, instalazioa hartuko duen lurzatiak 2.000 m²ko azalera izan beharko du gutxienez.
 - c) Horrelako instalazioak honako kalifikazio hauek dituzten lurzoruetan eraiki ahal izango dira:
 - i) Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa Paisaiako Zonak –T1. PRT–.
 - ii) Landa Gunearen Eremuak –T.3–.

6. ATALA

DRAGATZEAK ETA ISURKETAK TRANTSIZIOKO URETAN

4.4.6.1 artikulua.– Dragatzeak eta isurketak trantsizioko uretan. F.1.

- 1.– Okaren estuarioan honako harea-sedimentu hau erazteko eta, horren ostean, horiek estuarioko beste zona batzuetan isurtzeko jarduerak dira. Atal honetan sartzen da, halaber, lohi-buztin sedimentua erauzi eta gero hura estuariotik kanpo garraiatzea ere.
- 2.– Normalean, ez da estuario-hondoko sedimentuak dragatzeko eta isurtzeko lanik egingo.
- 3.– Sakonera-gabeziagatik, Muruetako ontziolan eraikitzen diren ontziak ateratzeko ezintasuna dela-eta ezinbestekoa bada, ezintasun hori behar bezala arrazoitu beharko da, azterketa tekniko bidez; gainera, eskura dauden teknika onenak bilatu beharko dira, ontzia inolako dragatze- eta isurtze-lanik egin gabe atera ahal izan dadin. Azterketa horietatik dragatze-lanen bat egin behar dela ondorioztatzen bada, lan horiek ahalik eta txikienak izango dira (erauzi/isuritako sedimentuari eta draga daitekeen eremuari dagokienez), eta ontziolako ontzi bat estuariotik zehar itsasora atera ahal izateko sakonera-premia puntualari bakarrik erantzungo diote. Jarduera horiek N.1.5 zonako trazatura mugatuko dira (meandro-itxurako hustubide nagusia) eta ez dute ubide nagusiaren aldameneko betetzeko ubidetan inolako eraginik izango. Gonako zehaztapen hauek aplikatu beharko dira:
 - a) Dragatze-lanak ebakigailuz hornitutako draga hurrupatzaile batekin egingo dira. Material erauzia eta dragaren gurbilean metatua azken edo aldi baterako isurketa-lekuetara eramango da hodi flotagarri baten bidez.
 - b) Dragatze-lanetik eratorritako materialak –granulometriko eta geokimikoak zehaztu eta horien kaltegabetasuna bermatu ondoren hareatzat kalifikatuak– Laidako hondartzako ipar-ekialdeko marearteko eta mareaz gaindiko zonan isuriko dira, betiere olatuak hausteko moduan nahi gabeko ondorioz eragiten ez badute, itsasbeherako delta edo Mundakako barraren gaineko hausturari dagokionez batez ere. Lohi-buztin materiala estuariotik kendu eta zabortege baimendu batera eramango da. Lohi-buztin material horiek, garraiatu aurretik, lehortu behar izanez gero, lehortze-lanak ontziolako instalazioen barruan egingo dira, lehortzeko kubeta edo antzeko bat instalatuta, eta behar bezala kontrolatutako baldintzetan.
 - c) Ezin izango da dragatze-lanik egin ekainaren 15etik azaroaren 30era bitartean.
 - d) Arreta berezia eskainiko zaie dragatze- eta isurtze-lanetan zehar natura-ondareko funtsezko elementuei eta habitatei eragin dakizkiekeen ondorioei. Era berean, egin beharreko dragatze-eragiketa guztien kontrol arkeologiko sistematikoak egingo dira.
Hala badagokio, administrazio eskudunei aurkikuntza edo ondorio horien berri eman beharko zaie berehala, horiek arduraz joka dezaten.
- 4.– Aparteko kasuetan, eta erabilera publikoko arrazoiak direla-eta, hondartzak marearteko zonatik eratorritako hareaz elikatu ahal izango dira, eskala txikian, betiere hark estuarioko sedimentu-dinamikan eta

hidrodinamikan nahiz natura-intereseko elementuen gainean eragiten ez duela egiaztatzen bada, Mundakako barraren gainean olatuak hausteari dagokionez batez ere.

4.4.6.2 artikulua.– Hondakin solidoak isurtzea. F.2.

- 1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparruko edozein tokitan hondakin solidoak isurtzea da.
- 2.– Debekatuta dago zona baimenduetatik kanpo hondakin solidoak isurtzea.

4.4.6.3 artikulua.– Likido-isurketak eta atmosferarako isurketak. F.3.

- 1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuko edozein puntutan likidoak isurtzea edo atmosferara partikulak isurtzea da.
- 2.– Horrelako erabileretarako, administrazio eskudunaren baimena beharko da, eta arlo honetan indarrean den araudia aplikatuko da.

5. KAPITULUA

UR MASEN ETA NATURA 2000 SAREAREN BABESARI BURUZKO ARAU OSAGARRIAK

4.5.1 artikulua.– Lurpeko ur-masen babesa (LUMB).

- 1.– Uren zuzendariaren 2004ko azaroaren 21eko ebazpenaren bidez ezarritako araudia aplikatuko da, horren bidez, Ibarra, Eusko Trenbideak eta Ajangiz-A Hartuneak (Bizkaia) babesteko Gernikako Unitate Hidrogeologikoaren babeseko perimetroa adieraztea erabakitzen baita (EHAA, 2005eko apirilaren 8a).
- 2.– Era berean, Plan Hidrologikoak ezarritakoa aplikatuko da Zona Babestuen Erregistroko lurpeko hartuneei eta horien zaintza-eremuei dagokienez, baita horien babeserako bere momentuan ezarriko diren babes-perimetroak ere.
- 3.– ES017MSBTES111 S000008 Ereñozar lurpeko ur-masaren babeseko perimetroaren sektorizazioa eta arauketa xehatua ezarri bitartean, izaera iragankorrez aplikatuko dira jarraian zerrendatzen diren zehaztapenak, aipatutako ur-masak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako eremuaren barnean duen zatiari dagokionez:
 - a) Nekazaritza- eta basozaintza-jardueretan, tratamendu herbizidak, fitosanitarioak edo ongarriztatze-tratamenduak aplikatzen direnean beharrezko neurriak hartu beharko dira kontuan akuiferoak kutsa ditzaketen dosiak saihesteko.
 - b) Zona horietan simaurtegi, minda-putzu, lurperatze-hobi edo kutsatzaileak sor ditzaketen beste ganadu-azpiegitura batzuk eraikitzeke, beharrezko edukiera- eta diseinu-neurriak ezarri beharko dira, akuiferoak eta lurpeko ibaiak ez kutsatzeko.
 - c) Akuiferoak oso kalteberak diren zonetan abereei parasitoak kentzeko bainuontziak daudenean, bainuontziak iragazgaitzak direla eta erabilera bakoitzaren ondoren hondakin-urak biltzen direla bermatu behar da.
 - d) Debekatuta dago mozketako hondarrak edo beste substantzia solido edo likido batzuk leize eta haitzuloetara botatzea, baita barrunbe naturalak estaltzea ere.
 - e) Edozein eraikuntza-lan publiko edo pribatutan zehar haitzulo naturalen bat aurkituz gero, lanak geratu egingo dira azterketa espezifiko bat egin eta beharrezko babes-neurriak hartu arte.
 - f) Debekatuta dago hiri-hondakin solidoak eta substantzia arriskutsuak biltzeko eta tratatzeko ekipamenduak kokatzea.

4.5.2 artikulua.– Hiri-zuzkidurarako ura hartzeko eremuen babesa (UHEM).

- 1.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zuzkiduraren gaineko Lurralde Ekintza Planak mugatu eta erregulatuko ditu hiri-zuzkidurarako ura hartzeko eremuak babesteko esparruak.

4.5.3 artikulua.– Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) (Natura2000).

1.– Ingurumena eta fauna zaintzea eta hobetzea:

- a) Ekaitz-txoriaren eta ubarroi mottodunaren kolonietan, eta itsasoko 250 m zabaleko perimetro-zerrenda batean, honako arau hauek aplikatuko dira:
 - i) Debekatuta egongo dira ekaitz-txoriaren ugalketa-habitataren kontserbaziori edo populazioari zuzenean edo zeharka eragin diezaioketen esku-hartzeak edo jarduerak, hala nola, kostaldeko habitata modu iraunkorrean eraldatzea urbanizazioak eta kolonietarako irisgarritasuna areagotzen duten bideak eraikiz, eta obra-hondakinak, zaborrak edo kutsatzaile solidoak eta likidoak isuriz.
 - ii) Apirilaren 1etik abuztuaren 31ra, ekaitz-txoriaren kolonien eta perimetro-zerrendaren inguruan debekatuta egongo da ontziak amarratzea, kanpatzea, ehiza eta espeleologia, eta urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era, ubarroi mottodunaren kolonien eta perimetro-zerrendaren inguruan.
 - iii) Beste plan edo proiektu batzuen kasuan, banaka nahiz beste batzuekin konbinatuta, horiei eragin badiezaiekete, derrigorrezko txostena egin beharko da, horretan behar bezala ebaluatu beharko baitira espezieen kontserbazio-helburuei eragindako ondorioak eta, hala badagokio, baldintzak ezarri edo plan edo proiektu horiei jarraipena egiteko.
- b) Urdaibaiko Itsasertzeko Zonak eta Padurak KEBean eta Urdaibaiko Ibai Sarea KEBean Europako bisoiak ugaltzeko nahiz babesleku moduan erabiltzen duen habitataren ezaugarriak aldatzen dituen jarduera orok Bizkaiko Foru Aldundiaren aldez aurretiko baimena beharko du.
- c) Debekatuta dago *Oxygastra curtisi*en habitataren gainean (Oka ibaiaren ibarra Ajangiz-Gernikan) jarduerak garatzea, baita ertz bakoitzean 4 m zabaleko perimetro-zerrenda batean ere, ingurumena lehengoratzeko jarduerak izan ezik. Informazio gisa, *Oxygastra curtisi*en habitataren irudia jasotzen da (3. irudia).



3. irudia. *Oxygastra curtisi* espeziearen habitata.

2.– Taxon aloktonoen kontrola.

- a) Debehatuta daude Ibaiadarraren Eremuko marea dinamikatik isolatutako espazioak sortzen dituzten jarduera guztiak, horren eraginez espazioa eralda dezaketen taxonek (*Baccharis halimifolia*, eta abar) aurrera egin badezakete, landaretza aloktonoaren inbasioari aurre egiten laguntzeko ingurumena lehengoratzeko jarduerak izan ezik.
- b) Debehatuta dago honako espezie hauek landatzea: *Baccharis halimifolia*, *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana*, *Robinia pseudoacacia* eta *Arundo donax*.
- c) Debehatuta dago astazikulturako edo herpetologiako espezie aloktonoak txertatzea, birpopulatzea edo banakoen translokazioa, baita bisoi amerikarraren kasuan ere. Debehatuta dago, halaber, Urdaibaiko ibai-sarean amuarrair aruntak askatzea, garbitasun genetiko berreskuratzeko kasuetan salbu.
- d) Zebra-muskuilua presente dagoen ur-masarekin kontaktuan egon diren ontzi, makina edo lantalde guztiak modu egokian desinfektatu beharko dira, zebra-muskuiluaren kontrolerako Jarraipen eta Koordinazio Batzordeak onartutako «zebra-muskuiluak infektatutako ur-masetan erabili diren ekipoak eta ontziak desinfektatzeko protokoloan» zehaztutakoarekin bat etorritz.

3.– Irailean eta urrian guztiz debehatuta egongo da piroteknia- edo argi-ikuskizunak egitea HBBEarekin bat datorren Sukarrieta, Busturia, Murueta, Forua, Kortezubi eta Gautegiz-Arteaga udalerrien zatian, edo HBBEtik 500 m baino gutxiagoko tartera dagoen zatian; orientazio gisa, hurrengo irudian 500 metroko zerrenda hori ikus daiteke:



6. KAPITULUA

LEHENDIK DAUDEN ETA ERABILERA BAIMENDUAK ETA TOLERATUAK DITUZTEN ERAIKUNTZA, AZPIEGITURA ETA LURZATIETAN ERABILERAREN ALDAKETARIK ERAGITEN EZ DUTEN ESKU-HARTZEAK, ETA ERABILERA TOLERATUEN ARAUBIDEA

4.6.1 artikulua.– Lehendik dauden eta erabilera baimenduak dituzten Eraikuntzetan erabilera-aldaketarik eragiten ez duten esku-hartzeak.

- 1.– Lehendik dauden eta erabilera baimenduak dituzten Eraikuntzetan gauza daitezkeen eraikuntzako esku-hartzeak horiek kontserbatzeko eta erabileraren edo jardueraren eraginkortasuna mantentzeko beharrezkoak izango dira, zahartzea saihesteko, eraisteko eta berreraikitzeko esku-hartzeak gauzatuz edo zaharberritzeko, kontserbatzeko, apaintzeko, finkatzeko, eraberritzeko eta handitzeko esku-hartzeak gauzatuz, betiere III. tituluari jasotzen denarekin bat etorritik, eta jardueraren beraren eta kokatuta dauden kalifikazioaren arabera baimentzen den kasuetan.
- 2.– III. titulukoko 4. kapitulukoko 2. atalean identifikatzen diren gehieneko eraikigarritasunari eta azalera eraikiari buruzko parametroak eta bestelako zehaztapenak titulu honetan ezartzen direnak izango dira, horiek oin berrikoak nahiz erabilera-aldaketaren bidezkoak izan.
- 3.– Landa Gunearen Eremuetan –T3– familiaren bizitegi-erabilerak hartzen dituzten lehendiko eraikinen kasuan, baimendutako eraikuntzako esku-hartzeak eraisteari eta berreraikitzeari, edo zaharberritzeari, kontserbatzeari, apaintzeari, finkatzeari eta eraberritzeari lotuak izango dira.

4.6.2 artikulua.– Erabilera baimenduak dituzten Eraikuntzen lurzati hartzaileen barnealdeko urbanizazio-obretarako esku-hartzeak.

- 1.– Erabilera baimenduak dituzten Eraikuntzen lurzati hartzaileen barnealdeko urbanizazio-lanetarako esku-hartzeak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotakoak izango dira.
- 2.– Urbanizazio-lanetarako esku-hartzeen gehieneko parametroak Eraikuntzak hartzen dituen erabilerak ezartzera begira titulu honek jasotzen dituenak izango dira, horiek oin berrikoak nahiz erabilera aldatu beharrekoak izan.

4.6.3 artikulua.– Lehendik dauden eta erabilera toleratuak dituzten Eraikuntzetan erabilera aldatzea eragiten ez duten esku-hartzeak.

- 1.– Lehendik dauden eta erabilera toleratuak dituzten Eraikuntzetan gauza daitezkeen eraikuntzako esku-hartzeak, erabilera-aldaketarik eragiten ez dituztenak, horiek kontserbatzeko eta erabilera edo jardueraren eraginkortasuna mantentzeko beharrezkoak izango dira, horien zahartzea saihestuz, eraisteko eta berreraikitzeko esku-hartzeen bidez edo zaharberritzeko, kontserbatzeko, apaintzeko, finkatzeko eta eraberritzeko esku-hartzeen bidez, betiere III. tituluari definitzen denarekin bat etorritik, eta jarraian agertzen diren arauak egokituta, kokatuta dauden kalifikazioaren arabera:
 - a) Gune Gaiakategorian kokatutako Eraikuntzen kasuan, kontserbatzeko eta/edo apaintzeko esku-hartzeak bakarrik gauzatu ahal izango dira, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legearen 13. artikuluan arautzen denaren arabera. Ibai Sarearen Eremuan –N4– dauden Eraikuntzen kasuan, eraisteko eta ordezkatzeko esku-hartzeak gauzatu ahal izango dira, edo zaharberritzeko, kontserbatzeko, apaintzeko, finkatzeko eta/edo eraberritzeko esku-hartzeak, horrelakoak III. tituluari definitzen diren baldintzetan.
 - b) Gunearen Babes eta Trantsizio Gaiakategorietan dauden Eraikuntzen kasuan, eraisteko eta ordezkatzeko esku-hartzeak bakarrik gauzatu ahal izango dira, edo zaharberritzeko, kontserbatzeko, apaintzeko, finkatzeko eta/edo eraberritzeko esku-hartzeak, horrelakoak III. tituluari definitzen diren baldintzetan.

Era berean, Bizitegi Kokalekuen Eremuetan kokatutako Eraikuntzak berreraiki ahal izango dira.

4.6.4 artikulua.– Erabilera baimenduak dituzten Eraikuntzen lurzati hartzaileen barnealdeko urbanizazio-obretarako esku-hartzeak.

1.– Erabilera baimenduak dituzten Eraikuntzen lurzati hartzaileen barnealdeko urbanizazio-lanetarako esku-hartzeak Plan honetako 3.3.3.12 artikuluan jasotzen direnak izango dira:

- a) Gune eta Gunearen Babes Gainkategorietan kokatutako Eraikuntzen lurzati hartzaileetan:
 - i) Lehendik dagoen urbanizazioa egokitzea edo birjartzea.
 - ii) Zerbitzu orokorrekiko konexioak egokitzea.
 - iii) Lurzatia ixtea, Planeko 3.5.3.1 artikuluan araututako terminoetan.
- b) Trantsizioko Gainkategorian kokatutako Eraikuntzen lurzati hartzaileetan:
 - i) Dagoen urbanizazioa egokitzea edo birjartzea.
 - ii) Zerbitzu orokorrekiko konexioak egokitzea.
 - iii) Lurzatia ixtea, Planeko 3.4.5.1 artikuluan araututako terminoetan.
 - iv) Bizitegi-erabilerarekin lotutako igerileku-erabilera osagarri bat ezartzea, Nekazaritza Balio Handiko Zonetan –T1.A1– eta ehuneko berrogeita bost eta hirurogei arteko malda duten Baso Zonetan –T2.F2– salbu.

4.6.5 artikulua.– Lehendik dauden azpiegituretan erabilera-aldaketarik eragiten ez duten esku-hartzeak.

1.– Lehendik dauden eta erabilera baimenduak edo toleratuak dituzten azpiegituretan gauza daitezkeen eraikuntzako esku-hartzeak horiek kontserbatzeko eta erabilera edo jardueraren eraginkortasuna mantentzeko beharrezkoak izango dira, eta zahartzea ere saihestuko da konponketako esku-hartzeen bitartez.

V. TITULUA

ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEETARAKO ARAUBIDEA, PLANA GARATZEKO TRESNAK

1. KAPITULUA

ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEETARAKO ETA KONTSULTETARAKO ARAUBIDEA

5.1.1 artikulua.– Izapideak sinplifikatzea.

- 1.– Plan honen aplikazioak, eraginkortasun handiagoa eta herritarrei zerbitzu hobea ematearren, izapideak eta prozedurak sinplifikatzea eta izapidetze elektronikoa ezartzea hartuko ditu kontuan.

5.1.2 artikulua.– Administrazioaren esku-hartzeetarako araubidea.

- 1.– Legez eska daitezkeen lizentziaz eta baimenez gain, titulu honetan identifikatzen diren lurzoru-erabilerak eta eraikuntza-ekintzak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren eremuan gauzatu nahi direnean, horiek hurrengo artikuluetan jasotzen den administrazioaren esku hartzeko araubidea bete beharko dute.

Era berean, administrazioaren esku hartzeko araubidea bete beharko dute Plan honetan tipifikatzen diren garapen-tresnek, baita Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren eremuan eragiten duten hiri-antolamenduko planak eta plan sektorial, jarduketa-programa edo lurralde-plangintzako gainerako tresnek –ingurumen nahiz hirigintza, turismo, hezkuntza edo beste edozein arlotakoa– ere.

- 2.– Horretarako, Plan honek hiru prozedura-mota hauek bereizten ditu:

- a) Plan hau gauzatzeko garatzen diren jardueri buruzkoak; horiek behar bezala jakinarazi beharko dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuaren Osoko Batzar edo zuzendari-kontserbatzailearen bitartez.
- b) Plan honetan tipifikatzen diren garapen-tresnei buruzkoa, baita Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren eremuan eragiten duten hiri-antolaketako planak eta gainerako plan sektorial, jarduketa-programa edo lurralde-plangintzako tresnei buruzkoa –ingurumen nahiz hirigintza, turismo, hezkuntza edo beste edozein arlotakoa– ere; horiek Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuaren Osoko Batzarraren bitartez jakinarazi beharko dira.
- c) Eusko Jaurlaritzaren ingurumen arloko organoak Gune Gainkategoriatan eremuan gauzatzen diren jarduketa jakin batzuetarako eman behar duen baimenari buruzkoa.

- 3.– Honako hauek izango dira Patronatuaren Osoko Batzarraren txostena beharko duten kasuak:

- a) Gune eta Gunearen Babes Gainkategorietan gauzatzen diren ingurumena lehengoratzeko proiektu guztiak.
- b) Ingurumenaren gaineko inpaktuaren ebaluazioa izan behar duten lurzoruaren erabilerak edo eraikuntza-ekintzak gauzatzeko beharrezko proiektu guztiak, horiek garatzen diren lurzoruaren gainkategoria dena dela.
- c) Ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik behar ez duten –proiektua behar duten ala ez kontuan hartu gabe– eta Gune Gainkategorian gauzatu nahi diren lurzoruaren erabilera edo eraikuntza-ekintza guztiak, Uraren Euskal Agentziak (URA) Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuan –N4– txostena emandako edo baimendutako likido-isurketen kasuan izan ezik.
- d) Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremuan egin nahi diren ikerkuntza-proiektu guztiak.
- e) Plan hau garatzeko Plan Bereziak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ingurune fisikoan eragina duten hiri-antolaketako plan orokorrak eta beste edozein plan sektorial edo jarduketa-programa.

Patronatuaren Osoko Batzarraren akordio bidez, Batzorde Iraunkorraren esku utzi ahal izango dira Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legeak aipatzen dituen eginkizunak.

4.– Honako hauek izango dira zuzendari-kontserbatzailearen txostena beharko duten kasuak:

- a) Trantsizio Gainkategorian gauzatzen diren ingurumena lehengoratzeko proiektu guztiak.
- b) Ingurumenaren gaineko inpaktuaren ebaluazioa behar ez duten lurzoruaren erabilerak edo eraikuntza-ekintzak gauzatzeko beharrezko proiektu guztiak, horiek Gunearen Babes Gainkategorian gauzatzen direnean.
- c) Trantsizio Gainkategorian gauzatzen diren eta ingurumenaren gaineko inpaktuaren ebaluaziorik behar ez duten lurzoruaren erabilerak edo eraikuntza-ekintzak garatzeko beharrezko proiektuak, proiektu horiek honako xede hauek badituzte:
 - i) Oin berriko Eraikuntza iraunkorretako eraikuntzako esku-hartzeak, horiek Trantsizio Gainkategoriako edozein kalifikaziotan gauzatzen direnean; horietatik salbuetsiko dira Landa Nukleoko Eremuetako Landa Nukleo Zonako bizitza bakarreko edo bi bizitzako eraikinak eta lanabesak eta makineria txikia gordetzeko eta landare-espezieen laborantza eta autokontsumorako instalazioak.
 - ii) Ingurumenaren gaineko ebaluaziorik behar ez duen azpiegituretan gauzatutako edozein eraikuntzako esku-hartze mota.
 - iii) Erabilera-aldaketa eragiten duten eraikuntzako esku-hartzeak.
- d) Gauzatzeko proiekturik behar ez dutelarik, Gunearen Babes Gainkategorian gauzatu nahi diren lurzoruaren erabilerak eta eraikuntza-ekintzak.

5.– Ingurumen arloko organoaren baimena beharko da, derrigorrez, Gune Gainkategoriaren eremuan honako lurzoruaren erabilera eta eraikuntza-ekintza hauek garatu aurretik:

- a) Natura aztertu eta behatzeko instalazio iraunkorretarako eta ez-iraunkorretarako.
- b) Saneamendu-jarduerak gauzatu eta garatzeko instalazioetarako.
- c) Harea edo lohi-buztina dragatu eta isurtzeko.
- d) Ontzi motordunen zirkulaziorako. Mapeko errekarren bokaletik uretan gora.
- e) Mareaz gaindiko eremuetan ekipamendu komunitarioak handitzeko, horiek lezoi, muna edo uraren zirkulazio-sistemari eusteko hormen bidez isolatuta daudenean eta hiri-okupazioa dutenean –N1.3–.

Baimen hori administrazio-ekintza bat da, eta haren bidez, Autonomia Erkidegoko Administrazioak behar bezala egiaztatzen eta zehazten du lehen aipatutako erabilera- eta eraikuntza-ekintzek Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legeak eta Plan honek eskatzen dituzten baldintzak betetzen dituztela.

Jarduketak Patronatuaren txostena behar izan duen kasuetan, baimena ofizioz izapidetuko da eta organo substantiboari igorriko zaio; azken horrek, hala badagokio, kopia bat helaraziko dio sustatzaileari.

6.– 3. eta 4. zenbakietan identifikatutako txostenak derrigorrezkoak eta ez lotesleak izango dira. Dena den, ezin izango da inolako lizentziarik edo baimenik eman Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legeak edo Plan honek ezartzen duenaren kontra.

7.– Hiru hilean behin, Urdaibaiko Biosfera Erreserban sartutako udalerriek lurzoru urbanizaezinean emandako baimenen zerrenda bat igorri beharko diote Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuari. Zerbitzu horrek dagokion udal-lizentzia eman ahal izateko aurkeztutako agiriak eskatu ahal izango dizkie udalerriei.

Edonola ere, Udalek Planaren aplikazioari buruzko kontsultak egin ahal izango dituzte, hirigintzako lizentziak eman aurretik.

5.1.3 artikulua.– Definizioak.

1.– Organo substantiboa: plan honen ondorioetarako, organo substantiboa izango da plan edo programa bat hartzeko edo onartzeko, proiektu edo erabilera-ekintza bat baimentzeko edo hari lizentzia emateko, edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena behar duten proiektuen jardura kontrolatzeko eskumenak dituen administrazio publikoaren organoa.

Kasuan kasuko planak, programak edo proiektuak jorratzen dituen jardueren arloaren gaineko eskumena estatuko administrazio publikoaren, autonomikoaren edo lokalaren zenbait organori dagokienean, organo substantibotzat hartuko da planak, programak edo proiektuak xede duen jardueraren gaineko eskumenak dituen, hark lehentasuna izango baitu jarduera horrekiko instrumentalak edo osagarriak diren jardueren gaineko eskumenak dituztenekiko.

- 2.– Ingurumen-organoa: ingurumenaren gaineko inpaktua ebaluatzeko araudiak hala identifikatzen duena.
- 3.– Publikoa, oro har: dagokien araudiaren arabera eraturako edozein pertsona fisiko edo juridiko, edo pertsona hori kide den elkarteak, erakundeak edo taldeak.
- 4.– Sustatzailea: plan, proiektu edo erabilera bat prestatu eta/edo gauzatu nahi duen edozein pertsona fisiko edo juridiko, publikoa nahiz pribatua.

5.1.4 artikulua.– Plana gauzatzeko proiektuei eta jardueri buruzko txostenak emateko prozedura. Alderdi orokorrak.

- 1.– Plan hau gauzatzean garatzen diren jarduketek, indarrean den legediari jarraikiz, alde aurretik baimena, lizentzia edo jakinarazpena behar badute, organo substantiboak eskuratuko du Patronatuaren Osoko Batzarrak baimenaren aurretik eman beharreko nahitaezko txostena.

Bestalde, indarrean den legediaren arabera, jarduketa horiek ez badute baimenik, lizentziarik edo jakinarazpenik behar, sustatzaileak eskuratu beharko du Patronatuaren Osoko Batzarrak edo zuzendari-kontserbatzaileak eman beharreko nahitaezko txostena.

- 2.– Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Gauzatu nahi den jarduketaren definiziorako beharrezko dokumentazio teknikoa, formatu digitalean:

- i) Legedi aplikagarriaren arabera, eskaera proiektua behar duten eraikuntza-ekintzei buruzkoa bada, dagokion elkargo profesionalak bisatuta aurkeztu beharko da proiektua.

Gainera, eta araudi aplikagarriaren arabera derrigorrezkoa den proiektuko dokumentazioaz gain, Plan honen ondorioetarako, eranskin espezifiko bat jaso beharko da, eta bertan, jarraian zerrendatzen den dokumentazio idatzia eta grafikoa jasoko da:

- Plan honetan ezartzen diren hirigintzako eta ingurumeneko zehaztapenak, kasuan kasuko lurzoruaren erabilerari eta eraikuntza-ekintzari dagozkionak, betetzen direla adierazten duen justifikazioa.
 - Lurzatian garatu beharreko jarduketa guztien definizio grafikoa eta idatzia, baita hura zeharkatzen duten edo bertan kokatzen diren zerbitzuko instalazio guztien trazaduraren definizioa ere.
 - Lurzatiaren gaur egungo nahiz proiektuko zeharkako eta luzerako sekzioak jasotzen dituen dokumentazio grafikoa.
 - Eraikuntzaren historia ezagutzea eta denboran zehar gertatzen diren eraldaketak ezagutzea ahalbidetuko duen eta balio arkitektoniko handieneko elementuak identifikatzea ahalbidetzen duen dokumentazio idatzia, grafikoa eta fotografikoa.
 - Jarduketak garatu nahi diren lurzatiaren eta poligonoaren landa-katastroko ziurtagiria.
 - Hala dagokienean, lurzati hartzailearen dokumentazio grafikoa; bertan, Eraikuntzaren eta muga eta bide publikoen arteko tartekak grafiatuko dira.
 - Erabileraren erregulazioak ezartzen duen beste edozein eskakizun.
- ii) Eskaera proiekturik behar ez duten eraikuntza-ekintzei buruzkoa bada, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskaerarekin batera:
 - Egin beharreko jarduketak jasotzen eta xehatzen dituen aurrekontua.
 - Lurzatiaren eta esku hartuko den Eraikuntzaren argazkiak.
 - Jarduketak garatu nahi diren lurzatiaren eta poligonoaren landa-katastroko ziurtagiria.
 - Erabileraren erregulazioak ezartzen duen beste edozein eskakizun.

- iii) Plan honetan adierazten denaren ondorioetarako, erakuntza-ekintza batek ez du proiekturik beharko honako kasu hauetan:
- Eraikuntza baten kontserbazioko eta apaindurako esku-hartzeetan sartzen diren obrak badira, betiere egitura-elementuei, hala nola, petral, habetzan edo estalkiko gailurrei, eragin gabe.
 - Udal hirigintza-araudiak horrela zehazten duenean.
- 3.– Aurreko artikuluetan aipatutako nahitaezko txostenak emateko, Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuak Patronatuaren Osoko Batzarrari eta zuzendari-kontserbatzaileari aholkatuko die, kasuan kasuko jarduketaren Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearekiko eta Plan honekiko egokitzapenari buruzko txosten baten bidez.
- 4.– Konpontzeko moduko akatsak badaude edo jarduketa behar bezala aztertze beharrezko dokumentazioa falta bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio, hamar eguneko epean, dagozkion akatsak edo gabeziak konpon ahal izan ditzan.
- 5.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren Osoko Batzarraren nahitaezko txostenak eskaria jasotzen denetik bi hilabeteko epean emango dira; Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzailearen txostenak, aldiz, hilabeteko epean emango dira, eskaera jasotzen denetik kontaktzen hasita.
- Ezarritako epea igaro eta nahitaezko txostena eman ez bada, hura aldekoa dela ulertuko da hark indarrean den legediaren edo Plan honen kontrako determinaziorik jasotzen ez badu.
- 6.– Espedienteari buruzko txostena eman ondoren, hura organo substantiboari jakinaraziko zaio, baita jarduketak eragin diezaiekeen beste administrazio guztiei eta, hala badagokio, sustatzaileari ere.
- 7.– Organo substantiboak baimena, lizentzia edo komunikazioa jakinarazi beharko dio Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuari, hura eman eta hilabeteko epean, espedientean artxibatu ahal izan dadin.

5.1.5 artikulua.– Udaldiarekin lotutako jarduketaren berezitasunak.

- 1.– Urtero, ekaina baino lehen, Patronatuak txosten bat igorriko du, ofizioz, aurreko urtean txostena emandako ontzien laketa- eta zirkulazio-erabilerekin nahiz hondartza-denboraldiarekin lotutako instalazioei buruz, hura Kosta Demarkazioari eta eragindako gainerako administrazioei igortzeko helburuarekin. Jakinarazitako jarduera horietakoren bat ez bada gauzatu behar, edo eskatzailea aurreko urteko eskatzailearengandik desberdina bada, txostenak ez du indarrik izango.
- 2.– Jarduketa berriren bat eginez gero, edo aurreko urtean jarduketa garatu zen baldintzak aldatuz gero, organo substantiboak beharrezko txostena eskatu beharko dio Patronatuari.

5.1.6 artikulua.– II Eren mendeko proiektuen berezitasunak.

- 1.– Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudia aplikatuz, aurretiazko kontsulta-fase bat egin behar bada ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorako azterketaren irismena zehazteko, fase horretan Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak proiektuaren ingurumenaren gaineko eragin potentziala jakinaraziko du – espezieei, habitatei eta ondare geologikoari–, baita aplikagarria den araudia ere.
- 2.– Jendaurreko fasean, Patronatuak dagokion txostena igorriko du haren 5/1989 Legearekiko eta Plan honekiko egokitzapenari dagokionez, eta ingurumenarekin, hirigintzarekin eta lurraldearekin lotutako alderdiak jasoko dira bertan.

5.1.7 artikulua.– Planei buruzko txostenak emateko prozedurak. Alderdi orokorrak.

- 1.– Plan hau garatzeko plan bereziek, hiri-antolamenduko plan orokorrek eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ingurune fisikoan eragin dezaketen gainerako plan sektorial edo jarduketa-programek bezala, hasierako onespina jaso ostean, jendaurreko fasean Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren Osoko Batzarraren aldeko pronuntziamendua beharko dute.
- 2.– Organo substantiboak edo Udalak –hasierako onespina Udalek emandako tresnen kasuan– Patronatuaren Osoko Batzarrari zuzendutako txosten-eskaerak igorriko ditu. Eskaera horiekin batera, honako dokumentazio hau igorri beharko da, formatu digitalean:

- a) Gauzatu nahi den plangintzaren definiziorako beharrezko dokumentazio teknikoa, dagokion araudian arautua.
 - b) Tresna Plan honi egokitzeari buruzko atal espezifikoa; bertan, honako hauek jaso beharko dira, gutxienez:
 - i) Plan honetan jasotako helburuak eta zehaztapenak betetzeari buruzko justifikazioa.
 - ii) Lurzoruaren kalifikazioari dagokion dokumentazio grafikoa. Plan honetako kalifikazioak eta, hala badagokio, proposa daitezkeen aldageta-proposamenak jasoko ditu.
- 3.– Patronatuaren Osoko Batzarrak igorritako txostenak behar bezala aztertu eta baloratu beharko du analisiaren xede den tresna Plan honen helburuetara eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legeak ezartzen duenera egokitzen den; horrekin batera, hirigintzako araudia Plan honek tresna gauzateari buruz aurreikusten duenera egokitzen den aztertu beharko du.
- 4.– Aurreko artikuluetan aipatutako nahitaezko txostenak emateko, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak dagozkion aholkuak emango dizkio Patronatuaren Osoko Batzarrari eta zuzendari-kontserbatzaileari, txosten tekniko baten bidez.
- 5.– Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren Osoko Batzarraren nahitaezko txostenak eskaera jasotzen denetik berrogeita bost eguneko epean emango dira. Ezarritako epea igaro eta nahitaezko txostena eman ez bada, hura aldekoa dela ulertuko da hark indarrean den legediaren edo Plan honen kontrako determinaziorik jasotzen ez badu.
- 6.– Konpontzeko moduko akatsak badaude edo proposamena behar bezala aztertze beharrezko dokumentazioaren bat falta bada, eskatzaileari dagokion jakinarazpena egingo zaio, aurreko zenbakian aipatzen den epea amaitu baino lehen, hamabost eguneko epean akats edo gabezia horiek konpondu ahal izan ditzan.
- 7.– Espedienteari buruzko txostena egin ostean, hura organo substantiboari edo Udalari jakinaraziko zaio. Organ substantiboak edo Udalak, dokumentua behin-behineko izaeraz onartu ondoren, txosten bat igorriko dio Patronatuaren Osoko Batzarrari, eta bertan argi eta garbi zehaztuko da proposatzen den plangintzak Osoko Batzarraren txostenean aurretiaz jasotakoarekiko duen egokitzapen-maila.
- 8.– Tresnari buruzko txostena Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eman behar duenean, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak behar bezala egiaztatu beharko du tresnako proposamena Patronatuaren Osoko Batzarraren txostenera egokitzen den, eta hasierako onespina jaso duen dokumentuarekiko aldatu diren eta Plan honetako helburuekin edo gauzatzeko zehaztapenekin bat ez datozen ingurumen- eta hirigintza-alderdiak aipatuko ditu.
- 9.– Organ substantiboak edo Udalak behin betiko onespina jakinarazi beharko dio Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuari, eta, onartzen denetik hilabete bateko epean, formatu digitaleko eta paperezko kopia bat bidali beharko dio, espedientearen artxibatze helburuarekin.

5.1.8 artikulua.– II Eren mendeko planen berezitasunak.

- 1.– Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudia aplikatuz aurretiazko kontsulta-fase bat egin behar bada ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazteko, fase horretan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak txostena emango du proiektuaren ingurumenaren gaineko eragin potentzialari eta aplikagarria den araudiari buruz.
- 2.– Jendaurreko fasean, Patronatuak dagokion txostena igorriko du haren 5/1989 Legearekiko eta Plan honekiko egokitzapenari dagokionez, eta ingurumenarekin, hirigintzarekin eta lurraldearekin lotutako alderdiak jasoko dira bertan.

5.1.9 artikulua.– Kontsulta-araubidea.

- 1.– Administrazio publikoek eta publikoak, oro har, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzura jo ahal izango dute, Plan honen interpretazioarekin lotutako hirigintza- edo ingurumen-kontsultak egiteko:
 - a) Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinen eremuko lurzatietan gauza daitezkeen jarduketak zein diren jakiteko.
 - b) Esku-hartze jakin batean Planak izan dezakeen aplikazioari buruzko kontsulta egiteko.
 - c) Plan honek arautzen duen beste edozein kontutarako.
- 2.– Gehienez ere hiru hilabeteko epean, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzaileak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak prestatutako txosten teknikoaren kopia igorriko du; txosten hori egiteko unean, egindako kontsultaren kasuan aplikagarriak diren araei buruzko irizpide teknikoak jarraituko dira. Txostenak izaera informatzailea izango du, eta ez du, inola ere, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuaren Osoko Batzarraren edo zuzendari-kontserbatzailearen nahitaezko txostena ordezkatu Plan hau aplikatuz beharrezkoa den kasuetan, betiere Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean 18.3 artikuluari eta/edo Plan honetan zehaztutakoari jarraikiz.

5.1.10 artikulua.– Ingurumenaren zaintza.

- 1.– Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen esparruan, beharrezko ikuskaritza- eta zaintza-lanak egingo ditu Plan honen helburuak betetzen direla bermatzeko, betiere beste erakunde eta administrazio batzuek beren eskumenen esparruan gauzatzen dituzten ikuskaritza-jarduketari kalterik egin gabe. Eskumena duten administrazioek eta erakundeek informazioan, lankidetzan, koordinazioan eta errespetuan oinarrituz egokituko dituzte elkarrekiko harremanak.
- 2.– Patronatuari behar bezala jakinarazi beharko zaizkio, aurreko lerrokadan adierazitakoari jarraikiz, administrazioek gauzatzen dituzten ikuskaritza-jarduketak, baita abian jarritako eta ebatzitako zigor-espeditenteak ere. Horretarako, administrazio horietako bakoitzak gauzatutako jarduketak jakinaraziko ditu, idatziz, hiru hilean behin.
- 3.– Lantaldeak sortuko dira Urdaibaiko Biosfera Erreserban eskumenak dituzten administrazioekin, hala, ingurumenaren zaintzarekin lotutako eta Plan hau betetzeko lankidetzan eraginkor egiteko beharrezko erremintak gara daitezen, hala nola, jarduketa-protokoloak, oihanzaingo-prestakuntza eta informazio-trukaketa behar bezala gara daitezen. (...)

2. KAPITULUA**PLANA GARATZEKO TRESNAK****5.2.1 artikulua.– Plana garatzeko tresnak.**

- 1.– Plan honek plana garatzeko bi tresna-multzo jasotzen ditu:
 - a) Urteko Kudeaketa Plan Integratua.
 - b) Plan Bereziak.

5.2.2 artikulua.– Urteko Kudeaketa Plan Integratua.

- 1.– Plan honetako I. tituluari jasotako edukiak zuzenean lortzea ahalbidetuko duten tresna da.
- 2.– Urtero, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren Osoko Batzarrak Urteko Kudeaketa Plan Integral bat onartuko du.
- 3.– Plangintza hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzura bidaliko du administrazio bakoitzak, Biosfera Erreserbaren eremuan dituen eskumenetan oinarrituz, eta aurreko urteko azaroaren 1a baino lehen. Informazioa jaso ondoren, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak Urteko Kudeaketa Plan Integratua prestatuko du; gero, hura Patronatuaren Osoko Batzarrari aurkeztuko zaio, aurreko urteko azkeneko osoko batzarrean.

- 4.– Plana prestatzeko orduan behar bezala hartu beharko dira kontuan Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legearen 16. artikulua betez garatutako Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitarauko (JSEGE) helburuak, baita hura garatzen duten plan sektorialak eta bertan aurreikusten diren jarduketa-ildoak ere.

5.2.3 artikulua.– Plan Bereziak.

- 1.– Plan bereziek Plan honetako helburuak lortzea ahalbidetuko dute, Plana gauzatzeko aurreikusitako zehaztapenak garatzen dituen hirigintza eta ingurumen arloko erregulazio xehatuaren bidez.
- 2.– Plan bereziak behar bezala egokituak zaizkio antolamendu xehatuko mota horretako tresnei dagokienez lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak edo haren ordezkio arauak aurreikusten duenari.
- 3.– Ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko araudiak hala eskatzen duenean, plan bereziek hura betetzeko beharrezko dokumentazioa izan beharko dute.
- 4.– Plan hau garatzeko orduan, honako hauetarako plan bereziak aurreikusten dira, gutxienez:

- a) Aisia- eta jolas-erabilerak ezartzeko beharrezko zehaztapenak xehatzeko, hala behar denean, Plan honek arautzen duenari jarraikiz. Horiek behin betikoz onartzean berriz kalifikatuko dira Plan Bereziaren Sistema Eremu, Erkidegoko Ekipamenduetako Zona –T4.ECR– gisa barneratzen diren lurzoruak.
- b) Oin berriko azpiegiturak ezartzeko edo azpiegiturak handitzeko beharrezko zehaztapenak xehatzeko, Plan honek erregulatzen dituen baldintzetan. Horien behin betiko onartzean, Plan Bereziaren jasotako lurzoruak Sistemen Eremuko Zerbitzu Azpiegiturarako Zona –T4.IS– gisa birkalifikatuko dira.

Plan berezi horiek, hirigintza eta ingurumenaren arloko legediak berariaz jasotzen duenaz gain, eta Plan honek ezartzen duen erabileraren erregulazio espezifikoan ezartzen denaz gain, honako hauek jaso beharko dituzte:

- i) Dokumentu espezifiko bat, paisaiari eragindako ondorioei eta azpiegitura ezartzeko erregulazioari buruzkoa. Dokumentu horrek honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:
- Azpiegituraren exekuzioak eragiten dituen elementuen analisia, baita azpiegitura ikusgai egongo den begi-lerroena ere.
 - Azpiegitura paisaian kokatzeko proposamena, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztuko dituena:
 - Inguruan egin beharreko landareztatzea, baita paisaiako kromatismoekin lotutako azterketa eta justifikazioa ere.
 - Erabiliko diren hiri-altzariak, hesiak, argiak edo babes-hesiek, eta horien egokitzapena, zuraren gisako materialak erabiliz.
 - Azpiegituraren diseinua bera. Horretarako, erabilitako erreferentzien eta egingo diren industria-balio estetiko altuko elementuetarako proposamenaren azterketa bat aurkeztuko da.

Plan honek Urdaibaiko Biosfera Erreserbako eremu osoko saneamendua antolatu eta erregulatzeko Plan berezi onartu bat du. Era berean, Plan honek Plan Berezi bat onartzea aurreikusten du Urdaibaiko Biosfera Erreserbako eremu osoko ur-zuzkidurari ekiteko.

- c) Zuzkidura- eta ekipamendu-eraikuntzak ezartzeko beharrezko zehaztapenak xehatzea, Plan honek erregulatzen dituen baldintzetan. Horiek behin betikoz onartzean berriz kalifikatuko dira Plan Bereziaren Sistema Eremu, Erkidegoko Ekipamenduetako Zona –T4.ECR– gisa barneratzen diren lurzoruak.
- d) Aparteko kasuetan, hotel gisa erabiltzeko Eraikuntzak ezartzeko edo kanpin-erabilera prestatzeko beharrezko zehaztapenak xehatzea, Plan honek erabilera horiek biak erregulatzen dituen baldintzetan.

Kanpinaren kasuan, behin betiko onespina jasotzea, Plan Bereziaren jasotako lurzoruak Sistemen Eremuko Ekipamendu Komunitarioko Zona –T4.ERC– gisa birkalifikatuko dira.

- e) Landa Gunearen Zonak –T3.NR– garatzea ahalbidetuko duen erregulazioa zehazteko beharrezko zehaztapenak xehakatzea.

Plan Berezi horietan, legez eska daitekeen dokumentazioaz gain, lehendik dauden Eraikinak hartzeko lurzati kokapena, etxebizitza-eraikin berriak hartzeko moduko lurzati kokapena, Landa Gunearen perimetroaren mugaketa eta 3.5.3.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera eraikin berri guztietan, modu berean, aplikagarria den itxitura-tipologiaren araudia jaso beharko dira. Gainera, zehaztapen horiek guztiak udal-plangintza orokorrerako tresnaren bidez zehaztu ahal izango dira.

Hurrengo araudia ezartzen da, eta hura Landa Guneak garatzeko idatzi behar diren Plan Berezi guztietan bete beharko da:

- i) Eraikin berriek bizitegi-kokapen nuklearra osatzen duten eraikinak barne hartzen dituen esparru publikoaren erdialdera mantendu beharko duten gehieneko tartea ezarri beharko da.
- ii) Lurzati hartzaileek 5 metroko tartea mantendu beharko dituzte, gutxienez, bide publikotik.
- iii) Lurzatiaren gutxienerako azalera finkatuko da.
- iv) Bizitegi-eraikin berrien kasuan, okupaziorako gutxienerako azalera finkatuko da, landa-gunean dauden bizitegi-eraikinetako batez bestekora egokitzeko.
- v) Bizitza bakarreko etxebizitzaren kasuan, lurzati hartzailearen barnean eraikitako azalera ez da 400 m² baino handiagoa izango, eta bi bizitzako etxebizitzaren kasuan, berriz, 600 m² baino handiagoa izango.
- vi) Eraikinetik mugetara eta udal-titulartasun publikoko errepidera 5 metroko tartea egongo da gutxienez.